

HERRI BATEN DEIHADARRA



ALBERTO SCHOMMER

Testu: MARTIN DE UGALDE

EL GRITO DE UN PUEBLO

HERRI BATEN DEIHADARRA

EL GRITO DE UN PUEBLO

I

Martín de Ugalde

Ediciones Vascas
Marzo 1978

Gipuzkoa

Gipuzkoa herri tiki bat zen Pomponio Melak, Kristau Haroko lehen urteetako geografoak hau zioenean: "Kantabria eta Vardulia, Espainiako ertzean, Frantzia jotzen dagoen alderdian, *probintzia apartekoak bezala*,¹ batzuk Errioxa Nafarroa zati batekin, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiatzat jo dituztenak".²

Apartekoa izate hau eta herrialde honek, Errioxa garai hartan barru zela, herri bat egite hau ez da, beraz, XIXgarren mendeko abertzaleen, Sabino Aranaren, ez gaurkoen asmakizuna.

Eta Gipuzkoak gaur ere orduan bezain tiki dirau.

Aintzinakoa dela, hori gauza jakina da: zertarako gehiago ekin. Ez gara orain hasiko gero, Iztueta baino honantzago, bueltaka etorri diren ipuinak errepikatzen, denak elkarri kopiatuz garaiko aurreirtzien eta bakoitzaren fantasiaren arabera, euskaldunok Tubalengandik (Jafeten, Noe Patriarkaren ilobaren bosgarren semearengandik) gatzela eta horrelakoak, uholde orokorraren ondoren hona etorri zena, hain, zuzen mundua sortu eta 1799 urtetara, uholdetik 143 tara, Babelgo zeretik 12 tara eta Jesus Belenen jaio baino 2157 aurrerago. Zehaztasun engainagarri honekin esaniko ipuinez, hobeagoen faltaz, hamaika mende joan zaizkigu.

Eta zer ez du ematen alokairu truke idazten dutenen oroimen jarraitzaile eta morroikoia? Bada oraindik egutegi horretan geratu zenik; euskaldunen historiako ipuinaren originala bera baino glosa ilunagoz eta uherragoz ari zaigu, eta hispanoerromatar geografoek Pliniok eta Ptolomeok dioskuten Vasconia osatzen zuten tribu handien garai ilunean lekutzen duteneko argazki ezkutua ateratzen du.

Tribu hauek nolana ere, orduan, eta gero, Vasconia zeritzana integratzera jo zuten.

Vasconiak badu Dukea VIIgarren mendean, iparreak frankoen eta hegoan arabiarren kontra ari da, eta Akitanian zehar hedatzen; IXgarren mendean Panplonakoa zeritzan eta gero Nafarroakoa deritzan Erresumaren hazia da. Vasconia honek, gaur Villasantek dioen bezala, Hispania, Britannia eta Sardiniaren zentzu bera dauka.

Nazio bat dugu.

Eta hemen, Euskal zeraren, Baskoien, lehen gorputz politiko formal honetan, Vasconian, Gipuzkoa han dago bere izen eta guzti.

Lehenengotan ez da guztiz honela idatzirik ageri, Ipuzkoa baizik: Nafarroako Santxo IIIk 1025n emaniko San Salvador Olazabalgo donazio eskrituran, eta haren seme Santxo IVk 1066n eginiko donazio batetan.

Baina Gipuzkoaren berezitasunari heldu aurretik, zehaz dezagun gehitxoago Probintzia hau lekukurik dagoen euskal ingurua (ikusten dugunez, 1000garren urteaz

¹ Azpimarratua gurea.

² *Compendio historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. Don Lope de Isastik egina 1625ean. Ignacio Ramon Barojak Donostian inprimatua, 1850ean.

aurreko Probintzia noski, eta ez lurralde baten ondorioa). Inguru hori gabe gaurko izatera ekarri duten gauza asko zentzugabeak lirateke.

Zeren Gipuzkoa Vaskonia baita batez ere.

Kulturaz, eta beraz bere sustrai politikorik sakonenean, besteek Vaskonia esaten zigutena Euskal Herria da. Pellokeria bada ere, ekin beharra dugu gauza bat dela kanpotik nola deitzen gaituzten, eta beste bat nola guk, barrutik barrura, konturatu gabe, geure burua definitzen dugun. Eta barrutik, gure gorputz politikoaren baitan, euskaldunok geure buruak kultur kontzeptu batez izendatzen ditugu: *euskaldunak*, euskaraz egiten dutenak eta gure herriari *Euskal Herria* deitu diogu, euskaraz egiten duen Herria.

Argi dago, bada, hizkuntza dela euskaldunok zer garen egin gaituena: edo alderantziz, biak baitira egiak.

Biek elkar egin baitute.

Hemendik gure nazionalitatearen kontzientzia euskararen jabetasun biziaren neurri direktoan egotea; eta Gaztelako Erreinuan eta gero espainiar Estatu modernoan txandatu diren erregimen guztiek, eta tankera eta maila ezberdinez, horrexegatik eduki dute jokaera genozida berbera Estatu hura osatzen duten herriek egiten dituzten hizkuntzen kontra.

Horien artean, Baskonia, Euskal Herria, Euskadi.

Baina ez diogu honi gehiago ekingo.

Euskaldunen hizkuntza, zaurturik baina oraindik bizirik eta kultura unibertsalaren eguteraan leku bat eskatuz. nondik eta nola eta zergatik gaur dagoen tokiraino heldu den jakin nahi duenak, hor dauka Euskal Hizkuntzaren Erret Akademiak, Euskaltzaindiak, argitara berri duen *Euskararen Liburu Zuria*. Hemen, nahita ez esan beharrekoa zera da, alegia, Gipuzkoa ez dagoela bere historian ez bere kulturaren Baskonia zahar hau gabe ulertzerik. Nafarroako Erresumatik zehar destino politiko berria jotzen ari den Baskonia gabe, esanahi berdinekoa baina esaera modernokoa: Euskadi.

Bada, hementxe, Bidasoaz hango eta hemengo sei herrialdeak (Ultrabortuetako seigarren Merinaldea Nafarroan sarturik) konfederalki biltzeko gogoia duen Euskadi honetantxe dago Gipuzkoa.

Eta, familia batetako senide bakoitzak bere historia apartekoa duen bezala, Gipuzkoak ere berea dauka.

Hau ez dela Gipuzkoako historia formala izango esanik badago ere, bai nahi dut askok oraindik ulertzen ez duten zerbait hasieratik argi utzi: zergatik Gipuzkoa Gaztelako Erreinuratu zen, eta zer esanahi politiko daukan horrek.

Honetaz asko mintzatu dira jabetasunez.

Baina *Laburpenean*³ adierazirik utzi nuen zer hutsa egiten den sarritan hitz batzuri beren garaian ez zeukaten interpretazioa eman. "Gaztelatzeak" ez zuen 1200n "bilkuntza" edo "fusioa" esan nahi. "Gaztelak" ere ez zuen Monarkia esan nahi, Gaztelako Erregea baizik, eta Erregea ere, Manuel Lekuonak dioen bezala, Buruzagi Militar eta Apelazioko Goren Epaikari gisa bakarrik; Gerra Ministro edo Grazi eta Justizi Ministro antzeko bat. Denboraz, Errege hitza zerbait zabalago eta exekutiboago bilakatuz etorri

³ *Síntesis de la Historia del País Vasco*. Orain laugarren argitalpenean: Ediciones Vascas, Donostia, 1977.

da; baina iraganiko gertaeretz gaur dagokien semantikaz mintzo denak ikuspegi historikozko huts handia egiten du.

Batzutan maltzurkeria osoz, jakina.

Gipuzkoa beraz bilkuntza pertsonal baten bidez Gaztelako "Erreinuratu" zen eta bilkuntza pertsonalak zer ziren argi dago: *Zenbait estaturi komuna zitzaien Gerrako Ministro gisako baten* kargua zeukan pertsonarekin hitzemaniko zera zen bakarrik.

Hori ez du Lekuonak bakarrik esaten. Gaztelar batek ere hala dio, Anselmo Carretero Jimenezek.

"Komunitateek, beraz, Errepublika autonomo baten baldintza guztiak zeuzkaten, nahiz eta Gaztelako Erreinuari erantsirik: eta garai hartako zirkuntstantzietan (1212) gaur Europan Errepublika Federala eta Amerikan Estatu Batuak deritzaten errepublika edo estatu federatuen antzekoak ziren..." "Gaztelako koroarekin biltzea askoz geroago egin zen. Tankera federaleko bilkuntza, Erregearen bitartez, bilkuntza baketsua eta libreki onartua, zeinen bidez euskal errepublikak Gaztelako Koroari eransten baitzitzaizkion, Foruak errespetatzeko baldintza funtsezkoz; monarkia federakorrezko itun benetakoa, Gaztelako Errege guztiek, zin foralez baitetsi beharrekoa".

Gaur hain zuzen letra honetara eta *batez ere honen izpiritura* itzuli beharreko unean gaude.

Mendeetan zehar, eta engainuz eta legez kontra (gaur juristek egizta dezaketenez) 1839ko mozketararte, Bidasoaz hemengo lau euskal eskualdeek Gobernamentu Forala zeuzkaten, eta hau ez da Herriaren soberaniaren adierazpena besterik, Herriari zegokiola bere legeak bere buruari emateko eskubidea.

Manuel Lekuonak oraintsuko kazeta lan batetan⁴ Gipuzkoako Diputazioan eginiko Foruaren ikaslari batzuren arteko bilera batetako (1976) ohar batzu ematen ditu. Jose Maria Araluze lehendakari zela, euskal nazionalistatzat nekez jotzekoa noski; 1) Gipuzkoako Forua Gipuzkoa bera bezain zaharra da (eta ez dauka datarik) bere prehistoriatik honantz egin duen bizitza juridikoa baita; bere ohiturazko zuzenbide oroitezina da; 2) Araluzek esan zuen: "Historia idatzia Legearen letraren gaintetik dago"; 3) beste gauza bat dira gero egin diren bilketak; Zandategi Lizentziatuak XVI. mendean, Felipe Agirrek XVIII.n eta 1919n eginiko azken argitarapena; 4) "Batzarre Generalak -dio Araluzek- obeditzen baina betetzen ez den zer harekin, soberanoak edo ia soberanoak ziren"; Araluzek Piriniopeko lau eskualdeen batasuna nabarmendu zuen Estatuto politikozko bokazio geroko baten osatzaile gisa. Estatuto hori jaiotzen dela dio Lekuonak "lokarri hauekin: kultura, odola, geografia, Foruak berreskuratzeko gerretan adieraziriko borondatea, folklorea, literatura ahozkoa eta idatzia, dantzak, kantak. Baita ohiturazko Zuzenbidez ere, batez ere Zuzenbide pribatua, baina baita Publikoa ere". "Zuzenbide Publikoko hainbat erakunde berdinak dira Zuberoako ertzetik Bizkaiko beste ertzera".

Gure egunotan, eta duela urtebeteko Diputazioa bezalako inguruetan izan diren ohiartzunak aipatu ditut. Diputazio horretan ez zegoen nazionalista arrastorik Foruak interpretatzeko eta gure herria, eta Gipuzkoa ere bai, nola ez, hoiexen alde ari da hamaika kalamitate ikusirik, bere Askatasuna baitira.

⁴ Foruak dirala-ta itz gogoangarri batzuek, Deia, 1977-6-10.

Betiko justizian zurkaiztaturik bizi den gure herriaren gogo da; eta kendu digutenek berek ere aitortu beharra diguten zuzenbidea da.

Horixe da aipamen honekin eman nahi izan dudana lekukotasuna.

Hala ere, ez goaz hemen Gipuzkoako historia formalik idaztera.

Alde batetik, badira honelako historia hezurduak, lantzean plastikozko hezurren batekin herrien bizkarhezurra agintzen duenaren gogora makur erazteko, eta hoietan asko idatzi da Gipuzkoari buruz. Oraindik, ordea, asko eta asko gehiago idazteko dago euskaldunei buruz beren ikuspegi propioetik hitz egiteko, eta ez txandako koroadunaren ikuspegitik gure herriari hainbeste kostatu zaizkion titulu eta eskuzabaltasunen ordainez. Baina liburu hau ez da printzeek engainaturik eta zoriontsu lo egin dezaten ipuinak kondatzekoa. Ez da hau ene Probintziaz kondatu nahi dudana historia. Eta ez dut berririk ere asmatu nahi. Nahi dudana bakarra, eta horretan saiatuko naiz, beren gisa ikusi duten, entzun duten eta sentitzen dutena esanez joan diren gipuzkoarren lekukotasun bizi batzu eman.

Garai bakoitzean bizirik biltzen dutena bakarrik geratuko da.

Eta hau gure aldiko lekuko batek, Alberto Schommer-ek hain argazki hizkuntza bikainez ikusi eta idatzi duenaren atari gisa.

Hauxe da liburu honen helburu bakarra.

Natura eta kultura

Gipuzkoa Euskadin, bere gorputz politiko berezkoan, lekutzeko sarrera labur labur horren ondoren, zera planteatu nahi dut, alegia, nola begiratuko eta, beraz, nola ikusiko dudan Probintzia.

Bide posible asko daude, eta bat hautatu behar.

Hasierako aukera bakar honi buruz, alderdi bikoitza ezartzen diot: 1) Gipuzkoaren ezagutza nondik bilatu eta 2) irakurlearen arretarako nola aurkeztu.

LEHENENGO zatiari buruz:

Gipuzkoa zer den denboran zehar, hiru mendetan gutienez, mailaka datozen gipuzkoarren bitartez ezagutzera jo dut. Gipuzkoa ez da egun batean, ez zazpitan egin eta autore hauetatik nolabait beren esperientziaren berri direktoa eman ahal didatenak hautatzen ditut, haien lanetik Gure Herrian zer gertatu den datoak, sarritan maltzurtuak eta beste sarritan nahi gabe okertuak, pilatuz eta kopiatuz heldu zaien erudizioko materialak bazterturik. Berrero ere elkar edukitzen duten kutxa txino gero eta tikiago hoi betiko problemaren aurrez aurkitzen naiz, eta orain aukera bati heltzekotan, hau hautatzen ditut: Martinez Isasti (XVII), Larramendi (XVIII), eta euskaraz gai ez erligiosoetat idazten duen lehen sekularra: Iztueta (XIX); hirurak elkarrengandik ehunen bat urteren distantziara.

XXgarren mendeak niretzat izen derrigorrezko bat du: Albert Schommer.

Beraz, gure herriko bertsolari baten antzera ari behar dut.

Izen derrigorrezkoa Schommer da zeren liburu hau gure garaiko haren testigu lanaren lagungarritzat asmatu baitzen, gure mendeko hizkuntzaz emaniko lana: kolorezko argazkia. Rimarik lortzen dudana ala ez, hori nire erantzukizun hutsa da, hark bere lana harrigarriro egin baitzuen. Irakurleak aurkitzen dituen ripioak, beraz, denak dira nireak.

Hemen, gipuzkoarren antezedente lekukogariak bilatze honetan, ni teoria honen aldekoa naiz, alegia, herrikoa bertakoa denak eta hura maite duenak, berea balu bezala maite duenak bakarrik ahal duela benetan herri baten gorputz arimak diren haietara hurbildu. Maitasuna itsugarri gerta liteke, bai noski; baina maitasunik gabe ez dago ezagutza sakonik eta beraz baliozkorik, eta ez dago hura gogo osoz defendatzerik ere. Halaber esaten da maitagaiaren ezagutzaz ere, inork ez baitu ezagutzen ez duenik maite.

Maitatu ezagutzeko, ezagutu maitatzeko.

Hemen, gure ikaskizuna geure lurra eta herria da. Badakigu zer zaila den norbere gauzak zuzen adieraztea, eta hau bereziki zaila da norbere herriaren gorputz arimak ikertzera jartzen denean. Gauza guti baitaude gizonari grina gehiagor era iten diotenak bere lurra eta bere herria baino, hau da, *bere* Aberria. Gizona ez da bizia eman diotenei edo bizikide ditueni eta maite ditueni bakarrik loturik jaiotzen. Badu jaiotzan beste loturarik ere: hizkuntza, ohitura, bere kultur inguru guztia, eta hori zilheste materigabea bezala zaio, arrazonatzen, neurtzen eta adierazten oso zaila. Gizonak marka ezabaezin hau darama, alegia, bereak dituela mendi batzu, itsasoa, hizkuntza bat, jaiotzean hurbil

aurkitu eta sentitu zituen izakiak, hazi eta hezi zutenak, gero elkar lanaren fruituak edo batzutan fruitu gabeko minak partekatu zituenak.

Harrigarria da nola bakoitzak gogoratzen dugun zeru bat, etxe bat, sukalde bat, eskilara bat, umetan zopak jaten genituen katilua, neskatila baten begietako kolorea, hauzoko baten jeinua, Iagunen izenak, herritik pasatu zen ijitua oraindik gureak ez genituen baina ekarri zizkiguten eta kontzientki menderatu behar izan ditugun aurreritziakin bildurra sartuz, lehenengo lana, eskolako belarrondokoak, haik ematen zizkigun maisua edo maistra, zer ikasi genuen, beharbada orduan ikasi ahal izan genuen eta atzematen jakin et genuenaren pena, gure etxeko edo hauzoko txakurra, izeba hil zen eguna ona edo gaiztoa zelako bakoitzaren suertearen arabera, argazkitik ezagutu genuen aitona bizartsua, kanpai sutea hori ezagutzeko bezain zaharra denarentzat, ekonomikoa gazteago bada, gasezkoa edo elektrikoa oraindik gaztetxo bada; hil zitzaigun katu beltza, izebak balkoian zeukan zozoa, txori habiak, oraindik arraultzeetan zeudela maleziarik gabe, ikusgura hutsez, hil genituen txoritxoak, haur baten zain zegoen hauzoko andrea. Betiko geurea dugun mundu guzti hori, utzi nahi ez duguna eta nahita ere utzi ezin duguna, sentitzea, gozatzea eta pairatzea gertatu zaigun bizitza laburrerako geure geurea duguna.

Mundu tiki eta era batera nahasi hori geurea dugu betiko.

Sarritan esaten da Aberri batzu handiak eta beste batzu tikiak direla. Nik neure buruarekin zintzoa izan beharra daukat eta esan behar dut gogoratzen naizen aberri tikia gero sentituz joan naizen handiaren zati osoa dela, gure nahimenari dagokion sen politikoz, norberak aurkitu dituen edo haztean erein dituen haziak lora eta babes daitezkeen sena. Eta era batera kimu berri bat bezala eta kontzientzian beste bat neuretu zait, ez bigarren Aberria, hori baizik, *beste* Aberri bat, Venezuela, hau ere bere lur eta jendeetan maite dudana. Hemen jaio ziren gure seme alabak, hiltzen ari dira gure zaharrak. Bi maila desberdin izaten dira, bai noski, baina biak funtsezkoak.

Gainerakoa, gure inguruko mundua, zenbait hurbiltasun eta urruntasunez, batzu arbitrarioak, beste batzu derrigorrekoak, mundu hori, diot, zabala eta anizkuna, batzuetan aberatsa, lotzailea, bakoitzaren eta norbere seme alaben lehen inpresioetatik desberdin da guregan. Areago daude gure oroimenean eta kontzientzian eta adimenean, era arrazionalagoz, gutiago barneratuz.

Bi inguru desberdin dira; ez hurbil-urrunez bakarrik, baizik sakonez ere.

Gizona mila urtetan biziko balitz, beharbada lehen gomuta funtsezkoak ezabatzen astia luke norbere hautamenean eta arreta arrazionalan gehiago dauden besteekin. Baina Matusalenez gero, guti izan dira ehun eta hogeitatu urtetatik pasatu direnak, eta gizona ia bere posibilitateen oskolean gelditzen da. Beharbada hobe honela. Baina katuak zer pentsatzen duen inork ez dakien bezala, ez baita inoiz katua izan, ez dago gizona mila urtetan biziz gero zer izango litzatekeen asmatzerik.

Gaurko gizonak zer sentitzen dugun adierazteaz konforme gara.

Eta gainera esan dezagun denok desberdin pentsatzen dugula.

Baina nik, ene herri zati baten, Gipuzkoaren historia honi nagokiola, ibiltzeko eta ikusteko bide bat hartu behar dut.

Hautaera bat da.

Eta hautaera hau Gipuzkoa nolakoa den ikusiz joan diren ene herriko beste gizon batzuren bideetatik doa. Kondatzaile bakoitzaren esperientzia nolakoa den, jakina. Ez dira izan ere asko. Oso guti baitira idazten duten euskaldunak. Eta idatzi duten guti hauetatik guti batzu hautatzen ditut, beren historia Gaztelako erregeen idazmutilek, haien aginduz eta haien kontura, eta jainkoak badaki haien zerbitzurako, idatziriko dokumentuetan oinarriturik idatzi beharrean, beren garaiko kazetari antzera ikusten zutena kondatuz idatzi zutenak, bakoitzaren aurreritzi, kultura, tankera eta gustoen arabera gaitzetsiz edo onetsiz.

Nik, beste kazetari bat, eta beste garaiko batekoa naizela, ibilaldi hau haiekin batera egin nahi dut.

Ez ene jakinahia, eta irakurlearena, asetzeko bakarrik, gure egunotako beste lekuko baten aurrez jartzeko baizik.

Hemen, liburu honetan ni baino argiago eta autoritate gehiagoz mintzo dena Alberto Schommer da. Schommerrek badaki ez dela hitzekin bakarrik hitz egiten. Gauzak esateko erak daude, mila era. Isilik ere hitz egin liteke. Ez baita egia isilik dagoenak amore ematen duela. Berrogei urte lazgarritako isiltasuna jasan dugu, eta kazetariok edo idazleok edo gauzak adierazteko hainbeste paletaren artistok badakigu gure isiltasun ikaragarriek, izugarriek ez diotela diktakoreari ezer eman. Honela izan balitz, osasun ederra eta arima lasaia genuke, baina gehientsuok landu duguna ez da humorea eta eskerrona izan, ultzerak eta nerbio apurtuak baizik. Gizon asko dabilta hor zehar kunetetatik, "paseoetatik" salbatuak, arimako minez hospitalean hiltzeko, eta beste batzu oraindik bizi direnak, baina ia ez dira berak, kapeluz, sablez, mozalez, askotariko torturaz, bildurrez, pinuzko hirugarrez txertaturik baitaude, eta jadanik ez dira izatea pentsatu zuten gizonaren itzalik ere.

Hemen ere, nonahi bezala, batzuk beste batzuk baino gorriagoak ikusi dituzte.

Ez dut esango mindun hauk artistak direla. Bidegabea litzateke. Azken judizioan errudun eta lotsaturik sentituko nintzateke gure aitonak eta gure aita bezalako harotzen aurrean, orain irribarrez: "ez zara gutaz ahaztuko, ez?" esanez gogora datozkidanen aurrean. Harotz bezala, berunkari bezala, funditzaile bezala, irule bezala, zarrailu handiko pintore bezala, estanpatzaile bezala, mekaniko bezala, tornulari edo zorrotzaile bezala, nekazari bezala, artzain bezala, lantegiko gauzain bezala, izan duten artista zurik inori kendu gabe, ofizio hauetariko batzu bete dituzten gizonak, edo ofizio askodun artistek, ez guti izan direnek, gauzak ondo egiteko ofizioan izan duten sen artistikoari ezer kendu gabe, inori ezer kendu gabe, direnak diren sentimen eta artebideen bidez bizitza adieraztera emanik dagoena –eta hemen Alberto Schommer eta bere argazkia aipatu behar berriro ere–, bakoitzak jaiotzaz dakarren sentimen hori gehien gastatzen duena delakoan nago.

Batzuk sentimen hori ondo gorderik daukate; zenbaitek kaxa sendoan ere bai.

Batzutan norbere dirua, baina beste batzutan besteen diru tentela eta hala ere milioitsu eta despota sentitzen dira eta artista dirugabeak mota honek ezer balioko ez balu bezala tratatzen dituzte gizalege hutsez zor dielarik.

Baina egia nola edo hala bilatzeko izpiritu horretatik bizi den gizona gizon sufritua eta batez ere sufriztailea da.

Schommer gizon galanta, desgarbatua da, begietan argia eta eskuetan bihotza. Ez dago aurrean ikustea besterik. Artista bat da. Gure garaiko artista honek, bada, bere euskal hura, orain Gipuzkoa tokatu zaio, bankari bat baino gehiago ikaratzeko moduko zolitasunez eta talentuz ikusi du.

Eta ez naiz entzutez edo urrutiko oroimenez ari.

Besteen diruen merkataria bildur erazi duen zer hori hementxe dago Schommer mintzo den hizkeran. Nik, kidetasunez, kontzientzia kaxan gordetzen duten bankariena baino artisten eta artisauen lagunago naizen honek pozik hartu nuen argazkiaren, liburu honetako idazki nagusiaren, solfa funtsezko horri letra jartzeko eskaini zidaten asmoa. Batzutan kanta baten letrak musikak berak baino gehiago balio du; oraingoan, beste askotan bezala, Gipuzkoaren, Euskadi zatiaren kanta honen musika harrigarria da testigu hitz batzuren laguntza eskatu duena.

Eta hemen nago ahal dudarik ondoen egiteko.

Esanik dudarik bezala, ez dut Gipuzkoako historiarik egin nahi. Soldatapeko izkribauak, idazten zekiten bakarrek eta gure Herriak zorionez izan dituen hainbat gizonak zer uste zuten eta nola bizi ziren galdatu gabe idazten zutenek, badakigu beren kronikak nola idatzi zituzten. Ni ez naiz hoi bide arruntetatik abiatuko. Eta, izatea gertatu zaidan garai honetako kazetariaren hari beretik, titulu gabeko beste kazetari batzuren lekukotasun biziak bakarrik idatzi nahi ditut. Haiek ez zekiten ondorengoentzat idazten ari zirenik, eta hauen artean niretzat eta zuretzat, lekukotasun hauen irakurle horrentzat.

Nire iturriei egitea gogoratzen zaidan omenaldirik onena.

Eta nire BIGARREN aukerari nagokiola:

Hasteko (eta nolabait lan zail honi heltzeko, alegia, beti zerbait bizia den zirkunstantzia mugikorretan Gipuzkoa deskribatu behar) bi zati egin nahi ditut hemen: *natura* eta *kultura*.

Natura gizonak Norbaitek eginda aurkitu duena da; nik Jainkoa deritzat, baina bakoitzak nahi duen izena eman biezaio eta egon segur ez garela gure jatorrietatik hain urruti ibiliko. Eta *Kultura* gizonak bere buruz eta bere eskuz natura honekin egin duen guztia da.

Natura mendiak dira, itsasoak, errekek, arrainak, animaliak, zerua, izarrak, eguzkia, zapaltzen dugun lurra; gauza edo izaki hauk ez ditu gizonak egin. Eta kultura erreka gaineko zubiak dira, ozeanoetan zehar dabilzan untziak, hibaietan eta itsasoetan arrantzan ari diren kanaberak eta sareak, ondo apuntatuz gero untziak hiltzen dituzten eskupetak, gauetan zeruan zehar izarrak bezala ikusten ditugun hegazkinak, noiznahi eror litezkeela jakinik; gizonak eginak dira satelite artifizialak eta esaten ari garen guzti hau desegin dezaketen karga atomikoak.

Hauxe da Gipuzkoa, euskal familiako, Euskadiko, sei senideetariko bat deskribatzeko balioko didan banaketa nagusia.

Lehenengo, bada, natura.

Natura hau, hemen jaiok edo beste lur batzutan jaiorik gurekin hemen bizitzera etorri eta lur hau berena balute bezala partekatu nahi dutenek heredatu duguna.

Eta berena dutena, oso osorik, hala nahi badute.

Natura

Mendiak

Gipuzkoa probintzia tikia da.

Espainiar Estatuan bakarra da Probintzia dena, ez oraintsuko, 1833ko, lurralde banaketa arbitrari, zentzugabe eta bidegabearen ondorioz, tituluz baizik.

Araba Kofradia edo Anaiarte da, Bizkaia Jaurgoa, eta Nafarroa Erreinua.

Baina Gipuzkoako lur hau, tikia izanez gainera, oso goibehetsua da.

Lope Martinez Isastik honela deskribatzen du 1600n: "Seigarren klimako epelaldeetariko batean dagoena, Ponto Euxinotik pasatzen dena, latitudea edo San Adriango portuko hegoaldera gorapena 43 gradu eta 45 minutu, eta egunik luzeenak hamabost ordu eta bosten bat. Laburrena zortzi ordu eta lau bosten". "Zeru heze eta aldakorreko" herria, dio, eta "trumoialdi izugarriak izaten dira zaparradaz eta ekaitzez, eta batzutan harria eta txingorra".

350 urte hauetan ez dut guzti hau ezer aldatuko zenik uste.

Ez ditu lurraren izurrak eta tolesdurak deskribatzen, baina bai aipatzen mendirik garrantzitsuenak.

Jaizkibel dakar lehenengo, "Pirinio mendien hasiera" Ondarrabin; eta *Aizkibel* izan behar lukeela dio, Etxaberen arabera "euskaraz mendizerra, bizkarra esan nahi duena"; gero datoz: "*San Martzalgo* mendizerra eta Aldabeko harria ("1522n frantzesekin eta alemanekin" gudua) Irungo Unibertsitateko distritoan"; *Aiako haitza*, "edo *Aiamendi*, mendi ospetsua, zeinengandik gidatzen baitira itsasgizonak eta arrantzaleak Gipuzkoako kostan"; *Biandi*, Oiartzundik Aranazera; Anuidegi, Oiartzundik Lesakara; *Mirallgo* mendizerra "Donostialdeko Pasaiaiko kanaletik Surriolako senadiraino, eta alde hartan *Uliamendi* esaten zaio; *Madalenako mendizerra* tontorrean bi "ermita" dituela, Errenderiko jurisdikzioan; Astigarragako jurisdikzioko ahizpa, Santiago Apostoluaren ermitarekin; *Oriamendi*, *Igeldomendi*, "hainbeste harlauza eta zorroztarri famatuak ateratzen direnak"; *Urdaburu* Hernanin; *Oindi*, *Usaberarra*, *Adarra*, *Santa Barbara* "ermita eta guzti, harri urdin sendoko harrobiak dituen" Hernanin; *Beaindi* edo *Amasamendi*, "mendizerra garaia Lizaur eta Elduaien bitartean, non baitaude marmol beltzezko harrobiak; *Belauriaste* Tolosako jurisdikzioan; *Lezarain* Leitzatik Berastegira; *Lagarte* eta *Oreintzun*, "Gazteluko distritoan"; *Ulimendi*, "Gaztelu, Orexa, Berastegi eta Lizartzako distritoan"; *Basaiaz*, *Iporino*, *Balerdi*, *Kardel* eta *Artobi*, *Lanuze* Bedaio gainean Aralar alderantz; *Uzturra* Tolosan, "Izaskungo Ama Birjinaren ermita debota dagoena", *Aldaba*, "mendi eta ohian famatua"; *Marrutoki*, Legorretako hiri eta hibai alboan; *Aralar*, "Ordizi, Amezketeta eta Abaltzisketako jurisdikzioan larre handiak dituen". *Larrun Harri*, *Ganboagain*, haitz oso garaiak Aralarren; *Murua*, *Hernio*, "mendi oso garaia, historietan Iturriozko San Juan Elizaldearekin aipatua"; *Elosu*, "bi leguatako mendi izugarria Azkoititik Bergarara, bitartean etxe batzu dituela"; "Menduria, *Edulio* edo *Medulio*, Garibaik bere bilduman aipatzen duen mendi famatua";

Izarraitz, AitoIa, Eguate, Harrikolazaga. Maudia, bostak mendi handiak Azpeiti, Azkoiti eta Bidaniko jurisdikzioan"; *Haiztarri* eta *Mostirizu* (Azkoiti); *Andatza* (Usurbil eta Aia), "errotarriak ateratzen direna"; *Udalaitz* (Arrasate) "altzeirua ateratzen dena, tontorrean Azentsio izeneko ermitarekin"; *Andutza* (Itziar); *Arno* "mendi famatua Motrikoko jurisdikzioan, aintzinako etxe hondatuekin. Hemendik zilar apur bat atera izan da, eta tontorrean bainu beroko haitzulo bat dauka, eta egia da eztainu meatze bat badela han"; *Zaraiz* (Leniz haraneko jurisdikzioa, "larre eta abere asko, eta Arabaren mugakide, eta badira han artzak, basurdeak, otsoak, basakatu handiak, arranoak, faisaiak, eperrak eta hainbat erbi eta azeri (Eskoriatzako jurisdikzioa da. Izengabea" (sic); *Leizarrateko San Adriango* portua, "urak Gipuzkoarantz botatzen dituen, Izpiritu Sainduaren aintzinako ermitara legua erdi, Gipuzkoako herri batzuren komunitatea da, eta Arabakoa; hemen dago haitz zulatua Historietan oso aipatua; *Urbia*, "bi leguatako mendia, larreak Oinatiko mugaraino Arantzazuko Amarantz"; eta *Alkania* (San Adrianen azpian, *Izpiritu Saindua*, "Nafarroa jotzen dagoena Burundako haranean; eta Gipuzkoan Idiazabal eta Zegamako herriak jotzen; eta Gipuzkoakoek belarrak, ezkurak, zuhaitzak eta urak dituzte: eta jurisdikzioan prebentzioa daukate Segura, Zegama eta Idiazabalgo hiriak eta Mutiloa eta Zeraingo etxeek; eta Araban Salbaterrako hiriak eta haren jurisdikzioak, Zalduendokoak eta Asparrenako anaiarteak".

Hauxek dira Lopez Martinez Isastik aipatzen dituen mendi *guztiak*. Gure egunetan konparatzeko interesa edukitzeko moduko aipamenak bildu ditut, baita errespetatu ere, eta horretarako bere garaiko izenak eta ortografia ere gehiegi aldatu gabe. "Izengabea" dioenean, dudarik gabe erabiltzen ari den iturri ez konprobarria esan nahi du.

Hauxek dira, bada, XVII. mendearen hasierako Gipuzkoar mendiak.

Nola jantzirik dauden, geroago ikusiko dugu.

Larramendiri, jakina, ez zitzaizkion ahaztuko bere jaiot Andoaingo mendiak: Belkoain eta Buruntza bere harrobiarekin. Bidezkoa da horretan diferentziak egotea bakoitzak hobeki ezagutzen duen arloan. Honela, Isastik Jaizkibeli gehiago ekiten dio, Lezon bizi izanaren esperientziagatik. Baina Larramendik ez du egiten, gero Iztuetak egingo duen bezala, Gipuzkoako mendien zerrenda onuragarri hau. Martinez Isastiren ikuspena osatu besterik ez du egiten Gipuzkoako geografia deskribatuz.

"Guztia menditsua da", dio, "haranak eta lautadak baditu ere, baina laburrak eta motzak".

Egiten duen oharra gogotan hartzekoa da; mendi hauk gabe Probintziak doble lur erabilgarri edukiko lukeela dio, eta mendiak direla herria Kantauri Itsasoaren haserreetatik jagoten dutenak, "alde guztietatik eta batez ere hegoatik amorratuki jotzen duten" hurakan eta haizeetatik. Poesiari ere ematen dio, poesia praktikoa samarra noski, mendi hauk direla dioenean urak eta lainoak hartu eta iturri, erreka eta hibaletan hango bizilagunen aberastasuna daramatenak.

Larramendik bere *Korografian* labur ekiten die Gipuzkoako mendiei.⁵

Iztuetak, bere aldetik, Larramendiren sen praktikoa zorrotzez eta Martinez Isastiren erizpide deskribatzailez gainera, bi birtuteen zatirik onena dakarkigu eta gainera Gipuzkoaz maiteminduriko poeta bezala.⁶

⁵ *Corografía de Guipúzcoa. Descripción escrita en 1754*. Manuel Larramendi. Editorial Vasca Ekin. Buenos Aires, 1950.

Iztueta irakurtzea, eta idazten duen Euskaraz gainera, Gipuzkoaren gorputz arimen maitemindu baten bidetik abiatzea da. Gipuzkoa Amatzat darabil beti. Eta hango mendietaz mintzo zaigunean, sarritan aurea eman beharra izan den konkista saioen kontrako defentsore bezala sentitzen ditu, eta hango bizilagunentzat janari iturri bezala. Gero mendi hauk aipatzen ditu, Ondarrabitik hasirik eta ordena honetan: *Olearso, Jaizkibel, Ula, Arandoandia, Arandochiquia, Arenga, Mirail, Ulia, Urgull, Arrobi, Igueldo-Mendi, Chubillo, Ulamendi, Mendi-zorrotz, Chalin, Munioeta, Zubai, Talaiamendi, Garate, Malcorbe, Indo, Anduz, Ticiar, Elorriaga, Aranza, Arbe, Larranga, Arricante, Zaturran, Miiximendi, Menditricu, Herminian, Burumendi, Iriburu, Leoiriz, Aranzamendi, Isasi-mendi, Olaz, Gorostolamendi, Esquilancharri, Arribinieta*. Frantzesen arriskutik zaitzaile ditugu: *San Marcial, Aldabeco* haitzak eta *Higuerreko* muturrak. Nafarroarantz: *Aiamendiko* haitza, *Urdan, Bidandi, Ambidegui, Lazarain, Lagarte, Zaria, Ortinzun, Magdalena, Irurdita, Anaicoz, Albizungo, Ancieta, Zurzaieta, Bagoz, Usoco, Larburu, Loizta, Ereza, Alchurru, Arbuza, Añoa, Mugon, Estuiza, Gartola, Amarola, Anchiota, Legarralde, Grino-suburu, Mendabio, Gorostarbe, Oberan, Usabaratz, Bimendi, Bidaburu, Adarra, Beleadi, Gardel, Artobi, Iporino, Ulimendi, Sarazain, Asqueta, Encingo, Lizarregui, Lizarrandi, Sagarminaga, Igorin, Acola, Erratze, Mugatz, Anchista, Esteiza, Osabia, Laparra, Urri, Iztupain, Galar, Lanuze, Langueta, Aralar, Ausoco gaztelua, Larrunarri, Gamboa, Oidogui, Arratebeltza, Pagabe, Onzamburu, Berasquin, Oniturruta-azpicoa, Oniturruta-garaicoa, Arrizaga, Igaraza, Errenagako-gana, Puiterrri, Allecu, Acaitz-andia, Acaitz-chiquia, Laredo, Nafar-iturri, Marchaneta, Urzulota, Arrastaran, Insinsaro, Urruzti, Orabiel, Coarre, Gorostinzu, Irisoro, Ataburu, Mendibil, Arransoro, Sastarri, Inzarzu, Berrenoa, Aganz, Leizari, Malcorburu, Ascoa, Irumugaeta, Insusburu, Izozcoa eta Alzain. Arabako mugan: *San Adrian mendia* edo *Aitzulatua, Olaza, Aitzgorri, Iturbeguieta, Urbia, Aranzazumendi, Zaria, Aloña, Artia, Anzuabar* eta *Iruerregueta*. Bizkai aldera: *Arno, Bacue, Arrasate, Arranbizcar, Muru, Bedoñalarra, Iturrichi, Udalacha, Inzorta, Eguaspe, Larrabillburu, Aconobieta, Larraluce, Elejamendi, Galdaramuño* eta *Murcaicu*. Eta etsaiak mendi kate hauk pasa ahal balitza, Gipuzkoak oraindik baditu bigarren posizioak barruan defendatzeko: *Arbitarte, Urteta, Oberan, Suerrin, Gorostegui, Bizarain, Aitzbitarte, Urdaburu, Archipi, Santiago mendi, Galaur, Ula, Santa Barbara mendi, Andalza, Azcorbe, Burunza, Loazu, Amasamendi, Garaño, Arremillosoro, Escui-iturri, Escarga, Mugarrizpe, Uzturra, Izazcun, Osoribar, Mugaga, Madariaga, Urili, Azcuendaran*, (zerrenda hau irakurtzeko pazientzia duenak 1.885 kilometro koadratu baizik ez dituen Probintzian zer geratzen den galdatuko du horizontalki jartzeko) *Aldaba, Celaicho, Zangainburu, Laarta, Astotagaña, Otaza, Erdoza, Urquidi, Chinquinchurru, Leiceaga, Larraiz, Ereconta, Picueta, Albitzeta, Gaintzola, Urdanarrobi, Arcaca, Urrizti-ederra, Aitzarte, Insusti, Andurio. Urbarandia, Azcondaguieta, Achurburu, Amilleta, Murumendi, Arzate, Iurre, Barbaria, Hoa. Elustizain, Otañu* (gure abizenen sustraiak hementxe daudela pentsa liteke) *Aizpuru, Apasdoza, Oarrea, Aizpea, Meatzamendi, Quisquitza. Beloqui, Arguisano, Irimo, Ipinarrieta, Descarga* edo *Escarga, Ichumendi, Gorostiaga, Usarraba, Elosu, Apozaga, Zarimus, Murugain, Eguskita, Arizmendi,**

⁶ *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia*. Juan Ignacio de Iztueta. Donostian, Ignacio Ramon Barojaren Moldizteguien 1847garren urtean eguiña.

Aldaia, Achorrozedo, Aitzorrotz, Arratemendi, Garastorbe, Epelde, Guerizaeta, Muscuruchu, Aitola, Eguarte, Arnicolatzaga, Izarriz, Izazpe, Pagochoeta, Arauntza, Oñatzamendi, Aiaguelu, Anducha, Erchina, Endoaia, Mauria, Iromendi, Iturriotz, Loteburu, Aitzgorria, Urquizu, Azuendaran, Hernio, Pagoeta, Irumendi, Zarate, Andatza, Azarrain, Oriamendi, Metzaga-gaña.

Iztuetak utzi zigun hau gure toponimiarako herentzia garrantzitsua da.

Gaurko geografoek eta toponimilariak hobe probetxatuko balute.

Noribait hurbileko zerbait faltako zaio oraindik; niri *Belkoain* mendia falta zait.

Baina goazen orain, eta mendiena bukatzeko, gure garaiko Jesus Elosegirengana.⁷

Egiten duen txosten geogratiko laburrean, ebaketa horizontalak edo kotak egiten ditu. Kasu honetan 800 metrotatik gora daudenak izendatzea komeni zaigu lehenengo: *Aizgorri-Aketegi* (1.544 m), Probintziako kotarik gorena (autorearen ortografiari narraio orain ere), *Urbia* (1.110 m); *Oltze* (1.120 m), *Aralar* (1.427 m), *Larrunarri* (1.348 m), *Udalaitz* (1.092), *Ernio* (1.072 m), *Mandoegui* (1.043 m), *Izarraitz-Erlo* (1.022 m), *Ataun-Burunda* (982 m) eta *Aiako Aitza* (832 m).

Elosegik ere Iztuetak egiten duena egiten du: bistak, irispideak, tontor batzutatik deskribatu. Aralarren, Larrunarriko tontorretik daudenak izendatzen ditu eta prismatikoekin, jakina, eta, Iztuetak berak bezala, Pasairantz doazen untxiak edo Getaritik ipar zabalerantz, arrantzara ateratzen direnak.

Orain, arrantzara uzten badiete (irekitzen ari dela *dioten* munduan gero eta muga hestuagoak baitaude).

Elosegik Aizkorritik, hango zenbait tontorrik gorenetatik, hautematen ditu, "Gipuzkoako azalera osoa egiten duten gainerako alderdi goibehetsuak, Gipuzkoa autoz edo trenez zeharkatuz harrapatzen ez diren perspektibak eta ikus angeluak probetxaturik", eta horregatik dio Aralarko mendi sailera sartzeko onenak direla Amezketak (215 m), Larraitz (400 m), Zaldibi (164 m), Ataun (196), Lizarrusti gaina (615 m) eta "Alotzako (1.100 m) larre zabalak eta hango bakartegi hedatsuak astiro astiro pasatu, gipuzkoar artzainen menderik mendeko bizilekua udaldian... Igaratza aldean, non mendi aterpe bikain bat baitago (1.234 m) eta Aralarko nafar alderantz begiak luzatu, San Migel in Excelsis Saindutegi agurgarriraino heldurik (1.237 m); *Ausa-Gazteluko* (899 m) erdiharoko gazteluaren hondarrak aztertu", "Arritzagako sakostan, Aralarko erret fabrikak eta kobre meatzeak izanikoen hondarrak ikusi, *Irumugarrietako* (1.427 m), Aralar mendiko goren gailurreko, *Ganboko* (1.408 m) eta batez ere *Larrunarriko* bizkarretara igon. *Larrunarri* da Gipuzkoa norbere oinpean hedaturik ederki ikusten den begiraleku aparta, eta gozamen hori sarritan suertatu zaigu. Zer ederki nabari diren Larrunarritik (Iztuetaren berotasunez mintzo dela dirudi) Nãñarri edo Txindoki ere baderitzan hartatik, Aizkorritik lehen aipaturiko Gipuzkoako goi aldeak! Hain maitagarri zaizkigun Gipuzkoako goi aldeak, berriro diot, oraindik beren natur izakera jatorrean dirautenak, giza eskuak oso guti ukituak, mende luzeetako iraupen dohatsua opa diegun Gipuzkoako irlatxo kutunakî".

⁷ *Guipúzcoa* ("Algo sobre Geografía"). Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 1969.

Hibaiak

Zapaltzen dugun lurra zer oso konkretua da eta aldakuntza gutikoa. Baina Gipuzkoa alderik alderatzen duten hibaiak Jesus Elosegik 1968n kontatzen dituenak eta Lopez Martinez Isastik XVIIgarren mendearen hasieran, Larramendik XVIIIgarrenaren hasieran eta Iztuetak XIXgarrenean esaten dituenak berak badira ere, ondoegi dakigu ez direla berberak; urak behintzat ez dira berak, ez usain bera daukate, ez arrain berak ez hainbeste daramate; baina hibai hauen ubideak ere desberdinak dira gaur, ur berriak etengabe datozen hibai magal hauk zikinak eta zikinak hartzen ari baitira eta gutiago nabigarri bilakatu.

Gauza bera gertatzen zaie lurra jazten duten mendiei, eta zuhaitzei eta animaliei, eta gauza bera itsasoari eta arrainei. Gauza bera komunikabideei. Gauza bera edateko urari.

Batez ere gizonak bere muturra gehien sartu duen naturako alderdi hauetan.

Baina oraindik Gipuzkoan gizonak heredaturiko, eta ez honek hartaz eginiko natura daukagunez gero, nola ikusi zituzten hemengo hibaiak egun batez paperolen edo zentral nuklearrak esplotatu nahi dituzten konpainia handien interesekin topo egingo zutenik jakin gabe beren lekukotasuna utzi zuten kazetari hauek?

Ez nago hauen kontra, inork geldi erazi ezinoko zientzi aurrerapen hauk inguruan bizi den gizonaren osasunerako garantia osoz eta haren onespen demokratikoz egiten badira.

Ez orain arte jartzen ari diren bezala.

Gipuzkoar testigu hauek Gipuzkoa beren bihozkatatik hara ikusten dute. Gutariko bakoitza bere garaiko produktoa da, eta garai bakoitzean gizon bakoitzak bere sentimenak, bere kulturak eta bere grinak emaniko gauzen esperientzia dauka; batzutan hori arte hutsagatik izango da, baina beste sarritan praktikatzen duen erligioa bizitzeko era bereziak edo bizi duen politik edo soziologi menpetasunak damaion ikuspegitik.

Honek, desabantailen bat gora behera, abantail asko dauka.

Bere zirkunstantzia bereziak, eta gero mintzo zaizkigun sentikera, hizkera eta hizkuntzek ere lekukoari ezartzen dioten mugapena hor dago, baina era batera batuketan elkar hornitzen dira eta deskribatzen diguten Gipuzkoa fisikoa orotasun anizkoitz eta aberatsa egiten duten ikus angelu batzu ematen dizkigute.

Eta bakoitzak berea erabiltzeko askatasuna dauka.

Eta material guzti honekin eta nik neure hautakera egin: hautakera egin eta sartzen ditudanekin, ez baitut objetibotasunaren harrokeriarik jotzen, irakurleak Gipuzkoako natura honetaz ahal duen ideia aterako du.

"Ahal duena" diot, ez baitago erresultatu hau hobeki adierazteko beste modurik.

Goazen hibaietara.

Lopez Martinez Isastik 1625 inguruan (Zentsoreen maitasunagatik eta gure Herriko agintarien eta orduko aberatsen kulturarekiko arbuioagatik bi mende eta laurden (!) geroago arte argitaratu ezin izan zena,⁸ Gipuzkoako hibaiak VIDASOrekin hasten direla dio, Beobiako gaztelu eroriaren ondoan; bertan izokinak sareharrapatzen direla. Gero LEZO hibaiak, Pasaiko portura Lezotik heltzen delako ("oso antzinakoa berau").

⁸ Ikus bigarren oharra.

URUMEA, Menlasko ere deitua, Nafarroako Areson jai, "Hernaniko portutik" pasatu eta "Donostiako Santa Katalina eta Zurriolako zubira datorrena, eta Juan Beuterok, Orteliok eta Medinak *Brumeo* deitua "ur mehea edo mantsoa esan nahi duen *Urumea* euskal izena ahozkatzeko kapaz ez direlako". ORIA, Zegaman jio eta *Araxesen* urak hartzen dituen eta gero *Lezarain*, Nafarroatik Andoainera datorrena, hemen bat egiten dute, eta Zubietan eta Usurbilen zehar Orion itsasoratzen dira; hemen, "batzuren ustez hibaia Oriotik Tolosaraino nabigatzeko moduan jarri omen liteke Pedro Mantuanaok oharrerazten duen bezala". UROLA, Seguran jai, Oinati inguruan Araba ukitu, Legazpiko hainbeste burdinoletatik pasatu eta Zumarragan eta Urretxun behera doana, Azkoitira eta Azpeitira, gero Zestuara, Arronako haranera eta gero "Zumaiako Villagranara" heltzen eta Kantauri itsasoan sartzen dena. DEBA, Lenizko haranean jai eta Bergara, Plaentxi eta Elgoibarren zehar Deban bukatzen dena.

Hauxek dira Lope Martinez Isastik izendatzen dituen hibaiak eta hauxek sartzen dizkien komentarioren nabarmenenak.

Baina gero aipamen global bat egitean hibai hauetan badirela "zenbait izokin eta hainbat amurra eta hauen artean izokintzekoak zarboak, arrainak eta aingirak ugari, oso onak eta gozoak hibai garbi eta urlasterdunak baitira; eta Urolan "xarbo"⁹ batzu ere bai.

Eta 1600dik 1700ra goaz Larramendi andoaindarraren eskutik eta begietatik.

Larramendiren garaitik, eta dato hau erreferentzia gisa ematen dugu, bada Gipuzkoako mapa bat Tomas Lopez eta haren, Larramendiren garaian egin, 1752n, "hango herritarren berrien arabera", Ipar Euskadi guztia, Adourrerraino hartzen eta Frantziarekiko mugak seinatzen dituen; mapa honetan Gipuzkoak Hegoatik Araba eta Nafarroako "Erreinua" jotzen du, eta Mendebalek Bizkaiko "Jaurgoa".¹⁰

Larramendirentzat, Gipuzkoako hibaiak BIDASOAtik hasten dira (ehun urte lehenago VIDASO) eta hain suertez "urtsuena" dela dio eta baita "oldartsuena" ere, eta hori gaur ere horrela izaten da ordu batzutan euri asko egiten duenean. Beste dato bat ere ematen digu, alegia, Bera ingururaino, Nafarroan, nabigagarri dela, "hara jatsi igoten direlarik euskaraz hegalak izeneko gabarrak"; "San Estebanerraino", gaur Donestebe, nabigagarri egiteko asmoa aipatzen du, "Nafarroarekiko merkatalgoa zabalagoa eta libreagoa egiteko"; baina era batera orduko kezka bat adierazten duen gogoeta egiten du, hobe baita haren ubidean haitzak egotea, hoik gabe gerra garaian "frantzesari bidea irekitzea" bailitzateke. Gero, naturala denez, hibai honetan izokina ugaria dela dio. Gero BERTANDEGUI hibaia dakar, Lope Martinez Isastik ehun urte lehenago LEZO deitua, eta Larramendik hibai horri ez dagoela *Lezo* deitzerik dio, Oiartzungo jurisdikzio zaharrean jaiotzen eta bukatzen baita; laburrena eta urik gutienekoa dela dio, ez dela nabigatzekoa eta errotetarako eta oletarako bakarrik balio duela. Gero URUMEA bera dator; Ereñozu eta Fagollagako oletatik pasatzen dela dio, Hernaniko ibarretara "Gipuzkoako zabalen eta emankorrenetariko" hoietara irteten eta azkenez "Zurriolako Santa Katalinako" portutik eta zubitik "Donostiko Ekialdera" sartzen dela; hibaia "bi leguatatik gora nabigagarri" dela dio Erenozun goraino *hegaletan* edo gabarra txato eta

⁹ 30-40 zentimetro luzerako arraina, belzkara bizkarrez, zilarkara sabelez. Ur geldietan eta korronte gutiko erreketan bizi da gehienean.

¹⁰ Aipaturiko *Corografía* edizioa apaintzen du.

zabaletan, "hauk oletarako burdingaia jasotzen eta burdina landua bueltan Donostira ekartzen dutelarik, joan den urte honetan landu direnak bezala; lur barrutik Hernaniko portura untzietako behar den zureria ere eraisten dute eta hemendik hibaian behera Astigarraga baino beherago eta handik lehorrez Pasaiaiko errementaldegira"; Urumeaz dio "urik gehien daramatenetarikoa litzatekeela ihespide ezkuturik ez balu", zeren, azaltzen du, hainbeste erreka eta iturri ur biltzen bazaio ere, "Hernanira ez dakar Nafarroako Goizuetatik hiru legoa gorago dakarren baino ur gehiago; arrainei buruz, hibai honek amuarrain "bikainak" ditu, izokinak ugari, "izokisemeak esaten zaien" barbarinak, zuriskak, platuzak eta beste batzu; eta bukatzeko dio, lehorteetan, beste errementaldegiek lanik egin ezin dutenean, *Urumeakoek* badutela ura lanean jarraitzeko. ORIA hibaia "oso urtsua eta luzea" dela dio, *Araxes* lehenengo eta gero Andoainen *Leitzaran* nafarra hartzen duela Santa Gurutze zubian eta Orion sartzen dela "sakonera handiz portu hartan eta honen itsas barra arriskutsuan"; pasatzen den urbazter ederrak aipatzen ditu eta ez dela nabigatzekoa argitzen du "urbidean jarritako presen eta oholengatik". Hauk errotetarako eta errementaldegietarako eta Tolosan erret harmategiko asmakizunetarako balio dutela eta "hibaiaren azkenean edo errematean izokinak harrapatzen direla eta Andoaineraino igoten eta heltzen direla". UROLAgiatik guti gora behera Martinez Isastik mende bat lehenago dioena bera esaten du, baina zehazten du hibai honek "amuarrain oso finak eta ugari dituela Azpeititik beherantz eta Okinan eta itsas aldera lupia eta kolaka bikainak harrapatzen direla", baina legoa erditik gora ez dagoela nabigatzerik, "Beduako etxe eta porturaino". Azkenez, DEBA, "Monrealetik Deban itsasoratzen dena", lehenago amuarrainetan oso ugaria izanik, "gaur oso urria dela, Arabako Zadorratik ekarritako loinengatik. Hauk izugarriri ugaritu dira eta amuarrainen etsaiak dira eta pertsegitu eta jan egiten dituzte"; nabigatzeari buruz, untxiak itsasoko sarreratik igon eta jatsi daitezke, "eta ez gorago, bidean presak baitaude"; hemen esaten du erabiltzen dituzten *hegalak* "oso luzeak eta hestuak direla hibaia toki askotan oso bizi baitoa"; eta bukatzeko gaineratzen du hauxe dela Estrabonek eta aintzinako beste autore batzuk aipaturiko izenari eusten dion bakarra, eta ez dela Debaren etimologia argirik aurkitzen.

Eta zertan aldatu dira gure hibaiak beste ehun urteotan?

Orain Iztuetarekin gaude. Honek euskaraz idazten du lehenengo gerra karlista ondoren, 1847n.

Iztueta, kurioski, Gipuzkoako geografiaren beste ertzetik hasten da, aurrenengo DEBA hibaia aipaturik. Iztuetak hasieran dato bat ematen digu: hibai honek, dio, Probintzia banatzen den hiru zatietarik lehenengoa berezten du eta honi alderdi honetakoek *zertan-ez* deitzen diote. Haren hibaibidea xeheki deskribatzen du, pasatzen den leku guztien izenak ematen ditu, "Kantauri zabaleko magal gozoan leialki itsasoratu arte" –dio maiteki–. Bigarrena UROLA da; hala deitzen diote hibai bazterretako ola asko erabiltzen dituelako; Araiako mendian jaiotzen da, Segura inguruan, Gipuzkoako bazterrean eta Arabako Probintzietatik hurbil, eta jakin erazten du "leku hau garai batean, beste batzurekin batera, Segurako Udalherriko zatia zela, baina orain Legazpiarena dela". Hirugarrena ORIA da, "Gipuzkoako hirugarren hibaia deitzen zaiona eta gipuzkoar guztietan urtsuena"; Iturbietan jaiotzen da, *Aitz-zulatu* ospetsu horretan, gehienean San Adriango portua esaten zaiona, izen honetako haitzeko parte baita;

Zegamako dermioan dago, herritik legoa bat ingurura"; Zaldibiko mugetatik behera hogeit hamarrek bilduma den hibaiadar amuarraintsu batek dakarrela dio; iraramendi inguruan Lizartatik behera datorren *Araxes* hibai nafarra hartzen du, Tolosako Andre Mari elizapetik pasatzen da, Billabonako Amasa menditik eta Asteasutik behera datozen urak hartzen ditu, Andoaingo Santa Gurutzeko zubian *Leitzarán* bizia batzen zaio (hau Berastegikoarekin batera Nafarroatik dator), Lasarte erditik Zubietara pasatzen da, herria ezkerretara utzi eta Usurbilera heltzen da, eta hemen patxadan jartzen da; Aginaga gero; han goian, ezkerretara, Aiari agur egin eta Orion dago ia. Laugarren hibaia URUMEA da, "Nafarroako Erreinuan" jaiotzen dena, Goizuetako mendietan, eta herri honetatik pasatu eta laster errekatxo bat batzen zaio eta Erreinitik irten eta Gipuzkoako Probintzian sartzen da Hernanitik, herri hau bapo arregatzen du eta Astigarraga eskuinera utzirik aurrera doa Alzapetik "Loiolako hauzune handi eta ospetsua pasatuz, hemen Donostiko handizkien etxeak daude, denak ederki apainduak soro handiz eta lorategi bikainez", eta azkenez Donostian sartzen da "Donostiko hiriko murrak bustirik eta hau ezkerretara utzirik, Santa Katalinako zurezko zubipetik pasatzen da, zubi honek 448 oin luzez eta 26 zabalez ditu, eta itsasoa maitasunez besarkatzen du, Zurreola izeneko sarreratik". Honen izenak bi gauza esan nahi ditu: *Ur-mea* (ur mehea edo guti sakona) eta bestetik, *Urre-mea*; azken ulerkera honen alde daudenen eritziak oinarri hau du, alegia, hibai honek *urre-pikortak* edo garauak daramatzala. Garibai jakintsuak ere hala dio, haren garaian baionarrek hibai honetan urrea biltzen baitzuten"; "Don Pedro Sanchez, Nafarroako Erregeak, *Gallaldi* batean ikusten den bezala, XIgarren mendean *Urumea* izena zeukan; geroago Felipe IIren garaian honen urak Oriakoekin bat egitea pentsatu zen Tolosa eta Donosti komunikatzeko, merkantzi garraioaren kostua merkatzeko; kanalgintzako obra horren kostua 12.000 dukat jo zen; proiektu honetaz 1772n hitz egin zuten berriro, Hernanin, ondorio gabe, ospaturiko Gipuzkoako Batzarre General batetan. Boskarren hibaia OIARTZUN; orain ez da Martinez Isastik dioen Lezo ez Larramendik dioen Bertandegi ere; baina honi arrazoia ematen dio herri honetako mendietan, Gipuzkoako muga barruetan jaiotzen dela esatean; Gipuzkoako haranak ondo erregatu ondoren Erreterira pasatzen da eta herri hau ezkerretara eta gero Lezo eskuinetara utzirik bi *Pasaien* erdian ageri da senadi bat eginik, edozein untzirentzat portu segurua; bere garaian *Pasaia* zeritzan portu famatu hau XVgarren menderate *Oiartzungotzat* ezagutzen zela dio Iztuetak; batzuk hibai honi Lezo deitu diotela dio eta izan ere badirela izen honekin aipatzen duten idazki batzu, baina *Oiartzun* gehiago deitu zaiola eta "hala izan behar du –bukatzeko– *Oiartzosko* lurretan jaiotzen baita munduaren hasieratik". Gipuzkoako seigarren eta azken hibaia BIDASOA zabala eta urtsua; Nafarroako Erreinuan Baztango harana inguratzen duten Otanburdi, Otsondo, Ausa, Eriete, Izpegi eta Urritxikiako Piriniar maldetan jaiotzen da. Gero Atxuela eta Arakan mendietatik behera datozen urak hartzen ditu; bitu egiten da eta berriro batu. Gero Baztango Haraneko herrietan zehar pasatzen da, eta batetik bestera doan bitartean *Baztan-zubi* esaten zaio; Askapeko zintzurrean, Oronozera heldu aurretik, asko hestutzen da; gero Ernazabal, Artzesia eta Belateko urekin loditzen da; Erreparazko gaztelura segitzen du, indar berriak hartzen ditu, hemen dagoen harrizko zubipetik pasatzen da, eta hemendik aurrera *Bidasoa* deritza, Bertizko herria mugatzen duten mendien izena ere horixe baita;

Leringo Donestebeko haranetik segitzen du, eta hemen bost mendi herritatik behera datozen bost erreka bizien urak hartzen ditu, eta honela urez hazirik, Gipuzkoan sartzen da, zabal eta handi, Endarlatzan zehar. Irun-arantzungo herrira heltzen da, eta ezkerretara uzten du, Faisaien irlatik ez urruti; gero Gipuzkoako Probintzia Frantziako Erreinutik berezten du, eta Ondarrabi ezkerretara eta Hendaia eskuinetara utzirik, kantauri itsasoko uretan sartzen da Olearsoko muinetik hurbil, edo Higerreko muturrean. "Bidasoak euskaraz *Bide Oeaso* esan nahi du, hau da: Oeaso edo Olearsoko bidea; Ondarrabiko mendia eta Higerreko gaztelua aspaldiko denboretatik izen honexekin ezagutzen dira, hala herrian nola atzerrian, bertakoen hitzaren eta atzerritar historilarien idazkien bidez, zeren milaka urteak pasatu badira ere, argi ikusten baita hibai hau lehengo bide beretik datorrela; diodanaren egitasunik ondo zihurtatu nahi duenak ikus beza Santxo Handia Erregearen garaiko dokumentua 1027n, Iruinako eliz banaketaren mugak jartzeko balio izan zuena".

Eta deskribapen hau euskaraz bukatzen du Garibairen eskutik historian sarturik eta bertsoz gogoeta hau egiten du Bidasoa hibaiaren hibaibide osoa Gipuzkoarentzat erreibindikatu:

"Orra zer escubide andi ta gozoac
Lenago oicituen Ama Guipuzcoac
Maitaro izan tiran gorde ta jasoac
Bici ciran demporan gure gurasoac"

Iztuetaren muga deskribapen honetan argi daude gure sentimenduaren eta gure berezko eskubidearen, sekula preskribatzen ez duen horren, aintzinako eta gaurko zenbait giltza.

Eta hibai maite honekin gure egunotan gaude.

Bere argazki hizkuntzez azken hitza esango duen Schommer-ez gainera, gaurko lekukoek ba dute hibai hauetaz zer esanik. Ahal dugunik objetiboki. Berriro ere Jesus Elosegirengana jotzen dut, Arantzadi Natur Zientzi Elkartekoa berau, lekuko aparta noski, gure geografia oinez pasatu baitu. Hori jende gutik egiten du eta horrela, benetako asmo zientifikoz, eta ez politikoz, gure geografiaren gorputza korritzen duten ur zain eder hauen izakera noraino lorrinduz joan den ikusteko eritzi elementuak ematen dizkigu.

Hibai hauk, izan ere, gure bizi iturri ditugu.

Elosegik, Iztuetak bezala, Gipuzkoako sei hibaiak ezkerretik eskuinera kontatzen ditu: DEBA, UROLA, ORIA, URUMEA, OIARTZUN ia betiko eta BIDASOA. Baina gure hibaiek zenbat izen eduki duten eta zer ordenatan aipatuak izan diren, horrek beren urezko gorputz bizietan daramatenak baino garrantzia gutiago dauka.

Orain arte, eta gorabehera gutiz, urak garbi zeuden beren arrainekin.

Eta arraina eta txoria bizitzeko lekuan gizona ere bizi daiteke.

Baina ikus dezagun orain nolako atzera saltoa eman dugun mende eta gehitxoagoan.

Elosegik ebatura horizontalak, altimetrikoak, egiten ditu, Gipuzkoako geografia aztertzeke, mendietaz ari ginela esanik dugun bezala. Gipuzkoako azaleraren ia % 60 itsas mailatik 400 metrotara bitartean dagoela dio. Hementxe daude Elosegik "handiak"

deitzen dituen gure sei hibaien arroetako haranik zabalenak. Eta pena du "Gipuzkoak hain garesti ordaindu beharra hiri industri hedapen gehiegia".

Elosegi, ikusten denez, oso zientifiko diskreta da.

Neurritasun hau eta guzti ere, lekuko zintzo gisa, honela dio: "Ez litzateke zuzena, 1968n Gipuzkoako behe aldeko deskribapen geografikoaz eta geroko denboretan lekukotasun historiko bat gerta daitekeenaz ari garela, Oria eta Urumea hibaien egoera tamalgarri tristerik (eta ia denboran luzerik) ez aipatzea; lehenengoa batez ere Zegamatik aurren eta Legorreta eta Tolosatik behera gero, Orion itsasoratu arte, Gipuzkoaren desohoragarri diren ur zikin, apartsu eta kiratsuak etengabe erakusten dizkie gipuzkoarrei eta ez gipuzkoarrei"... "duela hogeitamar urtetako (1938) Oria eta Urumea hibaien gomuta ezabaezina kontserbatzen dugunok ezin dugu etsi Gipuzkoako joanetor biderik politen eta ibilienetariko bi, jendetza geldiko sail galantak dauden bi alderdi, lotsagarri zaigun betiko degradapenera erremedio gabe kondenaturik ikustera".

Zientifiko baten objetibotasunak ez zezakeen gutiago esan; baina gehiago ere ez beharbada.

Hemen adierazi nahi dugunerako nahikoa da.

Guk, lekuko kritikoak izateko profesioa daukagunok, hemen, hala ere, zera erantsi behar dugu, alegia, arrainez eta inguruan bizi den fauna ugariz jantziriko ur garbien mendeetako herentzia hau, Gipuzkoako populazio guztiaren finkalekua izan den guzti hau diruagatik basaki asasinatua izan dela gaur. Lapur arrunten izpiritu harrapari berberez lortua; lapur hauek hala ere apurka eta jende jakinei ohosten diete. Industria hauek, ordea, herri oso baten bizi iturria eta Osasuna zakuratu dute. Oraindik bizirik, baina gaixorik dagoen eta etorriko den herria, baina ez dakigu nola eta zer aire izango duen amasa hartzeko eta nolako urak arrantzatzeko, bainatzeko eta edateko. Eta begiratzeko!, zeren, urek giza eta abel bizitzarako hain garrantzitsuak diren gauza hauetarako eta beste askotarako balio baitute. Gauza horik zenbaiti begiratu hutsez iruditzen zaien baino askoz lotuago daude.

Hibai inguru hauetako hazkunde industrialak, derrigorrekoak, nolako problemak ekarri dituen eta oraindik ere dakartzan badakit. Hibai hauk gari errotak edo burdina lantzeko olak erabiltzeko ziren. Gero, ordea, hala izaki denborak, kutsadura handiagoen ordaina kobratzen duten aurrerapenetara dedikatu behar.

Hau gogo honeko edozein gizonak dakiena da.

Gure herria elikatzen duen industriaren zerga hau, ordea, gehiegizkoa izan da. Ondorioak jasan dituen, jasaten ari den eta jasango dituen herria alde batera utzirik, azken berrogei urteotan diruaren eta beren abuztua inpuneki egin duten industriaren alde egon den botere ahalguztidunaren eraginez. Lotsagarria. Eta abuztu kontu honek beste zer bat ere badu, zeren hile honen eta irailaren zati batetan, diktadorea gure herria bisitatzera zetorrenean, Gipuzkoako hibaietako bitsak eta kiratsak gutitu egiten baitziren, bukatzen ez baziren ere. Irain bat zen haren sudurrarentzat, bere kotxe blindatuan zihoala, kirats hura pasoan ere hartu beharra. Baina, jakina, tximinietatik eta hondakinetatik hibaietara azido guztiak botatzea libre zen eta aziko horiek gure hibietako udako ur apurrak kloakak bihurtu dituzte.

Kloakak problema beraren beste alderdi bat dira.

Gure hibaietako urak, herri oso gorabeheratsua eta tikia baita, berez ere urriak dira. Duela ehun urte gure herrietako estolden isurketak oso erraz egiten ziren. Baina gero, hainbeste jende pilaketaz, gauzak nahasi egin dira. Gauza honen errudunak ez dira industriak eta industridunak bakarrik. Prebisorik ezaren eta azken urteotako irabazi industrial handien dirutzak denari baietz esaten ziotenentzat izatearen azken erruduna berrogei urtetako diktadura da, hainbeste habe okerturik jaio erazi dituen, zeren matrailak betean jaten zuten hatzamarrezko alkateek eta gobernadoreek eta diputazioek ez baitute Gipuzkoa planifikatzeko behar zen ahaleginik egin.

Gaur ia hiri bakar handi bat den Gipuzkoa noski.

Horregatik guti batzuren irabaziaren soinura bizitzeko negozio hau, herriko gehienen osasunaren, batzutan bueltagabearen, eta erosotasunaren bizkarretik egina, oraindik hausnartzeko gauden lotsagarrikeria izan da.

Lotsagarrikeria honek errudunak epaitu ahal izateko adina iraungo du beharbada.

Landaretza

Eta Gipuzkoako lur hau, ur zain hauekin, zertaz jantzi da denboretan zehar?

Lope Martinez Isastik ez digu Gipuzkoan 1600an zer zuhaitz zegoen esaten, baina bai zuhaitz batzu aipatzen dituen legeren bat.

Gipuzkoan ez zegoen intzaurrik, gaztainarik, haritzik, bagorik eta lizarrik sartzerik (Gipuzkoako Foruko legeak debekatzen baitzuen) "ogi, sagar, mahasti edo sorotarako landuriko inoren lurretik hiru besada baino hurbilago, sartzen edo ereiten edo emetzen uzten duen oin bakoitzeko mila marairen zigorpean".

Honek alde batetik zer zuhaitz mota zen ugariena adierazten du eta baita lur batzuren izaera komunala ere; baina batez ere ereintzei zitzaien errespetoa adierazten du.

Gure herrian ale premia zegoen batez ere.

Larreei buruz, ugariak hauk, legeak dio "abereak Probintzia honetan libreki bazka daitezela eguzkitik eguzkira, izan ezik mahasti eta mindegietan, sagasti, soro eta lur ereinetan, eta zedatuetan Abuztuko Andra Marietatik Gabonetararte, bere agindupean hartzeko eta kaltea ordaindu arte eduki beharreko zigorpean, alderdiek hautatu eta izendaturiko bi gizon komunek ikusi eta azterturik; eta hamar maraitatik gora buruko, eta garaiko artzantzagatik ordaindu beharko duena, ganadua eguneko errealean eduki zuena: eta izen oneko gizona bada beste frogarik gabe bere zin hutsez sinetsiko zaio, beste alderdiak bestera frogatu nahi ez badu behintzat".

Isastik ez diosku besterik ezer.

Mende bat geroago Larramendik diosku: "Gipuzkoako mendiak zuhaitzez jantzirik daude, edo naturalki eta berez, hala ikusten direlarik hainbeste xararte eta haritz, gaztaina, elorri, gorosti, haltz, sasi, ote, eta bago, edo antzez eta axolaz sarturik. Hariztiak bi modutakoak dira: edo basa haritzak, hala deitzen baitzaie etxeetako aurre habe nagusitarako, edo ola ardatzetarako eta untzigintzarako makilatarako egokiak egin arte hazten uzten zaienei; hauk ez dira ebakitzen hirurogei, laurogei eta ehun urtetan ere, segun zer lur den. Edo haritz inausiak, hau da, bederatzitik bederatzirte urtetara, edo

gehiago, inausten direnak adarrak mozturik, sukaldeko sugarriztat, edo ikazgintzarako, erremetaldegietan ikatz asko behar baita. Gainera gure mendietan dena da gaztaina, intzaurra, lizarra, bagoa eta baserri ingurutan fruitudunak, intzaurrak, urritzak, sagarrak, madariak, ginda, gereziak, aranak, mertxikak, muxurkak, muxikak, mizpirak".

Larramendik, bere Herriaren defentsore asperkaitzak, ez du aukerarik galtzen. "Gipuzkoa alde guztietara hain menditsua iruditzen duenak hango bideak ibili ere ezinekotzat joko ditu amildegietan gora eta behera, baina oker dago horretan".

Iztuetak ere, Gipuzkoako naturarenganako bere betiko maitasun gartsuz, bere lagun ongileen berri ematen digu, oihanak, tantai handi eta ederrez beteak, gehienak lurretik berez erneak eta ez ereinak, eta hauetatik, lurak berez emanetatik, hauk batez ere aipatzen ditu: haritza, bagoa, artea, zumarra, agina. Hau, aztertzaile batzuren ustez Gipuzkoako ezkutan hiru aldiz dator, Zaldibia Batxilerrarengandik jasotzen baitute Hernio mendian bazirela aginak euskaldunak oraindik jentilak zirenean eta zuhaitz mota honetatik ateratako pozoinenez beren burua hiltzen zutenean zirika hasi zitzairen erromatar etsaiaren eskuetan ez erortzeagatik. Gero beste hauk datoz: lizarra, ametza, elorria, haltza, gorostia, un-itza, lertxuna, zumalikarra, ezkia, astigarra, makala, ostatxuria, kurkuxa, intxusa, ezkerraina, likabra, erika, elotriska, isatsa, zurbeltza, antanozka, gurpirtza, zamandorra, maaltza, otea, sosatza, zumea, aiena, nekosta, arantza zuria eta beltza, arkasatsa, txilarra, erramua, ziha, ezpela, kainabera, kotala, udalatza, kuritxotza, freskua, ziurtza, lekeltxorra, birorria, karraska, urkia, otsalizarra, eta beste batzu.

Baso eder hauen goralpen betea egiten du zer esportatzen den eta zur hauk nola untzigintzarako erabiltzen diren aipaturik. Hala aipatzen du Irunaranzungo (sic) untzigintza, Errenderin hiru zeuden, Lezon eta bi Pasaietan, Santa Katalinako hondartzetan eta beste batzu Donostiatik hurbil, Usurbilgo Aginagan, Orion. Zarautzen batzu zeuden Txiliku izeneko lekutik Mirador izeneko etxeraino. Deban, hibai ertzetan. Eta zur hauk berebizikoak direla dio "gure etxeen" eraikuntzarako habe handi eta ederrak egiteko, elizetako eustaga luzeak eta zutabeak, dolaretako ardatz gogor, sendo eta lerdinak, eta errementaldegietarako behar diren ardatz garbi, lodi eta indartsuak (eta guztia euskara itzulezinez esana, hain samurki mintzo baita), ikatz baliosa egiteko balio dutenak, karobietako behar den egur estimatua, ezkur gozoa ematen dutenak, hosto berdea eta orbel lehorra dakartenak (aipatzen duen bakoitzari mun ematen ari dela dirudi Iztuetak), beste erabilera oso ongarri batzutarako balio izanez gainera.

Elosegik, gure garai honetan, Urbiako (1.100 m) eta Oltzeko (1.200 m) zelai ederrak aipatzen dizkigu "udan berezko belardi zabal haietan beren artaldeak bazka erazten dituzten hainbeste artzainek okupatuak". Zer gauza ona den oraindik, ehun batzu metro bakarrik igon eta gure arbasorik urrunenen bizitza eta ia bordak ere berak eta sukak tresnarik aintzinakoenak, gaztaigintzarako eta baita beren bakartade luzeetako artisau lanetarako ere mediorik sinpleenak aurkitu ahal izatea.

Ez nago atzerapenaren alde; zera esan nahi dut bakarrik, alegia, oraindik bake zoko batzu geratzen zaizkigula.

Baina zuhaitzak gutiago daude.

Elosegirekin batera Gipuzkoako azal zimurtsu eta berde honetan zehar, baina behe-rago, eta mingarri zaizkion "konstruktibitis" izurrietara oraindik heldu gabe, eta

"oraindik beren berezko izate jatorrean" kontserbatu diren Gipuzkoako goi alde batzu utzirik, "Ataun-Burunda Lizarrustiko gainetik (615 m) eta Etxegarate (648 m) geratzen dira, bide inguru guztia jazten duen bagadi hostotsuak eskuzabalki eskaintzen digun itzal trinkoan murgilduak, bidean zehar begietara datozkigun dolmen zerrenda aberatsa bide batez azterturik". Elosegik zuzen dio hau "Gipuzkoak duen aukera bikaina dela Nafarroako mugan" erreserbategi bat sortzeko.

Gipuzkoan oraindik badira, bai, haritzak, eta gaztainak eta lizarrak, baina batez ere pinuak.

Pinuak Gipuzkoako haro oso bat definitzen du.

Haritza hazteko eta honen itzalaren eta zuraren zain ehun urte egoteko pazientzia galdu da. Hemendik ehun urtetara gure ilobak haren kapelapean ezin etzatea edo urrundik ikustea edo hark ematen duen oxigenorik ezin hartze horrek ez du axolarik. Hori, hemendik ehun urtetako eta gaur erein beharra dagoen paisaia, airea, atsedena, hori ia hirulau poetari bakarrik axola zaiola dirudi.

Beharbada lur honetako gizona bere etorkizunaren fedea galtzen ari da.

Gaur ereiten den bezala landatzen da, urtaro batetik besterako uztan pentsaturik, hazi bihiak berak ere ia jateko epeetan.

Ni ez nago sistimaz pinuaren kontra baina bai euskaldunak bere babesa izan zuen zuhaitzari zion begirune zaharra kazkartu duen izpiritu urriaren kontra, goragoko helburudun abiada zeukan bizitzako alderdi izpiritual eta materialen babesa zen zuhaitza noski; pinu sartze sistematikoaren kontra nago, egia esateko ere balio ez duten egunkarietarako paper orhea egiteaz beste asmorik gabe. Ez eta egia defendatzeko ere.

Agintzen duenaren gezurrak makurki errepikatzeko baizik.

Itsasoa

Gipuzkoa itsasoa ere bada.

Itsasoa, ur gaziak, mugikorrek, ekaitzetan bildurgarriak, itsasoa, arrain handiz eta tikiz, eta bide azkengabez beteriko promesa.

Itxaropena

Euskaldunen itsaso hau funtsezkoa izan da.

Euskalduna oso berandu abiatu zen itsasoan zehar. Areago gara artzain bakartiak tontorrean eta nekazariak baserri isolatu eta bakarretan. Baina itsasoak tentazio gogorra izan behar betidanik euskaldunentzat.

Jose Migel Barandiaranek¹¹ ziotan behin euskalduna lehenengotan fruitu biltzailea izan zela: urrak, ezkurak (duela 50.000 urte inguru) eta ehiza (errenoa eta basurdea, beste askoren artean, eta hegaztiak, belatxinga, saia, ahatea) duela 20.000 urte. Baina itsasoko arrantzari buruz, garai hartan euskaldunak ez zekien arrantzan.

Baina itsasoratzen denean, menderatu egiten du.

Euskal itsas gizonak esatean, berezi beharra dago: nabigantea, eta hemen izen handiak izan ditu, eta gero, Caro Barojak dioen bezala, *marinelak*, alturako baleazaleak eta bakailozaleak, eta *arrantzaleak*, baxurako arrantzaleak.

¹¹ *Hablando de los Vascos*. Ariel, Bartzelona, 1974.

Balearen arrantza euskaldunentzat eta batez ere Gipuzkoarrentzat, aberastasun iturria izan zen. Beste lur batzutan arrantzatzen eta salerosten zuten. 1371garren urtean "flota honetako jendea Asturias eta Galiziakora pasatzen zen", eta erret eskubideak ordaindurik "gatza eta arrain freskoak, tikiak eta gorristak eta baleak eta balenumeak erosten zituzten", "é que salgaran por si et esto que se usara siempre fasta agora de poco tiempo acá".

Baina jatsi gaitzen itsasoko eta denborako maila batzutan behera, konparatzea pentsatu dugun erreferentzi guneak bilatzeko, gipuzkoarren itsas arrantzak zer eboluzio izan duen konturatzeko.

Hemen ez ditugu urak eta hauen naturaren zati diren arrainak bakarrik aipatzen, hemen arrantzako kulturaren sartzen ari gara.

Ahalak eta bost eginik ere, Gipuzkoako natura, beste edonon bezala, hura populatzen duen gizonarengandik berezitezina da. Hura kontenplatzeko gizonik ez badago, egon ere ez dago.

Nolanahi ere, liburuko lehen zatiko azken kapitulu hau, Naturari dagokiona, iraganbide bat izango da osoki kultura deitu dugun horretarantz.

Lope Martinez Isasti, 1600ean, ez zaigu askorik mintzo arrainak harrapatzeaz, eta ordea, garai hartako zaletasuna, gustua eta garrantzia zenez, asko eta ondo mintzo da itsasoaz gerra, ohore eta nobleziazko tituluak arrantzatzeko, eta dena nahasi samar. Lerro hauk gaurko begi kritikoz irakurriz gero, gure herria, herri pobrea, nola eta zergatik horrela portatu zen antzematen lagunduko digu.

Eta bere garaian zer zen eta zer egin zuen errespetatuz.

Bidegabea, oso bidegabea litzateke gure gaurko metroz epaitzea.

Guk giza Gipuzkoaren, bere izaera zibilaren, bere portaeraren berri jakin nahi dugu, eta ez orduko kronikak eta kronikatzar ofizialak, Erregeak irakurtzeko idatziak eta Erregeak berak idatziak bezala.

Gipuzkoar hauetariko bakoitza lekuko izan zenaren bila goaz hemen, zer ikusi zuen bere begiz edo zer entzun zuen edo zer pentsatu zuen bere garaiko pentsaera politiko, erligioso eta sozialez.

Hauxe da hemen axola zaiguna.

Martinez Isastik esaten dituen gauzen artean, eta oraingoan ez irakurri edo esan diotenetik, ikusteko begiak dituelako baizik, Lezon urteetan bizi izan baitzen, itsas inguruan, hauxe dio: "emakumeak aurpegi onekoak eta kolore onekoak dira, berez zentzudunak eta honestak, garbitasun handikoak..." eta dena doa ondo, baina eransten du: "gizon antzekoak eta gauza askotarako, batez ere itsasotik hurbil bizi direnak".

Hau gure Herrian ez da hain bakana lur barrurantz ere.

Baina itsaso honek zer arrain ematen duen esaten hasirik, Martinez Isastik aipatzen ditu kolakak, anproiak, lengoraduak, barbarinak, itsaskabrak, urraburuak, lupiak, muxarrak, lamotak, bogak, txitxarroak, alburak, korkoiak, txibiak eta olagarroak. Eta eransten du "itsasoaren partaide diren itsashibaietan" txirlak, ostrak, karramarroak eta kamaroiak hazten duela. Eta ia itsas barrurantz jorik, hemen hain kalitate oneko arraina badago, urak biziak eta freskoak eta oso olatutsuak direlako dio ("sanoa izateko hori behar da") eta horrela oso arrain gozoa dago, batez ere neguan harrapatzen den bixigua. Eta urte batzutan hain ugari egonik, bakoitzak "bi laurden" bakarrik balio izaten du, "eta

Probintzia guztia, Nafarroa, Aragoi eta Gaztela hornitzen dute, oso estimatua hala freskoan nola eskabetxean, eta ez da beste inon harrapatzen, Kantabriako honetan baizik". "Baita harrapatzen dira" legatzak eta "mantenu oneko" arrainak: itsasaingira, merua, andresa, gorlinak, perloiak, atuna, mielkak, penpidoak, orratzak, araiak, otarrainak eta hainbeste sardina.

Eta orain bere garaiko sorgin fantasian sartzen da.

Gauza xelebrea da gizonak betidanik duen miragarri zaletasun honek zenbat irauten duen; geroagoko autoreetan ere nabari da eta gaur ere badakigu nolako sineskeriak dauden: itsas munstroak, plater hegalaria, Ekialdetik datozkigun miragarriak, gure axanpak eta nekeak mirakuluz bezala sendatzeko. Baina Martinez Isastiri gagozkiola, batzutan ikusi direla dio "Ozeano itsasoan tritioiak, gizonaren antzeko itsas arrainak, sirenak, gure lurlean *Lamiak* deitzen zaienak. Hauk, arrazoidunak ez badira ere, naturalean gerritik gora gizonak eta emakumeak bezalakoak dira, eta handik behera buztanean bukatzen dira".

Eta frogak ere ematen ditu:

"Hauetariko bat behin itsas olatu batekin Pasaiako herriko untzi batetan sartu zen. Untzi hau ekaizpean zetorren eta hura untzigainean geratu zen, eta marinela asaldaturik zeudela nola harrapatu pentsatzen, unziaren baiben batez itsasora saltatu eta ihes egin zien. Pertsona sinesgarriak esan zidan eta nik egiazat daukat".

Orduan orain baino mirakulu gehiago gertatzen zen.

Baina gauza bitxia dena duela 350 urtetako "lekuko" honek, gaur ere gertatzen den bezala, ez zuela bere begiz ikusia ikusten, liburuetan irakurria baizik; orain ere plater hegalariekin gertatzen den bezala, denek ikusten dituzte lehenago beste batzu ikusitako antz antzekoak. Martinez Isastik ematen digu giltza: "Arrain hauk Pliniok eta Alexandrok aipatzen dituzte, Jheronimo de Roman Fraideak ere bai eta Galiziako marineletan Torquemadak "Jardin de Flores" liburuan".

Inprimaturik zegoena orduan, eta gaur ere ez guti, Biblia bezala zen.

Eta Isastik itsasoaz eta gipuzkoarrez hitzegiten digu eta hala dio untzi asko doala Terranovara, "iparreko herrialde oso hotz, eta bizi ezinekoa ia, hain elurtza eta izotz asko eta handiengatik", "Ozeano itsasoan zehar joaten dira lauhun eta berrogeita sei legoatan Bakailo Kosta esaten diotenera, Martxoan eta Apirilean irteten dira eta Irailean eta Urrian etortzen bakailoz kargaturik, Pasaiko portuan deskargatu eta Donostiako hirira eramaten dute eta hemendik eta Gipuzkoako beste portu batzutatik Espainiako alderdi guztietara banatzen da".

Eta gaineratzen du:

"Terranova alde honetara koipe bila ere joaten dira, komunzki balea olio deritzana, galdaretan urturiko gantzuz eta gizenez egiten baita".

Gero nola harrapatzen duten kondatzen du:

"Baleak hiltzeko modua harpoiak eta txabalinak izeneko harma jaurtikoiak botatzea da. Balea ur gainean ageri denean hamabi edo hamabost gizonen txalupa bat tiroa egiteko lekuraino joaten da eta orduan harpoilariak harma hura jaurtikitzen dio soka mehe batekin lotua, harponsoka esaten diotena, eta gainerakoa unama bati lotua, esku soka luzea hau, eta soltatuz joaten da, balea barrurantz abiatzen baita hartutako kolpearekin eta soka ematen zaio txalupatik utzi gabe: eta berriro ur gainera azaltzen da

purrustada egitera eta orduan beste harpoi bat sartzen diote eta beste txalupa batzuekin batera, elkarri lagunduz, txabalinekin hiltzen dute azkenean"... "Badira baleak berrogei eta hogeita hamabost beso luze direnak, eta lodieran proportzio horretan. Portura ekarri eta lehorrean ipinirik, xerrak egiten dituzte, eta gaztea bada gatzunaskan gordetzen dute frantsesen janaritarako, eta zaharra bada labean urtu eta hainbeste upa koipez betetzen dute; eta badira batzu hamasei arroako ehun eta berrogeiraino ematen dutenak, eta beste batzu hirurogeita hamar, laurogeita hamar eta ehun beren handieraren arabera. Eta hemen sartzen da sustantzia asko daukan mihia ere, ohituraz elizaren batera eramaten ez bada, Donostian San Pedro Kofradiari ematen zaion bezala, eta Getarin elizako fabrikari; hau Gipuzkoako kostan hiltzen dituztenetan, gero esango den bezala. Eta kontuan hartzekoa da, Terranovako nabigazioa aurkiturik egonik eta Probintzia honetarako hain probetxuzkoa izanik, nola ez diren beste batzu harantz joaten ausartzen".

Floranes jartzen du lekuko:

"Berak izan ziren aurkitzaileak ohore handiz eta ez ingeles eta frantsesen inbidia gutiz, eta erret zedulak eta dokumentu asko daukate, baimena ematen dietenak".

Martinez Isastik dio "ekartzen duten koipe honekin Espainiako lur asko hornitzen direla, batez ere Nafarroan eta Camposen argia egiteko eta oihalak lantzeko eta abereen eritasun batzutarako. Esperientziak egin dituzte eta ondo geratu dira. Itsasoz Flandes, Ingalaterra eta beste Probintzia handi batzutarako eramaten dute".

Gipuzkoako beste ihardun errazago bat ere aipatzen du:

Orio, Zarautz, Getari, Deba eta Motrikuko zenbait Gipuzkoar arrantzalek, Terranovaraino hain itsasaldi luze eta arriskutsuan ez joateagatik, urtero urriaren bueltan Bizkaiko eta Asturiasko kostara joateko ohitura daukate, neguan kostatik hurbil pasatzen diren baleen zain, eta ikusiz batera beren txalupa eta tresnekin azkar joaten eta hiltzen dituzte, eta portura ekarririk koipea atera eta upa asko betetzen dituzte, eta martxoaren bueltan etxeratzen dira ondo probetxaturik. Hau beren lurretan geratzen eta talaia partikularrak daukatenek hiltzen dituztenez gainera. Oso ezaguna den balen bizarra ere probetxatzen dute. Ahotik zakatz artetik bederatzi piezataraino ateratzen zaizkio, eta horrelako asko ekartzen eta saltzen dute. Garai batetan, asko balio zuten eta orain lauhun erreal balio dute eta ehunetarako, haizto buruetarako eta beste gauza batzutarako balio dute".

Eta Martinez Isastik berri zaharragoak ere ematen ditu gipuzkoar arrantzaleei buruz eta dio "duela ehun urte" bukatu zela legatz, izokin eta harenkeen arrantza, eta abereen larrugintza eta zezina, Terranovaraino urrundu gabe ondo zihoakiena, Irlandako kostetara joanda bakarrik untzi tikietan, eta bukatu zela "tratu eta nabigazio hau ingelesak kontra jarri zirelako".

Ikusten denez, itsasoko mugaketak ez dira gaurkoak.

Irlandarrei buruz, gipuzkoarrekin ondo konpontzen zirela dio, Bizkaiko jatorrikoak izatea "harrokeriatzat baitaukate", eta gerran halakotzat elkar errespetatzen dute.

Hauxe dio Lope Martinez Isastik 1600ean.

Larramendik mende bat geroago gipuzkoar itsasoko bederatzi legeak "itsaso guztietatik gogorrenak eta ekaiztsuenak" bezala deskribatzen ditu, eta gutitan ikusiko da hemen, dio, itsasoa bare edo esnetan". Itsaso hau dela dio "oso arraintsua: legatza, lupia,

itsasingira, burnila eta beste batzu; bixiguak, ostrak eta urraburuak, Zumaian; lengoradu bereziak Pasaiako kanalean; mogilak, meroak eta anproiak, baina guti; sardinak, antxoak, otarraina, orratzak, muxilak, olagarrik, txipiroiak, atun asko aldizka nahiz eta ez beste itsasoetan bezain handiak, erreboiloak guti, korkoiak, ahuntzak, mielkak, berdelak eta gainerako arraintxoak ugari. Gizurdeak, mazopak eta handiera desberdineko beste batzu, nahikoa ugari, eta gehienek koipetarako balio dute. Badira tronpak ere, gibartak eta baleak, horretarako goietan dauden talaietatik begiztaturik, marinelei dibertsio izugarria ematen dietenak".

Hemen, ehun urtetan, ez dira ia Terranovara balea hila joaten, dirudienez.

Ez du behintzat aipatzen.

Larramendik dioenetik Isastik esana osatzen duena bakarrik jasoko dut.

Beste gabe ere nahikoa adierazgarria da hori, bere *korografia* idaztean zer izaera eta bukaera daukan jakiteko batez ere: "Hurbilen dauden bortuetatik txalupaz irteten dira, eta harmada osoa ikaratzeko lain den itsaso zakarraren bildur gabe, hila doaz; itsasoan korru handi bat eginik, besteek txalupak maneatzen dituzte eta hura itsasoaren kolpeetatik zaintzen, eta haren barruan harpoinlari suhar eta trebe bat balea arnasa hartzera noiz azaleratuko zain, eta orduan zart botatzen dio"... "Azaina hau gipuzkoarrek sarritan egiten dute beren itsasoetan eta gu gara lekuko eta horrelakorik ez lukete Holanda, Ingalaterra eta Frantziako arrantzale famatuek ere egingo. Hauei txalupetan baleak hiltzera irtetea ere zorakeria irudituko litzaieke". Eta zailtasunak deskribatzen ditu: "Txalupak irenstera datorkion urezko mendi hegalaria branka ematen dio, eta arraunka eta arraunka igon eta goia hartzen dio. Beste ur mendi batek popatik traizioz ematen dio; baina alborantz jiratzen da eta brankaz harturik, hura ere engainaturik uzten du".

Eta Larramendiri bere mihia ateratzen zaio, balearen kontra burrukan ari dena: "Bien bitartean Neptunok ez du haxe besterik entzuten, *ea mutillak, ezquer* hemen eta *anaiac, orain escui* han, eta harriturik gelditzen da *a estribor* eta *a babor* mordoilo arrunt hori entzun gabe".

Eta goralpen beroa egiten du:

"Marinel haik gipuzkoarrak direla konturatzen da Neptuno, eta bere haserrea baretzeko erdijainkoak eta itsasoetako heroiak deklaritzen ditu".

Itsaso hau eta arrantzale hauk, ehun urte geroago, Juan Inazio Iztuetarekin, nola daude?

Iztuetak egina du mendien, hibaien eta oihaen inbentarioa eta itsas ertzera heltzean, lehenengo egiten duena, 1847an, hamairu arrain portuak zeintzu diren esatea da: Irun aranzu (sic), Ondarrabia (sic), Lezo, Erreterria, las dos (sic) Pasajes, Donostia, Orio, Zarauz, Guetaria, Zumaya, Deva eta Motricu (sic).

Merezi zuen aipatzea.

Irun eta Erreterria arrain portuak dira; Irun *Irun aranzu* deitzen zen eta oraindik ez zegoen bi Pasaiak besterik.

Iztuetak kondatzen du barruko espainiar asko ia egunero etortzen direla arrain bila eta gure portuetan Donostitik ateratzen diren ehun mandok arrosarioetan eraman dezaketena baino gehiago aurkitzen dutela eta hori gehien arrantzatzen den portua Donosti izan gabe. Nork jakin, galdatzen du, urtearen buruan Gipuzkoako portuetatik

zenbat arrain ateratzen den Nafarroa, Aragoi, Araba, Errioxa, Gaztela eta barruko beste leku batzutarra! Kasua aipatzen du nola 1826an aparteko auto batzu zerbitzuan jarri zituzten Debatik Madrilera arraina eramateko. Bi egunetatik behin ateratzen ziren ehun arroatik gora arrainez, 80 legoa 56 ordutan egiteko, eta bazen joanaldi hau 44 ordutan egin zuenik ere.

Baina Iztuetaren ekarpenik garrantzitsuena, dudarik gabe, ematen duen arrain moten zerrenda da, 150en bat, eta horietatik hemen batzu bederen jartzea egoki delakoan nago: *aolatza, arrizpata, bacalloa, caramarroa, chicharroa, chilibitua, chinchina, chipiroia, chiria, coloca, egachibia, errosela, goizcata, ichamascullua, ichasaldia, ichazapoa, isquiza, izoquia, izoquisemea, izurda, mugurria, lapamugurria, lartatza, mascorta, olagarroa, otarraina, patucha, perloia, pinpiñeca, pota, sardin-igarra, sortarraina, sutarraina, turbotea, urrearraina, zapatarraina eta zarboa.*

Gipuzkoarrak izan ziren, dio Iztuetak, balen ehizara eta bakailo arrantzara lehenen arriskatu zirenak, eta ihardun hau 1237ko irailak 18tik dokumentaturik dago Zarautzen; Ondarrabi, Getari eta Motrikuko ezkutua ere aipatzen ditu lekukotzat.

Iztueta alde batera uzten dugu garaiko espainiar iturriak aipatzen hasten denean, liburu honek eduki nahi duen lekuko baliotik kanpora ateratzen baikara.

XIX. mendean bakarrik sartzan da baporea; bela eta arraunaren kontrako iraultza noski. Iraultza tekniko hauei buruz, gure zoritxarra, ez oraingoa bakarrik, oso gaitz aspaldikoa baizik, zera izan da, alegia, erdian hartzen diren ebatzien mende egon behar eta horrela ezin behar genituen bultzagailuekin erantzun. Berdin gertatzen da orain euskal untxiak kosta guztietan atxilotzeaz. Madrilen berandu enteratzen dira, ez gaituzte ulertzen.

Baina teknika bideen berrikuntzari buruz:

Lehenengo bagoiak, hozkailu kamioiak eta gazidura eta eskabetxe fabrikak ekarri zuen komertzialmendurako erraztasuna gertatu zen. Berrogeita hamarraren bueltan untzien ahalmena ere gehitu egin zen, eta Gipuzkoako untziteriak 100.000 tonelada harrapatu zituen. Ordurako eztanda motoreak eta alturako nabigazioko instalazio bereziek eta izozganbarek, kontserba eta hirin industriren hazkuntzak emaniko aurrerapenez horniturik zegoen.

Baina aurreramendu hau gelditzerik ez dago.

Organismo supranazionalan eta gure arrantzaleek ez dituzten teknika eta finantzia bideekin baturik dauden Europako beste flota batzuren kompetentzi arriskuak hankaz gora bota dezake hain euskal tradizioa izan den eta Gipuzkoan halako indarra eduki duen industria, inizatiba handien iturria eta bokazio bikainen eta gure herrirako bizi iturri delako defendatu beharra daukagun itsaso honetara egokitzearen iturria.

Euskaldunen itsasoak euskaldunen beren arreta berezia behar du, berak baitira gure itsasgizonek bizi duten problema apartekoa ondoen ulertzen dutenak.

Hemen gure ekonomiaz gainera, gure kultura jokatzan ari da, tradizioak eta hizkuntza ondoen zaindu diren alderdia baita.

Kultura

Gizona

Isastik 1600ean deskribatzen duen gipuzkoarrak ardura ereduzkoa, ideala darama, garaiko eritziak ikus erazten dituen.

Eta hemen ez diogu hari bere garaiko ikuskera hauxe besterik eskatzen.

Gipuzkoarrak, "hala gizonak nola emakumeak", "gestu onekoak" direla dio, "pretasun eta trebetasun onekoak, ez luma gauzetarako bakarrik, baita nabigazio arterako ere, eta disziplina militarreko langintzarako eta ez gutiago letren ariketarako". Baita ere dira "oso makurkorak eta gizakorak, kanpotarrak pozteko eta ohoratzeko eta eskuzabalki on egiteko deseatzten, lagunekin bigunak eta etsaiekin latzak; eta hain gaitzi zaie gaizkiletasuna non sarritan haien korregidoreei bakar bati ere laiko ageria emateko aukerarik eduki gabe, txandak bukatzen baitzaizkie, eta zenbat gehiago beste justizia batzu, oso bakanki noski: eta inoiz egiten denean, jatorriz atzerritarra izango da".

Gipuzkoarrak "ondo jaioa izatearen" balio morala asko maite duela dio baita beste balio zibiko hau ere, alegia, "beren lehentasunak eta pribilegio orokorrak eta apartekoak defendatu errepublikar on eta ongi unibertsalaren zaitzaile bezala".

Eta izaeraren alderdi bat aipatzen du.

"Onez lagunkoiak eta erakar errazak dira; txarrez zailak. Solteak, adoretuak eta trebeak dira harma klase guztietan eta oso harma zaleak..." Eta beren lurra defendatzeko ardurari buruz gaineratzen du: "Probintziak dei egiten duen guztian, hiru egunen barman hartarako moduko jende guztia biltzen da seinalatzen den alderdia defendatzeko, Frantsesen trantzeetan ikusi den bezala: hauek Ondarrabi eta ingurua atakatu zuten".

Gipuzkoar gizonaren kapitulu honen barman sartzen diren emakumeetaz dio "aurpegi onekoak eta kolore onekoak direla, berez serioak eta honestak, garbitasun handikoak, gizon antzekoak eta gauza askotarako, batez ere itsas ingurukoak". Hauen lanei buruz dio "granjeriara oso emanak direla, eta beste gauza askoren artean lihora. Honela hau ereiten eta asko hartzen dute eta iruten eta ehoten txukuntasun apartekoz; eta honela lurraldea liho finez eta arropa zuriz hornitutakoan, Espaini zati handia hornitzen du tokaz, elizapiz eta beste ehun mota askoz".

Larramendik nola ikusten ditu gipuzkoarrak ia mende eta erdi geroago?

Larramendik sen kritiko gehiago dauka. Honek ez du esan nahi beti; batzutan berotu eta senetik ateratzen da bere lurra eta bere jendea defendatzeko; baina badu bere akatsak, bere lurraren eta bere jendearen akatsak aitortzeko birtutea ere, eta airatu egiten ditu, gogoetara eta zuzenketara deitzeko; apaiza da izan ere; baina nolnahi ere gure garai hauetan erizkera hau, gauzak biluzik epaitzeko desatxikitasun hau ez da gehiegi ikusten; gauza zaila benetan beti ere; baina orduan behar bada zailago, mundu hertsia goa baitzeukaten, gaur adina erreferentzia gabe; eta horregatik gipuzkoarraz mintzatzean "esperientzia komunetik kanpora dauden salbuespenetan geratu gabe"

mintzo dela kondiziotzat jartzen badu ere, honela dio: "gizonak garaiera normalekoak dira, ondo egokituak; zuriak, baserritar laborariak bezala eguzki beroa eta eguraldi txarra urte osoan jasan behar dutenak ere".

Zuria izatea, hemen ere, abantailatzat zeukaten.

Gipuzkoan ez dagoela dio "gorputz itsusiko gizonik, munstrorik, oker eginik eta aurpegi zakarrekorik, beste erreinu batzutan bezala", eta areago dira "bizkorrak, biziak eta prestak, sendoak eta indartsuak eta denak gizon aurpegiak eta ez emakume aurpegitxoak gaizki jateagatik, edo makalak jaiotzeagatik edo eme hezkuntzagatik; eta buru iletsua eta bizartsua".

Eta gehiegi dio, jakina, gipuzkoarrak direla esatean "hain buru sano, gogor eta sendokoak non apenas baitago han herio zauririk".

Burruketan "zitalkeria da kolperik hanketara botatzea: zartadak burura bota behar dira, erdibiturik eta irekirik utziko badute ere: eta esperientziak dio gehienez denak sendatzen direla hiltzekoak diruditen zaurietatik". Bere jendea goستن hasirik, Herri honetako gizonak honelakoak direla dio: "gorputza txairoa, oinkada sendo eta belaunetan joko eta indar handikoak, eta hala behar ere beren baserri eta mendi oso garaietara igoteko, eta mantxarrak lautadetan bezala ibiltzen dira; gorputz oso euskorrek dauzkate hotzen, izotzen, elurren eta txingorraldien kontra". Baina berehalaxe eransten du ez dela "hainbeste gosearen eta egarriaren kontra"; hau, itxura denez, alderdi makal zaharra dugu.

Zumalakarregik, ia ehun urte geroago, badu bai kondizio hauetariko batzu frogatzeko aukera harmada nekagaitz eta asperkaitz bat egiteko gizonekin.

Eta emakumeen txanda orain.

"Gipuzkoako emakumeak Espainia guztiko ederrenak dira; kolore bizi bizia, txukunak, gordinak, sendoak eta bizkorrak eta sanoak; mindulinkeri eta koplak gutikoak, argitasun handikoak, beren baserri eta mendietara aldatzik ez balego bezalako airez eta indarrez igoten direnak. Gizonen baino indar eta euspen gehiago daukate buru gainean karga oso astunak eramateko leku batetik bestera, batzutan hiru edo lau legoatarra. Inguru gutiagoko emakume baserritar eta kaletarren artean ikusten den hori proportzioz dametan eta andereetan ere ikusten da, koplak gabe eta tintasun planta gabe lanean ari direnean".

Eta kutsapenaren bildur da:

"Baina *damatasuna* deritzaten horretan Gaztelako modak eta aprentsioak sartu ahala, bildur naiz laster beirazkoak egingo ote diren".

Goazen orain lehen aipaturiko birtute autokritikora, zeren bere lurreko gizonaren eta emakumearen defentsa sutsu honen ondoren, Larramendik badaki tartean diren akatsak ikusten eta (gehien kostatzen dena) esaten, aitortzen.

Badu bai kontua bere erretratua beltzegi ez jartzeko. Horregatik hasten da esanez gipuzkoarren izpirituak eta jeinuak "alderdi handiak eta bikainak dituela, baita beste tiki eta gaitzesgarri batzu ere". Eta gero birtutea lehenjartzeko prekauxioa hartzen du seinalatzean "arriskuei aurrea emateko jeinu suharrekoak eta ahalegin bakanekoak direla"... Goresgarri den hau sarritan balentkeria eta ausarkerietan bukatzen dela aitortzen du eta "aspaldiko mendeetatik gaitzesten zaie ihardun militarrek eskatzen duen baino gutiago esanginak eta lotuak direla eta Kapitain Nagusiari esan erazten dio

euskaldunena baino lehoien erregimendu bat gobernatuz agintzea nahiago lukeela. Baina hau ez da adorea gutitzea –zuzentzen du Larramendik– handitzea baizik eta gehiegikeria bakarrik gaitzestea, ezuhurra, arrapatakoa, barbaroa eta piztikoia denean".

Zumalakarregiri, dudarik gabe, Gonzalo Fernandez de Cordobari baino hobeki zerbitzatu zioten, ez omen baitzezakeen hoberik topa hala kemenez nola leialtasunez eta diziplinaz.

Diziplina hori, jakina, aurretik ezarri behar izan zuen; baina ezarri berak, bere askatasuna defendatzen zuen bere herriko gizonak, eta ez beste batek.

Gero Larramendik itsasoaz hitzegiten du.

"Badira beste asko ere itsas gizonik onena gipuzkoarra dela inprimatu dutenak; eta honek ez du esan nahi nabigazioko ulerpenean eta ihardunean bakarrik dela onena, baizik baita etsaiari aurrea emateko adore eta ausartzian ere, nahiz eta haren untxiak handiagoak izan, indar handiagoari kuraiaz eutsi eta azkenerarte amorerik eman ez".

Eta emakumeen kemenari buruz:

"Gipuzkoako emakumeak ere beren sexuari dagokion baino kementsuagoak dira, ez beste probintziakoak bezain bildurriak. Frantziarekiko gerretan guti dira beren etxeak uzten dituztenak, baita muga aldeetan ere, eta batzuk eta askok azaina handiak eta oso gizonkoiak egin dituzte eta horietan aintzina gabe ere hainbat kasu eder daude. Ez dira izutzen, aitzitik ordea, oso gustora egoten dira dauden alardeei begira, arkabuzak eta fusilak disparatzen ikusiz, gaizki moldatzen direnak seinalatuz eta burla eginez. Presondegi batetik bestera pasatzen diren soldaduak freskura eta lasaitasun handiz hartzen, begiratzen eta tratatzen dituzte; eta berdin emango diote zaplada bat lizunkeriaren bat intentatzen duen soldadu lotsagabeari, eta honelakoak ez dira guti izaten pasoko lekuetan eta Donostian eta Pasaietan. Bide eta mendi hauetan zehar hara eta hona dabilta, bai bi edo hiru batera, bai bakarrik ere, kargarekin edo gabe, lapurren eta beste gaizkile pikaroen bildur gabe, eta hau harrigarri zaie gaztelarrei".

Eta hemen taldeen arteko burrukarako joeraz honela dio:

"Orain ez dira leku bateko eta besteko arteko jipoi izugarri haik ikusten ez entzuten. Orain erromeriak balentria basaki hoik gabe egiten dira". Halaber dio "zezenak eta antzarak eta beste jai batzu makilarik eta errietarik gabe egiten direla. Egia da Oiartzungo eta beste toki batzuetako zaharrak penaz daudela ia ez omen baitago gizonik, ez festek balio omen dute ezer, mutikoen arteko errietatxo bat ere ez baita ikusten. Bukatuak dira Donostiko Kardiloi ankerrak eta Gipuzkoako beste tokietako harrikaldi basatiak". Eta gorespenez bukatzen du: "Ez dago Espainian Probintziarik justizi makila gehiago errespetatzen denik".

Gipuzkoarrak eta Bizkaitarrak birtute batean batzen ditu: despotismoaren kontrako errebeldia, euskaldunena bada ere.

"Gipuzkoarraren haserrea ondo ezaguna da, baita bizkaitarrarena ere. Gipuzkoarrari onean edozer atera dakiok; baina txarrean ezer ere ez, setatsua eta egoskorra baita eta Jainkoari zin egiten dio, jauntxo, ez dela zuk nahi duzuna izango".

Eta oraindik P. Larramendiri, *Aita Manueli*, zorroan gorespenak gelditzen zaizkio:

"Gipuzkoarrak barrukoei nahiz kanpokoei on egin zaleak dira, lekuetan eta bideetan halabeharrak eta zoritxarrak gertatzen zaizkienei beren pertsonen eta indarrez laguntzeko prest. Ezagunak izan nahiz ez izan, euri zaparradak, trumoiak edo ekaitzak

aterpea bila erazten dietenei harrera atsegina egiten zaie baserrietan. Ez dago erromesei eta pobreei, Gipuzkoan baino karidade gehiago egiten zaien Probintziarik, hala hospitaletan eta hauk herri eta hiri adina daude, nola baserrietan eta hemen beren alaria eta bazkaria banatzen dute datozen eskaleekin eta bi edo hiru ohe garbi eta txukun dauzkate lo egiteko eta atsedean hartzeko".

Baina bere herritarrak goretsi nahi dituen birtuteak hutsekin nahasiz, honelako akatsak aipatzen ditu:

"Izaeran hain gauza goresgarriak edukirik ere, zentzapena eta zuzenketa beharreko beste zer batzu ere badituztela aitortu beharra dago. Bekaiztiak, harroak, jeinuz esker gaitzokoak dira, denboraz, gogoetaz, hezkuntzaz eta birtutez denak mendera daitezke asko menderatzen diren bezala, eta orduan menderatze hori birtutezko eta goragarri bilakatzen da. Inbidia dute, ez kanpokoekin eta arrotzen onaren eta ondasunena, beren artekoa baizik, bistan dauzkaten hauzo, herritar eta ahaideena. Gipuzkoako edozein establezimenduk, denen ongiari denik onena bazaio ere, Gipuzkoan beti aurkitu ditu eta aurkituko ditu, beti lehenengo etsaiak. Mintza bedi Caracasko Konpainia, mintza bedi ainguren erret fabrika. Bi motetan luze eta luze hitz egin nezake eta agertu pertsekuzio basatiaren arrazoi bakarra inbidia izan dela, gero beste grina batzurekin sendotuz".

Larramendi balenta izan da bere herriaren zauri hau hain lazki arakatzean.

Baina birtute gehiago gogoratzen zaizkio, oraindik gehiago dago.

Gipuzkoarra argia dela dio "dena laztasuna, mendia, harria eta haitza den herri batetan" uste litekeen baino gehiago. Aitortzen du "ez dagoela hemen aire handiko antzokirik, ez unibertsitaterik, ez goi eskolarik; ez da matematikarik irakasten, ez osorik ez zatirik. Eta hala ere, beren mendietatik sekula atera gabekoen artean, berez eta espekulazio gabe oso buru trebeak daude matimatikek irakasten duten zerik zorrotzenetarako.

Adibidetzat haien trebetasuna jartzen du "oletako fabrika asmatzeko eta exekutatzeko".

Eta itsasora berriro:

"Gipuzkoan jaiotzaz dituzten joerak aipatzekotan, nabarmenena itsasorakoa da, ez itsas ertzetan eta inguruetan bakarrik, baita lur barruan ere. Pare bat ikaskai apenas hartutakoan, ia bat batera eta sorginkeriaz bezala marinel eta pilotu eginik daude"... "Harrigarria da hamar edo hamabi eskola haur edo guti handiago zer ausartziaz sartzen diren batelean, txalupan eta baita lantxan ere, eta arraunka itsasoan zehar ateratzen dira, bela jaso eta jolasak edo dantza, edo zezenak edo beste festa batzu dauden beste portu batera joaten dira eta adin askoz handiagoko maisuak lezaketan bezalako segurantziaz etxeratzen dira".

Eta hemen ere bere garrantzia duen gogoeta bat egiten du:

"Caracas, Buenos Aires eta Amerikako beste portu batzutarako bi edo hiru untxi prest badaude, Gipuzkoatik berehalaxe agertuko dira marinelak beren borondatez. Ez, ordea, erret harmadarako altxadak daudenean, hango zehaztasuna eta lotura beren jitearen kontrakoa baita".

Gizon eskolatu eta gaztelar eta latin pentsamenduko korronteetan heziriko gizon hauen lekukotasunetik, eta horrelakoak dira Martinez Isasti eta Larramendi, kanpoko eraginetatik libre egon ezinako lekukotasun haietatik, beste elementalago batera goaz,

baserritarragoa, bere garaiko hautemale soila, baina berez argia, eta Iztueta da hori, euskaraz, bere hizkuntza Kultoa duenaz idazten duena.

Zer dio gipuzkoar honek bere garaia buruz, XIX. mende erdirantz?

Iztuetarentzat, Gipuzkoaren maitale handi horrentzat, ez dago lur honetan jaioa baino gizon hoberik; berez leialak, eskuzabalak, langileak, alaiak, indartsuak eta balentak dira.

Eta gure Herritik pasatu diren atzerritarrak eta Erregeak berak ere lekukotzat jartzen ditu.

Badu gorespenik ugari gipuzkoarren gorputzaren egituraz eta edertasunez, Larramendirekin deman ari da kunplimenduan eta Andoaindarrak zioen azal zuriaren lekuan Iztuetak "zuri gorri" osasungarriagoa jartzen du; Arkadiako bizilagunekin konparatzen ditu, xalotasunaren eta zorionaren irudi haik; eta beren ezpainetan harentzat handiena den dohaina gordetzen dute, euskara milurtetsua, batzuk, eta orduan ere baziren halako etsiak, jakina, apaldu eta oinperatu nahi dutena.

Euskara, nola dabil euskara Gipuzkoak gureganaino utzi duen arrastoa bilatzen ari garen hiru garai hauetan?

Hizkuntza

Hizkuntza gizonaren kultur sustrairik sakonen eta trazendenteenean dago.

Gizona hizkuntzagatik da hain zuzen gizon.

Eta denek, Martinez Isasti gure lehen lekukoarengandik hasirik, euskararen jatorriari buruz beren garaian zekitena misterioski eta erligioski kondatzen dute. Tolesgabetasun hau ez da Isastiri bakarrik ezartzekoa, garaiko kontua da hori, eta orduan zientziaren oinarria den ezagutza objektibo eta sistemazkotik oso urruti zeuden oraindik.

Zientzia, gaur ulertzen dugun bezala, gauza berria da.

Zientzia, egia etimologikoz, ezagutza da. Ezagutza hau hautematez, konprobazioz eta zuzenketaz lortzen da, etengabeko zikloan, berez zutik dirauten lege oinarritzko horien bila.

Izan dira garaiak nolabait esateko nagiak, eta herrien eta beren kultur zibilizazio egoeraren gorabeheran, gizona munduaren "ezagutza" hau "errebelazio" gisa hartzeaz konformatzekoak. Egia errebelatriaren mirakuilu hau, eta haro txit jakinetan batez ere, bilaketaren, ikerketaren etsaia izan da; sarritan interes politikoak tartean zirela. Eta ondorio negargarriekin, hala gizonarentzat eta honen askatasunarentzat nola Elizarentzat.

Zientzi haro handietarik lehenengoa Grekoa da; K.A. 600dik K.G. 200era guti gora behera, eta bigarrena, haro modernoa; hau 1453tik gora hasten da, Ekialdeko Inperioa desagertzean.

Irudimenezko marra adierazteko erabiltzen dugun hitzak berak dioen bezala, Bizkundera da: iturrietara itzuli, kasu honetan grekoetara, eta gizonari, jainkoaren izakiari, bizi den munduko erdigunea izatearen erantzukizuna har erazi. Erdi Haroko superstizio osinetik irtetea eta bilatzeko eta aurkitzeko askatasunaren argian sartzea

dakarren giza abentura hau oso mingarria izan zen. Lekuko dira Koperniko (1473-1543), Galileo (1564-1642), Kepler (1571-1630), Descartes (1596-1650), Newton (1642-1727) eta Darwin (1809-1882) batzuk biraolari zeritzaten egiztapen eta esperimentazio bidean gizonak eman zituen oinkada izpiritual handiak bakarrik aipatzeko.

Zientziek, bada, oso astiro eta saminki aurrera egin dute.

Eta hainbestetik, batzu gaur gaurkoak dira.

Hauxe da hizkuntzlaritzaren, filologiaren kasua, adibidez.

Horregatik ez dugu zertan harritu XVII, XVIII eta XIX garren mendeetan gipuzkoar lekukoek eman dizkiguten kontzeptuekin. Batez ere gure inguruan, urruti orduan ere zientzi ikerketako zentroetatik: Ingalaterra, Alemania, eta Frantzia batez ere. Isasti eta Larramendi bezalako gizon jakintsuek behin betiko egia errebelaturantz egunero bilatu beharraren kezkarantz baino makurrago zeuden iturrietan edan zuten. Europako beste unibertsitateetan zorrotasun zientifiko handiko gaiak ikasten ari ziren bitartean, Salamancan aingeruen sexuari bueltaka zebiltzan. Eta bestetik ez ahantz biak erligio obedientziko gizonak zirela, eta oso artezak, dirudienez.

Liburu honetan zehar honelako zerbait nonbait esan beharra zegoela uste dut. Gogotan edukitzea komeni da garaiko kultura eta aurreritziak eta baita bakoitzaren gurpilada pertsonala ere adierazten duen hizkeraz datozkigun lekukotasun hauek zer esan nahi duten neurtzean.

Kontextu honetan, ikus dezagun zer dioen Isastik, "Apezak, Lezotarrak", euskarari buruz.

"Gizonak Jainkoaren eskutik hartu zituen beste zenbait dohain gorenen artean, behinenak arrazoa eta hizkuntza dira. Lehenengoarekin bere antzekoa egin zuen eta bigarrenarekin beste gizonekin harremana eduki ahal izatea eman zion, komunikapenaren eta tratuaren bidez".

Berehalaxe Genesisera jotzen du, Babelgo dorrera, zigorrera, hau baita garaiko kultura linguistikoko guztiaren iturri, eta hemendik, zer guztien arrazoa (gehiegi gal ez gaitezen) bilatzeko jarrera honetatik, Jainkoaren zigorra izan zen hizkuntzen aniztasun honek banaketa ekarri zuela dio. Aurreragoko beste tolesgabetasun batzuren errepika zen zehaztasun tolesgabe horrekin dio "historiaren arabera, hirurogeita hamabi hizkuntza izan zirela dorreko nahaspila hartan asmatu zirenak eta (hasieran egon behar) horietariko bat euskara zela".

Eta Martinez Isastik gertaera honen data ematen du: mundua sortu eta 1788garrenean.

"Probintzia honetan hasieratik hitzegiten da Baskuentze hau bertako hizkuntzan euskara deritzana, hainbeste mendetan galdu gabe iraun duena, konkistatu gabea eta atzerriko nazioekin nahasi gabea izanaren argumentua". Eta Gipuzkoaz gainera, hitzegiten da "Nafarroarik gehienez, Lapurdi deritzan Frantziako Gianan, Araban eta Bizkaiko Jaugoan, Orduñako hirian izan ezik". Isastik marraztu digun Euskadiko hizkuntz mapa hau adierazgarria da. Eta, euskalkien zeraz gainera: "zenbait hitzetan desberdina da", erromantzearen eragina eransten du: "eta zenbat eta Gaztelatik aparteago, garbiagoa da".

"Baskuentze" honen jatorriaz dio: "Baskuentze izena baskotik datorrela dirudi"; eta gero haren jatorriaz eta joanetorriaz dio: "eta horregatik ez uste Tubalek ekarritako hizkuntza ez denik, lehenengo Nafarroara eta gero Gipuzkoara etorri zelako".

Orduko toki komuna aipatutakoan, alegia, Penintsulako lehen hizkuntza eta denean zabaldurik egon zela aipatutakoan, Aldarete Doktoarea aipatzen du eta Senekak amari eginiko eskutitz bat esanez "hizkuntza hau hirurogeita hamabietariko bat zela eta Bizkaian kontserbatu zela" eta gaineratzen du: "hau pozgarri bazaie, nigatik ez dute galduko, ni ez bainatzaie kentzen ahaleginduko".

Senekari zar diogu, hada, gogoeta hau.

Beti "bihurritzat", zailtzat jo duten "baskuentze" honi buruz, Isastik ikasteko modukoa dela dio.

Honela dio: "Ekinez gero ikasteko erraza da, Gipuzkoako kosta hartan bizi diren gaztelauen esperientziak erakutsi duen bezala; horiek euskaraz dezente egiten dute; eta Terranova bezalako herrialde hain urrunekoetan menditar basatiek ere ikasi dute urtero bakailotara doazen euskal marinelekin harremanean eta beste zenbait gauzaren artean: *nola zaude* galdatzen zaienean, xelebrequi erantzuten dute: *Apaizak obeto*; eta haiek ez dakite apaiza zer den ere, entzunetik baizik. Gutarrekin hitzegiten eta tratatzen dute eta itsas bazterrean arraina ontzen laguntzen diete bizkotxo ogiren baten eta berek han ez daukaten sagardoaren truke".

Beste zenbait gauzaren artean Elso lizentziatua aipatzen du, "nafar euskaiduna", "duela ehun urte" kristau ikaspideko liburu bat erromantzez eta euskaraz idatzi zuena; baita Baltasar Etxabek idatzi zuena ere ("batez ere Ave Maria") eta Iruinako Apezpikuak, Antonio Venegasek, "kristau dotrinaren katixima edo liburuxka bat euskaraz egiteko agindu zuela eta inprimaturik dagoela" dio eta Gipuzkoako eta Bizkaiko M. Etxabek ere "hizkuntza honetan liburu bat" egin zuela dio.

Eta hemen, Isastiren liburuaren editoreak, azpiko ohar batetan Isastiri ahaztu egin zaiola dio 1572an egin zen Itun berriaren inprimaketa titulu honekin: *Jesus-Christ Jaunaren Testamentu Berria*.

Euskarari buruz aipatzea merezi duten berri batzu ematen ditu.

Sainduei *Jaun done* lehenjartzen zaie. Esaterako *Jaun Done Miqueli*, San Migeli. San Sebastianen kasuan, euskal izena, Donostia, nondik datorkion esaten du: *Jaun done Sostia, done*, euskaraz, Saindu baita. Nabarmentzekoak dira hemen "bi dato"; lehenengo bitxiki dio "apezei, sainduak izateko obligazioa dutelako, Don titulua ematen zaiela (saindua esan nahi duena)" eta hau honela dela dio "Iruinako Apezpikutegian eta honek Gipuzkoarik gehiena hartzen du".¹²

Euskal hitzen etimologiaren berri ematean, garaiko hutsetan erortzen da, jakina.

Bitxiki dio "hizkuntza bat zenbat eta hitzetan misterioitsuago izan, hainbat eta hobe dela, zeren gauzen definizioak eta propietateak izpirituz eta dotrinaz agertzen baititu, eta bide beretik sinplari eta jakintsuari gauzaren natura irakasten dio beste maisurik eta estudiorik gabe".

¹² "Don", dakigunez, latineko *dominustik* dator. Lehenengotan erlijio kutsuz etorri zen latinetatik; gero nobleziarako titulu garrantzitsu baten duintasuna hartu zuen; eta joanak joan, ezer ez adieraztera heldu da.

"Agur jauna" aipatzen du, erdaraz "reverencia os hago, señor" itzultzen duena eta "agurtzeko ere oso erabilia dela" dio. *Amuarraia*ren izena amuko arraina delako dio (amu eta arrai). *Zoraburu* dio erdarazko "columpio"tzat, eta Azkuek ere biltzen duela ikusten dut, ia erabiltzen ez bada ere. Euskara "hizkuntza perfekta" dela dio, bere garaiko kontzeptuak hauk eta geroagokoak ere bai. Karlos Boskarrenak, mende bat lehenago, "euskaraz pozik egiten zuela" dio, "aitorlea, kaperaua eta medikua euskaldunak baitzituen"... edo "kuriostatez hitz batzu ikasi baitzituen", eta pasadizo ezagun bat aipatzen du, Isastik "pertsona sineskarriengandik" hartutzat ematen duena, alegia, "bidean Nafarroako mandazain bat aurkitzean euskaraz galdatu ziola: *Mandazaia nondic zatoz?*, eta hark erantzun *Nafarroatic*; eta gero galdatu zion *Nafarroan gari asco?* eta hark erantzun *bai jauna asco*; enperadoreak azkenean esan zuen: *Nafarroan gari asco, batere batere ez neretaco*.

Lucio Marineo Siciliakoren liburua aipatzen du, Karlos Boskarren Enperadorearen historialaria bera, bere liburua euskarari buruz Alcalan inprimatu zuena.

Guzti hauk, dio Lope Martinez Isastik 1625ean. oraintsuko gauzak bezala gogoratu behar dira.

Eta mende eta erdi geroagoko lekuko batekin goaz: Manuel Larramendi, 1754an idatziriko bere *Corografía de Guipúzcoa* liburuarekin.

Larramendi da airean dagoen desafia jasotzen duena, alegia, euskara ez omen da arauetara egokitzeko gai eta erantzun gisa lehen euskal gramatika idazten du eta baita bere hiztegi hain baliotsua ere, *Diccionario Trilingüe Castellano. Bascuence y Latin*, tamainu handiko 500 orrialdetik gorako liburua. Hizkuntzak deitura desberdinak dituela dio: *eusquera, euscara, escuara, uscara*, "herrien arabera eta horixe da gure hizkuntzak bere buruarentzat daukan izena, eta ez da konformatzen Gipuzkoako, Bizkaiko, Lapurdiko, Zuberoako, Nafarroako... hizkuntza esanik".

Horregatik Gipuzkoa diodanean era batera Euskadi osoari dagozkion hainbeste elementu funtsezkori ekin behar.

Larramendik idazten duenean, hizkuntzalaritarik zientzia gisa ez dago inola ere, kapitulu honen hasieran ohar erazi dugun bezala, baina ikerkuntzaren bide bukagabeen goazen besteok adina eskubidez zera esaten ausartzen da, alegia, euskara "hizkuntzarik zaharrena, lehenengoa dela, Espainian Kristoren etorrera aurretik mintzatu zen herri eta etxe hizkuntza bakarra".

Ez du hainbeste esageratzen "ia mirariz, kontserbatu den erlikia bakarra dela" esatean.

Eta euskararen defentsore bihurri honek beste zer hau ere badio eta oraindik XVIII garren mendean gaude: "Hau bezalako hizkuntza bat zergatik zaie arbuiagarri espainiarrei? Hizkuntza hau aintzinako guztiak bezala hil balitz eta lehenago eskuizkribaturiko eta gero inprimaturiko liburuetan gorde balitz, eta beretan turdetanoek, Estrabonen arabera, zeuzkaten sei mila urtetako bertsoak aurkituko balira (eta prosaz ere edukiko zuten besterik), orduan maitatua eta ikasia izango litzateke, grekoa, latina eta beste hizkuntza defuntu batzu bezala. Baina hau hain zuzen hizkuntza bizia da: ez du beste hizkuntza hilen zoritxarrik izan; bizirik dago eta adin zihur eta

jakinez beste hizkuntza biziek eta hilek ere baino mende gehiago dauka, hebraiera izan ezik". Eta, tokatzen den bezala, Tubal eta Babel pasaturik, bere arloan sartzen da berriro eta dio: "Bigarren, hemendik euskaldunek nolako ezjakintasunean eta alferkerian bizi izan diren atera behar lukete etxean daukaten onik, beren hizkuntzaren bikaintasunik eta abantailik ezagutu gabe, espainiarrek Espainian eta frantziarrek Frantzian hainbeste mendetan zehar zimel, jo eta desohora dezatela utzirik, aurpegirik eman gabe, haren izen onari begiratu gabe, eta hori erraz egitekoa dute hitzegiten duten bezala ikastera eta beren hizkuntza txukunaren perfektasunak ikasten saiatuz gero, hura gaitzesten eroka eta aztamuka ari izan diren guztiak lotsa erazirik"...

Eta epai zorrotza ematen du:

"Guzti hauek (hitzegiten edo ikasten ez dutenek) euskaldunen matrikulatik borratzea merezi dute, beren ohore eta nobleziarako daukaten titulurik onena hain zuzen, zeren nazioan euskara ahazturik balego, ez legoke argumentu sendorik"... "Espainiako naziorik zaharrena dela"... "Esanikoan eskolatuenak izan beharrekoek hain zuzen gutienak dira eta euskaraz ezduinki eta zuhurtasunik batere gabe hitzegiten dutenak. Tikitatik gaztelaniara edo latinetik ikasitako gramatikara ohiturik dauden elizgizonak, erlijiosoak, zaldunak eta horrelakoak dira hauk"... "Hauk beren hizkuntza jakiminez eta gramatikaz ikasten jartzea zilarbizizko meatzeetara kondenatzea da, eta hortik aitorleak egotea beren eta besteen kontzientzien segurtasunez aitortzeko gauza ez direnak"... "zalduntoak eta alferrak euskaraz hitzegiteko eta tratatzeko gauza ez izatea".

Ezartzen zaion lastre astunetik defendatzen du euskara.

"Okerrena eta inola ere jasan ezinekkoa da beren ezjakintasunaren eta alferkeria inkultoaren eta saiagabetasun gaitzesgarriaren erru guztia euskarari berari bizkarreratzea, gehiagotarako ez balitz bezala. Hau ez da ia engainua, gezur lotsagarria baizik"... "Atxakiatzat jartzen da Gaztelania Gipuzkoako herrietan ere nahikoa ulertzen dutela eta berak gaztelaniara ohituago egonik, hartara jotzen dutela bisitetan eta hautuetan. Bidezko al da erdara bat ulertzen delako norberea eta etxekoa ahaztea eta arbuiatzea, hau hobea eta perfektagoa izanik ere? Ez al da hau espainiar *txoratuen* astakeria bera, frantzes ikasirik, edo modako jakintsuak emateagatik, edo lisontxaz, frantsesez eta espainolez hitzegiten dutenen, baita gaztelania ahaztutzakoa egiten dutenen ere astakeria?"

Garai hartan hizkuntza Probintzian zertan zen dato bat ematen du.

"Baina atxakietara itzulirik, ez daukat zer tolesgabeki gezurra esaten den txalotzea besterik. Zihurra baino zihurragoa da Gipuzkoako lautatik hiruk ez dutela gaztelaniarik ulertzen. Zertarako diote orduan aldrebes?" Eta koloni kulturak Herrian zer diskriminaturik dagoen seinalatzen du: "Erdaraz dakitenak elizgizonak dira, erlijiosoak, ikasi dutenak, zaldunak, Gaztelan haziak, eta honela hala moduzko gaztelania herri tikiatiko alkate, kargudun, merkatari eta dendariak ere ulertzen dute. Guzti hauk, ordea, oraindik ez dira Gipuzkoako laurdenik ere"... eta "honela abusatzen gaituzte eta Gipuzkoako herrietara sermoilari erdaldunak, herriari erdaraz predikatzen diotenak bidaltzen dizkigute, jakintsuak direla eta harro, egia biribila izanik mila entzuleatik berrogeita hamarrek ez dutela ulertzen"... "Horixe bera gertatuko litzateke Madrilen nahiz Gaztelako beste edozein lekutan sermoilaria frantsesez edo euskaldun batzu daudela eta frantsesez edo euskaraz nahikoa dakitela emanik".

Transkriba berri dugun hau euskara normaltzeko programa bere herrian martxan jartzean kontutan eduki beharko da.

Izango dira gaur jasaten dugun hizkuntz egoera errespetatzeko eskatzean eskubide demokratikoen argumentuetara joko dutenak, hizkuntzarik ez dakiten pertsonak, eta erru gabe, harrapatzen dituelako. Baina pertsonak, denok, harrapatzen dituen eskubide demokratikoa herriei ere tokatzen zaiela pentsatu beharko da. Eta gure herriaz mintzatzean, zer basaki larrutu duten esatean, ibil erazi dizkioten bide horik ere gogoratu beharko ditugu eta hori Amerikako edo Afrikako edozein koloni egoera bezalakoa izan da, eta gogoratu beharko daukan birgaikuntza politikoaren eskubidearekin batera sendakuntza kulturalak joan behar duela eta horrek, okerra zuzentzeko behar den ahalegina egitea tokatuko den aldetik, ulerkortasuna eta ahalegina beharko du.

Eta hemen bideak argitzea komeni da.

Euskaldunok ezin diogu inori guri pasa erazi diguten bidetik pasa erazi; gure jeinu zibilak eta gure gizonaren errespetoak etsaiaren zitaIkeriaz jokatzera debekatzen digute; baina geure hizkuntza galtzeko adina erreparu ere ez dugu eduki behar.

Larramendiren garaian bolada positiboa gertatzen da hizkuntzaren alde:

"Ordua da eskainirik dudan salbuespena egiteko. Ez dago dudatzerik urte guti batzutatik honantz euskaraz lehen baino gutiago gaizki predikatzen dela eta badirela sermoilariak sermoi moraletan guztiz ondo eta garai, eta entzuleen atseginez eta onuraz predikatzen dutenak. Honela ari dira gehiengan misiolariak beren sermoietan eta batez ere Zarautzko frantziskotarrak".

Eta euskalki desberdinen zera aipatzean, orain baterakuntza literarioaren alde ari direnen gogoan zerbait esaten du:

"Ez al da hobe beste euskalki batetako hitzak erabiltzea erdarazkoak baino? Jakina hobe dela, azken batez herri honetako hizkuntza jeneral beretako hitzak baitira"... "Hitz horik Bizkaikoak, Nafarroakoak, Lapurdikoak edo Zuberoakoak direla diote tentelek eta nongoak dira zuen euskal sermoietan sartzen dituzuen *sublimitateak*, *refulgenteak*, *rafagak*, *estatikoak* eta beste horrelako mila?"

Hemen, hala ere, ohar bat egiten du ingelesaren eta frantsesez gure egunotan ere argi dagoena eta ingelesaren abantaila, jakina.

"Ingelesak harrokeriatzat daukate ondo datozkien hitzak hartzea, hizkuntza batetakoak nahiz bestekoak izan, berenean bilatzen bururik apurtu gabe. Frantsesak, ordea, oso zehatzak dira honetan, eta derrigorrean hartuko dute hitz arrotzik, etxean erabiltzen denik badute. Baina hainbeste ere ez eta hain guti ere ez gure euskararen. Ingelesak adina ere ez, hori norbere hizkuntza guti estimatzea eta norbere hitzak ahazteko bidea irekitzea baita, eta frantsesek bezain guti ere ez, hori adimena preso edukitzea baita, hitzik ezagatik miIa pentsamendu eder andeatuz".

Eta zorrotasun handiz ohar erazten du:

"Proposatu dugun bien bitartea jagon behar da".

Larramendik batzutan lehenengoetariko nazionalista bat ematen du, asmo politikoa batere gabe; berezkoa bakarrik ateratzen zaio xalotasun guztiz. Gipuzkoako euskalkiaz mintzatzean *Arte y Diccionario* horretan dio: "Euskararen dialektuez asko mintzatu naiz, Espainian Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaiko probintzietan zehar eta

Frantzian Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa edo Souleko herriko probintzietan zehar hedaturik dagoen euskara".

Gaur Euskadiri erreparoa jartzen dizkiotenentzat!

Eta gaurko euskaldunentzat, eta batez ere gipuzkoarrentzat, arretagarri diren ohar batzu egiten ditu.

Euskalkiak konparatzean, Lapurdin eta Zuberoan *k* erabiltzen dutela dio. Euskalkien azterketan ihardun gabeei hau harrigarri izango zaie beharbada, Sabino Aranak asmatu hartu dutelakoan; Sabino Aranak ez zuen hain praktikoa gertatzen den euskal grafiako alderdi hau bildu besterik. Larramendi ez zaio atsegin ("letra trabagarria, premia gabea") eta latineko eta gaztelaniazko *qu* komuna nahiago du; aldakuntza horri premia gabeko eragozpenaren erreparoa jartzen dio; honek gaur *hri* zaizkion erreparo batzu gogoratzen dizkit; eta egia da baina eragozpena ez da beti erabakiaren araua. Badira goragoko mailako beste batzu ere eta Sabino Aranak orduan arrazoia eduki zuela uste dut. Larramendi XVIIIgarren mendearen erdi alde honetan *h* erabiltzearen alde dago Lapurdin eta Zuberoan, hauetan aspiratzen baita, baina hemen dio: "hitzak aspiratzen ez ditugun lekuan alferrekon da eta beharbada (eta hau batzurenentzat berria izan daiteke) *beharbada* hitzak berezteko bakarrik erabiltzen dugu, adibidez, *hori* eta *ori*, *hura* eta *ura*".

1725ean gaude!

Gipuzkoako euskalkia "argiena eta toki guztietan gustoren entzuten dena dela" uste du.

Bizkaiko euskalkiari buruz dio "han ere diferentziak daudela, eta ez guti"; Durangoko Don Martin Arzadunek 1731ean idatziriko katixima zati bat aipatzen du, Aita Eleizalde 1735ean idatziarekin konparatuz eta Nafarroa barruan ere diferentziak daudela ateratzen du. Araberari buruz "gehienean, ez denean, Bizkaikoa bera dela" dio.

Eta hemen haserretu egiten da.

"Euskalki guztietan amorru ematen didana da trantze askotan *Done* eta *Dona* erabiltzen dituztela "Santu" eta "Santa" esateko eta gero erabilkera arruntean "San" eta "Santa" esaten dute. *Donestebe*, *Donibane*, *Donostia* esaten dute San Esteban, San Juan eta San Sebastianen ordez. *Andre Dona* eta *Dona Maria* andre Santa Mariaren ordez; *Jaun Done* eta *Jondone Meteri* Jaun San Emeterioren ordez"... "Urritasuna edo adimenik eza da beti *done* eta *dona* edo *dena* ez erabiltzea "saindua" eta "santa" esateko eta "donetasuna" "santitaterako".

Martinez Isasti eta Larramendi, mende eta erditik gorako distantziara dauden apesak biak, euskaraz "santo" esateko *Done* erabili behar dela bat datoz.

Gipuzkerari buruz:

Beterrin diferentzia batzu daudela dio: Irun-Errenderi (*dut*, *duzu*, Lapurdiko era); Donostia-Tolosa (*det*, *dezu*, du); beterrikoen ezaugarri direla dio *noasqui*, *nauasqui*, *nuasquiro* eta beste adizlagun batzu: *menturaz*, *bearbada*, *barrena*, *barrenen* eta ez Goiherrin esaten den bezala *barrua*, *barrura*, *barruna*. Ondarrabin *Icusiricanen*, *oraindicanen*; Irunen berdin eta azentu bereziz *arrigarri* eta ez *arrigarria*; Oiartzunen *esain*, *emain* eta *esanen*, *emanen*, *eguienen* eta Nafarroako hauzok ere berdin esaten dutela dio; Donostian honelako erdalkeriak omen daude: *primeracua*, eta *esango nazu* bezalako solekismoak *esango didazuren* ordez. Goiherrin, dio "bokalez bukatzen diren

izenen pluraletan ezagutzen dira, bokala bikoiztu egiten baitute: adibidez, *andi, chiqui, guci, escu, buru* etab. guk *andiac, chiquiac, guciac, escuac, buruac* esaten dugu eta haiek *andiic, chiquiic, guciic, escuuc, buruuc, deabruuc*, eta baita ezagunak dira *bai jaune* esaten dutelako eta ez *bai jauna*. Tolosan *oraindican, oraindic, oraindo, oraindio, oraño*; Azpeitin *ondo diala, bici ondo* eta baita *barruan, barruna, eman eguidazu*, baita *aitea, amea* Tolosa-Azpeitin; Elgoibarren eta batez ere Eibarren, Bizkaiera hasten da: *eman eutsan, eguin euen, buruagaz*, eta Plaentxian guti gora behera eta Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Oinati eta hango baserri guztietan zehar".

Eta gaineratzen du: "Motrikuko itsasoan Ondarrabiraino ez dago ia alderik Gipuzkera komunetik".

Honaino Larramendi.

Goazen orain, mende bat geroago, Juan Inazio Iztuetak euskarari buruz zer dioskun ikustera. Hiruretatik berau da bere lan guztia defendatzen duen hizkuntzan idazten duena.

Tikia dela dioen Gipuzkoako Probintziaz dato hau ematen du, alegia, 120.000 bizilagun inguru dituela. Hauetatik 100.000 inguruk ez daki euskaraz besterik. Geratzen diren 20.000 hauetatik, erdiak, 10.000, kanpotik etorriak dira eta ez dute euskaraz ikasi, eta gainerakoak, beste 10.000, gaztelania apur bat eta bera ere gaizki egiten duten euskaldunak dira, baina harroturik poliglota plantak egiten dituzte.

"Badacuscu, hada, arguiroqui, Provincia onetaco jaiotar guztia dirala Euscaldun garbiac, eta beretacoric chit guichi erdaraz daquitenac. Beragaitic gure Asaba ernaiac ifini izan zuten legue zucen bidezcoa, ecen, Euscaraz ondo etzequien Apaicic ecin izan citequeala Arimazaintzalle Guipuzcoaren mugapeco Elizaetan. Arimen oneraco jaquintsuró ezarria dagoen legue bidezco au bera dago esanaz garbiró, Euscaraz bear zaiozcatela Guipuzcoatarrai adierazo, berai dagozquioten gauza guztia.

Izanic, bada, eguia ciertoro au beguien aurrean arguiró dacuscuna, ¿ez da lotsagarri ez ecic, mingarri ere, Guipuzcoaco Erri leialetan gazteria escolatceco, itzcho bat bacarra ere Euscaraz ez daquiten Maisu erdaldunac ifintea? Eta oraindic are illgarriagoa baicic ez da, escolaco aur gaishoi itz bat Euscaraz erorten zaiotelaco, beraren etsai ezagutuac dauden guizon erbesteco oec ematen diezaten azote gogorrac ontzat eramatea. ¡Cer bada! ¿aiñ becatu andia da Euscaldunai Euscarazco itza jalquitcea? ¡Há Euscara maitagarri bicicor guishaishoa! Ez dira, ez, campotarrac bacarric zu icusi nai etzaituztenac...

Guipuzcoaco biztanle prestu guztia badaquite arguiroqui, beren zoriona datorquiotela jatorriz dituzten Fuero onesquietatic... Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico..."

Eta Iztueta da, orain, Larramendiz mintzo dena, euskaraz idatziriko bere *Guipuzcoaco Condaira* iiburuan:

"Aita Larramendi jaquintiac aspaldi ezagutu izan ceban, Euscara gozoari, eta Euscaldun ondraduai achi achica orpoz orpo cerraiquioten izurri gaiztoa nondic nora ta nola cebillen. Beragatic biraldu izan cion bere lagun maite bati, milla zazpieun berrogui ta zazpi-garren urtean Marzoco illaren amabostean itzcribu lucebat, ceñetan esaten ciozcan gauza balioso asco Euscararen gañean. Beretaco capitulu bat ezarrico det emen, non icusico dituzuten arguiró, gure anaia maitagarri onec esaten cituen eguia garbiac.

"Escriturac nombait diona da, aurchoac ogui esque ceuden eta etzan norc pusca ciezatzen. Orainere esan dezaquegu, bada, auishen berpera euscalerrientzaco. ¿Cer bada, ez dabiltz gure Elizetan predicarioz franco? ¿Ez darasate sumurrez ta deadarrez ceruco jaquimbidea? Eguia da badabilta ta badarasate, ¿Cer da ansi ordea baldin entzuleric gueienac erausi ura aditzen ezpadute? Sinisteraci nai digute aditzen dala gaztelania ere icasi ez dutenen artean; ez da ori eguia, alper charran erausiac eta aitzaquiac dirade, itz banacaren batzuc adituagatic, aiceac daramatzi besteac, eta Jaungoicoaren itzaren oguia guelditcen da Euscaldunentzat cheatu baguez provechuric baguea. Bañan eguia balitz ere ¿ez da lotsagarri itz eguin bear digutela Euscaldunac Euscalerrietan, ez guztioac daquigun itzcuntzan, ez gure Errico ta gure gurasoen itzcuntzan, ez bularrarequin batean edosquitu guenduen ta lendabico itzcuntzan, baicican Gaztelauen itzcuntza arrotzean?"

Ikusten denez, Larramendik idatziriko hitz hauek, gure herriko kultur zirkunstantzia berean, eta mende bat geroago!, hizkuntzako kolonikuntza argi argia bizi duen egoera bera adierazten dute zehazki.

Iztuetaz hogeita hamar urte geroago, orain apenas hautsi berri dugun bide berean, gaurko euskaldunen lekukotasunera jotzen dut.

Ematen ari naizen guzti hauk lekukotasun biziak dira.

Ez eskoletan eta postu ofizialetako eta gaur ere oraindik irakurlearen esku dauden komunikabideetako bereizgoaren bitartez gu kolonizatzeke moldaturiko historiak. Gure kulturarekin egin dutenak ez dauka ezein hizkuntzazko ezein hiztegitan izen egokirik.

Eta antzekorik bada, ez dut irakurleari pasatzeko bezain zaskarra izan nahi.

Honexegatik dio Iztuetak hitzaurrean horixe dela bere herriko historia bere herriko hizkuntzaz idazten jartzeko arrazoia, eta tristura damaio berak egingarri dela frogatzen duen lan hau lehenago egin ezak.

Bere prestakuntza intelektual urria aitortzen du, eta zaharturik dagoela ia 78 urtetara heltzean bere hizkuntzari buruz batere eskolapenik hartu gabe.

Bi bider zahartzea bezala da.

Gaur, hizkuntza aztertzen duten zientziak aurreramendu osoan doazela, badakigu euskararen jatorriko Tubalen eta Babelgo historiak gizonaren ezjakintasunaren hutsak betetzeko era bat izan zirela; oraindik gizonak ez dakizkien gauzak asko eta urte askotarako dira, baina nahiz eta euskarari buruz zenbait dedukzio nahiko argi egon, eta batzu ia bueltagabeak, misterioa agertzeko dago; euskara ahaide ezagunik gabeko hizkuntza da, munduan guti gora behera hitzegiten diren 2.500 hizkuntza biltzen diren hogeitaz familiarik bat berak bakarrik egiten du. Euskara hemen. lehen zabaltxagoa zen lurralde honexen gainean, eta beraz Gipuzkoan ere bai, duela 8.000 urte ingurutik honantz bizi da. Europan hitzegiten ziren hizkuntza preindoeuroparrak, Kristo baino 600en bat urte aurrerago, beste indoeuropar batzuk garbitu zituztenean, euskara bakarrik geratu zen bizirik. Euskara Penintsulako hizkuntza inbasore guztiei gainbizi izan zaie; hegoatik mendeetan zehar erromatarrek hitzegiten zuten latinaren eragina jasan du, baina gehiago sufritu gabe. Duela mende eta erdi, latinaren erromantzea, gure hizkuntzaren kontrako legeak eta astakeriak egin dituen gaztelania ofiziala gu zorrozki baztertzen ari izan zaigu: Araban XVIIIan, Nafarroan XIXan; mende honetan Bizkaia eta Gipuzkoa Guztira, Herriko euskal hitzegileak, Pirinioez handiko herrialdeak barru,

471.000 ziren 1867an, hau da, % 52 (Velasco). Gaur, Irizarren arabera, euskaraz hitzegiten dutenak 600.000 dira; baina portzentaia % 23ra jatsi da. Askoz beherago eroriko da komunikabide sozialetan eta hezkuntzan bete betean sartzen ez bagara; Hezkuntza ofizialean, eta menderik mende jasan dugun kolonikuntza anker, urrikigabeko prozesoa azpikoz goratuko duten politikabideen jabe egitera heltzen ez bagara (eta badirudi, azkenez, litekeena dela).

Ez dut puntu honetara heldu nahi berrogei urte lazgarri hauetan euskara oinperatuaren bidea eta era batera tresna izan diren euskaldunen gorespenik egin gabe, hauek posibletu baitute euskarak gaur daukan itxaropenera helbidea, etorkizunaren ateetan bertan. Ikastolak, gure herriko emakume eta gizon apalen adore politikoz eta ahalegin ekonomikoz, biak zerga oso astunak noski; bide eta bidezulo ezkutuetatik, ia klandestinoetatik, ibiltzea bakarrik zeukan hizkuntzan idazten jarraitu diren emakume eta gizonak, elizgizon batzuk kamuflaturiko argitarapenak eta oso bidegabea litzateke hemen abaztea, eta baita urteetan zehar bidea urratu duten liburuak ere: batzu hain sarritan kalumniaturiko eta ofizialki beti bazterturiko Euskaltzaindi horren eraginez, Euskal Hizkuntzaren Akademia berau, orain ofizialki Erret Akademia; bi, hiru belaunaldietako gizonak idatziriko liburuak, beren herriko hizkuntzaren maitasunagatik bide latza, ia ibilezina elkarrekin egin duten gizonak.

Honetaz, garrantzitsua den literatura berrian loratu den ahalegin honetaz, nagusien alfabetatze fruituetaz, ikerkuntza filologikoaz, kultur aurreramenduaz, oraindik oso guti hitzegin da. Hau ordea, ahalegin giganteaz gainera, isila izan da, protagonismo gabea, diru gabea, inoiz etxeko eskergaiztoaz beste saririk gabea, Larramendik salatzen duen tradizioan zorigaitzez dagoen eskergaiztoa.

Hala dira gauza hauk eta hobe isilik edukitzea, bestela ez bailirateke egiak.

Hauxe da euskararen barne bizitasunaren lana gure herrian; eta zorionez Euskadi osoa, sei herrialdeak harrapatzen ditu.

Eta, nola ez, Gipuzkoa ere bai.

Utz dezagun hemen hizkuntza, horren azterketak urrutiegi eramango baigintuzke; eta hau lekukotasunezko liburua da Gipuzkoako arlo desberdinei buruz.

Hain zuzen Gipuzkoa da oraindik euskaraz hitzegilerik gehien dagoena, nahiz eta eskuak loturik eduki gaituzten urteotan hainbeste kanpotar etorri, eskuak loturik gure kultura zaurtua partikulariki eta are gutiago instituzionalki defendatzeko modurik gabe.

Baina utz dezagun honetan mendian jaio den eta baserrian, nekazal giroan hobeki defendatu den hizkuntza. Eta hala ere, eta horra urte hauetako jazarpen bihozgabearen azpian sortu den itxaropen seinalea, heldurik dago lantegira eta hirira, lehen itotzen eta gaur konplexu gabe arnasberritzen hasi den lekura.

Hauxe da gure itxaropena bizitzen duen osasun onaren seinalea.

Baserria eta herria

Gure herriaren barru barrukotzat hitzegin dugun itsasoak euskal gizonaren lehen adimenezko ihardunaren hastapenetan misterio hondogabearen erakarpena izan zuen.

Hondogabea eta bildurgarria.

Gipuzkoa beraz, abeletxe eta baserritik hasten da kontuz kontuz; itsas joera eta zaletasuna eta hango abentura geroagokoa da.

Jose Migel Barandiaranek, hau ere, eta batez ere, Gipuzkoa izaki, hemengo bizilagunen lehen berriak ematen dizkigu eta bazka lekurik onenetan, goietan bizi omen ziren: Aralar, Aizkorri, Ernio, Mandoegi, Izarraitz, Muru, Andu, Udaltz, Zاراia, eta beste batzu. Lur lanketa geroago hasten da eta mendietatik behera, mendilepoetan. Honela, eta faktore hauengatik, Gipuzkoako populazioa bere hasieratik nukleo tokietan eta gure izaeraren arabera, 500 metro inguruko goieran, bakarti sortuz joan diren baserri periferikoetan zabalduz joan da. Hemengo gizonak, beste nonahikoak bezala, orografia eta klimara makurtu beharra zuen, horien mende baitaude landaretza, fauna, eta, beraz, jana. Artzantzaren lagungarri izaten diren ereintza lurrik erabilienak alubioikoak, uholdekoak dira, horietan laborea hobeki etortzen baita eta batez ere urterik gehienez behar den larrea; bazkamendu honetarako itsas inguruko belarra ere erabiltzen dute.

Itsasoan bertan, beraz, euskaldunak oso aatiro sartu gara.

Guk lehenen ezaguturiko eta menderaturiko lurra batez ere tontorretatik eta erreka bazterrik bazter datozen bideetatik ikusten dena da.

Ura, jakina, behin behinekoa da eta urbazterrak, errekek eta hibaiek zerikusi handia eduki dute etxea, baserria jartzerakoan; baina populazioa asentatzeko eta ola bat ipintzeko ordua heldutakoan, ez dago erreka bazterrean jotzea besterik ur errata aurkitu berriek behar duten indar hidraulikoa lortzeko. Eta honela erreka hauk eta haranen arteko bide berezkoekiko horien konfluentziak dira Gipuzkoako jendearen jarleku berezkoak. Hau da itsas bazterreko puntuen kasua, hala nola Ondarrabi, Pasaia, Donostia, Orio, Getari, Zarautz, Deba eta Motriko; lur barruko herririk inportanteenak: Oiartzun, Ernani, Andoain, Berastegi, Tolosa, Bidani, Amezketza, Zaldibi, Ordizi, Ataun, Idiazabal, Zegama, Legazpi, Urretxu, Bergara, Oinati, Arrasate, Leniz, Eibar, Azkoiti eta Azpeiti, aurrenengoetan.

Guzti hau, bada, gaur laborezkoak diren baina bordak eta abeletxeak izanez hasi ziren baserri sakabanatuetatik dator.

Ordutik hona mende asko pasatu dira.

Milurteak.

Eta aktore nagusia euskalduna da, kasu honetan, gipuzkoarra. Natura bat hartu zuen eta hango lurrak, hango landaretza, hango urak, hango basabereak, eta hango hibaiek eta hango itsasoa beren arrainekin, eta denboraz eta landuz joan den kultura bereziari fisonomia aparteko bat eman dio, gaur hartu dugun paisaian eta hitzegiten hasi ziren Harri Harotik gureganaino heldu zaigun hizkuntzan inprimaturik geratu den egikeraren fruitua. Eta honela, lur hauetako gizona den bezalakoa eginez joan den molde honetantxe mamitu dira, Barandiaranek dioen bezala, Euskaldunak sinbolizatzen zeukan erari dagokion esanahia beren jatorritik zuten hitzak: *ehiza*, *ehiztari*, *basurde*, *usapal*; eta

zulo, *zizpa*, *makila*, haik ehizatzen harmak; *behi*, *zezen*, *behor*; *ardi*, *aker*; *txabola*; *borda*, *larre*, *etxe*, eta tresnak: *kaiku*, *kulierra*, *kutxarro*, *burruntzali*, *mea*, *meatze*, *arraukarri*, *burdin*, *ola*, *labe*, *arrago*.

Hemen daude hizkuntza eta artzantza, baserria, meatzeak, lana, elkarrekin mamituz, astiro, nekez.

Hauxe da gure kultur funtsa.

Baina dakusagun baserria eta bere garaiko herrien fundazioa nola ikusten dituen guk harturiko herentziaren zatia jaiotzen ikusi dutenen urratsa markatzeko hautatu ditugun lekukoetariko batek.

Martinez Isasti dezepzio bat dugu hemen.

Ikusten dituen eta batzu aipatuak ditugun eta bere lekuan aipatuko ditugun beste gauza asko esaten digu, baina Gipuzkoako handitasunei buruz Erreinuko paper ofizialek diotenari ekiten dio batez ere: harma ezkutak, blasoiak, nobletxeen eta sortetxeen jatorriak, ezkutetako intsignia eta dibisak, kalonjiak, Erregeek eta Printzeek ematen dituzten sinekurak eta errentak, noiz behinka datozenean egiten zaizkien errezibimenduak, gortean karguak dituzten gizonak, eta ez guti, Maltako San Juanen, Rodas eta Calatraven, San Estebanen eta Jarreteraren ordenak eta gure gizonak handikeriagatik erosten zituzten beste gauza asko.

Gaur guri hain tristeza zaigun guzti hori, Isastiren garaian, harentzat eta hura bezalako beste euskaldun eta gipuzkoar askorentzat gauza handia zen.

Harrigarria izan liteke, baina Isastik bere Konpendium-ean ez digu bera lekuko den garai hartatik, 1625 inguruan. jakin nahi genukeen ezer esaten baserriaren eta Gipuzkoako herrien izaeraz.

Baina beste gauza garrantzitsu bat ematen digu.

Garai hartako Gipuzkoako herrien eta hauzoen zerrenda osoa ematen digu eta izenez eta garrantziaz ez dira beti gaurkoekin bat datozenak.

Eta zerrenda hauxe da, luzea bada ere, emango duguna.

Abezedeaz ematen dituela dio, "aurrerago jartzeak gorrotorik sor eraz ez dezan".

Dirudienez, orduan ere azal finekoak ginen.

Eta ordurako garrantzia handikoa zela dirudien ohar bat ere egiten du. Orduan ere, gaur bezala, gauza gutiz poztutzen ginen eta honela aurretik V. daramatenak hiriak (Villak) direla esan nahi du.

Eta hemen doa zerrenda: Abalcisqueta, Asuna, Aya, Aizarna, Aizarnazabal, Alza S. Marcial, V. Alzoa, Alzola, V. Alzo/dos Barrios, V. Albistur, V. Alegria, Alegria de Areria, Alquiza, V. Amasa, V. Amezqueta, Anzuola, V. Anoeta, V. Arama, Arriaran Asteasu, Astigarrivia, Astigarreta, Astigarraga, Azquizu, V. Ataun, V. Azcoitia, V. Azpeitia, V. Baliarrain, V. Beasain y Yarza, Beizama, Belaunza, Berrobi, V. Çaldivia, V. Çarauz, V. Cegama, V. Cerain, V. Cestona, V. Cizurquil, V. Çumaia, V. Çumarraga, V. Deva, V. Eibar, Eldua de Verastegui, V. Elduayen, V. Elgueta Maya, V. Elgoibar, Emialde, V. Ezquioga, V. Fuente-rabia/Ondaribia, V. Gaviria, V. Gainza, Gaztelu, Goiaz, V. Guetaria, V. Gudugarreta, V. Hernani, V. Ibarra, V. Icazteguieta, Iziar, V. Idiazaval, Igueldo, Irun-Uranzu, Irura, V. Isasondo, Isaso leorra, Larraul, Lasarte, Lazcano, Leaburu, Lezo, V. Legorreta, V. Legazpia, V. Lizaur/Andoain, Lizarza, Mendaro/dos Barrios, V. Mondragón, V. Motrico, V. Mutiloa, Olaberria/Ceba, Oiarzun/tres Barrios grandes, Oquina, Oreja, V. Ormaiztegui, V. Orendain, V. Orio, Oxirondo, Pasage de la parte de Fuenterrabia, Pasage de la parte de San Sebastian, V. Placencia, V. RexiI, V. Renteria, V. Salinas/Gatzaga, V. San Sebastian/Donostia, V. Segura, Soravilla, V. Tolosa, V. Verastegui, V. Vergara, V. Vidania, V. Villabona, V. Villafranca, V. Villareal de Urrechú, V. Urnieta, V. Usurbil.

Irakurleak segur asko gehituko dituen oharpen batzu gogoratzen zaizkit hemen; eta Gipuzkoako herri hauk 1625ean idatzirik dauden ordena bera jarraituko dut.

Alza, Altza San Martzial da. Gure garaian Oriako Alegeri izan dena, Aleriako Alegeri zen, eta, dirudienez, ez dauka Oria hibaiarekin zerikusirik. Çumaia orduan Ç-z idazten zen, Çaldivia eta Çarauz bezala. Iziar, ordea, Z-z idazten da nahizta iren aurretik joan, eta berdin Lizaur eta Lizarza ere. Fuente-rabia erabiltzen da (erdibiturik, Xabier de Cardillac-ek 1896ko liburu batetan egiten duen bezala, "Fuente de la rabia" edo "Fuente de Arabia" etimologiatzat harturik. Martinez Isasti bezalako euskaldun batek, ordea, ezin honelakorik egin eta era batera Ondaribia ematen du). Irun-Uranzu esaten da, geroago Larramendik eta Iztuetak birresango duten bezala, eta har kontutan oraindik ez dela hiria edo Villa. Orduko hiri garrantzitsuena, gotorleku eta itsas portu bezala, Ondarribia da. Har kontutan Isaso Leorra, gaurko Isaso edo Itsaso soilaren ordez. Andoain orduan ere Lizaur zen batez ere, nahiz eta deitura biak agertu. Eta Soravilla herria zen eta ez Andoaingo hauzunea, geroago bilakatu den bezala. Olaberriari Ceba ere baderitza. Oxirondo gaur ez dut dagoenik ere uste. Pasajes orduan bi ziren eta bata "Ondarrabi aldekoa" bezala ezagutzen bazen, bestea "Donostia aldekoa" bezala ezagutzen zen. Errezil Rexil zen. Salinas Gatzaga ere bazen, haren euskal izena hau. San Sebastian ere, gaur bezala, Donostia zen. Eta Villarreal hori Urretxukoa zen eta ez Urretxuakoa.

Arretagarri da zerrenda hau Gipuzkoako gaurko udal banaketarekin konparatzea.

Bi kamaretako kandidatoak hautatzeko aurtengo, 1977an, ezan den hauteskunde deirako hautes zentsuan ageri diren Gipuzkoako herrien zerrendan, hauk datoz:

Abalcisqueta, Aduna, Aizarnazabal, Albistur, Alegria de Oria, Alquiza, Alzo, Amezqueta, Andoain, Anoeta, Anzuola, Arama, Arechavaleta, Asteasu, Ataun, Aya, Azcoitia, Azpeitia, Beasain, Beizama, Belaunza, Berastegui, Berrobi, Bidegoyan, Cegama, Cerain, Cestona, Cizurquil, Deva, Eibar, Elduayen, Elgoibar, Elgueta, Escoriaza, Ezquioga-Itxaso, Fuenterrabia, Gainza, Gaviria, Guetaria, Hernani, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Iruerrieta, Irun, Irura, Isasondo, Larraul, Lazcano, Leaburu-Gaztelu, Legazpia, Legorreta, Lezo, Lizarza, Mondragon, Motrico, Mutiloa, Olaberria, Oñate, Oreja, Orio, Ormaiztegui, Oyarzun, Pasajes, Placencia, Regil, Renteria, Salinas Leniz, San Sebastian, Segura, Tolosa, Urnieta, Usurbil, Vergara, Villabona, Villafranca de Ordizia, Villarreal de Urrechua, Zaldivia, Zarauz, Zumarraga, Zumaya.

Udalerritzat ofizialki dauden guztiak izango direlakoan nago.

Martinez Isastik gainera Haranak edo Hauzuneak aipatzen ditu: Arrona. Elcega Zumarragan. Elcano. Elosua. Sant (sic) Miguel Artadico Zumaian (hemen Zumaya dio Z-z eta Y-z). Urriztilla. Uzarraga Antzuolan. Miroa eta Olas Motrikun. Zubieta eta Aguinaga, Usurbilen. Anguiozar, Elgetan. Huarbe, Azpeitin. Eta Gipuzkoako Probintzian arturik dauden Lenizko Erret Haraneko 17 ElizaIdeak edo Parrokiak aipatzen ditu: Arechavaleta, Escoriaza, Ugasua, Mazmela, Zarimuz, Marin, Apozaga, Arcaraso, Mendiola, Galatea, Guillano, Isurieta, Aozaraza, Arenaza, Goronaeta, Larriño, Bedoña.

Guztira, dio, 124 hiri eta herri dira "Ondarrabitik Gatzagarainoko hamasei legoatan zeharreko hamairu haranak gabe, eta San Adriango porturaino eta Motrikuko hiriraino, itsas bazterrean zehar azkena hau: eta haiekin eximitu ziren Hirien titulua duten biek, hirurogeita hamabi dira".

Bi presondegri militar daudela dio: Donostiakoa eta Ondarrabikoa. Eta hau ere badio: "Badira lau urte gotordorre bat egiten ari duela" Ondarrabiko Pasaia aldeko "portuaren babes eta defentsarako".

Eta Larramendi andoaindarrak nola ikusten du baserri hau eta Gipuzkoako herri hauk mende bat geroago?

Larramendiri harrigarri zaio Probintziako lur aldapatsu hauetan baserririk egotea eta jendea bizitzea. Gipuzkoa jazten duen "casería" hauei, "*baserri, echondo, echalde deritzate*", herrietatik hurbil daudenak *echaldeak* direla argituz; hurbilen eta "jotzen" daudenei *echondoak* esaten zaie, eta hiri nukleoetatik urrunen daudenak omen dira propioki *baserriak*.

Baserri guztiek beren izen apartekoa dutela dio, eta "batzuk izen berdina badute ere, gehigarriren batez berezten dira, hala nola, *Lasarte garaicoa, Lasarte azpicoa, Irizar, Iriberrri, Irigoiti*". "Ez orubeak, ez sortetxeak ez diren baserriak ere badira", dio, "eta badira zaharrak eta berriak" eta hauei Tolosatik Irunera *bordak* esaten zaie, "eta hango maizterrei edo egoilei *bordariak*"; orubetxe asko harmadunak omen dira "beren blasoiak eta harmazko ezkutak etxeen aurrealdean edo ertzen batetan dituztenak, eta beste batzuk orain ez dituzte baina eduki ditzakete beren hastapenera joz gero".

Zenbat diren "sinisten ere lanak daude hain lurralde hestuan".

Baserri hauk eginik dauden materialei buruz, gehienez harrizkoak direla dio zimendutik Iehen zoluraino eta "handik gora teilaturaino adreiluzkoak edo elkarren gainean jarririko oholezkoak". "Laboreak gordetzeko goi bat eta bere ganbara" dute. Gehienez tximinirik ez omen daukate. Sukaldean ketan egonik ere, ez dituzte jasotzen eta doala kea "teilatutik eta etxeko zirritu guztietatik", honela "hormak eta zurak hobeki kontserbatzen direla" uste baitute. Baserri bakoitzak bere labea du, kanpoan edo barruan ondo egina, eta barazki soroa daukate eta erreka edo iturri bat etxe eta labore lurren inguruan.

Arau ia jeneral honetan badela salbuespen bat dio Larramendik eta baita "zenbait jauregi bikain ere mendi eta eremu batzutan aintzinako orubeetan eraikiak, baina inor bizi gabe bertan, eta karezko eta harrizko disparteak esaten zaie".

Herriei buruz.

Badira etxeak han hemen dituztenak kaleen ordena gabe, baina gehienak "ia batean eta jarraian daude kaleak eginez"... "etxe erregulatuak, ondo eginak eta bizileku egokidunak". Herri hauetan batzu badirela dio "etxe bikainak, aspalditik *jaureguiac* deituak eta honek palazioak edo jaun etxeak esan nahi du".

Eta beste nonbaiteko esperientziaren bat aurretik duen komentario bat egiten du:

"Herri guztietako etxeetan daude komunak, eta kaleak txukun eta garbi daude, ez zikin, nazkagarri eta kiratsu; gaeuz kaletik doanak ere ez du denak kirasten dituen *agua va* horren bildur izan beharrik".

Bereziki aipatzen du herri bakoitzak bere "haur eskola eta irakurtzen, idazten, kontatzen eta kristau dotrina irakasteko etxea daukala eta maisu alokatuak"; eta hiririk gehienetan badela medikua, barbera, zirujaua eta botika ere. Badira hospitaleak ere, "egokiago edo ez egokiagoak". Zertan esanik ere ez "eliza eta parrokia ederrak,

apaintsuak, ondo bitxiztatuak eta ondo hornituak" eta Espainian ez dagoela Gipuzkoak bezala "hainbeste eta hain eliza gailenak dituenik". Herrietan udaletxeei garrantzia handia ematen zaiela dio "batzu oso luxotsuak eta egitura ederrekoak, Probintziako batzarre orokorretarako izendaturiko hamazortzietan batez ere". Hemen gordetzen direla dio, artxiboez gainera, "harmategiak, non baitaude fusilak, baionetak, polbora ontziak, kartutxontziak eta gainerakoa, dena zehaztasun eta banaketa handiz"... "Guzti hau herriaren bizkarretik eta kontura da, hala urtero egin behar diren alardeetarako nola berehala harmatzeko, etsaiak urez edo lehorrez kolpera gerrara datozenean".

Honek Suizako antolamendu harmatua gogorazten digu.

Eta Larramendik eranstean du: "Eta hemendik kanpora nekez aurkituko da herrietako baserrietan eta etxeetan hainbeste eskupeta dagoen herrialderik".

Beste zenbait gauzaren artean dio Ondarrabian "dagoela Santa Isabelgo gaztelua", Jaizkibelen, "kanalaren sarreran, etsaien untzietara sartzea eragozteko".

"Gaztelu zahar" esan nahi zuen, geroago San Telmotzat ezagutu dena.

Eta Iztuetak zer dio?

Iztueta ere, mende bat geroago, bere lurrari kantu bat eginez hasten da; probintzian ez dagoela bazter bakarrik ere dio, lorategi bat bezala ereinik eta zaindurik ez dagoenik, baita aldaparik zorrotzenetan ere.

Bere garaiaz mintzo da, jakina, eta zer ereiten eta hartzen duten, batez ere garia, artoa, oloa eta garagarra, baita baba, indabak, ilarrak eta patata, berdin dilista eta naboa, eta orduan oso garrantzitsua zena, lihoa. Gerrak direla eta baserriei eta herriei kalte izugarriak etorri zaizkiela dio; segur asko, zortzi urte lehenago amaitu zen lehen karlista gerra izango du gogotan; eta bi gertaera mingarri aipatzen ditu: alde batetik abel azokak Donostian kolpera izan zuen beherakada, eta gero zer premia gorritan aurkitu ziren herriak (gerrako ondorioei aurrea emateko) eta otadi ederrak, larre handiak eta beste mendi zati handi batzu saldu behar izan zituztela. Garai honetan eta kondizio hauetan batzu baserriak uzten hasi zirela dio diru errazagoa dakarren merkataritzak tiraturik, nahizta gure herriko sortetxea, baserria, hondatzeko bidea hartu.

Donostiako udal barruti honetan milaren bat baserri omen daude, eta merkataritza errazeko bolada hartan gainbehera bazeuden ere, orain gorantz omen zihoazen.

Eta gure herrian oso ohikoa den bezala, kasu konkretu bat kondatzen du.

"Beretaco bat ezagutu izan det *Guinitzenea* esaten zaiona, orain dalaric iruroguei urte, alogueraraco zaldi bat bacarra beste abere muetaric izaten etzebana; ceñetan icusi izan diozcadan bertaco maizter Jose Gil de Echaveri milla zortzi eun oguei ta amabostgarren urtean, uztar idi galanta soro lanetaraco, urte biñaco cecor pareo salmentaraco, iru bei chaaldun, bat anzua, eta bi cerri guizenduac; eta gañera esan cidan necazari bearguilletsu onec, ezen, abere oeac, eta amabi lagun echetarrac bazcaturic, oguei anega arto baceuzcala saltzeco. Guztiz beguiragarria dan desberdintza andi au, abuntun ezarri dedala iñorc uste izan ez dezan, aipatu ditut eguicari au guertatutaco baserri-echea eta bertaco maizter gaur biciric arquitzen dana". (1847).

Iztuetarentzat baserria da aparteko garrantzia duen zer guztia datorrena. Lur lanabesen euskal izenak harro aipatzen ditu, gure hizkuntzari ahalmen hau ukatzen diotenen kontra eta zerrenda luze bat ematen du eta guk handik ateratzen gure herriko lur lanabesik ezagunenak: *achurra, laia, goldea, nabarra, jorraia, itaia, aiotza, aizcora,*

uztarria, gurdia, gurtolac, gurpillac, taquetac, sardea, acullua, cega, lineaia, ardatza, galbaia eta sasquia. Guztira ehun izen ematen ditu.

Gero laborantzako eta hango fruituen izen komunekin ehun eta hogeita lau ematen ditu.

Hona hemen batzu:

Necazaritza, achurquintza, ereingarria, soroa, esia, orma, ataca, langa, celaia, errequiña, berardia, egutera, bidechiorra, buztinlurra, basoa, oiana, garoa, gorotza, chichiroa, illarra, aza, erein, chertatu, arana, mushica, sagarra, matsa, ezcurra, ciza eta marrubia beste askoren artean.

Eta eguraldi, atmosfera, zeru eta hodeiei buruzko zerrenda luze (110 izen) bat ere ematen du.

Hona hemen horietariko batzu:

Eguraldia, odeiac, ostgarbi, lauso, intza, ecaitza, izotza, lambroa, jasa, cazcarabarra, elurra, sargori, aicea, egoia, ifarra, luicarra, turmoia, iñusturia, oñastarría, uztarguia, ujola.

Probintziak oso orografia zaila izanik ere, mirariak egiten direla dio Iztuetak. Lurralde honetako gizonak urbazterrean, aldapetan, lautadetan, eta aldapan dauden mendi hegietan lan egiten du. Ez dago oinik ere landu gabe eta fruiturik gabe dagoenik. Hemendik ibili diren eta beren konstantzia idaztietan utzi duten atzeritarrak hartzen ditu lekuko. Iztuetak dioenez, bakoitzak mugak ondo jarriak dauzka, eta lehen esaniko arto, zekale, olo eta babaz gainera, bakoitzak bere lurrean patata, artaxehea eta dilista ere ereiten du. Jovellanos aipatzen du esanez Gaztelan ereiten den anega gari bakoitzeko hogeitaz hartzen direla, eta

berak, Iztuetak, esan lezake Gipuzkoako lur honetan ereiten den bakoitzeko hogeita hamarreraino ere toki askotan hartzen dela. Zaldibiko adibide bat aipatzen du, Mugertza izeneko baserria, non urte onean bakoitzeko hogeita hamar hartu izan baitute. Donostiako Etxazar baserrian ere bai. Hemen Jose Ramon Elosegik lekari bat gari erein eta hirurogeita hamalau bildu zituen. Hau 1833an gertatu zen. Eta ez da bakarrik zenbat, nolako garia baizik, ezin hobea, pisu, orhe eta dasta onekoa.

Gipuzkoako baserriatarrak ordea, artoari gehiago ekiten omen dio. Artoa dela dio hango mantengai nagusia, eta arto ona gainera. Bestela ez dago Gipuzkoarren aurpegi gordinak ikustea besterik. Artoaren goralpen hauetan lau burutako artaondo batek 2.308 ale eman omen zituen.

Hemen gertatzen dena, Gipuzkoako lur hezeak onak direla, eta hoik lantzen dituzten gizonak oso hartara daudela.

Beste hau ere gertatzen da: lur honek batzuk aitortu nahi ez dituzten fruituak ere ematen dituela; adibidez, garbantzua. Mundu guztiak jakin beza, ordea, Don Frantzisko Inazio Urretabizkaiak, Zaldibiko parrokoak, behin almute erdi garbatzu erein zuela bere sorroan eta zazpi lakari bildu zituela; hau da, bateko berrogeita hamasei. Ea nor ematen duen gehiago. Berak ere garbantzu hori jana duela dio eta Gaztelakoari ez diola ezer zor ez tamainuz ez samurrez ez gustoz.

Gipuzkoari emankortasun hau ukatzen diotenekin haserretu egiten da.

Eta frogatzat zera dio, alegia, lehen karlista gerrako sei urte lazgarri haietan (1833-1838) gari, arto eta haragi asko hartu behar izan zela hainbeste giza eta abel tropa

mantentzeko. Eta garai hartan hemen ez zen bihirik eta haragirik ezertxo ere inportatu. Egia errespetatzen dakien inork ez du besterik esango; aitzitik ordea, bestea esan beharko litzateke, alegia, Gipuzkoatik Nafarroara gari, idi eta behi talde asko atera zela harmada mantentzeko.

Mundu guztiak jakin dezala
Gipuzkoako lur gozoek
beharren den guztia eta gehiago
maiteki ematen dutela.
Honaino Iztueta, 1847an.

Eta gaur, ehun eta hogeita hamar urte geroago, zer egin dugu hartu genuen herentzia honekin?

Baserritik kalerako, nekazaritza indusiarako abiada mundu guztiko kontua da. Herri bakoitzak ordea, bere administrabideak eta diruak dauzka oreka zailak bilatzeko, sendatzeko moduko gaitz batzu erremediatzeko.

Guk ez dugu euskal ikuspegizko, ikuspegi autoktonozko gestio ahalmenik bat ere eduki.

Madrilek hemen bere Pontzioekin nahi duen guztia egin du.

Zifra batzu emateko: Donostiak 1857an, Iztuetaren garaian guti gora behera, 9.484 bizilagun zituen, Gipuzkoako populazio osoko ehuneko 6,06; 1.900ean 37.812 ziren; 1930ean 78.432; 1.940an 103.970; 1.950ean 113.776; hamar urte geroago, 1.960ean 135.149 bizilagun zituen, eta 1.970ean 165.829, Gipuzkoako populazioko ehuneko 26,2.

Pilaketa hau ez da Gazteizkoa bestekoa (Arabako % 66,9), Bilbokoa bestekoa (Bizkaiko % 39,3) edo Iruñakoa bestekoa (Nafarroako % 3 1,6); bestalde, ordea, baditu Irun, Errenderia eta Hernani bezalako hiriak izugarriro hazi direnak.

Ez barruko euskal migrazioz, jakina.

Jenderik gehien hau espainiar Estatuko beste lur batzutatik etorria da; baina euskaldunen artean bertan ere bada baserritik kalerako boladarik, eta bildurtzeko neurrian gainera.

Hona hemen 1960tik 1970era populazioa galdu duten Gipuzkoako herriak, portzentaiak eta guzti:

Abaltzisketa (% -12,2), Aduna (-5,3), Albistur (-10,1), Alkitza (-15), Altzo (-0,7), Ataun (20), Beizama (% -33,8), Berastegi (% 5,9), Bidegoian (% -10,3), Zegama (% 14,2), Zerain (% -8,6), Elduain (% -12,7), Ezkioga-Itxaso (% -27,3), Gaintza (% -22,5), Gabiria (% -3), Idiazabal (% -2,9), Iruerrieta (% -22), Isasondo (% -4,9), Larraul (% -18,7), Leaburu-Gaztelu (% 7), Mutiloa (% -24), Orexa (% -27,3), Errezil (% -17,4), Lenizko Gatzaga (% -28,2) eta Segura (% -6,6).

Gure baserri problema zorrotzak laguntzarik ez duela izan esan nahi du honek.

Urteetatik honantz ezarri diguten zentraleria politikoak eta administratiboak kalte gogorak eta asko egin dizkigu, eta hoietariko bat baserriaren abandonua.

Alde batetik baserriko problema bera ere nahasia da: etxaldeek tikitasantan eragozpen handiak dakartza eta lur zati tikiak eta aldapatsuak mekanizatzea ere oso zaila da. Baina bestetik eta batez ere, gure baserri munduko gizarte eta kultur berezitasunak barrutik harako laguntza behar zuen eta kontuan eduki hizkuntza, pentsaera eta kultura,

ikaskuntza eta menderik mendeko ohituren norabidea, eta guzti honen ordeztan, bertan beheratasunean bizi izan da.

Bertan beheratasun kriminala.

Euskal baserriar honentzat Diputaziotik laguntza pixka bat izan da baina oso guti.

Gipuzkoako baserriarrak, Kantauri aldeko euskaldunik gehienek bezala, industriara jo behar izan du, gure familiako zelula izan diren baserriak eta lurrak saldu eta onenean ere asteburuak pasatzeko bizitzetxe bat egingo duten jendeak bilakatu.

Egoera hau oso astuna da ia.

Autonomi administrazio berriarekin eta bere anaiarteak antolatzeko ahalmenarekin. euskal baserriak, zerbait egiten hasirik dagoen bezala, bideren bat aurkituko duelakoan gaude euskal lurrak irabazi eta janari iturri izaten segitzeko, baita beren mendiak eta beren belardiak eta beren soroak zaintzen, kontserbatzen, ereiten eta lantzen ariko direnak bizitzeko sukaldea ere.

Hoixek ditugu gureak.

Lana, langintzak eta elkarte izpiritua

Martinez Isastirengan ez dut euskaldunaren gizarte antolamenduaren aipurik aurkitzen, eta hori dato funtsezkoa da.

Isastirekin Garibairekin bezalatsu gertatzen da.

Garibai XVI. mendean, 1500 inguruan, erregearen mesedeari begira zegoen batez ere; eta lortu ere lortu zituen bere idolo Felipe IIrengandik mesederen batzu; hark, "nahizta berandu", Barojak dioen bezala, "kronista titulua eman zion, beti ekinka eta ekinka eskaturiko beste mesede batzu lortutakoan".

Horixe zen euskal jakintsu askoren, eta hoiaren artean gipuzkoarren, zortea. "Eguzkirik sartzen ez zen" inperioa erakar polo bizia zen prebendazaleentzat.

Eskupekoak.

Eta ondo portatzen zirenean bakarrik hartzekoak.

Inperioek, denek, erabili duten prozedimendua da hori, kolonizatuen beren bitartez.

Martinez Isastik ez zuen hainbeste eskatu, baina idatzi zuen liburu hain interesgarrian ia ez du besterik esaten Gipuzkoak gizonetan eta zerbitzutan Koroari entregatu zizkion gauza garrantzitsuak baizik, eta Koroak zer ordaintzen zien hitzez, tituluz eta diruz zerbitzu hoik egitera prestatzen zirenei.

Gipuzkoari buruz bere garaiko testigantza pertsonalak eta deskribapenak datozen Lehen Liburutik gora, hona hemen Aurkibideko atal nagusiak: Nola "estimatuak diren gipuzkoarrak Erregeen eta Printzeen aldetik". "Probintziako Kardenal bat, Artzapezpiku eta Apezpikuak". "Zenbait Erreinu eta Probintziatako inkisidore gipuzkoarrak". "Enperadorearen Aitorle eta Kaperau gipuzkoarrak". "Dukeak, Kondeak, Markesak eta Erretorde bat gipuzkoarrak". "Lehendakari, Erregente eta Entzule gipuzkoarrak". Eta errezkada luzea: Fiskalak, Erregearen Idazkariak eta haren Kontseiluak, Erregearen morroiak, bere Maiestatearen Kamarako Eskribauak, Kontatzaile Nagusiak, Diruzainak, Hornitzaileak, Ordaintzaileak, Kantziler nagusiak, Faktoreak, Interpretak, errege

errenten administratzaileak, Ministroak, Aitorsemeak, Kamara Laguntzaileak, Gaztelako etxeko Kontinoak, Acroiak edo costillerrak, ordenu militarretako zaldunak eta Santiago, Maltako eta Rodasko San Juan, San Juan, Calatrava, Alcantara, Banda, San Esteban, Jarretera eta San Lazaro ordenetako zaldunak, Harmadako Generalak, Almiranteak, galeoi eta untzietako kapitainak, alferezak...:

Denak gipuzkoarrak.

Koroari zeregin guztiotan, herririk herri, zerbitzatu dioten gizonak, gure gizonak, kolonialki hartu dituzten mesedeekin, ia 200 dira. Medikuak, pintoreak, aritmetikoak, "Gipuzkoako konputogileak eta maisu kontatzaileak", idazleak, letrauak eta abokatuak hainbat orrialdetan datoz. Erret harmadetan zerbitzatu zuten pilotu nagusiak, "Ingalaterrako Katalina Erregina Doneari zintzotasun handiz zerbitzatu zion ene aberriko emakume guren bat", "hilen oroitzapenak, eliz egintzak, Gipuzkoako gizon batzuk aginduriko monastegi, kolegio eta hospitaleen fundazioa", bada hoientzat ere lekurik; eta "kondatzen diren zerbitzu leial eta askoren ordainez Gipuzkoako Probintziako hiri eta herri bakoitzean zenbat eskribau hautatzeko pribilegioak", horretarako ere badago lekurik ugari; halaber "Errege Don Juan Bigarrenak Tolosako hiriari eta Nafarroako Leitza eta Aresoko hiriei eman zien babes tresna, beste bere lagun gipuzkoar batzuren laguntzaz menderatu zituelako", horretarako ere bada lekurik ugari; honetarako, anaien arteko burrukei emaniko sari hauetarako, badago lekua, badagoenez ere, azkenik, "Donostiako hiriaren eta Oiartzungo hiriberriaren aldeko Errege Don Enrike Bigarrenaren pribilegioa eta epaia" aipatzeko ere.

Berri hauekin autoreak ia 700 orrialdetako liburu bat betetzen du.

Ez dut diodana baino gehiago esan nahi.

Hura ere garai bat, haro bat zela badakit, eta Martinez Isastik, Garibaik bezala, morroikeria honekin bizi du haro hura, Gortera begira. Zer era kolonialez Koroa horren mende egon garen lekukotasun gisa aipatzen dut, gizon hauen saldukeriatik etorri zaigun oker kulturalaz konturatzeko. Gizon hauek inoiz ez dute esaten bere lurreen ikastetxerik sortu behar denik, ez eta erdaraz ere.

Isastik ez du gure gizarte erakunderik aipatu ere aipatzen, nahizta gure herriaren bihotza izan.

Hura beste garai bat zen, eta errespetatzen dut, baina bai salatu ere gaur ondorioa ateratzeko, gure kultur eta administrazio menpetasun arras kolonikoiaren azalpena ateratzeko.

Ondorioak agerian daude.

Baina dakusagun orain nola Larramendi jesuitak ehun urtetik gora geroago hautematen duen Euskal Herria.

Andoaindar makurgaitzak hautematen dituen bizipideen artean badira Gorteko destino batzu ere, Ameriketan batez ere, baina batez ere Herriaren benetako sostengua diren beste batzuren hutsak eta besteak aipatzen dihardu, hoik izaki Gipuzkoa elikatzen duten giza eta izpiritu funtsa eta eguneroko lana, eta ez Koroak, ihesi doakigun, ohosten ari zaizkigun zerbaiten bizkarretik beti, damaizkigun urreantzak, pergaminoak eta sariak.

Hauxe da nabarmendu nahi dudana diferentzia funtsezkoa.

Larramendik ondo ezagutzen ditu goialdeak, egona da haietan,¹³ eta garaiz erretiratzen da. Birtute bat da. Baita meritua da aurrekoek eta bere garaiko batzuk emaniko garrantzia nagusirik Gorteari bere lan idatzietan ez ematea ere.

Larramendik, hori argi dago, bere nazionalitatearen ezaguera argia dauka, esanahi politikoan.

Eta herriko gizon bat izaten dirau.

Larramendi Gipuzkoako haziendeaz eta bizipideez ari denean, begiak oletan ditu, baserrietan, langintzetan, emakumeei ematen zaien tratuan, hauek nola lan egiten duten, seme-alabak nola hezten dituzten eta beste gauza askoren artean, gainera datorkien unibertsital irakaskuntzarik eza salatu ere bai.

Olei buruz ari denean, aldakuntza handi bat, eta okerrerako bera, salatzen du, alegia, industri jabeek herrietara eta hirietara aldegitoko ohitura dagoela beren errentetatik bizitzera eta horrela beren olak bertan behera uzten dituzte. Baserriei buruz ere gauza bera dio; garia eta artoa batez ere ereiten dute, eta gaztaina, egurra eta ikatza ere hartzen dute, eta kostaldean sagarra eta txakolinetarako mahatsa biltzen dute, eta oharpen hau egiten du: "Sortetxeen jabeak gehienean aberatsak ziren han bizi ziren bitartean, beren etxaldeak beren buruz eta beren begipean gobernatuz; baina gero fantasia hutsalengatik hirietara jo zuten eta zaldunkeriari eman zioten, pobretu eta dohakabetu egin ziren, askok eta askok beren sortetxeak saldu zituzten eta seme-alabei miseria utzi zieten dotetzat".

Eskola gabeko seme-alaba hauek ardura handia damaiote Larramendiri.

Harizti eta gartzainadi eta bagadien jabeak aipatzen ditu, beren haranak, beren lurrak lantzen dituzten jendeak, beren asaben medio berak dituztenak eta orain gaizki bizi direnak. "Badakigu –dio– lehen etxalde berauekin jende hauek nahikoa zeukatela beren etxeak ondo mantentzeko eta seme-alabei hezkuntza bikaina emateko, unibertsitateetara eta kolegio nagusietara bidaliz, eta asko joaten ziren hoietara; gaur, ordea, oso guti ikusten dira, hala kolegioetan nola unibertsitateetan, gurasoen kontura eta laguntzaz mantentzeko moduan".

Eta sagarra eta sagardoa uztera dagoen joera kritikatzan du, Gipuzkoan hain garestia den ardoaren onerako.

"Gipuzkoa erdiak baino gehiagok, Goieritik bertatik Arabaraino, sagastiak erein lur bihurtu dituzte, sagardoa, herriko edari ohikoa ematen zutenak hain zuzen".

Eta gaur ere puntu bat baino gehiagotan baliagarri zaigun gogoeta bat egiten du:

"Antonio Idiaquez zaldun hain ezagunari entzuna diot Azkoitin bera mutikoa zela ez zegoela ardo tabernarik eta herritarrak hara eta hona ihesi zebiltzan abenturarien bidez hornitzen zirela. Gaur ardo guztietariko, tiki eta handiko, nafar eta Errioxako gorriskako, lau edo bost taberna ez baleude, alkateek gaizki beharko lukete".. "Pitxerkada bat sagardo lau laurden kostatzen zitzairen, onena bazen ere, pitxerkada ardoa berriz hogeita hamar, berrogei laurden eta gehiago kostatzen zitzairen, ardoaren eta neurtzaile sainduen arabera"... "Neronek ezaguturiko zaldun xeble batzuk kontuak atera dituzte urtero Bizkaiko eta Gipuzkoako ola guztiek batera zenbat lan egiten duten eta bi probintzietan zenbat burdina saltzen eta ateratzen den, eta denek

¹³ Palentzia, Valladolid eta Salamankako Kolegioetako Filosofi eta Teologi irakaslea izan zen, eta gero Neuburg-go Erregina Ana Maria, Karlos IIren alargunaren aitorlea.

batera zenbat balio duten, burdinari erdizko eta batez besteko prezioa emanik: eta gero ohiko prezioan saldurik bi probintzietan sartzen den ardoarekin konparaturik, burdin kintal bat gora behera, eta ardo zama bat gora behera, produzitzen den burdina guztia zintzurak daramala atera dute".

Eta gaur ere berdin berdin errepika genezakeen komentarioa egiten du: "Gauza bildurgarria".

Eta Martinez Isastik gipuzkoarren beste alderdi batzuri tokia uzteagatik, edo beharbada joera hura zuelako, aipatu gabe utziriko gizarte kritikari darraio: "Hainbeste xahutzailereren eta alferrik galtzailereren artean Gipuzkoan primutza asko dago"... "Kontratuen eta ezkontzen hotsari kasu egitekotan, apenas dago handia eta aberatsa ez den primurik; baina hauen handitasunak eztei egunekin batera bukatzen dira. Gipuzkoara Indietako hainbeste dirutza eta hain indiano aberatsak sarturik, bidezko da primutza handiak eta famatuak sortzea ere; baina gehienez Indietako ondasunek zeruko madarikapena dakarte eta luzimendu urriz eta laburrez ezerezen dira, eta indianoek sorturik primutzarik gehienetan ere horixe bera gertatu da".

Diru errazaren zorrea zen hori.

Gaur ere gipuzkoarrok ezteietan eta lehen jaunartze eta bataioetan dena gastatzen dugu, eta batzutan daukagun baino gehiago.

Ipuina geure buruari ezartzeko moduan gaude.

Gipuzkoa urbanizatzeko erari buruz, "oso populaturik" dagoela esanez hasten da, *Korografia* argitaratu zen 1754an Gipuzkoak 110.000 bizilagun inguru zituen, eta orduan ere honela zioen: "...gizonez eta emakumez hain beterik dago, non herri hauk jendez irakiten daudela esan baitaiteke". Eta gaineratzen du: "Itsasgintzan salbuespen bat egin beharra dut. Hemen hogeita hamar urtetatik honantz sinetsi ere ezineko gizon pila galdu da, Caracasen, Buenos Airesen, Hegoarago eta beste itsasaldi batzutan eta ingelesen kortsoan hil direnak".

Hainbeste direla dioen jende hauk "oletatik eta hauen mendeko langintza eta ihardunetatik" bizi dira.

Orduan, gaur ez bezala, baserriak ondo beterik zeuden. Esaten du "hainbeste jende dagoela non apenas baitago hiru familia ez dituen baserri haintzat hartzekorik; sinesten ere lanak daude zenbat gizon eta andre dagoen mendi eta baserri hauetan sakabanaturik". Eta oharpen soziologiko bat egiten du: "Laborariak dira denak eta laborantzatik bizi dira. Jabeei beren errenta ordaindu eta gainerakoa heren janarizat". Eta Goierri eta Beterriren artean zenbait diferentzia aipatzen ditu: "gehienez Goierri gari, kapoi, urdai, gazta eta abarretan ordaintzen dute errenta, eta artoa eta beste fruituak berentzat gordetzen dituzte. Beterrin errentak dirutan ordaintzen dituzte eta fruitu guztiak berentzat biltzen dituzte gero beren gogara saltzeko. Goierriko laborariak hobeak eta finagoak dira, eta baserriak Beterrin baino garestiago alokatzen dira (Larramendi beterritarra zen) eta hemengo laborariak ez dira hain finak".

Orduan ohi ziren bere garaiko langintzak aipatzen ditu: idi uztarriekin harria, zaina, ikatza, egurra eta etxagintzarako zurak garraiatu. Jendeak behiak dauzka eta txahalak hazten ditu gero saltzeko; ardiak eta ahuntzak dauzkate, zerriak eta ahuntzumeak hazten dituzte; esnea saltzen dute, edo gazta, gaztanbera, gatzatuak eta esnegainak egiten; oiloko

eta oilaskoak eta kapoiak ere hazten dituzte, eta gero araultzeekin saltzen, "dirubide baitzaie dena".

Herrietan honelako zenbait gauza egin litezke, baina batez ere langintzetan lan egiten dute, eta langintzarik ez duena "obretan eta alokairurik gabeko lanetan enplegatzen da, eta honelakoak dira miseriarik gorrienean bizi direnak. Kontseiluko hauzo guztiek gutienez milako batzu eta hoik balio dituen etxalde koxkor bat eduki behar dute. Baina bizitzeko nahikoa ez izanik, beste langintzaren bati, bai mekaniko, bai liberalen bati, ekin behar, familiarentzat jana irabazteko, edo zer xehetako tratulari eta gauza beharrezko eta komun enbersaltzaile egiten dira".

"Eta zer guzti honetan zer egiten dute emakumeek?", galdatzen du.

"Baserrietan beren senarrei gizonki lagundu, haitzurketan, laiaketan, ereiten eta gainerako zeregin guztietan, eta baita gurdi zamatuak eramaten ere, itzaintsa gisa. Herrietan beren kontura lihoa ereiten eta muilotu arteko lan guztiak egiten dituzte. Gero batzu irule, beste batzu ehule sartzen dira, eta haien trebetasuna oso ezaguna da Gipuzkoatik ateratzen diren buruzapietatik. Eta ehundegietako orraziak zabalagoak balira, ez legoke gogortasunez eta iraupenez, eta gorputzerako sanotasunez Gipuzkoakoa baino ehun hoberik eta estimagarriagorik. Galtzerdi fin finak eta gozo gozoak egiten dituzte, eta Madriler, Cadizera, Caracaser eta Indietako beste toki batzutara bidaltzen dituzte".

Gipuzkoako historia, eta Euskal Herri osokoa, lan egiten duen herri honen ahotik idatzia, edo behintzat bildua, izan balitz, eta ez handikeriaz edo alferkeriaz Gorteari saltzen zaionaren ahotik, orduan historia hau beste modu batetako izango genuen, nondik eta nola gatozen, zer egin dugun eta zer ez hobeki jakingo genuen, eta guzti hau Euskadiko herriok norantz eta nola batera joan behar dugun orain jakiteko.

Baina oraindik bada gehiagorik, eta apalagorik ere, Larramendirengan.

"Beste askok", esaten digu gure emakumeetaz ari dela, "neskame zerbitzatzen dihardute (Madrilen morroi eta neskame izaten jarraitu dugu luzaro), bai nagusiak, bai gazteak; beste asko eta asko alokairutan ari dira garia uztatzeko eta larrainetan eultzitzeko, eta artoa biltzeko eta etxeratzeko garaian; eta gero *maizachuriqueta*, artaburuei hosto estaltzaileak garbituz". "Maizachuriqueta" dio eta ez "artachuriqueta". Dato bat da.

Gizonen langintza magusiak aipatzen ditu: artisauak eta ofizialeak, herrementariak, sarrailgileak, iltzegileak; balkoi eta kalostro ederrak egiten dituzten herrementari onak aipatzen ditu, eta Eibarko, Plaentxiako eta Elgoibarko harmagileak; Pasaian untxiek behar dituzten burdinazko piezak lantzen dituzte; baita Donostian eta inguruetan ere. Serrailgileetaz gaizki mintzo da, baldarrak omen dira, "ez dakite giltz eder bat egiten"; iltzegileak, ordea, oso onak dira, baina haserretu egiten da tatzuelarik egiten ez dakitelako, eta horrela inportatu egin behar, eta oso garesti, Frantziatik, nondik ekarri behar baitira, eta honetaz ere kexu da, giltzak, sarrailak, ganibetak eta guraizeak. Harotzak eta harginak ondo jartzen ditu, oso onak omen dira, eta nonahi lan egiten dute, baita atzerrian ere; "milaka ateratzen dira", dio. Ola handietako gipuzkoar ofizialeak eta ikazkinak ere oso estimatuak omen dira Frantzian. Langintzarik "beherengoetan" nabigatzen hasten direnak aipatzen ditu, eta gero "marinel soil" egiten

dira, "ofiziale, kondestable, begirale, kontramaisu, lehen pilotu, bigarren pilotu, eskribau, kapitain eta beste anitz izen".

Alai eta itxaropentsu joaten omen dira denak, baina kurioski jakin erazten du "Caracas gipuzkoar pila eta pilen hilobia izan dela: gauza jakina eta nabaria da, eta hala ere, Caracaser nahi dute, sei edo zortzi urtetan hemen ez dakiten eta han ikasten duten Merlinen artez aberastu denetariko bat izatekoa balitz bezala bakoitza".

Eta Merlin oraingo azti bat, komikietako bat zelakoan nengoen ni.¹⁴

Hau, eta gauza gehiago, dio Larramendik.

Eta Iztuetaren txanda dator orain. Nola ekiten dio Iztuetak Euskal Herriko alderdi soziologikoari?

Iztuetak bere garaiko langintzarik ohikoenen zerrenda ematen du: artzantza, laborantza, ikazkintza, burdingintza eta burdinatik harakoak, su iskiluak, baioneta, ezpata, aihotza, aingurak, laborantzako lanabesak eta metalgintzatik datozen beste asko. Gipuzkoarrak untziak egiten eta haietan nabigatzen ere oso trebeak direla dio, "eta mundu osoari gira ematen, besteric iñor oartu baño lenago". Arrantzan ere asko egiten dute, eta urruti eta antze handiz.

Batez ere artzantzan gelditzen da.

Ardiek maizen dauzkaten eritasunen eta artzainek industria honetatik ateratzen dituzten gaien izenak ematen ditu.

Eta batez ere haien antolamendu sozialaren berri ematen du, hemen aipatzea oso garrantziko deritzadana euskaldunak elkarbizitza berdintasunean eta elkarren errespetoan antolatzeko zuen jeinu zibilaren agergarritzat.

Adibidetzat berak ondo ezagutzen duen bat kondatzen du: Aralarkoa.

Aralarren 800en bat artzain biltzen dira hamalau edo hamabost herritatik etorriak. Talde hau Alkaterik ez aginpide hau duen mor gabe antolatzen da. Hala eta guztiz ere, "despita, aserre eta burrucari bague igarotzen dute".

Gero nekazal gizartea nola ari den zehazki deskribatzen du.

Noribait uztarri abereren bat ezbehartzeko edo hiltzeko zorigaitzik gertatzen bazaio, denak elkartzen dira berehalaxe hura hornitzeko. Zeukan abere bakarra eritu zaiolako idiren bat edo behiren bat falta zaionik badago, besteek lantzen dizkiote lurrak ahaideengandik hauzoenganaino, eta hauk ere honelako kasuetan ahaide bezala portatzen dira, eta inork ordeztu ezin gabe. "Necazari maitati oec badute beste oitura bat are gueiagocoa".

"Baldin guertatzen bada iñoiz languille prestu oen arteco seme alabaren batzuc alcarganaco duten amodiozco naitasunaren bidez gaztelimurituric, bear ez litzaquean aztaporen batean irristatuta erortea, eta berai ezpazaiote une artan arquitzen eche bazter bat alcargana baturic beren languintzari equiteco, oen gurasoac atsecabeturic lotsa andian ishillec ishillec daudela, ostorentzeco aideac, auzoac, eta adisqueideac alcarteric batutzen dira jai egun batean Errico echera, galai irristalariequin batean: eta emen beren churruta edaten daudela, asten da guizonc elduenetaco bat itzeguiten, esaten dabelaric, ezen, Jaunac, gure gaurco billera gozo au ceren bidez eta certaraco dan, nai dizutet adierazo aldedan moduric oberenean, eta uste det –esaten digu Iztuetak agureak diola– nere esacariac entzungo dituzutela gogoz, aide onetsi, auzo ondradu, eta adisqueide

¹⁴ Ingalaterran eta VI. mendean jartzen duten leiendazko xoratzaileraren bat dela dirudi.

leialtzat ezagutzen zaituztedan bezela, eta baldin norc lagundu ezpadute, guelditu bearco dutela betico urricarri, Erri osoaren aurrean farragarri, eta aide guztien desondragarri". Eta jarraitzen du "...guc orain aide guztien artean eguin bear deguna da, berentzaco labaqu andi bat cillegui lurretan jo, achurtu, erre, esitu, eta garia bertan ereiñic ifintea, lendabico aboztua artu dezaten gure icenean, guero beren lambideari gogoz jarraitzeco; eta bitartean ere cer jan izan dezaten bear diegu eman, bacochoac aldezaquean moduan, gari, arto, bigancha, checor, cerri, ardi, bildots, auntz auntztica, ollo, ollanda, ollasco, eta beste cembait gauza bicitza berriari dagozquinac".

Hoietariko baten bat gaisotzen denean eta hil zorian elizakoak hartzeko dagoenean, ahaide eta hauzo guztiak bilduko zaizkio, ondoan txandaka egongo zaizkio, hil arte. Seme-alaba askoren aita edo ama bada, eta herentzian uzten duena guti izan, geratzen denari ahaideek eta hauk eduki ezik hauzoek seme-alaben ardurarik ez izateko esango diote. Lanerako adinera heldu gabe daudenei deitu eta ahaideren batek esaten du: "Onaco mutilcho au nic artuko det nere echera, acico det ondo, eracutsico diot lana eguiten, eta bere bicimodua artutzeratorren demporan lagunduco ere zaio dagoquion moduan". Beste batek neskaren bat eskutik hartu eta esango du: "Hau nere alabatzat ezagutuco det onezquero, eta bertatik daramat nerequin batean gueroraco utzi gabe".

Ba omen da beste ohitura bat ere eta oso zaharra gainera horretaz; gutienez, 1700erarte.

Herriko jauregietako edo etxe nagusietako jabeak hiltzean, bazen ohitura zahar bat legea zena, nork jakin noiztik, eta hilaren erabakiaren arabera ondasunak honela banatzen ziren. Hilaren gorpuaren ondoan elizako ateraino idi uztarri bat txilinez apaindurik eramaten zuten batentzat; beste batentzat idisko eder bat adarrak lorez eta arrosaz apaindurik; hark ahari handi bat; honek zikiro ondo gizendu bat; eta hegaztiak, sagarrak, gaztainak eta beste gauza asko, bakoitza tokatu zitzaionarekin, ezer faltatu gabe.

Iztuetak ondorio hau ateratzen du hemendik, alegia, euskaldunek, Euskal Herrian tinkatu aurretik ere, Jainko bakar eta egiazkoarengan sinesmen begirunetsua zeukatela.

Erljio sentimendua

Lopez Martinez Isastik munduaren hastapenetara eta Tubalengana jotzen du beti, eta seriotasun osoz jo ere, euskaldunen lur honetako iharduna zimendatzeko.

Erljio kontua denean berriz, areago eta hobeki.

Haren esperientzian sartu aurretik, interesgarri zaigun aipaera bat emango dugu, alegia, "1418 inguruan San Bizente Ferrer etorri zela Gipuzkoako Probintzian predikatzer, eta Donostiako hirian predikatu zuen, eta Motiloako etxeetan egon zen hemen baitzuen ostatua, eta asko beneratzen dute eta Motrikuko hirira heldu zen eta Anbro izeneko etxe batetan egon zen ostatuz".

Eta gure Saindu nagusiaz ere mintzo da, jakina: San Inazio.

"Hainbeste gauza ongarriren autorea –dio, eta gauza ongarrri hauk Gipuzkoako haurren eta emakumeen "hezkontza ona eta honestasuna" dira– 1491ean jaio zen, Jesusen Lagundiaren sortzailea izan zen, eta Paulo Vko beato egin zuen 1609ko uztailean

27an, eta Gregorio XVak saildu egin zuen San Gregorio Handiaren egunean 1622ko martxoak 12an". Haren bizitza idatzi dutenak aipatzen dituzenean hau aipatzen du, "Esteban Garibai, zeinek 1570 garren urtean Loiolako Gizon Saildu Inigo Beatoa deitzen baitio".

Saindua izango zena "Errege katolikoaren gortean" hazi zela dio, Iruñako setioan erori zela 1521ean eta "San Pedro Apostoluak mirariz sendatu zuela bisitatzera etorririk, arima sendoturik Ama Birjinak beste gabe zerutik ekarri zion kastitate dohainez". Azpeitiko sailduak izan zituen lagunen artean, Isastik bigarren, Pedro Fabroren ondoren, "San Frantzisko Xabier, nafarra" aipatzen du, "San Inazioekin joan ziren hamarretarik" euskaldun bakarra. San Inaziorik "Lagundia oso sailduki gobernatu zuela" dio, "mundu guztian zehar zabaldurik ikusi zuen, hamabi probintzian eta ehun kolegiotan banaturik". Gaineratzen du "otoitzean Jainkoak oso saritua izan zela, Kristoren, honen Amaren eta Trinitate guztiz Sainduaren ikuspen eta bisitekin: hauek sarritan estasisak eta liluraldiak izan zituen, eta behin zortzi egun osotakoa Profezia ahalmena. Arima batzu zerura igoten ikusi zituen; eta bera aldi berean hainbat eta urrutiko lekuetan ikusi zuten..."

"Zenbait aldiz esan zuen (San Felipe Nerik, berarekin kanonizatuak), zenbait aldiz buru dizdiratsuz ikusi zuela, eta argitasunezko txinpartak jaurtikiz. Bizitzan eta heriotzan egin dituen mirariak aipatzen ditu, hala hil berbiztuak, nola gaixoak eta nolana hiko eritasunetik sendatuak asko dira. Haren firmaz eginak bakarrik, (esaten dute) seirehundik gora dira. Baina bere indarra batez ere deabruen kontra erakutsi zuen, eta erdiminetan dauden emakumeen alde, kasu galduak ere ondo ateratzen zituelarik". Haren bitartez izaniko mirariak ere aipatzen ditu, asko, eta "hogeitabat" Munebregan, "Calatayud-ko komunitatea dagoen herrian, 1623ko Apirilean eta Maiatzean", berdin beste kasu batzu ere "erriak, jipoinduak, makilatuak eta perlesiadunak, minbizidunak, itsuak, mainguak eta errenak", eta baita "haur bat biztu ere", eta "guzti hori sakristian zegoen Loiolako San Inazioaren irudi baten bitartez".

Eta Gipuzkoako saildurik handienaren, Probintziako eta baita Bizkaia ahizpako zaindarien aipamen sutsu hau honela bukatzen du: "Loiolako San Inazio nor zen jakin nahi duenak, begira mordoari, berez eman duen fruituari, eta Jesusen Lagundiko erlijiosoei"... "Hauetatik gure garaion hamar mila eta bostehun lagun daude toki desberdinetan".

Isastirentzat garrantzizkoa da San Inazio sortetxeetatik etortzea.

Eta Gipuzkoarren "aitorsemetasunari" garrantzia handia damaio.

"Nazio honetan bada beste berezitasun ageri bat ere (itxura denez, Zaldibiarengandik jasotzen du), alegia, baserritarrak eta artzainak ere harro daudela herexeengandik, juduengandik, mairuengandik, apartatuak eta berriro kristau izen garbira bihurtuak izateaz; eta judu edo neofitorik lur hartara negozioz joanez gero, ez zitzaion zilegi leku batean hiru egunetatik gora egotea, ez eta denean hamairutatik gora ere; eta badu koadernoan toki bat Probintzian ez daukatela hauzo ez bizilagun egiterik dioena, eta han badaude, lege hura argitaratu eta sei hiletara kanpora ateratzeko, ondasunak eta pertsonak Erregearen mesederako galtzeko zigorpean. Hemendik zetorren mutikoak judu izena entzun hutsez ikaratzea, beste giza mota bat balira bezala".

Ikusten denez, gipuzkoarraren aitorsemetasun honek batez ere bere garaiko eta bere erlijio ardurako zertzelada bat dauka Isastirentzat.

Aitorsemea zenbait modutara izan zitekeen, klase noble eta gurenko odola edukitzeagatik, eta hori "odolezko aitorsemea" izatea bezala da. "Bragetaz" ere izan zitekeen, zazpi gizonezko elkarren segidan ezkontza legezkoan edukitzeagatik bakarrik, baita, beste kasu batzuren artean, "sortetxe ezagunekoak" izateagatik, eta horretarako, jakina, sortetxe bat eduki behar, edo daukanaren familiakoa izan behar. Gipuzkoarra, Isasti apezarentzat, horregatik zen batez ere aitorsemea, herexe, judu, edo mairuekin nahasirik ez egoteari ematen dion erlijio tankeragatik.

Bere aurreritirik errotuenetik mintzo zaigu, jakina.

Baina zer ikusten duen, zer hautematen duen, jakin nahi dugu.

Eta hauteman, zer hautematen du bere buruz?

Gipuzkoarrak direla dio, "hilekin urrikiberak: horretan banatzen dute hainbat ondasun".

Eta abegikortasun instituzionalduaren euskal tradizioa aipatzen du.

"Eskaleekin –dio– ez dira gutiago mesedegileak, zeren herrietako ospitalerik gabe ez baitago baserri nagusirik bi edo hiru ohe eskean datozenen pobrentzat etengabe dedikatzen ez dituztenik, gauzez atsedean hartzerik nahi bazuten".

Debozio batzu aipatzen ditu.

"Prozesio zaleak dira, okasio handietan egiten dituzte, eta hile bakoitzaren hasieran Arrosarioko Ama Birjinaren anaiartearen bitartez eta baita Jesusen izenaren bitartez ere; eta Ostegun Saindu gauzez disziplinagileak umiltokietara eta Saindutegetara Guretzeetako anaiarten bitartez eta hoik gabe ere bai".

Hau ere hautematen du, "elizak gehienean onak direla, harlandu ederrekoak; eta batzuk zaindari legoengatik hasikin guti edo bat ere ez eduki arren, eliztarrek eskuzabalki beren elizak herri handietan ere konformatzeko moduko harlanduz lantzen dituzte".

Eta bokazioei buruz:

"Elizetan ministrari Apez irabaztun eta itxarole asko daude, zeren lur honetako eta beste batzutako gizon gurenak, ondasun askorik eduki gabe ere, ez dute uzten Jainkoak emaniko bi edo hiru semetatik bat Jainkoari berari eskaini gabe, apez edo erlijioso bidalirik, eta batzutan denak edo gehienak; hortik eta eliz ondasunak ondarezkoak izatetik dator hainbeste apez egotea Jainkoaren ontasunagatik".

Hau ordutik oraintsuarte gertatu izan dena da.

Eta bere arreta politikoa duen oharpen bat egiten du:

"Hitzeginik dago, Madrileko gorte honetan, Bizkaitarren ospitale bat komeni izango litzatekeela hara doazen merkatari eta ofizialentzat, eta indiano aberatsei mesede egingo diete, italiarren, frantzesen, flamenkoen eta portugesen ospitaleak sortu dituztenen antzera, obrarako eta mantenurako behar den errentarekin".

Gero Gipuzkoan hilak nola ehortzi ohi dituzten eta arimakariak eskaintzen dizkieten esaten du.

"Kristauak bere arima bere egileari eman diola ikusitakoan, gauza bidezkoztat daukate gorpu hil hura begirunez tratatzea, Izpiritu Sainduaren bizilekua baita"... "Lehenengo begiak eta ahoa hersten dizkiote"... "gorputz guztia garbitzen diote eta

alkandora garbi bat jantzirik beztitzen dute; eta Arrosarioko Ama Birjinaren anaiartekoa baldin bada, (eta hala dira gehienak) jipoi garbia jartzen diote eta soinpeko zuri bat, eta estalki zuria buruan emakumea bada, eta aurpegia eta oinak agirian, katabut batetan jartzen dute aurpegia zerurantz begira duela, eta eskuak bularretan gurutze batekin, eta arrosarioa lepotik, kandela biztuz inguraturiko gelaren erdi erdian. Beste batzuk Done Frantziskoren habitua janzen diote, (Saindu horren oso zaleak baitira) indulgentziak irabazteagatik. Eta pertsona arrunta bada eta ez bata ez bestea jartzeko modurik ez badago, maindire batetan biltzen dute; eta lumazko bururdien gainean katabutean jarririk, oihal zuri bigun eta zabal bitxi batez estaltzen dute. Apeza bada, eliz ornamenduak jazten dizkiote kasuilaraino, buruan boneta eta oinak jantzirik, eta eskuan zilarrezko kaliz bat, eta beste bat argizagizkoa Hostiaren irudiz, eta honekin gelditzen da hilobian, zilarrezkoa kendurik. Adin gutiko neskatoa edo mutikoa bada lore eta arrosazko txirikorda edo koroa batekin eta soinpeko zuriz eramaten dute, eta aurpegia agirian duela: guzti honek pietatea eta jainkozaletasuna adierazten baitu".

Batzu oraintsurarte antzera heldu diren eta beste batzu oraindik ere Euskal Herriko zenbait aldetan iraun dirauten aipamen hauen ondoren, Isastik hil kanpaiak jotzeko ohiturari ekiten dio, eta hauk ere oraintsukoak dira; baina galduak direla uste dudan zehaztasun batzu ematen ditu apezak.

"Nor bait hildakoan, hil kanpaiak jotzen dira, hiru bider errepikatuz gizonezkoa bada, eta bi bider emakumezkoa bada, eta hau arrazoizkoa da, zeren lehenengo Adan egin baitzuen Jainkoak lurretik eta gero Eba Adanengandik eta bietatik gizakumea. Kanpaien hotsera jendea itzartzen da norbait hil dela adieraziz, bakoitzak bere lehengo bizitzari begiratzeko, etortzekoan zuzentzeko eta Jainkoari defuntuaren arimaren alde erregutzeko; bakoitzak gutienez Pater Noster bat esaten dio, eta elizgizonek erresponso bat bere otoitzez, eta gero esaten dute: Jainkoak barka zaitzala, Jainkoak bere haintzara eraman zaitzala".

Berri zehatz guzti hauetaz gainera, Martinez Isastiren barruan dagoen apezak alderdi batzuri beste batzuri baino arreta gehiago jartzen die, eta bidezkoa da hori.

Gero agerian negar egiteko ohitura aipatzen du, ohitura galdua noski.

Baina ez hain aspaldi; Euskal Herriko alderdi batzutan behintzat. Caro Barojak ihardun hau XIXgarren mendean bertan ere aipatzen du Elantxobe bezalako herrietan, eta "non negargile ordaindu ospetsuak baitzeuden", *erostariak* izenekoak; Behe-Nafarroan *nigar-egileak* esaten zitzairen. "Hiletak kantatzen zituztenak" ere bazirela dio Caro Barojak.¹⁵

Orain 1600 inguruko urteetako ohituraren berri ematen digu Isastik.

"Probintzia honetan beste toki batzutan baino negar gehiago egiten zaie hilei bihozberak baitira, eta hiltzea asko sentitzen. Nabarmena da lur honetako emakumeek zenbat negar egiten duten: ezkonduak beren senarreatatik, eta alabek beren guraso eta ahaideengatik, eta halaber ahaideria guztiak ere, beren negarretan defuntuaren ontasunak azalduz, eta beren bakartadea eta lana, begietatik malkoak darizkiela eta ikusten dituztenei pena eta urrikia ematen dietela; eta ez da egia Romanek dioena, alegia, emakumeak alokatzen zituztela hiletetan negar egiteko, hau Garibaik bere bilduman idatzi zuela esanez; eta hau argi dago gehiegikeria dela"...

¹⁵ *Los vascos*. Ediciones Minotauro, Madrid, bigarren edizioa, 1958.

Martinez Isasti biribila da horretan, eta alderantzizko lekukotasuna ematen du bere garaian.

Hila ehortzitakoan, elizkizunak eginda gero, honela dio: "Kargua daukaten pertsonekin etxe berera itzultzen dira; eta haren etxeko atean erresponso bat errezatzen dute eta honekin denek elkar agurtzen, hila modutsua bazen gonbidaturik gelditzen diren ahaideak izan ezik".

Ez du hemen aipatzen hileta ondoren oraintsu arte ematen zuten jatordurik, batez ere jendea urrutiko baserrietatik zetorren herrietan.

Zehaztasun hau ematen du ordea: "gorpuak eliza barruan, Herstegian edo beren Kaperan ehorzten dituzte, eta gehienak hilerrietan: eta hau kristauen artean aspaldidanik honela egiten da"... "Zuloan lehunki sartzen dute, burua mendebalerantz eta oinak ekialderantz, apeza ez baldin bada; hau ritual berriaren arabera alderantziz jartzen dute; eta ez gainera botatzen zaion lurra zapalduz, Gaztelan egiten duten bezala, hori gizagabekeria baita, eta Gipuzkoan jasango ez luketena".

Gainera, beste zehaztasun batzu ematen ditu:

"Elizako liburuko rituak eta zeremoniak jagoten dituzte, batez ere ur bedinkatua botatzean eta gorpua eta hilobia intzentsatzean; hilobi hartan aurretik emakume elizkoiak jartzen dituzte, erramuak, mihiluak, erruda eta beste belar usaintsu batzu, eta defuntuaren buru azpirako belar beroiekin eginiko bururditxo bat, eta hilobi gainean igandero eta jaiero jarri ohi dituzte, bizitzan hain maite zituztenak hilik ikustearen samina biguntzeko".

Lutu zorrotzari buruz, gauza ohizkoa omen da; baina aipatzea merezi duten zehaztasun batzu ematen ditu jazkerari buruz.

Beharbada hau, jende gurenarekin bakarrik gertatuko da.

"Lututzat beltzez jazten dira eta horretarako emakume eta neskek beren gonak beltzez tindatzen dituzte, eta oihal beltzeko buru estalkitxo bat hartzen dute, eta elizan mantu beltz bat aurretik bularretaraino, alarguna bada; eta gizonak uhazatxo¹⁶ eta kordioa eta kapela kentzen dituzte, eta baietazko kapa beltz luzez estaltzen; eta lutuak bi urte burutu arte irauten du".

Hiletan egikera aipatzean, jendea "ogizko eta argizagizko eskaintzekin" joaten dela dio, "honez gainera toki batzutan ahariak eta txahala eramaten dute, eta ohiko eskaintza"... Eta hiltzeko modu garesti samar hauetaz gainera, gero mezak ematen direla esaten du, eta hauk direla "Purgatoriotik arimarik gehien ateratzen dutenak".

Mezak emateko lekuak asko ziren Gipuzkoan. Harlanduzko hainbat eliza ederrez gainera, Isastiren garaian nahikoa komentu zegoen. "Gipuzkoako Probintzia guztian hogeita hamabi komentu edo Erlijosoen Monastegi aurkitzen ditut: Done Frantziskoren ordenako zazpi, hauetariko bat Kaputxinoena, eta bi Rekoletoenak, eta beste laurak gordekuntzakoak: bi Done Domingoren Predikarien ordenakoak: bat Done Agustinen ordenakoa; eta bi Jesusen Lagundikoak; guztira hamabi. Eta hogeita monja komentu: zazpi Done Frantziskoren ordenakoak; bat Done Domingorena; zortzi Done Agustinenak; bat Mertzedariena; bat Karmelita oinhutsena; bat Done Klararena; bat Trinitario oinhutsena; eta hauk ondorengo hiri eta herrietan daude; eta zerrenda ematen du. Hemen herriak bakarrik aipatuko ditugu: Errenderi (Kaputxinoak, 1612, eta Done

¹⁶ Uhaza itxurako ukabil almidoituak, Felipe IIren eta beraz Garibairen garaian erabiltzen zirenak.

Agustinen Monjak, 1543); Donostia (Done Telmoko fraide dominikarrak, Karlos Bosgarrenaren garaikoak, beste bat Done Frantziskorena, laugarrena Done Bartolome Monja agustindarra Hernaniko bidean –Iruñako Apezpikuaren mende– non "horma batetan emakume gorputz ustelgabe bat aurkitu baitzuten"; Hernanin: Agustindarrak –Iruinako Apezpikuaren mende–; Tolosan: bat frantziskotarrena eta bestea Done Klarako beatena; Azpeitin hiru: bat fraide agustindarra, beste bat dominikoena eta hirugarrena monja frantziskotarrena; Azkoitin bi: Jesusen Lagundia eta Done Klarako monja frantziskotarrak; Seguran, moja frantziskotarren komentua; Eibarren: Sorkundeko Monjen komentua eta Agustindarren komentua; Arrasaten: bat fraide frantziskotarrena, beste bat monja frantziskotarrena eta beste bat monja agustindarra; Eskoriatzati: bat Done Ana izeneko monja mertzedekoak; Bergaran: Jesusen Lagundiaren komentua eta kolejioa, Hirutasun guztiz Doneko deiturako monja frantziskotarren komentua, bat monja agustindarra, Calahorrako Apezpikuaren esanpean; Elgoibarren bi: bat fraide frantziskotarrak eta bestea ordena bereko monjak; Motrikun: bat monja agustindarra, Iruinaren esanpean; Mendaron: monja agustindarrak, Iruinaren esanpean; Sasiola: fraide frantziskotarren komentua; Zumaian monja karmeldar oinhutsen komentua, hau ere Iruinaren esanpean; eta Zarautzen: hiru komentu: bat fraide frantziskotar Rekoletoen, beste bat ordena bereko monjena, eta hirugarrena Trinitateko monja oinhutsena, Zarauzko Don Pedoren fundazioa.

Gipuzkoan diren elizak eta kaperak ere aipatzen ditu, "Probintziako apezek dauzkaten" tituluen zehaztasunak eta eliz arreta handiko beste berri batzu.

Hauxe da Isastirengandik ematen dudana aipamen luzea, garrantzizkoa dela uste baitut.

Mende batetik gora geroago, beste apez batek, jesuita berau, Gipuzkoako erlijio bizitza arreta eta zehaztasun berdinez hautematen du.

Zer aldakuntza hautematen du?

Larramendik hasteko dio Foruko XXVIIgarren tituluan, bigarren kapituluan, jatorduak debekaturik daudela ehorzketa eta hiletetan, hirugarren mailarainoko ahaideentzat izan ezik. Eta hirugarren kapituluan zigorrak jartzen dia agindua hausten bada, zeren –azaltzen du Larramendik–: "Oso egia baita eztaiak eta hiletak Gipuzkoako etxe eta familien hondamendia izan direla, badirela eta izango direla".

Eta erabilitako etorkizun horretan zuzen zegoen, zeren, ehorzketak oraintsuarte, eta eztaiak, bataioak eta jaunartzeak orain ere hondamendia baitira.

Larramendik debeku hauen arrazoia azaltzen du: otordu hauetara jende klase guztiak eta asko etortzen dira, "eta denen artean halako saltsa eta nahaspila ikusten eta entzuten da non hiletak baino areago eztaiak baitirudite, eta nahasmahas izugarria da".

Larramendik bere garaiko zehaztasunak eransten ditu: Hil kaxak "baietaz eforraturik" daudela, aldamenetan "haizkora izekiak jartzen direla"; "elizako kanpaiekin seinalea jotzen da, eta gero beste tikiago batekin ehorzketa kaleetan zehar doala adieraziz"; hilaren etxean isiltasun handia egoten dela dio; "lau hartarakok gorpua jasotzen dute eta harekin kalera jaisten eta prozesioa abiatzen da eta haren atzetik gorpua eta apezak Miserere kantatuz", hau orain arte bezala edo bezalatsu; "ondoren gizonak, lutuz jantzirik, baietazko soinekoekin eta isats edo gonadun kapa luzeekin", honetan Martinez Isasti berretsiz eta gehituz; "Duela urte gutiararte, senarrari

emaztearen ehorzketara eta emazteari senarrarenera doluan joan erazten zitzaion. Baina hau aboliturik dago, eta arrazoiz; eta dolua egitera ahaidetik hurbilenak etortzen dira" "gero emakumeak datoz, ez gizonak bezala multzoan doazenak, prozesioan eta elkarren atzean baizik, aurrelaritzat parrokiako serorea daramatela, denak lutuz eta egitura bereziko anaskotezko¹⁷ mantu luzeekin, eta dolukoa mantua gerriraino duela, eta amantal zuri zuri bat Bakartadeko Irudien gisara; lutudunen prozesio honi *segizio* eta *progua* esaten diote; emakumeak elizara heltzean, gizonak jadanik beren jarlekuetan daude belauniko edo eserita, eta dolukoa kapela zabal eta eroriz eta ezpata gabe alkatearen ondoan"; "seroreak zutik emakumeen prozesioa banatzen du, eta dolukoa eta lagunak non eseriko diren esan, ez lehen bezala hilobi irekiaren ondo ondoan, nahikoa hurrungo baizik"; "haizkora izekiz gorpuari lagundu dioten anaikideek itzali eta haren ondoan uzten dituzte, eta meza bukatutakoan berriro izekitzen, katabuta edo kaxa elizkizun garaian egongo den lekuan utzirik; eta hamabi haizkora handi berri edo argizagi zurizko edo orizko sutan geratzen dira gorpuaren bi aldeetan, eta aldare guztietan kandela izekiak, eta katabut gainean soineko edo oihal aberats bat, gero Parrokiari erregalatzeko; Hileta batzutan pobre batzu jazten dituzte, karidade handia baita hori, eta haizkoraz defuntuari laguntzen diote". Eta gaineratzen du "kanpotar guti etortzen dela hiletara, ezin baitzaie abisatu".

Larramendik bereziki dio "hileta klase desberdinak daudela".

Badira "handiak, erdikoak eta txikiak" baina "denetan tankera bera gordetzen dute". Desberdintasunak aipatzen ditu: hileta txikietan gauza ohikoa da "senarrak emazteen hiletara joatea eta bai alderantziz ere". Neurritz negar egiten dela dio, "herri zentzudun guztietan bidezko eta ohiko den bezala" eta oso ohitua izan zela negargileen langintza barregarria, defuntuaren atzetik negarrez eta garrasiz joateko alokatzen eta ordaintzen zirenak"; eta negarraldi hauk orain debekatuak daudela dio "hamabi tauletako legeetako zatietan". Emakume hauek Euskal Herrian izen hauk zituztela dio: *aldiaguilleac*, *adiaguilleac* eta Bizkaian *erostariac*. Oraindik ere, ohitura honen aztarrenak badirela dio, "zeren emakumeak senarraren gorpuari jarraitzen baitiote, ez malko biziz eta astunetz negar eginik, aieneka eta deitoreka baizik, beren zoritxarraren kexuz"; guzti hau neurritz bada, naturala dela dio eta autore askok gaitzesten dutena, "jentilkeria gehiegizkoa eta halako sorginkeria pizka bat" dela.

Eta nola edo hala Probintziako egokitasuna tartean baitago, berehalaxe dio: "Gipuzkoarren negarretan ez dago honelakorik ezer".

Gero hiletez ari dela, deskribapen batzu egiten ditu eta hoietatik ateratzen dugu gizonak "doluko etxera joaten direla eta gero dolu eramaleari lagunduz irteten: denak lutuz eta dolukoa kapa luzez eta gona ugariz, kapela zabal eta soltez, eta gerrikorik eta ezpatarik gabe, gehienez denak isil isilik joaten dira elizaraino, eta hemen esertzen ehorzketa egunean bezala".

Hemen gauza nabarmen bat txapelik ez aipatzea da eta bai kapela, eta gerriko eta guzti.

Seroreak ere eginkizun handiak dauzkala nabari da, emakumeen artean "requiescat in pace horri dagokiona" errezatuz; eta "serorea begirale egon ohi da elizkizuneko

¹⁷ Artilezko oihal mehea, zenbait erlijio ordenak beren habituetarako erabiltzen duena.

intendentea baita", bakoitza bere tokian egon dadin eta jendeak alboetara begira ez dezan.

Aipatzen diren ogizko et argizagizko arimakariei buruz, Larramendik dio "oso ohitura zaharra dela eta pentsatzekoa da eskaintzera zihoazen ogi hura defuntu harexen eta ez beste baten arimaren alde dela" eta "azaldurik geratzen da gauza hau eta beste batzu nola purgatorioko arimen aringarri izan daitezkeen".

Argizagi hauek ordea, gure herrietan beren historia maltzurak dituzte erabileran.

Baina Larramendi berean dago eta honetan dio "epistola hastean bakoitza bere ogiaren eta argizagiaren bila doala eta emakume ikasiek ematen diotela hutsik egin gabe eta honetan beti gertatzen dela nahaste eta zarataren bat".

Aurrerago bai ateratzen du jesuitak argizagizko erregalu eta beste emaitz batzuren ondorio ekonomikoa.

"Ikusi ezik, sinesten ere lanak daude, zenbat ogi eta argizagi eskaintzen den eta gehiengan kongrua¹⁸ osoa edo gehiena izaten da nagusiek ematen dituzten irabazietan, eta honela beren kontzientziarekin eta besteen onaren obligazioarekin kunplitzen dutela uste dute, baina arras engainaturik bizi dira. Gainera, halako hiletan handietan eskaintzari gisa elizako atera toki batzutan idi bizi bat ekartzen dute eta beste batzutan ahari bat, hau ere bizirik eta elizkizuna bukatutakoan baserrira edo harategira bihurtzen dituzte eta horregatik apezari halako diru kopuru bat ordaintzen zaio".

Hemen dago ordaina.

Eta Larramendik eransten du: "Eta hiletak egiten dituen familiak bi urte osotan segi behar, toki batzutan egunero, elizara ogia eta argizagia eramaten, kalitatearen eta ohituraren arabera. Eta edozein ehorzketan etxeak, ehorzketan eta elizkizun nagusietan, eta elizako kostu hutsean, bostehun dukat guti gora behera gastatzen ditu, honetan diferentziak badaude ere. Eta gorago esan bezala egun hoietan hainbeste jenderi jaten eman beharrak igon erazten ditu gastuak".

Seroreen eginkizuna nabarmendu dugu; Larramendik kapitulu oso bat dauka hoiei dedikaturik.

Hona hemen zerik garrantzitsuena guretzat eta orain, nik uste dudanez:

Larramendik dio seroreak "nolabait elizkargukoak direla". Aintzinako "diakonisen" (elizako zerbitzura dedikaturiko emakumeen) hondarra direla uste du, baina hoietaz Larramendik aitortzen du "Espainiako kontzilioetan sail honen aztarrenik ez duela aurkitzen, bai ordea beste batzutan, hala orokorretan nola partikular edo probintzietan". Garai batetan badirudi ordenatu eta konsakratu egiten zirela, "eta ez zeukaten gero beren egoera uzterik, ez ezkontzerik ez atzerantz egiterik".

Eta Gipuzkoari buruz dio:

"Serore sartzea Gipuzkoan estadia hartzea da eta berdin monja sartzea, eta eskandalu izugarria litzateke hemen serore sartu eta gero norbait ezkonduko balitz".

Garai honetako baldintza batzu hauk direla dirudi, "dotea eman, monja sartuko balira bezala", "erlijioako habituren bat jantzi, gehiengan Done Frantzisko, Done Domingo, edo Karmeldar oinetakodun edo oinetakogabeena"; "emolumentuak elizako irabazpide bat bezalatsu dira, eta eskaintzetako ogitik, ehorzketa eta hiletetako respiceetatik eta abar tokatzen zaien zatia izaten da".

¹⁸ Ordenatzen denak ordaindu beharreko errenta.

Euskarari buruz berri hau ematen du: *Requiescat in pace* latinez edo euskaraz errezatzen zela.

"Penagarria litzateke, dio Larramendik, Gipuzkoan eta alboko herrialdeetan, seroreen sail hau galtzea, hementxe bakarrik hain zintzoki kontserbatu baita aintzinako diakonisen hondar hau".

"Iruinako sinodoak –dio– batzuri eta besteei (elizetakoei eta ermitetakoei) *seroreak* edo *freilak* esaten die"... "*serore* hitz hau *soreretik* letorke. Euskaraz hala zeritzaten lehenago monjei eta gaur ere hala deitzen diete Lapurdiko euskaldunek... eta honela monja askok izenpetzen dute: Sor Juana de la Cruz, eta abar, *Soror*¹⁹ izena sinkopatu". Soror honek ahizpa esan nahi du latinez.

Eta historia egindakoan azken inpresio hau ematen du:

"Baina parroketako eta ermitetako seroreei buruz, egia zera da, alegia, ez direla ez erlijiosoak ez eliz sailekoak, sekularrak eta legalak baizik, ez baitute eskuen ezarpenik, ez kontsakrapenik, ez apezgorik hartzen, eta honela agerturik dago lehenengo Kontzilio Berri orokorreko XIXgarren kanonean garai hartako diakonisez hitzegiten denean. Kanon beraren parafraisi arabikoan diakonisei *monjak* deitzen zaie, erlijiosoak izan gabe, eta hemendik geldituko zen Gipuzkoan erlijiosoei eta parroketako seroreei, biei seroreen izen bera ematea".

Eta zer dio Larramendik erlijio sentimenduaz, oro har?

Kexu da aintzinakoek euskaldunen erlijioaz diotenagatik, eta andoaindarrak, eta erabiltzen dituen hitzetan haserrea nabari zaio, honelakoak esaten ditu: "alegia zitalak, sorginkeria barregarriak, prostituzio zatarrak eta sakrifizio doilorrak". Harentzat Gipuzkoan "ez zen inoiz idolatriarik sartu". Kartagotarrak, erromatarrak, godoak, Espainian zehar beren idoloekin pasatu omen ziren, "baina Gipuzkoan ez zen sartu". Gero "prisziliotarrak", mahomarrak ugari izan ziren, baina ezer ere ez. Eta "Jesukristoren Ebanjelioa predikatu zenetik, Gipuzkoak beti onartu eta eutsi izan dio erlijio katoliko, apostolutar eta erromatarrari, inoiz hortik aldaratu gabe".

Gipuzkoan 130 parrokia nagusi daudela dio, eta batzu "katedralak izan litezkeela"; basilikak, saildutegiak eta ermitak, "ehun eta hirurogeitik gora dira, eta gainera komentuak eta komunitateak".

Hemendik, dio, "sortzen da elizgizonen berotasuna, arreta eta ardura elizkizunak egun klasiko eta handietan maiestate eta gurentasun hain handiz egiteko. Hemendik egun hauetan herri guztia elizara etortzea, meza nagusitara eta bezpera arranditsuetara eta prozesioetara, daudenean".

Eta honelaxe egin izan da oraintsuarte, gure gomutan.

Espainian inon ere ez direla gauzak hain serio eta pietatez egiten esan ondoren, berri hau ematen du:

"Herria egunero joaten da elizara arrosariora, eta larunbatero organuaren soinura arrandiaz kantatzen den Salbera".

Gipuzkoan diren hainbeste anaiarteren zerrenda ematen du: Gure Jaunarena, Arimena, Gurutzekoa, Arrosariokoa, Done Agustinen Kontsolamendu eta Uhalekoa, Done Frantziskoren hirugarren Ordena, Done Domingorena, Karmengo Amarena "eta

¹⁹ Ahizpa.

beste hainbat anaiarte herrietan". "Kristoren Eskola, Mariaren Eskola, eta orain berriki (!) Jesusen Bihotzaren Kongregazioa" aipatzen ditu. Elizkoitasun handi honetatik "indulgentziak irabazteko ohitura handia" aipatzen du, eta "debozioa sartzen du nola hoik irabazteko aitortzera eta jaunartzera joaten diren ikusteak, hala beren buruentzat, nola Purgatorioko arima bedeinkatuentzat, hauei oso debozio errotua eta sakona baitzaie".

Eta berriro ogiaren eta argizagiaren eskaintzak aipatzen ditu eta goستن:

"Hemendik dator ikusi ezik sinetsi ere ezineko eskuzabaltasun hura, eta honela urte guztian zehar eta batez ere hiletetan eta ondretan jende pobreak ere ogia eta argizagia eskaintzen ditu arimen alde, haien asmoa eta pentsaera ona izanik aldarea zerbitzatzen dutenak aldaretik bizi daitezela, eta beren sakrifizioak eta otoitzak defuntuen onerako eskain ditzatela".

Gero debozioak eta sendakuntzetan sailduen bitartekotasunak aipatzen ditu:

"Sinesmen honetatik dator zeruko saildu eta santei zaien fidantza eta eraspina, eta beren premia eta nahigabeetan hauengana jotzen eta erregutzen dute, Jainkoaren aurrean haien bitartekotasuna segurtzat jorik. Ez dago ia gaitzik edo eritasun ezagunik hura sendatzeko gipuzkoarren pietateak saildutegi apartekoren bat ez duenik, non bereziki sailduen bat gurtzen baitute, halako edo bestelako premia edo eritasunetan abokatu apartekotzat daukatena. Debozio hauk gertakari miragarritz baitetsirik daude. Itsasoko arriskuatarako eta itsasaldi dohatsuetarako Lezoko Done Kristoa; eguraldi onerako Itziarko Ama. Urminetarako Andoaingo Done Gurutzeko basilika. Lupu eta beste zenbait zorre arriskutsutarako Getariko eta Lazkaoko Done Prudentzio. Agorrentzat edo seme-alabak eduki nahi dituztenentzat Izazkungo Gure Ama. Eta honela daude beste irudi batzu Jainkoak originalen begirunez gurtuak izan daitezela nahi duenak, hoik bere lagunak eta zerbitzariak baititu zeruan, zeintzuren bitartez erroes debotoek milaka mesede lortzen baitute".

Orduan, duela berrehun urte ez ezik, gaur bertan ere Pilarren kapak antzeko gauzak egin ditu.

Larramendik beste debozio batzu gogorazten ditu: etxeetako ur bedeinkatua, ogi bedeinkatua eta "Done Nikolasen ogitxoak", erramu bedeinkatuak "trumoialdietan eta soroetan jartzen dituztenak", hilurranentzat gordetzen diren kandela bedeinkatuak; "larunbat sailduko su bedeinkatua, mutilek baserririk baserri eta etxerik etxe eramaten dituztenak, eta hori gure Herrian oraintsu arte egin izan da; arrosarioa, Gurutzebidea eliza barruan eta kanpoan, Karmengo kutunen eta "honen indulgentzien" eraspina handia. Gurutzadaren eta honen esker estimaezinen onespen handia, eta gaitzetsia litzateke ahal izan eta buldarik hartzen ez duena".

Eta gaur arte iraun duten komunitate ohiturak:

"Egunsentian, eguerdian eta arratsean Abemariak errezatzeko ordukotasun handia, parroko eta komunitateetako kanpaiek seinalea ematen dutenean".

Honaino Larramendi.

Eta Iztueta jadanik agureak, bere garaian bere abenturak ukan zituenak, nola deskribatzen du ia ehun urte geroagoko erlijio aldia?

Iztueta hiruretatik lekukoena da; beharbada hain eskolatua ez zelako; ez zen, ez, ezjakina, baina bai arategi intelektual gutiago jasana, gutiago irakurria, eta beraz, inguruan, herriak haren garaian ikusten eta sentitzen zuena bizikiako adierazteko moduan zegoen.

Iztuetak gipuzkoarren sinesmen katoliko sendoa aipatzen digu "Berri Ona heldu" zenetik, eta debozio honen frogarik argiena dela "berrogeita bat-garren Tituluaren lenengo Capituluan ezarria daucan legue zar zucen bidezcoa; ceñetan arquitzen dan erabaquiric garbiro, ezen, cristau ez diranai, ez ezic, eguin-berriai ere, ecin emango zaiotela bicilecuric Provincia onetaco mugapean".

Eta hauk dira ematen dizkigun berri nagusiak:

"Errietaco Alcate jaun, eta guizonic aurrengoac jai egun guztietan joaten dira Meza nagusi ta bezperac entzutera; bai ta letei, illeta, ondra, eta beste billera aguirico guztietara ere. Elizaco eguinquizun Jaincozcoac dirauten arte guztian ichiac egon bear dute, Ama Guipuzcoaren aguinduz ta oituraz, ardandegui, sagardotegui, denda, eta beste toqui saldu-erosico guztiac". Eta berdin frontoi edo plazetako dantza eta jolas mota guztiak, eta hauen artean "Palanka", euskal txabalina aipatzen du. Plazetan egiten diren jaiak kondatzen ditu eta argitzen du, erlijioz egokiak direnez gero, igande handi guztietan plazan biltzen direla zaharrak eta gazteak, handiak eta tikiak, ia herritar guztiak, alkatea eta *arimazaitzailea* bistan daudela, gustora jolastuz, errespeto handiz, batzu danborraren soinura dantzatzuz (Larramendik gogorki defendatzen du musika hauk erabidearen kontrakoak direla), beste batzuk pilotan jokatuz, txabalina jaurtikiz, boloetara jokatuz, makilarekin edo makila gabe saltaka, zekor gazte batekin jolastuz, *iskintxoka*, pisuak jasotzen, pultsura, indar aprobetan, burrukan, *txingoka* ibiltzen, iraulka, makila desberdinekin jolasean, erasoz eta defentsaz, eta gorputza ariketan jartzeko beste modu asko eta herria ihardun hoietan pozik jolasten omen da.

Gorputz arimei ongarrri zaizkien entretenimendu hauetaz gainera, gipuzkoarrek beste bat daukatela dio, beren berena eta harrigarria: bertsolariak.

Ohitura honek oraindik ere, eta aspaldidanik, Gipuzkoan oso bizi eta tinko dirauela dio. "Sarritan icusten dira, bada, Guipuzcoaco plaza aguirietan itz-neurtulariac apustu andiac lendanaz eguinic jocatzen buruz buru, bi bitara, eta lau lauren contra ere, erabaquitzaile guizon adietuac ifiniruc".

Harrigarri zaio zer solte eta miragarriri ekiten dioten bertsoak berez berez egiteko arte zailari eta edozein gaitan abezedeko letra bakarrik ere ez dakiten gizonen; artzainak, haitzurlariak, ikazkinak, eta ezartzen zaizkien gaiak oso bariatuak eta batzutan zailak izaten dira; gizon jakintsuak ere berezko ahalmen honetaz harriturik egoteraino.

Eta Iztuetak bere gisako arrazoia ematen du bertsotan hitzegiteko euskal ohitura honetaz:

"Dempora doatsu aetaco guraso cintzoac (Iztuetak, ezagutzen ez zuten munduko historia hutsik utzi nahi ez zuten aurreragokoek bezala, hasierako garai mitikoak esan nahi ditu) dempora aietan –dio–, gurasoac bere seme alaba ta ondorengoai legue zucen bicezcoac eracutsi eta gogoan equi-erazteco, izcriburic etzutelaco asmatua da, beren esacari onac bersoetan egoqui ifiniric cantuz ondo adierazteco".

Nemotekni era bat da, beraz.

Eta gaineratzen du:

"¿Norc ez daqui, bada, bersoetan ederqui apainduric jarten dan edocein itzpide lasterrago icasi, eta luzarago bici izaten dala? Eguiazco ispillu argui au beguien aurrean dacuscu Euscaldunac, eta batez ere Guipuzcoatarrac; ceintzuc gorde dituzten maitaró, anciña anciñaco gurasoac aterataco itz-neurtu aldi asco beren tonu jaquin berecituquin, izcriburic bague buruz batac besteari eracutsiric".

Iztueta segur asko lehen folklorelari ezaguna da, edo lehenengoetarikoa behintzat. 1826an idatzi zuen, Folklorerik inork aipatzen ere ez zuenean. Hori ingeles²⁰ zabaldu zuten geroago eta hitzaren esanahia jakitera eman. Iztuetak Gipuzkoako hogeita hamasei dantza biltzen zituen liburu bat idatzi zuen, elementu guztien deskribapen zehatzez, eta harrigarria hau ere, herriko doinu zaharrak musikaz eta letraz biltzen ditu.

"Oetaco cembait beren musicarequin arguitaratu nituen... lau milla ta gueiago urteren buruan Provincia onetaco mendi-celai, ta plazetan cantatzen eta dantzatzen ere diradenac, izcribuz ezarriac izan ezbadira ere".

Juvenal aipatzen du:

"Guizon jaquintiac esaten dabe, ezic, Juvenal-ec asmatu izan cebala musica, burni apaintzen ari ciraden mallucarien otsetatic; bañan burnia sortu baino ascoz ta ascoz lenago ere, cantatu eta dantzatu ere oicituzten Guipuzcoatarrac soñu zar icendatu ditudanac".

Eta egia presentitu eta zihur, eta guretzat mingarri hau izendatzen du, alegia, euskaldunen kultur elementu hauk "Frantzia, Ingalaterra, Turkia bezalako" beste herri batetakoak izan balira, oraingo paperetan leudekeela, marrakiz ondo apaindurik munduko gauzarik ederrenetariko bat bezala, baina (eta hemen Larramendirekin bat dator, Iztuetak, nola ez, hura irakurria baitu) hemen hau hemengoa dela, beste leku garrantzitsuago batetik etorria ez dela jakitea nahikoa da harro baldarrek ostikoka har dezaten. "Ez aldute, bada, uste suertez ere chori buru oec, aipatu ditudan itz-neurtu eta soñu zarrac ez dutela serbitzatzen beste gauzataraco, ezpada, menditarrac moldacaizquiro jostatzeco? Bai –hots egiten du– nere anai maite euscaldun prestuac! Oitura miraritsu oec adierazten dituzte jaquitea on liraquean gauza balioso asco, baldin berai arretaz alde guztietara beguiratuco balitzaioquete".

Eta kapitulua, beti bezala, bertso batekin bukatzen du; honela da bertsoa:

"Provincia onetan guztiz ondrosoac
Beti izan dirade dantza ta versoac;
Iduricatuz ongui gueren gurasoac,
Gorde bear ditugu maitaro jasoac".

Dantzak eta beste jolas batzu

Iztuetarengan erlijiotik olgetara, jolasera pasatu naiz, trenbidez aldatzeko orratzainen beharrik gabe, herrien eta gizonaren bizitzako historian hain nahasiki gurutzaturik, irunik dauden bi errail hoiere, zer erlijioso eta zer profanoaren gainetik jarraituz bakarrik.

²⁰ Hitz hau lehenengoz, asmo honekin, W.J. Thoms antikuari ingelesak erabili zuen 1846an.

Horrela zen lehenago eta gaur ere bai oraindik.

Nahizta garaitik garaira diferentziak egon errail hauk finkatzen diren langan euspenean eta trenbidearen zabalera desberdinetan, gizartean eta haroen arabera.

Honela gertatzen da Iztuetak idazten zuen euskaldunen garai honetan zer erlijiosoa eta profanoa aldapetan gora eta behera ari zirela, aldapa arriskutsuak ziruditenak gauzak zirenez beste modu batetara eratzuz zihoazen aurreritziaren hestutasun gehiago edo gutiagoren, baina beti xedarrituaren, eta batzutan oso esituaren arabera.

Hala uste zuten.

Baina gure asabek bizkarrean zeramaten bihurtura honi komentario erraz hau, gauzak garai honetakoak, gure garaikoak balira bezala epaitzen dituztenek egitea, hori bidegabea da.

Gaur ere ez baitira gauzak iruditzen zaizkigun bezala.

Bere garaiko dantzen eta jalasen hiru lekukoetarik neurtuena aintzinakoena da. Hain neurtua non ez baitio ezer. Lope Martinez Isastik luze hitzegiten du esanik dugun bezala ardurarik gehien ematen dion guztiaz: gorte mundua eta hango sariak. Hau segur asko berezko joeraz egiten du honela; bera ere "jatorriz etxe guren, aintzinako eta blasoidunekoa" da, eta, jakina, mundu ofizial horren axola du; are gehiago Madrilen biziz gero eta hala dela dirudi bere obra idazten ari denean.

Eta, hala ere, hain gortearen tiropean jarririk ere, ez du edita diezaioten suerterik; "suerte" hori Garibaik baino gutiago dauka. Garibaik bere asmo asko lortu zituen, baina Isastiren obra galdurik dabil mendeetan zehar; noizbait Gipuzkoako Probintzian argitaratu arte, eta Barojatar batek (Ignacio Ramon, Pioren osaba-aitonak) Donostian inprimatzen du idatzi zenetik 225 urtetara.

Honelaxe ziren orduan euskaldunen kontuak nolabait beren herriaz mintzo zirenean.

Eta euskaraz zer esanik ere ez. Hizkuntza honetan hamaika gauza geratu da inprimatzeko eta batzu betiko galdurik, Antonio Nebrija, gaztelaniako lehen gramatikariaren pentsaera urrunetik zetozen aurreritzi politikoen mende zeuden eliz eta erret zentsuren erruz. Nebrijak 1492ean gaztelaniazko lehen gramatika aurkezten duenean, badu jadanik bere asmoa, eta hala diotsa aurkezpenean Isabel Katolikoari, "haren uztarripean sartzeko herri barbaro eta hizkuntza txoriburudun nazio asko, eta bentzupenean haiek irabazleak galtzaileari jartzen dizkion legeak hartu beharko dituzte".

Larramendik, ordea, herriaren jolaspide den guzti honetaz hitzegiten du, baita dantzez ere.

Dantzez batez ere, eta luze.

Euskal zeraren informazio hertsia, getozkoa, hartu dugunontzat gauza kuriosoak daude. Horixe da euskaldunok zer garen jakiteko izan dugun bide bakarra eta honela nire garaian, eta 1921ean jaio nintzen, ez joan den mendean, zezenek ez zeukaten euskaldunekin batere zerikusirik. Larramendik, ordea, dio "zezenetarik ez den jaiek jai antzik ere ez daukatela, munduko alaitasunik handiena badago ere: eta zezenik badago herriak hutsik gelditzen dira ikusteagatik".

Eta Larramendi, hau esandakoan, "seta" hori azaldu beharrean aurkitzen da.

"Eta ez dakit gipuzkoarrei noiz itsatsi zaien zezenen eta mairuen seta eta atsegin barbaro hau, beste espainiarrei dagokiena: eta hain zaleak dira non, Salamankarregatik

txistetzat esan zen bezala, zeruan zezenetarik balego, gipuzkoar guztiak zeruratuko bailirateke ikustera joateagatik. Egun apartekoetan Gaztelatik eta Nafarroatik ekartzen dituzte zezenak, gaiztoak, beren itxura hutsez ere bildurra sartzekoak; baina jai arruntetan badira herrialde osoa korritzen duten abereak".

Bada, hala ere, diferentzia bat.

"Gaztelakoak eta Nafarroakoak hiltzeko zezenak dira beti; ez hala hemengoak. Zezeneta bukatutakoan mendira eta beren baserrietara eramaten dituzte. Eta Gaztelako eta Nafarroako zezenentzat bertako toreruak ekartzen dituzte ordaindurik, langintza hain arriskutsu horretatik bizi direnak. Gipuzkoan hain zezenzaleak izanik ere, bategatik bakarrik entzun nuen otizozko torero sartu zela, eta *Chambergo* esaten zioten".

Nola toreatzen den deskribapen bat egiten du.

Eta komentatzen:

"Honi (zezena estokez hiltzeari) antzea deritzate, eta *barbarokeria* esan behar liotekete, eta guztiz gaitzesgarria, hala hartan ari diren bapoengan nola albotik begira dauden koldarregani.

Beste jai batzu ere, nola ez, aipatzen ditu "antzarak korritzen direna eta eraztuna urez beteriko ganbelan²¹ eta zaldunak tentelak badira, gainera erortzen zaie begira daudenen algaraz. Pasaiaz mintzo gaitezen, zer trebetasunez antzarak beren kanalean egiten dituzten itsaso gainean esango dugu". Eta bere haurtzarora jotzen du, 1700 inguruan, berak hamar urte zituenean eta kondatzen du "estafermoa²² ere ohitzen zela, eta hori zaldunen beste aproba on bat izaten zen abiadan zihoazela estafermoaren zartadetatik apartatzeko. Baina jai hau eta jolas hau ahazturik dago jadanik. Ihauterietan *zomorroak* edo *mozorroak* jartzen dira, hau da, maskarak jartzen dituzte, eta gehienak oso barregari eta aldrebes. Ehun mila erokeria eta tontakeria egiten dituzte". Eta hor dator orain moralzaina zenbait neurriren, segur asko, ondorioa ematera: "... baina ari dira lehenagoko gauza asko eta gaiztoak uzten".

Gero haurren jolasez mintzo da

"Gipuzkoako mutikoen jolasak tronpa eta tronpoa dira, *toca bolinchea*, *anicotea*²³ derizatena, batzu alde batetik eta beste batzu bestetik, porrazko makilekin, eta hoiekin bolatxo bat edo ohol zati bat jotzen dute eta kontrarioek kolpeka bihurtzen eta bolatxo behar den lekura sartzen duenak horrexek egiten du tantua".

Eta hurrek honetara eta beste joko askotara jolasten direla dio, hoiere artean pilotan eta beste asko "konta ezin ahala, ez baitago inon Gipuzkoan baino mutiko ausartagorik eta bihurriagorik".

Pertsona nagusiengan, kartak aipatzen ditu.

Kartak, "mota guztietakoak: *revesinoa*, *malilla*, *ehunekoak* eta beste izen batzu eta enbidozkoak". Eta geraldiki bat egiten du: "Baina gure herrian kartak berak bezain joko zaharra musa da, eta lau lantze ditu" eta hitz hauk aipatzen ditu, *ordago*, eta "iduqui" erantzuten badu, bukatu da jokoak. Oso joko dibertitua da elkar engainatzekoa baita, hainbeste hitz eta zinu eta haik begiak eta begirakerak eta batez ere nolako ezpainak eta

²¹ Azpiretxoa bezalakoa, tikieta eta biribila.

²² Gizon harmatuaren irudi itzulkaria, trebetasun jabea egitekoa.

²³ Zazpi edo zortzi zentimetrotako diametroko zurezko bolak lurrian korrierazten diren jokoak, kirten luzeko makilekin jorik.

muturtxoak jartzen dituzten; eta hortik dator joko honi *mus* deitzea" (euskaraz: ezpainak, jestua).

Mus zaharra eta berria daudela dio, "errege gehiagoz edo gutiagoz".

Eta Donostiko truko eta bilar jokoak aipatzen ditu, eta trukoak badirela "beste leku batzutan ere, ez askotan". Bola jokoak toki guztietan; damena toki askotan; "errege taularik ez dut inon ikusiaren gomutarik, ez ajedrezik, ez xeiko jokorik, ez tabadun zerririk, hau Gaztelan oso ohikoa izaki".

Eta pilotara heltzen da.

"Pilota jokoak da Gipuzkoan gehien egiten dutena. Palazkoa ez toki guztietan, baina eskuzkoa denetan. Beterrin Goierri baino zaletasun gehiago dago, eta jokorako teatroak edo enparantzak gehiago eta hobeak dira. Esku pilota partiduak, garaia datorrenean, elkarren atzean izaten dira, bai herri desberdinetako gipuzkoarren artean, bai gipuzkoarrak nafarrekin eta baita frantsesekin ere. Partidu ospetsu hauetara zenbat jende joaten den sinetsi ere ezinezkoa da, eta gehienak diru eta guzti etortzen dira *trabesak* egiteko, hala esaten baitiete, bai batzuren alde, bai besteen alde, eta jokaldi osoan ez ezik, joko bakarrera ere egiten dute, joko marra edo chuza batera.

Trabes hauetan gehiegikeriak egiten direla dio, eta oso zaila dela zuzentzen pilota jokoak bera kendu ezik, "eta hori erokeria litzateke".

"Desterratzea merezi duena bai bada –zehazten du– jokatzeko piloten izugarrikeria, oso gogorak eta lau, sei eta baita zortzi ontzatakoak ere baitira, hatzazalak eta hatzak apurtzen dituzte, eskuak mainkatzen eta baita deslokatzen ere, eta ezbehar hauekin eta eskularrutik (!) odola dariola bukatu behar partidua. Gipuzkoako Biltzarreak bi ontzatatik gorako pilotarik ez uzteko agindu behar luke, eta alkateek pisa ditzatela jokalariek plaza eskatzen dutenean".

Euskaldunen beste kirol kutun bat aipatzen du, txabalina jaurtiketa: *palanka*.

"Badute beste entretenigarri bat ere, sendoak eta indartsuak egiteko, makila jaurtiki, bai bularka, bai buelta erdika; burruka, baina ia apenas egiten da, toki gutitan geratzen da eta mutikoen artean bakarrik; lasterketa, bi batera korrika, edo bat bakarrik, ordu erdian, esaterako, leku edo puntu seinalatu batera joan etortzea; ariketa hau ere asko galdu da, gaztetan ezagutu nituen beste asko bezala".

Bada, bi ariketa hau biztu egin dira gero, gaur ere egiten baitira, Gipuzkoan batez ere.

Eta eskrimaz mintzo da, baina makilekin, "ezpatadantzan" geratu den bezala, gaur era korografiatuz hain sarri ikusten dena.

"Batez ere eskrima da ahaztu dena, zeinetan makila ezpata bezala erabiltzen ikasten baitzen, zartadak emateko eta hartzeko, zauritzeko eta defendatzeko, baita oratzeko modua ere zartada zehartzeko eta era batera etsaiaren gainera deskargatzeko. Jauzia, bi hankak batera, edo librerik eta bereizirik, abiada hartuz, bi edo hiru edo jauzi gehiagotan; ariketa hau nahikoa bizirik dago, Beterrin batez ere".

Gero ehizaz mintzo da: ehiza xehea, eperrak, pasekoetan: galeperrak, oilgorrak "eta beste batzu"; eta ehiza *handia*: erbiak, basurdeak, orkatzak eta oreinak, "noizik noizera Nafarroako mendi hauzoetatik honantz sartzen direnak"; eta arrantzez ere mintzo da: amuarrain ugariak.

Gero Iztuetak, 1826an, liburu oso bat dedikatzen dien dantzei buruz, Larramendik "jai guztietan" ohien diientzat hauk aipatzen ditu: *ezpatadanza*, *alagai danza*, *aceri danza*, eta deskribatu egiten ditu. Azken dantza biok "Beterrin bakarrik egiten dira; *alagai danza* Tolosan, San Juanetan, Hernanin, Andoainen, Errenderin, Urnietan eta ez dakit non gehiago".

Ezpata dantza "ihardunaldi handiagoetarako da": Gorpuztiko prozesioak eta honen zortziurrena, eta San Juanetan; jotzaileak eta dantzariak elizan sartzen direla dio, "jendea isilik, hotsik egin gabe eta danbolinaz beste zaratarik gabe, eta dantza honetan ez dago emakumerik ez elizarako edo Jaunaren aurrerako gutiago duin den besterik".

Larramendik filosofi-erlijiozko diskisizio bat egiten du dantza hauk eliza barruan justifikatzeko. Eta deseritzi formalak, baita teologikoak ere, ezeztatzen Parisko apezpiku Odonen (1198) eta geroagoko beste batzuren sinodo *Konstituzioetara* jotzen du eta Biblia eskuan duela defendatzen da, eta Dabid dantzan "Kutxaren aurrean Obededonen etxetik hura Jerusalemara ekartzeko egin zen prozesioan".

Honela bada, ez da inolako lotsagabekeria, baiezten du jesuitak, eliza barruan edo prozesioetan *ezpatadantza* dantzatzea.

"Danbolinezko dantza arruntak" beste gauza bat dira.

Lehenengo *txistu* eta danbolinaren gorralpen sutua egiten du. Herrietan danbolindariak nola antolaturik dauden eta nola iharduten duten esaten du. Eta bat batera, tresna honen kontra jarri ohi den erreparu astunen bati bidea mozten dio, esanez: "Eta orain arte ez dirudi danbolinak ezer txarrik ez gaitzesgarririk duenik".

Eta gauzak (bere garaikoak) beren lekuan jartzen hasten da, hamazortzi orrialdetako aldezen luze eta dokumentatu batez.

"Baina pulpituetatik misiolariak eta beste predikari batzu trumoika entzuten ari naizela ematen dit eta txinpart eta tximist jaurtika *carricadanzan*, *escudanzan* eta Gipuzkoan ohi diren beste dantza batzuren aurka. Demagun txarrak eta debekatuak direla. Zentzuzkoa eta moral onezko al da dantza hauk ez direla permititu behar hots eta oihu egitea, hoiene debekutik eta kentzetik baztertu nahi direnak baino gaizpide eta oker handiagoak badatoz ere?"

Hona hemen Larramendiren zentzua, ikusten baitu "argi dagoela dantza hauk herritik uxatuz gero alderatu nahi direnak baino gaizpide handiagoak datozela".

Eta desafioa: "Esan bezate exenplu emaleek".

Zentsuraren erruz dantzarik ez badago, hona zer gertatzen den: "Neska mutilak dibertitzera eta jolastera, jatera eta edatera, herritik kanpora aldentzen ziren, lekukorik gabe, eta herri barruan olabeetara eta beste zoko batzutara, eta hortik sortu zen eskandalu izugarria, dantza gabeko urte bakar hartan dantzadun beste urte askotan baino kaxako haur gehiago jaio baitzen".

Hauxe da zentsuraren ondorioaren aitz exenpluetariko bat.

Eta berriro Elizako Legeekin harmatzen da, lehenagoko harmak, Bibliak kondatzen dituen garaietakoak, eta beste Mundukoak ere bai, garaiak eskatzen eta bere kulturak eta buruak eskaintzen dion guztia erabiltzen du bere herriko dantzen aldezen argi bat egiteko.

Eta Jainkoa bera hartzen du ondoan:

"Bada, esan biezadate orain edonolako dantzen etsaiek: noiz eta zer trantzetan bildu edo debekatu zuen Kristok Lege zaharrea zegoen ohiturazko dantzarik?" Kristok beste gauza batzu bai gaitzetsi zituela dio: biraoa, "gurasoak ohoratu, ez hil, ez haragikeriarik".

Baina, dio, "dantzen aurka ezer ere ez".

Honen gauza simple hau haren garaian ez zen erraz esatekoa, eta gutiago jesuita izanik. Larramendi makurgaitzari paper bat baino gehiago geratu zitzaion zentsuran; paper hoik beharbada oraintxe hasiko dira irteten.

Nolanahi ere, Larramendi oso apez debota da eta bere garaia eta 1750eko euskal moralaren arabera, herrietako dantza hauetan gorde beharreko baldintzak ematen ditu: 1) ez daitezela gauzez, ilunetan egin, "Abemaritakoak entzunez batera" buka daitezela; 2) aginduzko jaiegun goizetan inolako danbolin dantzarik ez, "meza nagusia, sermoia eta prozesioa bukatu arte"; 3) "Garbiro dantzatu", eta gehiegikeriak zigortu; eta baten bat aipatzen du: "alkateek zigortu beharrekoak dira jirabiraka, saiheskara txilipurdika emakumeei bernajantziak ukitu ez ezik, bernak ere pixka bat desestaltzen baitizkiete"... 4) "Dantzak onesteko dudan laugarren baldintza zapiekin dantzatzea eta gizonen eta emakumeen elkarri eskurik ez ematea da"... "hala jarririk daude dantzak Hernanin Aita Martin Bergarak bere lagun Aita Jose Ugarterekin batera eman zuen misioaz gero".

Eta gaiek, esan dudan bezala, hamazortzi orrialde dedikatzerainoko garrantzia duenez gero, oraindik eransten du:

"Gure Gipuzkoako dantzei nagokiela, zuhurtziaz ez dagoela gaitzesterik ez debekatzerik diot. Lehenengo, zuhurtziaz ez delako berez eta ihardunean txarra ez denik debekatzen; eta hala ikusi ditugu Gipuzkoako *escudanzak*. Bigarren, errepublika guztiek ohituratzat eta lege ezarritzat daukate beren jolasketak eta dibertsioak aste osoa arraunketan eta lanean ematen duten nekazari eta ofiziale gaixoek halako atezutik soka lasa dezaten eta aiseki poztu eta amasa har dezaten hartara joera duten eta herrian ohituratzat dauden jolas desberdinetara. Eskubidea daukate horretarako".

Larramendiren dantzek urrutitxo ekarri gaituzte, honaino.

Eta zer dio Iztuetak?

Dantzei buruz aipaturik dugu 1826an argitaratu zuen liburua, liburu funtsezkoa noski.

Liburu honek bi onepen pasatzen ditu: bata Santiago Unzetarena, zeinek uste baitu "oso komenizkoa dela inprimatzea" eta "gutierrez herri bakoitzean ale bana egon dadila, artxiboan gordea beren usuario zaharren oroigarri", eta Bergaran 1824ko martxoak 25ean izenpeturik dago; eta beste onespina, areago zentsura dirudiena, Jose Ramon Elorzak idazten du "Martin Jabier Muzkiz jaunaren aginduz, Nafarroako Kontseiluko Entzule Dekanoa eta Gipuzkoako Probintzia honetako Korregidorea bera"; Elorzak pertsona bezala eta deskribatzen dituen dantzen eta musikaren ezagutzaile bezala goresten du Iztueta, eta "kontsidero guzti hauengatik esku izkribu hori inprimatzeari egoki deritzat, eta beharreko zabaltasun guztia eman diezaiotela Gipuzkoa osoak obra honek jotzen dituen helburu goragarrien berri jakin dezan"; eta idazki hori "Azkoitin eta 1824ko Irailak 18an dataturik dago.

Lana ez dago, ordea, oraindik argitaratzeko moduan.

Azken baimen formal behar da eta ematen du, "eman, utzi" egin behar beti idazten dutenen langintza arriskugarria jagoten dutenek; baimen hau, diot, Martin Jabier

Muzkizek, Nafarroako Erret eta Goren Kontseiluko Ministro Dekanoak eta Gipuzkoako Probintzia honetako Korregidoreak ematen du honela bukatzen den formulategi baten bidez: "Bada, bere auto honen bitartez Probintzia honetako inprimategien Epaikari gisa hala ebatzi eta izenpetu zuen Bere Gurentasunak, zeinen eskribau honek sinespidea ematen baitut. *Martin Jabier Muzkiz*. Ene aurrean, *Joakin Ramon Soraiz*".

Oraintsu agerturiko hirugarren edizioaz inon ezer esaten ez bada ere (bigarrena Tolosan egin zuten 1895ean Eusebio Lopezen inprimategian), Juan Inazio Iztuetaren obra garrantzitsu honen inprimatzea Donostian egin zen, inprimatzailea Martinez Isastiren Konpendioarena bera zelarik: Ignacio Ramon Baroja. Iztuetaren obra guztiz garrantzitsu honek Gipuzkoako dantza tradizionalak biltzen ditu, hoiien beheraldiaren arrazoiak aztertzen eta salatzen ditu eta oraindik ere diren bezala zibilizazioaren irakaspede izaten segi dezaten erremedioak ere kontseilatzen ditu.

Eta entretenigarriei eta jolasei buruz.

Iztuetak lehenengo pilota jokoa aipatzen du; bere ohiko berotasunez euskaldunei ezartzen die hura asmatzearen ohorea, zeintzu direla baitio kirol horretako txapeldunak. Herrietan dauden pilotaleku ugariak aipatzen ditu, eta hoietan apezek eta goi jendeek ere jokatzeko omen dute lan apalagoetara emanik daudenekin nahasirik; Larramendik bezala, diru apustuak aipatzen ditu, batzutan herri bat beste baten kontra, beste batzutan probintzia bat beste baten kontra, eta baita Bidasoaz hango eta hemengo euskaldunen artean ere.

Beharbada gehiegitu egiten du "milaka urre ontza" jokatu diren kasuak badirela esatean.

Eskarmentagarritzat Hernaniko frontoian jokaturiko partidu bat kondatzen du bakoitzak launa jokolaritako ekipo nafar baten eta beste gipuzkoar baten artean eta jendea oheak eta koltxoiak jokatzearaino berotu omen zen eta frontoi ondora bertaraino atera ere. Entzuketik mintzo da, jakina, partidu gogoangarri hau "1720 inguruan" jartzen baitu.

Ez da halako disparatea ere, bai baitago antzeko apustu bat, ia mitikoa, Gipuzkoako eta Bizkaiko arraunlarien artean, zeinetan koltxoiak ere jokatu baitzituzten eta oraingoan ondarrutarrek galdu.

Pilotaren kasuan koltxoiak huts hutsagatik gipuzkoarrek irabazi zituzten.

Hau Euskal Herriko urtekarietan orduan hemengo gertaerak erregistrazten ziren bezala baturik geratu da: bertsotan. Iztuetak biltzen ditu honela hasirik: "Amar jocu eta sei zeudenean"... eta bukatzen: "Icaraturic biraldu bait du Nafarroaco gendea!".

Gero Iztuetak idiprobak kondatzen ditu (Azkoitin jokaturiko dema batean 160.000 errealetatik gora jokatu ziren) eta orduko beste gertaera gutiago gustagarriak, hala pultsu eta jauzi demak, oinez lasterketak, eta baita ahari talkak ere, hauk oso herri honetakoak. Kondatzen dituen gauzen artean, Ataungo "Amilleta" baserriko hamazortzi urtetako mutil baten azaina sinetsi ezinekoa kondatzen du, zeinek bi jaunek eginiko bost urre ontzatak apustu bategatik zezen handi bati adarretatik heldu baitzion erasotzera zetorkiola eta Amezketako plazan lepoa bihurtu.

Iztuetak hemen mila zehaztasunez deskribatzen duena ez da zezena eta haren tankera, zezen hezitzaile honen tankera basatia baizik, ia biluzik zebilena, elur egunetan

ere oihanetan lo egiten zuena eta halako gorpuztasuna eta aurpegikera eta gorpuzkera ezartzen dio non grekoen kondairaren batetatik aterea baitirudi.

Eta azkenez ehizara jotzen du.

Ehiza kirol bat da, entretenigarri bat; baina Iztuetak kondatzen duen kasu honetan ez da horrela, beharrez ehizatzen baita; baina esaten duenak garai bat seinalatzen du, Iztuetaren haurtzarokoa.

Idiazabalgo artzain batzuk lakioz tigre bat harrapatzen dute. Tigre euskaldun bat, jakina. "Catamotz izugarri bat", dio. Arantzazuko mendietan lakioratu omen zen. "Izugarria" zela sinespidea eman dezakeela ekiten dio berak ikusi baitzuen bere jaioterri Zaldibin, ohitura zenez, larrutu aurretik zaldi gainean erabili baitzuten, haren harrapaketa mesede egin zieten artzainen saria bilduz.

"Au icusiric aña andia, nere aitac pisatu izan zeban guizon ascoren aurrean iruroguei ta emezortzi libra".

Garai hartan artaldeei erasotzen zieten basapiztiak zer izugarria ziren; kalte handiak egiten ari ziren otsoak sarritan harrapatzen zituztela dio. Lakioz beti. Oinati inguruko mendietan urtero ehizatzen omen zituzten. Ehiztariek beren piezak herririk herri erakusten zituzten beren saria jasotzeko, batzutan otsakumeak otzaran bizirik. "Nere jaioterrian icusi izan det guizona, sari-escatzalle oetacoari otsocumea erosi, eta bere echean umeac eguinda zeucan chacurrari acieraguiten".

Sinetsi egin behar zaio, zeren Iztueta, sinespide hau ematen duenean, oso lekuko fidagarria baita.

Meak eta olak

Gipuzkoa ez zen jolasa eta dantza hutsa, jakina.

Hemen lan asko egin izan da beti.

Euskalduna, eta beraz gipuzkoarra ere bai, oso goiz hasi zen historian Herriaren industriakuntzan lehen urratsak ematen.

Lehenengo meak izan ziren.

Martinez Isastik Lacinio Cacosek (Garibai) harmak, besokoak eta burubabesak lantzekoak aurkitu zituenetatik Muzkizen eta Somorrostren bere esperientziatik hurbilago daudenetaraino aipatzen ditu; "hemendik mea Pasaiako portura eramaten da eta Donostiako Done Katalinako Urumea hibaira *Chanoak* izeneko untzietan, eta han deskargatzen dituzte ur bazterrean; eta Beduatik Azpeitiko eta ingurukoetara". Eta gero Gipuzkoan diren meak aipatzen ditu, honako mendietan: "Azuvide, eta Ayako haitza, Irunen eta Oiarzunen; Verasteguikoan, Gaviria eta Ormaizteguikoan; Aralarkoan eta Segurako hiri ingurukoan".

Eta "altzeiru meatzea Arrasateko Udalacha mendian dagoela" dio.

Hau segur asko Garibairengandik hartzen du.

Zilarrezkoa dagoela dio "burdin mea ateratzen den Gipuzkoako mendietan", gehiago zehaztu gabe, jakin ere ez baitaki, eta "omenka" hitzegiten du dato hau emateko, alegia, norbaitek "meariek ekarri zioten meatzeko zatitxo batzuekin aproba egin zuen eta

zilar ona zela aurkitu zuen". Eta azkenez, konkretuago seinalatzen du "Amon, Motrikuko jurisdikzioan zilarrezko eta estainuzko meagizonak badirela".

Eta zenbat ola dauden ematen du.

Irunen hauk aipatzen ditu: Aranzate: Urdanivia, Ibarrola, Aranguren, eta hiru Gabi: Alzubide-Olacho, Ibaeta eta Aranguren. *Oiartzunen*: Zuaznavar, Turrita, Fagoaga, Olaberria, eta bost gabi (metaleak jotzeko mailuak): Issasa, Olaizola, Aramburu, Arbide-Arrataca eta Gaviola. *Errenderian*: Renteriola eta Añarbe. *Hernanin*: bi ola Heriñazun: "Abillas Elduayengo Francisco Lopezena; Verruzuno garaicoa Echazarreta lizentziatuarena; Varratu, Asacasua, Donostiako jurisdikziokoa hau. *Lasarten*: bat Antonio Oquendoren jauregian. *Lizaurren* (Andoain), Acelain gabi eta guzti. *Billabona* eta *Lizaurren*: Agarai, Cizurquilgo San Milliango etxekoa gabi eta guzti. *Tolosan*: Iriarte lizentziatuaren ola. *Verasteguín* eta *Elduuyenen*: Prazola gabi eta guzti; Kustar gabi eta guzti, Ameran izenez; Berunis, Elduayengo gabiarekin; Olloqui gabi eta guzti Elduayenen; Inturia, Miguel Oquendo generala zenaren gabiarekin. *Ibarran*: Ascuereneko bi urezko olatxo, bata Miguel Beitia Tolosakoak ezpatetarako eta txarrantxetarako daukana, altzeirua lantzekoa; eta bestea kobrezko gai guztietarakoa. *Legorretan*: Berosteguiko ola Bernardino Arteagarena".

Gero beste batzuren historia zehatza egiten du: Sarria, Aristerrezu (*Aya*), Basobeltz (*Zarauz*), Larruondo (Oquina): "agudezia aparteko ola burdina botatzeko, Flamencosek asmatua, Ubillos doktorearena"; Arizmendi (*Asteasu*), Hernio hibaian, Alquizako jurisdikzioan; Alzolaras (*Aizarnazabal*); Ola nagusia, Lasaokoa, Arrizuriaga, Malcorra, Barrenola, Anchieta, Ibarluce, Ugarte, Yereta, Errasti eta Igaraeta (*Azpeiti* eta *Azkoiti*); Iraeta (*Zestua*), Zurrusola (*Errezil*), Yarzako jauregikoa, "nora sartu baitira erregeak agudezia ikustera", *Yarzan*; Seguroa, *Zerainen*; Goyenola, Olaberria, Asteun olea, Barren olea, Aitamarran eta Alcibarko olak, *Zegaman*; Lazkaoko Yurre, Ursuaren, Loidi, *Idiazabalen*; Zaldiviako "hiriko ola berria"; Argañaraskoa, gabi eta guzti, *Amezketan*; Iribeko sortetxekoa, Miguel Marinez Aristizabalena, *Lazkaon*; Olazarra, Vicuña, Barrenola, Olaberria, Mirandola,²⁴ Elorregui, Arabaolaza, eta Plazaolakoak *Legazpin*; Legazpi Jaureguikoa, *Zumarragan*, Olearena, *Altzolan*; Andicao eta Carquizanokoak, *Elgoibarren*; Aurtengo ola, "eta Mendaron, Motricoko jurisdikzioan, Lasalde, eta Gaviola Devako eta Elgoibarko jurisdikzioan", *Mendaron*; Lasturko aranean Goicolea, eta Plazaola, *Itziarren*; Legarra, Gueslibar, Magdalenakoa, eta hiru gabi Guesalibarren, Uribar eta Arrazasen, "partikularrenak", *Arrasaten*.

Bilduma hau bukatzen du baturik "guztira ur lasterreko eta lantzaileko laurogei ola handi, eta beste bi, orain konpontzen ari direnak, eta hogeita hamazazpi gabi (urezko ola tikiak) eta agudeziazko beste bi, hauk ere urez dabiltzanak, altzeirua lantzekoak, zeintzakin ezpatak eta txarrantxak egiten baitira, eta galdarak eta kobreki guztiak egitekoak, zeintzutaz 12 garren kapituluan 28 garren zenbakian tratatu baita eta 2 garren liburuan 5 garren kapituluan 7 garren zenbakian hitzegingo baita".

Adierazten du, eta hau ia soziologia da, ugazaben sindikatoa!, "lege Bildumako koadernoan eta Gipuzkoako ordenantzetan badirela olen kontserbapena agintzen duten batzu, herritarren mantenurako ongarriztat jorik uren eta mendien egokitasunez, lurrean bertan meak egonik. Eta lehenengoan erabaki zuten edozein mazulari,

²⁴ Museo gisa gordetzen da orain ere.

botatzaile, sartzaile, prestatzaile, ikazkin, mandazain, edo alokazer, edo ogiurdun soldataz eta alokairuz hileetarako edo urteetarako hitzemanik egonik; eta dirua hartu eta denbora baino lehenago beste ola batetara joaten bazen, eta harekin hitzematzen bazuten, ehun zigorkada emateko harrapatzen zuten lehenengo hirian edo herrian, eta hartu zuen doble bihurrerazi, eta gastuak harekin tratua egin zuen olajaunaren bizkarrera; eta gainerakoa, erdia Anaiartearentzat eta beste erdia bertako alkatearentzat". "Bigarrenean, ontziskak gaitz eta kalte egiteagatik olaren batetan hausten dituen, hila izan dadila horregatik; eta gastuak haren ondasunetatik ordain daitezela eta hala hautsi edo kraskatu zituen ontziskak berriro egin. Hirugarrenean, mazulariak, ofizialeak eta olako alokazerrak desafiaturen dituenak lehenengoagatik hamar mila marai ordain ditzala, eta bigarrenagatik hamabost mila, eta hirugarrenagatik hila izan dadila, eta zigorrak zerekin ordaindurik ez badu, lehenengo desafioagatik urtebete hanka biak katean dituela egon dadila, bigarrenagatik bi urte, hirugarrenagatik hila izan dadila, nahizta salatua ez izan. Laugarrenean agintzen da ez dadila Bizkaitik Frantziara inolako mearik eraman pramatiken eta homimenduen arabera, eta hausleen aurka zorroztasun osoz joka dezatela".

Zer guzti hau izugarria da; hala ikusten dugu gure garaitik; beharbada orduan ere bai.

Larramendik zer dio 125 urte geroago?

Larramendik ere dio Gipuzkoako olarik gehienek "Somorrostron eta Muzkizen, Bizkaiko enkartazioetan, ateratzen duten mea gastatzen dutela" eta "*venaquenoak* eta *chanuquenoak*" (Martinez Isastiren *chanoak*) izeneko untzitxoetan garraiatzen dutela, izen hauk haik gidatzen dituzten marinelei ere ematen zaizkiela azalduz.

Eta oletara igoteko bideak seinalatzen ditu.

Nafarroarantz dagoen Irungo goi alderako Bidasoatik sartzen dira; Oiartzunera eta Errenderira "Pasaiako kanaletik eta Kaputxinoetan eta Errenderiko kaian bertan lehorreraten dira; Urumea hibaiko oletara *hegoak* "bi legua baino gehiago" Ereñozuraino, eta hemendik zaldiz Pikoagaraino; Lasarte eta Andoaingoei buruz, Oriatik; "Iraeta, Lasao, Azpeiti, Azkoitikoetara Zumaiatik sartzen dira, porturaino eta Beduako etxeraino, eta handik gurdiz eramaten dute, ez baita Urola gehiago nabigagarri". Altzola eta Elgoibarko oletara, mea Debatik dator, "Altzolaraino, non lehorreraten baitute". Eta olei berei buruz egiten dituen oharpenetan, Isastik baino begi gizakoiagoa jartzen dio "olagizonen lan izugarriari". Harrigarri zaio, haien egitekoei eta lantegi eta hango makinaren deskribapen axolatsuari buruzko hautemapen zehatzetan, harrigarri zaio, diot, nola inolako eskola apartekorik hartu gabeko gizon hauk mugitzen diren eta kalitate hobeko lan profesionala lortzen duten. Euskarazko izen tekniko asko ematen ditu, eta ola teknika hauk Pedro Bernardo Villarreal Lekeitiokoak "maisuki" aztertu dituela jakin erazten du *Errota eta oletako Makina Hidraulikoak* liburuan.

Norbere gauzengatik bere berotasun ezagunez, "ditiko haurtzat" jotzen ditu Vulkano jainkoari laguntzen pintatzen dituzten hiru ziklopeak, beren oletan, lanean, sua bezala pizturik ari diren olagizon hauekin konparaturik.

Eta ziklope mitikoen biluzitasunez morala egiten du ikusirik beren brusa edo atorra handiz jantziriko euskaldun hauei gero harropak aldatutakoan inork ez diela igartzen "olagizon hauk olan deabru beztuak ziruditenak berak direnik".

Larramendi apologista da eta Gipuzkoako ordenantzetan ezarritako zigorrak Martinez Isastik bezain beltz ez ditu pintatzen.

Gero bere gipuzkoar hari apologetikoan daraman beste oharpen bat egiten du eta esaten Bizkaian eta hango oletan, aitortzen du, barretan heren bat gehiago lantzen dela, baina "Gipuzkoan gainera pieza tiki eta bitxi guztiak eta perra mota guztiak lantzen direla, eta honela Gipuzkoan saltzen den burdina baino diru gehiago sartzen da".

Ehun urte geroago, Iztuetaren *olak* datoz.

Lehenengo gure meatzean gorespen gehiegizko bat egiten du eta ez omen dago inon hoik baino hoberik. Zaldibia Batxilerrak²⁵ ematen dituen aipamenei dagokie. "Galdetzen det nic ¿norc arquituco du Españan toqui bat, beruna, burnia, cobrea, burnarria, alzairua, urrea ta cilarra ain ugari guztitic dariola diarduanic?"; hainbeste leienda histori gisa idatzi zutenengandik hasten dira beti, eta eransten du gero: "Ez da bada siñistgarri billa ibilli bearric ere, icusten dalaco arguiroqui, bi Provincia oec bacarric (Guipuzcoa, ta Vizcaya) ematen dutela burnia España guztiraco laiña ez ezik, beste Dierra ascorenzaco ere, ceñarequin eguiten diren gudaraco eta lur-laneraco arma ta erramientac..."

Iztueta agurea da jadanik (1767an jaio zen eta 1845ean hil, bere obra, 1847an, argitaraturik ikusi baino bi urte aurrerago) eta bere lurminak eta bere herriminak aisa eramaten du aintzinateko ipuin hauekin; aipamen hauk ondo datozkit ez haren sinerkortasun pertsonalaren erretratua egiteko, gure Herrian haren garaian zegoenarena baizik, eta Iztuetak zer maitasunez aberasten duen bere Probintzia eta Euskal Herria ikus erazteko; eta guri arretagarri zaigun zerera noa: gure industriatik haren garaian zer geratzen den lekukotasuna.

Beste zenbait gauzaren artean, eskritura baten berri ematen du, "Oiartzungo meatzeen esplotazio Elkartearena". Dokumentua Donostian izenpeturik dago 1829ko uztailak 3an, eta horren arabera Villafuertesko Konde Jaun eta Manuel Joaquin Iguerabide Tolosarrek, eta Don Lorenzo Lavaca Donostiarrak, "berenez eta Marcos de Pontejos Madrildarraren, John Coekevill, Nicolas Maximiliano, Lessoine, eta Felipe Adolfo Lessoine Holandako Liejako Merkatalgokoaren ordezkari gisa"... "konpainia bat formaltzea erabakirik zeukatela esan zuten zilarrezko eta beste metale batzutazko bi meatzeren lanketa osorako, eta meatze hoik Oiartzungo Araneko lurretan daude, eta beste meatze bat Irungo hirian dagoena, biak Probintzia honetakoak, eta beharbada gerora begia jarriko dieten beste batzu..." "Konpainia honetako Zuzendaritzat Don Pedro Jose de Anima izendatu da, orain Bilbon bizi dena".

Eskritura hau Jose Elias de Legarda, Donostiako eskribau publikoaren lekukotasunez emana izan zen.

Iztuetak bere liburua, bigarren karlista gerra bukatutakoan, idazten duen garai honetatixe aurrera abiatzen da industria, aduanak frantziar Estatuko eta itsasoko mugetara aldatzeak zekarren merkatal pizgarriarekin. Gipuzkoan bere eragina ukan behar izan zuten Bizkaiko Labe Handiez gainera, aipatu beharra dago hemen Tolosan, Iruran eta Alegerin sortu zen papergintza eta Tolosan, Billabonan, Andoainen, Lasarten eta Bergaran sortu zen ehungintza. Gipuzkoako siderurgia ere indarberritu egiten da.

²⁵ Juan Martinez Zaldibia tolosar abokatuak hau idatzi zuen: *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*, 1564.

Tolosan alanbregintza bat eta Parisko beste puntagintza bat funtzionatzen hasten ira. Eibarren harmagintza aurrera doa.

Guzti hau, jakina, orduko ondorio politiko eta sozial astunekin, gure askatasunaren bizkarretik baita, eta baita gerorako ondorioekin ere hibaien eta ureztatzen dituzten ibarren osasunean.

1936tik aurrera batez ere.

Sagardoa, txakolina, ardoa eta beste lurreko janari batzu

Euskaldunak dantzarik dantza eta jolasik jolas, lanik egin gabe ibiltzerik ez zeukan bezala, ez zeukan gorputza lanari loturik luzaro edukitzerik ere indaberritzeko jan gabe eta egarria txakolinez, sagardoaz eta ardoz ase gabe, eta edari hoik dohain bezala hartuz etorri dira.

Ez dakit Zerutik, lur firmeegiarekin nahastea bailitzateke.

Azken lau mendeotan euskaldunak eduki zituen zeruko alderdi batzu eta hiltzeko ifernua, haietaz zerbait hitzeginek gaude lehenago.

Orain, gipuzkoar hau oletan lanean marraztu berri dugun honetan, dakusagun nola indarrak berritzen zituen: jan, euskaldunak gehiegi jaten duela esan izan da beti; baina hau ez da beti honela izan; hain zuzen alderantzizko frogak daudela dirudi; gehiegi edateko bekatuari buruz, beharbada egia da beti edan izan duela nahikoa-gehiegi, bakoitzak sagardoari, txakolinari eta ardoari jartzen dion neur makilaren arabera, Gipuzkoarrak bere izerdiz lortua noski.

Gipuzkoarrak bizitz hari hori lanean eta izerdi asko isuriz eta, beraz, edanez irabazi behar izan du.

Dakusagun nola eta zenbat garai bakoitzean.

Lope Martinez Isastik diosku Gipuzkoan "zuhaitz mota guztiak ugari direla, hala fruitudunak nola basokoak, batez ere haritzak, eta guzti horrek lorategi landatu bat ematen du. Laranjondoren batzu ere badira itsasaldeetan, baina guti, neguko izozteekin ez baitute irauterik. Itsasaldeetan bada mahastirik ere, hala Getarian, Zumaian, Askizun eta Donostian, denbora guti irauten duen ardo zuri bigunezkoak".

Txakolina da, oraindik dirudienez izen hori ez duena; Isastik behintzat ez du aipatzen.

Fruiturik ugariena sagarra dela dio, eta mota batzu aipatzen ditu: "Estimatuenak Gezagozoak, Madarisagarrak, Pikadunak, Arriolak eta Amasak dira. Baina erreinetak²⁶ eta honelako beste batzu ganbaretan negurako gordetzen dituzte. Besteekin, eta ugari dira gozoak eta gezak, sagardoa egiten da, Gaztelan sagarren Ardoa esaten dutena, hoiekin hainbat upa betetzen dira eta edari sanoa, freskoa eta elikagarria da eta udarako eta gaziarekin atsegin handiz eta ederki sartzen da batez ere emakumeentzat eta

²⁶ Kargutzekoa da ez duela euskal izenik aipatzen, nahizta Amasak, adibidez, Gipuzkoarra ez denak ezin ulertu; honek, dirudienez, liburua Madrilan, hargatik eta harako publikatzekoa zela esan nahi du. Huraxe zen garaia eta huraxe segur asko garai hartako kontzientzia; ez, bada, masustari mahatsik eska.

langileentzat, hoiien edaria baita batez ere, eta azunbrea zortzi edo hamabi marai izaten da, eta ez dago agertu gabe urarekin saltzerik sei mila marairen zigorpean, koadernoko ordenantzak agintzen duen bezala.²⁷ Gaztainak ugari dira, urritzak, ezkurak, eta fruitu mota guztiak, irasagarra, bikuak, mizpirak, masustak, perretxikoak eta onddoak".

Eta ortuari guztiak:

"Ortuaria erruz dago, azak,²⁸ azelgak, uhazak, eskarolak, lutxarbiak, baratxuriak, tipulak, eta beste belar xehe usaintsu batzu, eta arrosadiak, hoietatik arrosa ur asko ateratzen baita, eta etxerako behar dena hartutakoan, gainerakoa libera bi errealetan saltzen da; eta basamarrubiak, udako lehen fruitua hau; eta jende kuriosoan baratzeetan meloi ederrak eta galantak hazten dira, batzu hamabi liberatakoak, eta gehienek haragi koloratua eta dasta bikaina dute, baina kontu eta lan handiz zaindu behar ziringiloengatik. Hauk lurreko hezeduraz hazten dira eta gauez apurtu egingo lituzkete joan eta garbitu ezik. Arbia ere ugari dago eta batzu burua bezalakoak eta abereen janarizat hartzen dituzte; txiribiak ere gozo gozoak, lutxarbien egiturakoak, nahizta oriskak".

Eta lurrak zer ematen duen esaten du, eta hori euskaldunak XVII garren mendean zer jaten duen eta zer jaten ez duen esatea bezala da.

"Ogia ez da behar den guztia hartzen, lur menditsua baita, eta guti landua. Lantzen dena oso emankorra da, ongarri apur bat botaez gero; eta falta dena hornitzeko, Frantziatik itsasoz, eta Arabatik eta Gaztelatik eta Nafarroatik ekartzen dute. Artaxehea hala hola hartzen da; eta oraintsutik honantz ogia artoarekin egiten da,²⁹ eta Indiako artaxehea esaten diote, aranetan eta leku hezeetan ederki etortzen da, eta freskorik janda gozoa da, eta ikusten denez hegaztiak gizentzen ditu".

"Abere larri eta abere xeheen haragia dezente dago, eta baserrietan eta bordetan zerriak hazten dituzte etxean jateko; eta falta dena Frantziatik eta Nafarroatik ekartzen dute. Gazta on onak egiten dira batez ere Amezketan eta Ataunen; eta Oiartzungo eta Berastegiko behien gantzagi freskoa, ezpal mehezko saskitxoetan garbitasun handiz bildurik ekartzen dutena".

Eta ehiza:

Aipatzen ditu "ehizalarrian basurdeak, ahuntzak, orkatzemeak eta oreinen batzu, erbi asko; hegaztietan koartzak, zezentxoriak, ahateak eta itsas txoriak, eperrak guti, neguan oilagorra ugari etortzen da, eta eperrek baino jakera hobea dute eta haien motakoak dirudite: gehienez gauez harrapatzen dituzte, lakio gisako bata, egunez, elurtzetan arkabuzez hiltzen dituzte, idi pintatua estalkitzat daramatela. Zozo eta birigarro asko dago, eta txori tikiak, Martxoan eta Urrian pasatzen direnak, eta denboraldi batez inguru hartan entretenitzen dira, eta berdin kurriloak, inoiz geratzen direnak".

Eta zer dio Larramendik?

Laster esaten digu artoak gure ekonomian nolako garrantzia hartu duen.

²⁷ Gipuzkoako Foruko legeak dira hauk.

²⁸ Euskal izenik aipatu gabe segitzen du.

²⁹ Liburu hau 1625ean idatzi zen; artoa hemen 1500 inguruan zabaltzen hasi zela dirudi. Amerikatik ekarria, jakina, non artoaren zebilizazio bat omen baitago. European ere gero garrantzia bereko eginkizuna izan du.

1754an Gipuzkoako lurrek "ez daukatela atsedetik" diosku; txanda erazi egiten dituzte; eta "ez fruiturik gabe lurak atsedetik hartzen uzten dituzten Gaztelan eta beste toki batzutan bezala". Gipuzkoako lurrek txandaketa hau gure nekazaritza iraultzera etorri zen artoaren bidez lortu dute. Gaur ia "Indietako artaxehari, honela ere deitzen baitio Isastik, artoa hutsean esaten diote; Larramendik bere hiztegi hirueledunean euskaraz *artoa* jartzen du; honek gure baserrietako produkzioak aipatzen ditu eta dio "ez dagoela lurrik urtean bi genero ematen ez dituenik: garia eta lihoa, artoa eta arbia; eta garia eta artoa, mardul mardulak".

Eta lurak ontzeko egiten diren ahaleginak kondatzen ditu.

"Hau hala prestatzen eta lantzen eta ongarriak eta laguntzak botatzen dizkiotelako izango da; lanketa eta eragiketa hau lur tiki eta hestuei dagokie ondo, eta ez dakit zergatik ez lur zabal eta hedatsuei".

Gariak eta artoak nola zaindu behar diren ere badio:

"Sarritan garia Gabonetan ereiten da, eta ez uste horregatik lehenago erein zen bihia baino beranduago etortzen denik". Arto ereiteak, ordea, kontu gutiago behar du; batzutan lur hauk laiaz prestatzen dira, baina gehienez *Bostortza* deritzaten lau hortz luze eta sendozko golde batekin goldatzea nahikoa izaten da; bostortza, lehenago bost hortz baitzuten; "ez erein artorik garia bezala irrara zabalduz, bihika baizik, edo binaka, luzetara, hildoei jarraituz"...

Bide batez aipa berri dugun ongarriari buruz, zehaztasun asko ematen du:

"Gero urte barruan era desberdinetara prestatzen duten simaurrez kargatzen dituzte soroak. Zakarreriaz nahasten dute etxe simaurra eta *gorotza* deritzaten zaltegietakoa, eta honekin simaurreztatzeari *goroztatu* esaten diote. Irailetik aurrera herri basoetan ira ebakitzeko baimena dago; etxeratzen dute, eta bai zaltegietan (!), bai etxetik kanpora, zanjetan eta estratetan usteltzen eta simaurtzen uzten dute. *Orbela* ere arreta handiz biltzen dute, zuhaitzetatik eroritako hosto lehorra da hori, eta gurdiz ekarri eta han gordetzen dute usteltzeko lekuan eta erraz usteldu ere. Simaurkai honi usteldu aurretik *inaurguiña* esaten diote, eta usteldutakoan *cimaurra*.

Hemen Isastirengandik zer distantzia handitara gauden ohar erazi beharra dago; Larramendi lurretik eta bere herritik eta bere hizkuntzatik hurbilago dago; herriaren eta hango gauzen deskribapenak beste etxekotasunik dauka; zer hau gero, Iztuetarengan, nabarmenago da.

"Ongarri honekin gariak hazten ari dira, eta ikustekoa da Martxo edo Apiril aldean, edo lehenago, nola hogeita edo hogeita hamar emakume jorran ateratzen diren soro batean eta beste hainbeste bestean, edo gutiago, segun"...

Neguan ureztaturik geratzen diren urbazterretako lurrek ez dutela hainbeste ongarri behar azaltzen du Larramendik. "Baina esperientziak erakutsia du ongarri eta laguntza guztiok eta guzti ere lurak urte batzuren buruan makaldu egiten direla, hoztu edo maskaldu bezala. Hau prebenitzeko bederatzi urtetatik bederatzitara gehienez lurak kare biziz ontzen dituzte eta horregatik apenas dago bere karobirik ez duen baserririk, tan handiz eta egurretan gastu handiz. Kare harriz egin behar da, hori baita balio duena, eta ez beste inolako harririk. Ongarri honekin lurra berotu egiten da berriro eta indar berria hartzen du bederatzi urtetako lanari eusteko; "eta hori gabe lurak ez du

behar den fruiturik ematen; eta ongarri horrekin, jakina –eta zer alde dagoen dio– Gaztelako lur gogorak eta lodiak erre eta agortu egingo lirateke".

Eta Euskal Herriari jaten eman dion artora jotzen du berriro.

"Artoa da Gipuzkoan onena; Indietatik ekarri zuten lehenengoz

Probintzia honetara, eta Gonzalo Perkaiztegi³⁰ hernaniarrak ekarri zuen eta gero beste probintzia batzutara zabaldu. Asko ematen duen bihia da eta San Markoetatik gora ereiten da. Horren hirinez ogi handiak eta tikiak egiten dira eta berotan oso gozoak diren taloak, baita opil sendoagoak ere, eta hartara ohituz gero jendeak garia baino nahiago du artoa. Eta mendi gizonak, hala ikazkinek, egurginek eta besteek, ez dute garizko ogirik nahi, artozkoa baizik, hori baita janari sendoa eta indartsua, eta horrekin lanari eusten diote, garizko ogiarekin ezin den bezala".

Beharbada gehiegitzen ari da, baina ekiten dio:

"Eta honela hirina mendira eramaten dute, eta beren *chaoletan* (sic) txosnetan, orhatzen eta *artopillac* egiten dituzte, hauspeko opilak; hauspean edo parrila biribiletan erretzen dituzte, eta honekin eta baba egosiek, hau ere janari sendoa izaki, zaparrada, elur, izotz eta haizeteen ekaitz guztiei eusten diete. Gehienez artoa da jende pobre eta laborarien ogia ere. Batari eta besteari *ogui errea*, *arto errea* deitzen diote eta barre egingo lukete *ogui egocia* entzungo balute".

Larramendik arto mota desberdinak aipatzen ditu: "hosto zuria", "lasto eta urre antzekoa" eta "kolore bizikoa".

Baina "biak dasta eta elikatura berekoak direla" segurtatzen du.

Emakumeek ereiten eta lantzen duten lihoa aipatzen du; ihardun honek gaurko gipuzkoarrei ulertzea kostatzen zaigun garrantzia zeukan.

Eta bukatzeko ereintzetara jotzen du berriro:

Baina "produkzio hauetaz aparte, Gipuzkoako lurrian ez dago garagarrik, zekalerik, apur apurra baizik, ez olorik, ez baitago hainbesterako lurrik, eta zaldientzat, edo kanpotik hornitzen dute, edo artoa eta zahia eta lastoa eta baba jaten irakasten diete, eta gainera belarra eta saralea, hau baita haien janaririk arruntena".

Iritsi gara edanera.

Gipuzkoan mahastirik ez dagoela dio Larramendik "itsasaldean baizik eta bertan ere mahats kazkarra eta gusto txarrekoa; horrekin txakolina egiten da (honek ia izen hau ematen dio, ez Isastik), ez da agian obligatorako behar den ardoa bezain ona. Baserrietan eta baita kalean ere, moskatela besterik ez dago, gozo gozoa noski".

Ardoari buruz bere garrantzia duen gogoeta ekonomiko bat egiten du.

Lehenengo sagarretik pasatzen da, jakina.

Beste gauza batek "etxalde hauk gutitu ditu (berak kalean bizitzeko baserriak errentan uzten dituzten jabeak esan nahi du, eta ohitura hori gogorki gaitzesten du). Gipuzkoa erdik baino gehiagok, Goieritik bertatik Arabaraino, sagastiak erein lur bihurtu ditu, herriko edari ohikoa zen sagardoa ugari ematen zutenak. Antonio Idiaquez zaldun ezagunari entzuna diot bera mutikoa zela Azkoitin ez zegoela ardo tabernarik eta jendea batetik bestera alderrai zebiltzan abenturarien bitartez hornitzen zela. Gaur ardo guztietariko, tiki eta handiko, nafar eta Errioxako gorriskako, lau edo bost taberna ez baleude, alkateek gaizki beharko lukete. Sagardoa baztertuz eta ardoa sartuz joan da, eta

³⁰ Badira Fausto Arocenak, beste zenbaiten artean, aztertutako bertsiok.

horrela Gipuzkoa Nafarroako uztarien India da, Errioxarena Bizkaia den bezala, eta nahizta Beterrin Tolosatik Iruneraino sagardorik ez den falta izan, Goierriko exenpluz ardoa ere amorratuki sartu da, eta ardoa eta sagardoa edaten dute".

Eta diru kontuak egiten ditu bi ondorio garrantzitsu ateratzeko.

"Azunbre bat sagardo lau laurden kostatzen zitzaien, onena bazen ere, ardoarena, ordea, hogeit, hogeita hamar, berrogei eta gehiago ere bai, ardoaren eta forutzaille sainduen arabera". Hau, lehenengo hau, zer pertsonalagoa da eta edariak tasatzen zituztenen birtutea neurtzekoa. Bigarrena zer ekonomiko jeneralagoa da: "...ardo jendeen zerik beharrezkoena eta garestiena bilakatu da; izan dira neronek ezaguturiko zaldun xebreak Bizkaiko eta Gipuzkoako ola guztiek batera urtean zenbat lan egiten duten atera dutenak eta biek batera zenbat diru egiten duten, burdinari prezio erregular eta batez bestekoa jarririk; eta gero bi probintzietan prezio arruntean sartzen den ardoarekin konparaturik, kintal bat burdina gora behera eta zama bat ardo gora behera, burdinak dakarren gutzia zintzurak daramala aurkitu dute".

Eta, zehaztasunak aparte, gure egunotan ere zeresana duen errealismo honekin eransten du:

"Gauza bildurgarria da".

Eta gehiago dio:

Gehiegi edaten alferrik galtzen den diru horrekin "seme-alabak kolegio eta Unibertsitateetan" mantentzea litezkeela.

Eta sagardotarako sagarraren gorespenaz batera, gogoeta arretagarri batzu egiten ditu: "Sagardoa edari freskoa eta atsegina da, eta garbia eta urduna bada, sagarra dolareetan zehatzen da eta gero zanpatzen eta lauskitzen, bai honetarako destinaturiko ardatzez, bai dolare habe ederrez, eta patsak zerrientzat gordetzen dira. Gehienez sagardo garbia saltzen da; ez hala urduna, aitzitik, ordea, hau saltzea debekaturik dago urarekin egin daitezkeen tranpengatik; hala ere, sagar gutiko urteetan, sagardo urduna saltzea zilegi izaten da. Honen hornimendua etxe partikularretan egiten da eta baserrietan etxeok urte barruan edateko. Sagardoak denbora guti irauten du, eta bigarren urterate gordetzen direnak gogorak eta gozagaitzak izaten dira. Jendea oso sagardo zalea da, eta hala ere Tolosatik Arabaraino sagasti asko soro bihurtu dira: ez hala Tolosatik Irunera".

Eta itsasaldean txakolina agertzen da:

"Bada mahasbilketarik Zarautzen, Getarin, Zumaiian, Deban, Motrikun, eta hauetan txakolina egiten eta saltzen dute".

Baina edariez aparte, bada jateko sagarrak ere. Motak "asko eta asko direla dio, batzu gozoak, beste batzu gezak, beste batzu gozozak, batzu handiak, beste batzu tikiagoak, eta oso kolore desberdinetakoak. Denak biltzen dira, ez sagarrondoak zartatuz, heldu eta berez erortzen direnean baizik, eta pilak egiten dira sagastian. Gainera etxe partikularretan eta baserrietan, beren sagar hornimendua eta altxorra egiten dute, eta *gordairua* eta baita *humotegua* ere deitzen diote, eta estimatuenetarikoak dira, eta *gorda-sagarrac* eta *sagar-humoac* deitzen zaie, eta humoturik eta usaintsu daudenean, kanpoko eta etxeko erregaluetarako balio dute, eta hile asko irauten dute. *Gezagozoa* ez da Gaztela eta beste probintzia batzutan bezain gozoa eta usaintsua. Sagarrak estimatuena eta gozoena *erreineta* da, *errege sagarra* eta *capanduja* deitzen dietena. Eta

bi mota dira"... "Hauk eta beste fruitu mota batzu *doai eguna* deritzaten egunerako gordetzen dituzte, dohain edo erregalu eguna, eta hori *Erregen* eta *Garbikundea* (!) izaten dia. Eta herri askotan eskaintzaldian ogi eta argizagiarekin batera eskaintzen dira".

Eta sagarraren ondoren, gainerako fruituak.

"Gipuzkoako gainerako fruituak dira gaztainak, madariak, mukurkak, muxikak, mertxikak, mizpirak, bikuak, uztapikuak, aranak, gindak, gereziak, intzaurrak, urrak, eta gehienetan mota desberdinak daude".

Eta hona hemen modu apaleko gipuzkoarrentzat jaten fanfarrerria handirik ez dagoen seinale bat.

"Eta ez dago aparteko gauzarik esateko, Gipuzkoan gaztaina baserrietan eta jende pobreentzat laguntza handia deia baizik, gehienean haiekin mantentzen baita, eta kazkartzat eta txartzat uzten direnak zerrientzat ederki etortzen dira. Baita esan beharra dut Donostiako jurisdikzioan ia Europa guztian zehar diren madari mota guztiak daudela; eta beren baratze eta soroetarako ekaniz joan dira. Eta honela donostiarrak beste gipuzkoar guztiak bezala oso zaleak dira fruitu zuhaitzak eta bestelakoak ere lantzen".

Lekariei eta barazkiei buruz:

Hauk dira behinenak: uhazak, eskarolak, azaloreak, azak, azaburuak, azelgak, borraiak, esparragoak, espinakak, getozkak, kubiak, meloiak, arroakoak eta mami koloretsukoak, oso gozoak, sandiak guti, arbiak, lutxarbiak, baratxuriak, porruak, tipulak, biperrak, xaloteak, apioak, kirtenak, gaitunak. Eta gainera, hemengo azen goralpena egindakoan, "bakarra" bera, beste hauk ere hartzen direla dio: alkatxofak, mingospelarrak eta perrezila, lilua, babak, ilarrak, algarrobak, eta indabak, artaxehea, marrubiak "ugari, hala soro eta baratzeakoak, nola mendikoaki", mota askotako onddoak mendietan: *ontoac*, *guibelurdiñac*, *guibeloriac*, *guretoac*. *urrizac* eta beste batzu.

Larramendiri mingarri zaio Gipuzkoan denerik ez egotea, eta "aitortzen du":

"Ez dago olibadirik, eta aitortu beharra dugu ez daukagula oliorik, ez ardorik, ez ogirik, oso guti baizik, eta hala Gipuzkoako gari uzta guztia ez litzateke lau edo hiru hiletatik gora izango, denek ogia jan behar, balute. Gehienean itsasoz hornitzen da, batez ere Britaniatik eta Lapurdiko alboko probintziatik".

Eta haragia?

Aharia kanpotik ekartzen dute, "hemengoak guti ematen baitu, nahiz eta gozoa izan, eta Gaztelatik, Nafarroatik, Arabatik eta Frantziatik ekartzen dute, baina Frantziakoek ere Espainian berbazkatu beharra daukate gogorretik eta gaiztotik pixka bat gal dezaten. Behitan badago baten bat, herriko idiekin, eta oso samurra eta gozoa da; baina Frantziatik ekarri behar izaten da, han asko eta haragi txit gozokoak baitaude".

Eta Iztuetak zer aurkitzen du ehun urte geroago?

Iztuetak Gipuzkoa tikia eta haiztsua den aldetik defendatzen du, eta hala ere, *hala eta guzti ere*, asko lantzen eta biltzen da: garia, artoa, zekalea, oloa, babak, indabak, ilarrak, patata, artaxehea, *chirta*, arbia, *allorbea* (!), ezkurra (bagoena), algarroba, lihoa eta "beste gauza asko".

Gipuzkoako lur gaien kalitatea defendatzen. du.

Sarri ikusten direla dio 95 eta baita ehuneko gari anegak ere. Gaztelatik datozenak ordea, apenas baitute 82 edo 83rik. Zergatik hori, galdatzen du. Eta Gipuzkoako zer guztien defenza porrokatuz erantzuten du: "Gaztela eta beste toqui ascotan ereiten dutenetic batutzeraño daguiana daguiera, bere modu lagatzen diotelaco, eta berriz Guipuzcoan, erne orduco jorran asiric aretuaz berar zacar itsasquin caltarquitsu guztiac arras galdu, eta ale garbi garbi chava echeratzen dutelaco".

Gero Euskal Herria fruitutan zer aberatsa den esaten du.

Hauk ziren haren garaian ezagunenak: gaztaña, sagarra, intxaurra, matsa, udarea, guericia, guinga, arana, alberchigua, picua, urra, mispira, irasagarra, masusta, baishacarana, cidroña, larantia, almendrua, mingrana, marrubia, ziza, ontoa, amorotoa, guidelurdir (sic), guibelori, zizori, zizgorri, ezcur.

Eta gure herriko garai sozioekonomiko oso baten adierazgarri den balio sailketa bat egiten du.

Gure herriko fruitu maite hauetan, guretzat ugarienak eta estimagarrienak gaztaina, sagarra, intzaurra eta ezkurra direla dio.

Ez da ahaztu behar, eta Barandianek denboran oso atzera jorik gogorazi digu ezkurra, zerrikumeentzat janari bikaina ez ezik, euskaldunen dietan ere janari oso garrantzitsua izan dela; berrikiago gaztaina izan den bezala.

Eta Iztueta sagardoarekin hasten da.

Zer diosku honek Isastik eta Larramendik aipatu diguten sagardoaz?

"Gure Ama maite maitagarri Guipuzcoaco liburu gogangarrian XXI-garren tituluco capitulu lembicicoan jaquintsuro ezarria daucan Erabaqui zucen bidezcoa".

Eta aipamena dator, botatzen dioten urean begia jarririk lehenengo:

"Provincia onen Erri guztietaco sagastien copurua izanic aiñ andia beraren zumua sagardotara biurtzeco, ceña saldutzen dan eurretan, bertaco echetar gueienen bicicaitzat, eta sagardo edari au bere izatez dalaco indar guichicoa, uric egozten etzaiola ere, eta onec quemen bagueturic maluscatzen dabelaco; beguiraturic ondo, sagasti jabe-en guticiac caltarquitu ez dezan, sagardo edarira jarriac dauden guztien ona, ur asco edo guichi ezarriaz, ceñaren gañean ezin izan leiquean neurri zucenic, jabeac asmo garbiarequin eguin nai baluteque ere. Aguintzen eta erabaquitzen degu, ezen, orain ta beti gaurtic aurrera iñorc ere Provincia onetaco biztanle eta ez echetarrec ezdeguila egotzi uric saltzeco eguiten dan sagardoari, lagatzen zaiola escubidea norc bere echean morroi, nescame ta osterontzeco echetarraquin edan bear dabenari nai debana eguiteco, sei milla marabediren nequepean bacoachac, eta gañera izango dabela galdua, ura emanic saltzen daucan sagardo; ceintzuben iru zatietatic bat emango zaion Erregueren Gambarari, beste zatia salatzalleari, eta irugarrena epaia ematen deban Ecadoiari.: eta Provinciaco Alcateac, Batzartarrac. eta Auzoac onela bete-erazoric gordeeraguin dezatela zucenqui; eta Aguintari ta Buruzariac jarri ditzatela berpertatic aguinde oec bear dan bide zucen egoquian irozotzeco moduan, ogeui ducaten nequepean, baldin iñor zabartzen bada, lenago esan dan guisan irunaca zatiac ematen dirala".

Honexen zorrotza da Gipuzkoako legea urarekin, sagardoaz nahasten dutenean.

Eta Iztuetak gartsuki kondatzen du, 78 urtetako agure hau bere dantzez eta bere Ama Gipuzkoaz ari denean gazte sutua baita (batzutan gehiegi ere bai): "Guipuzcoatarrac beren ontzi andiaquin irten oi cireanean Terranova eta Groelandiara baleac arrapatzera, eraman oicituzten sagardotza andiac, arraintza mueta onetara cijoatzenen orniduraraco cenaren bidez aserre andiac eta Icia gogorrac izan oiciran Franciato Euscaldun Labort-tarraquin Guipuzcoatarren artean. Milla seieun, eta amabost-garren urtean, bale arrapatzera joan ciradenetic etorri bitartean arraintzale oec bacarric edan izan cituzten iru milla, seieun, lauroguei barrica sagardo bacocha iruna zamacoac".

Eta komentario arretagarri bat egiten du:

Balezaleen garai hartan Gipuzkoan egiten zen sagardo kantitatea handia bazen ere, "eguia da bi, edo iru guizaldi oetan sagardoguitea arras lagatua egondu dala Tolosaz goitico Errietan; ceñaren bidez dirutza andiac balio izan dituen sagarrac bealdean aspaldico urteetan. Bañan orain Goierrietaco necazariac sagardoaren valio andiaz (noizbaiten ere bearda) oarqueturic, equin zaiozca berriro sagastiac ifinteari; eta baldin oguei urtez onontz ari diraden bezalaco gogoarequin aurrera jarraitzen badiote lambide oni, dempora guichiren epean icusico dira Guipuzcoaco aldats, aitzarte, eta lur arro guztia sagastiz beteac. Eta orduan ¿cer guertatuco da? Lenago icusi izan dana berpera".

Eta hirietatik hur dauden baserrien abantailak esaten ditu. Iztueta ez da sagardo hutsean geratzen. Orain ardora pasatzen da.

Gipuzkoako lurak sagarretarako ere mahatsetarako bezain egokiak omen dira, eta handik ateratzen omen zen gastatzen zen txakolinardo guztia egiteko behar zen mahatsa, eta ez zuten kanpotik ezer ekartzen uzten. Eta lagungarritzat lehenago berak aipaturiko Hiztegi Historiko-Geografikoa aipatzen du lau probintzia ahizpa tratatzen diren zatian eta haietariko kapitulu batean, Donostiari dedikatua bera, 349 garren orrialdetik aurrera honela dio: "Anciñieran Donostia inguruco uztabiltzeric gueienetacoa zan *chacolina* non nai deitzaion ardoarena, ceña berachoa eta gorputz guichicoa izan arren, bazcatzeco aiñ ona zan, nola Cabretongoa, Castrocoa, eta Guipuzcoaco beste Erri itsas bazterrecoetan biltzen dana..." "Ortic dator bada, urruneco dempora artan mats-jabeac beren ardauaz eguin oizuten mercataritza, pecha guztietatic ateraric, beste toquietara eramanaz; icusten danez arguiroqui, Sancho IV-garrenac Apirillaren 3-an 1286-garren urtean emandaco gallaldia batean; ortic Podatarien anciñano anaiatasuna..." "eta anaiquidara goratu ceban Aita Santu Sixto V-garrenac. Gaurco egunean eroria dago arras achurquintza lambide au, eta bacarric irauten dute nolapait matsdi banaca batzuc, besteen aztarnac icusten diralaric ondar mordo moldacaitz-etan, ceintzuc aspalditic onara alchatu diran ez arian pitinca Uliaco aldean, aiceac bultzatuaz, eta itsasoaren betico leia ta equiñaren bidez".

Baina Iztuetak funtsezkotzat jotzen duen fruitua gaztaina da.

"Gaztañac ematen daben garau maitagarria, sagarra ta matsa baino ere ascoz obea eta bearragoa da Guipuzcoaraco, cergaitic negu betzaren zatiric andienean berarequin bazcatzen dan bertaco languilleric gueiena; eta ori, biltzen dutenaren erdia, edo irutatic bat plazan saltzen dutelaric. Au da janari mueta bat aiñ merquea, goseiltzallea, eta osasuntsua, ezic, gatz pitin bat egotzi eta beste gozagarri bague, berarequin bacarric dago prestatua noiz nai otordua. Ez eobearric dauca, ez laca emanquizunic, eta ez beste

arazoric batere, ezpada morcotsetic artu, pacian egosi, edo zartanean erre eta jan zaca zaca".

Eta bere garaiko baserriko dato ekonomiko bat ematen du:

"Guipuzcoan badira echeac, asco ta asco alere, beren mugapean bildutaco gaztañatic sei edo zazpi illabeteco goiz arratsetan naierara bazcaturic, chiqui arqui guztia abereai jan-erazo, eta gaiñera iruroguei anega ta gueiago azoquean saltzen dituztenac".

Beste dato bat ere ematen du, ene mutikozarorarte ia egia izan dena, azken gerra zibileko urteetan, "Provincia onetaco mugape guztia da gaztaña toquia; eta onen ale gozo elduric jalquia, bera da janari ta jaquia".

Azkenez "ezcurraren mirariac".

Ezkurra gure herrirako "gutziz etequin handiac ematen dituen, eta anciñaeran are andiagoac eman oicituena". Lekukotasun bat ematen du: "Guizon jaquinti ascoc esaten dabe, ezen, zuaitz mueta anitzec chertatu ere bague berenez dacartziten garau ugaritsuaquin bazcatu oiciradela abereac ez ezic, guizaquiac ere munduaren lendabico asieran..."

Eta bere lekukotasun pertsonal batez azpimarratzen du:

Gero dio: "Gaurco egunean ere ascoc eta ascoc artzen degun gauza ontzat chit gogoz ezcurra egotzitaco chocolatea,³¹ ezjaquiñean bada ere".

Txokolateaz haragoko garaietara jotzen du berriro:

"Iñorc ere ezin ucadezaque, bada, lurrari erraiac idiquitzen guizona asi baino lenagoco dempora doatsu aetan, Guipuzcoatic ezcur anitz eraman oizutela Erbeste urrunecoetara. Beragaitic ceban Provincia onec anciñaeran ezcurraz chit contu andia. Beguiratzea dago, bada, gure Ama maitati Guipuzcoac bere Fuegoetaco liburu gogoangarrin XL-garren Tituluan, Capitulo I-an 323-garren orrian ezarria daucan leguerari, non arquitzen dan argui eta garbi, ezen, Ama Virgiña Aboztucotic Egüerri bitartean besteren ezcur lecutan ezin sardezaquela iñorc ere abereric bazcatzera. Orra cer contu andia zuten ezcurraz gure gurasoac, orain arras aztua badago ere. Esan-al guztien gaiiecoac dirade, bada, Provincia onetan ezcurrac eman izan dituen ondasunac. Anciñaco dempora zar igarotacoen billa ibilli bague, gueren egun laburretan ere icusi izan degu arguiró, garau maitagarri onec aberatstasun andiac eman izan diozcala Guipuzcoari. Nere jaioterrian ezagutu izan ditut necazariac, ezcur urte onean, Aboztuco illaren erdialderontz bost edo sei cerri-ama beren umeaquin erosi, Aralarco basoetara bazcatzera bota, eta Egüerrietaraco irureun bana ducaten irabacia artu izan dabeenac, zaintzalle bat bacarra iru edo lau cerri-jaberen artean ifmi; eta beste neque ta casturic bague".

Eta beti bezala kapitulua kantari bukatzen du:

"Zuaitzac aizcorari diola beldurra,
Sinistatu bear da, ez dala guezurra;
Baldin artzen ezpada demporaz ardura,
¡Agur gure basoac, ta agur ezcurra!

³¹ Ezkur hirina? Hitzez hitz dio: "Cergatic gaurco egunean ere ascoc eta ascoc artzen degun gauza ontzat chit gogoz ezcurra egotzitaco chocolatea, ezjaquiñean bada ere".

Sendagileak eta sendatzeko belarrak

Gehiegi edo guti jateak gorputza gaixotu egiten du, eta eritasunez jangalerik ez duenak medikua behar du.

Zer esaten dute Gipuzkoan praktikatzen den medikuntzari buruz?

Sendatzeko antzeari buruz bada beti harrigarri izan zaidan zer bat: sendagilegoa, diagnostiko bat zuzen emateko eta eriarri sendatzen laguntzeko sen edo esperientzia praktikoa daukala dirudienak, eta batzutan eduki ere badaukala frogatzen duenak praktikatua.

Honekin ia belarren magiaz ari gara, jakina.

Alderdi honek Gipuzkoan aspalditik du garrantzia. Martinez Isastirengan zer dagoen bilatzen dut. Eta medikuak aurkitzen ditut; eta jakina, "erret Etxean zerbitzatu duten medikuak", horretaz arduratzen baita gehien; "idatzi dutenak eta Gipuzkoako jatorriko katedratikoak ere" aipatzen ditu; ez Euskal Herriko katedratikoak, jakina.

Hauxe da ikasteko eta argitaratzeko emigratu beharra daukaten euskaldunek idatziriko gure koloni historia osoko konstante mingarria

Gipuzkoako bizitzako alderdi honi bere liburuan dedikaturiko zazpi orrialdeetan dago zer ikuspegi zitekeen orduan Euskal Herria; lehenengo, erligio kontua, jakintza guztien, aginte politiko guztien lehen eta azken iturria; bigarren, Gortea, giza eskubide guztien iturria, non Jainkoak bere esku ahalguztiduna jarririk baitauka, eta gero Erregeen eta hauen lekaioen zerbitzura dagoen zientzia.

Herria, honen adierazpideak, daudenik ere ez.

Martinez Isastik badaki bai bere garaiko Gipuzkoako sendagile medikuntza honen berri; baina garai hartako historialaria gehienez garaiko kultur aurreritziaren mugapean dago, hori bai, baina batez ere eliz zentsuraren eta argitarapena mende dagoen mesede ofizialaren azpian.

Hortxe ihardun zuen Garibaik bere bizitza guztian zehar.

Kultur aurreritziak edozein erakuspenen premisak oinarri tinko eta mugigaitzean jartzea eskatzen du, eta hori Biblia eta Kontzilioak dira, eta gero aintzinateko klasikoak, eta irtengune derrigorrezkoak ziren liburuak.

Honela, denek elkar kopiatzen zuten gauzak kenduz edo erantsiz, ez beti eredu hobetuz, eta bakoitzak bere burutik gauza guti bilatzen zuen.

Lopez Martinez Isastik hasieratik dio "medikuntzako artea ohore bereziak merezi dituen dela, gure sendabidea dugun Jainkoak berak eginak garelako batez ere". Eklesiastikoa aipatzen du, Isaias Igarlea, Aita Baeza, "Kristo, medikuntza eta honen ministrariak ohoratu zituen, berak sendagile deitzea nahi izan baitzuen eta hainbat gaiso sendatu baitzituen, hala Jainko boterez, nola sendagai bidez; zeren itsua sendatzeko bere ttuarekin basa egin eta sendatu baitzuen"; medikuak ohoratu zituzten" erromatar enperadoreak pasatzen ditu; grekoak, "medikuntzaren jatorria belarren erabilera aurkitu zuen lehenengoa izan zen Apolori ezarri ziotenak"; gero "Eskulapio izan zen hori zabaldu zuenai", eta azkenez Hipokratesenganaino heltzen da, hau izaki biribildu zuena" eta zientzia egiten duena.

Abereek sendagaiak hartzeko duten berezko ahalmenaren aipamen bitxi bat egiten du:

"Ibisek, zigoinaren antzeko hegaztiak, klysterra asmatu zuen, mokoka xiringatuz. Oreinek zagiten kontrako ditamoa deritzan belarra. Hipopotamoak zainebakia, kainabera ebakietara joan, zorrotzenarekin zaina ireki eta gero basatzen iraulkatuz, zaina hersteke. Enarek zeledonia aurkitu zuten: begiak sendatzeko belarra. Itsasapoak sugeen kontrako bubula Oigigaztaeak erruda, xaguen kontra burrukatzekoa. Zigoina loraginoz sendatzen da. Basurdea huntzez eta kamedrioz. Sugeak larrua kendu eta begiak mesatroz, belarrez, sendatzen ditu, eta ezkatak ipuru arantzez. Herensugea okadaka sendatzen da basa uhazaren jusez. Elefantea kamalehoiaren kontra azebutxe hostoz. Hartzek goragaleak inhurritz kentzen dituzte. Mendiusoak ereintz begiz purgatzan dira; baita beleak, usoak, usapalak eta oiloak ere aintziretako ihiz. Eta ahuntzak begilausoak, Galenok dioen bezala, begian sartu zuen arantze batekin sendatu zituen".

Hemen, azken aipamen honetan, dago haren jakinduriaren giltza.

Penagarria da Gipuzkoan haren garaian erabiltzen zuten etxe sendakuntzaz zer ikusi eta entzun zuen gehiago ez esatea. Batzutan ez dela ausartzen ematen du, egiten dituen hiru aipamenetatik bi tartean sarturiko pertsonaren bidez egiten baititu eta bestea txiste bat da.

Bi kasu hauk honela sartzen ditu:

"Gipuzkoako Probintzian gehienez mediku gabe bizi izan dira, belarren, igurtzien eta klisterren bidez, eta Ambrosio de Moralesek dioenez, gaisoak plazara ateratzen zituzten, halako eritasunik eduki zuenak zer ongarri izan zitzaion esan zezan; eta kantabroak oso zaleak izan omen ziren belarrak ezagutzen eta bilatzen, eta haiengatik aurkitu omen zen Plinioren arabera Kantauri belarra esaten diotena, eta hori batzuk zentauro belarra dela uste dute, eta ehun belarren edaria eztidun urez erabiltzen zuten, ahorako gozoa eta osasunerako ona; eta gobernu ona beti axola izan zaie, zein, Avicenak dioen bezala, bera bakarrik baita osasuna zaintzeko nahikoa, esperientziaz ere ikusirik dagoenez".

Hauxe da Gipuzkoako bi kasu kondatzeko sarrera:

"Tuyko Apezpiku Tolosari entzun nion (harekin egon baintzen denboraldi batez) Arantzazuko Frantziskotarren komentuan laurogei urtetatik gorako gizon bat ezagutu zuela, eta idiekin garraioan ari zela etxe bat egiteko; eta jakinguraz galdatu omen zion ea eritasunik edukitzen zuen eta nola sendatzen zen; inoiz ez zuela ezer aniskuzkorik eduki erantzun zion; baina gaitzen batek jorik aurkitzean ez zen medikuengana joaten, Rivadaviako ardo ona zegoen tokira baizik, eta katilu zabal bat harturik ogi xerrak egin eta bete bete egiten zen, ardo edaten zuen eta sendatu egiten zen; ez zen inoiz odoldu ez purgatu eta honela osasuntsuago eta indartsuago zegoen. Beste herri batetan gertatu zen hau ere xelebrea da. Medikuek batek sukarez gaisorik zegoen gizon bat bisitatu zuen, jarabeak eta purga agindu zizkion sendatzeko, eta nola bera ez zen medizina zalea, bere baitan esan zuen: agindu nahi duana, nik ere nahi dudana egingo baitut; ekarri zizkioten jarabeak eta purga eta hark ezkutuan ontzi batetara bota zituen; etorri zen medikua eta gaisoa bisitatu zuen eta gero zer obratu zuen ikustera joan zen, eta hots egin zuen: zer ote litzateke hau barruan bazenu? Eta hark xelebriki erantzun zion: horrexegatik ez nuen hartu, bada. Medikua izaturik geratu zen eta purgarik gabe sendatu zen gizona. Sevillako Cristobal de Roxas Artzapezpikua, Ondarrabin jaioa bera, entzuna dut gaisorik

geratzen zenean, dieta egiten zuela, hogeita lau ordutan ez jan ez edan gabe egonik, eta honelaxe sendatzen zen".

Badirudi Lope Martinez Isasti ez zela sekula gaisorik egon, ez bere etxeokak ez ezagunak. Segur asko denek joko zuten noizbait gure herriko "Petrikilo" sendagile hoietariko batengana.

Baina 1500dik gorako Gipuzkoako medikuen berri emandakoan, hari axola zaiona Gortean zerbitzatu duten hamabi gipuzkoar medikuak aipatzea da:

"Ehun urtetatik gorantz badira medikuak probintzia honetan, eta guti hoietarik, araketa guztiak egin ondoren, ez ditut hamazazpi besterik aurkitu, gipuzkoarrak fakultate honetara oso guti emanak baitira, mirariz ez bada. Hoietariko batzuk arduraz ikasi zuten eta jakintsuen zerrendan sartzea merezi dute, eta hauk dira:

"Andres Ibañez Irure Doktorea, Karlos Bosgarrenaren lehenmedikua. Haren zerbitzuan Alemaniako gerretan hil zen, eta Gipuzkoako Plaentxikoa zen.

"Eskoriatza doktorea, Enperadore betaren lehenmedikua, Gipuzkoako Leniz erret aranekoa, Gazteiztarra.

"Juan Bautista Vilarreal Etxebarria, Errege Felipe hirugarrenaren kamara medikua, baita Alberto eta Isabel Artzadukeena ere. Flandesen hil zen 1604an.

"Juan Arizmendi lizentziatua, mediku ospetsua, modu handikoa, Alcalan kolegiala izana, eta filosofo handia, urte askotan Errenderiko parroki elizako apezka, diakonoa eta sariduna. Bertakoa zen.

"Frantzisko Galbete doktorea, bere Maiestatearen kamarako mediku zirujaua, gaur ere bizi dena. Eta Ofizio Sainduko ahaidea, Zegamako hiriko Galbete sortetxetik datorrena. Honen artearen liburu handi bat egiten ari da Madrilen (!).

"Frantzisko Eleizalde doktorea, medikuntzako bezpera katedratikoa Alcalan 1625eko urte honetantxe jarria. Tolosarra da.

"Agirre doktorea, Enperadore Karlos Bosgarrenaren kamara medikua Azpeitiarra da".

Hauxe da Gipuzkoan 1625ean den sendakuntz arteaz eta zientziaz dioen guztia. Eta, nola ez, nekez sinestekoa da sendagile laguntzailerik ez izatea. Martinez Isastik berak dioenez, garai hartan "gaitz guztiak gorputzeko lau humoreen deskonposatzetik datoz, hau da: odola, kolera, malenkonia eta flema", eta laguntzak ez zitezkeen oraindik hain zientifikoak izan; baina sendagileak, ez dago zibilizaziorik eduki ez dituenik. Baita aztiak ere. Batzutan biak batera. Ez ote zen autorea gai honekin ausartu?

Eta Larramendik zer dio ehun urte baino geroago?

Ez da medikuntzaz mintzo, Isasti bezala. Honen *Korografia* ez da hain sistematikoa. Larramendik gaia oso bide batez aipatzen du eta berari gehiago axola zaion beste kontextu batetan: irakaskuntza.

"Gipuzkoarrek Filosofia, teologia, moralak, eskolastika positiboa, zuzenbidea, *medikuntza*, filologia, eta horrelako zientzietako argitasuna beren herritik kanpora erakusten dute, antzokiak eta eskolak dauden lekuetara birlandaturik".

Argi dago.

Larramendik zuhaitzak aipatzen ditu "aranetan, soroetan, lorategietan eta mendietan"; lehen hemen aipatuez gainera, hauk dakartza: nekostak, ereinotzak,

irasagarrak, granadoak, laranjak; itsasaldean: olukoak, makalak, pinuak, sahatsak, "batez ere erreka alboetan", eta badira astigarrak eta tortotxondoak ere.

Eta senda belarretara heltzen da:

Hauk daudela dio: asentziobelarrak, sobioak, anizangoa, txarrangila, betonika, kamamila, gentzinoa, tartaiak, askia, malba, loriganoa, laranja, mota askotako prietaria, mota gehiagotako hirukoitza, mitxoleta, ailorbea, "erbiei eta idiei hainbeste gustatzen zaiena", baina dirudienez "haragiak, arraultzeak eta esnea galtzen dituenak".

Eta dato bat ematen du:

"Arrazoi honegatik Bizkaian ailorbea desterratu egin zuten. Eta Gipuzkoan ere berdin egingo balitz askoz hobe".

Eta gero landare gehiago aipatzen du: albaraka, majorana, osasunbelarra; xarbotak, "ez asko". Badira mota askotako loreak ere: larainak, jazminak, jazintoak, ihitxoak, liliak, tulipanak, azuzenak, narkisoak, brioletak, urrebotoiak, peoniak, ekiloreak. Eta "batez ere arrosak eta krabelinak daude, arrosa zuriak eta gaztelar beilegiak eta alexandriarrak, ehun hostotako arrosak eta ez hainbestekoak. Ontzakoak deritzaten krabelin ezin ederragoak, eta kolore desberdinetako beste tikiago batzu eta urte guztian izaten dira, batez ere Pasaia eta Ondarrabi inguruan".

Larramendik sendatzekoak, onkailutzekoak eta begia eta sudurra lasatzeko baizik, eta ez da guti, baho ez dutenak batera direla ematen ditu landareak.

Iztuetak ehun urte geroago bere zerga berezia dakar, hizkuntza barrutik herria bizi duenaren zerga noski.

Eta hizkuntza handitu nahi duena.

Iztuetak Gipuzkoako mendi eta mendiskak banaka aipatu ondoren, gailurretatik paseoan joanda zer ikusten den esan ondoren, mendi hauetako beste alderdi txit kutun bat azaltzen digu: landareak.

Lehenengo hoietaz arduratu diren kalitateko autoreak bilatzen ditu, eta Plinio aipatzen du, zeinek Aloñan aurkitu zituela baitio berrehundik gora landare sendagarri, eta haren ustez Espainiako osasun etxeetan oso estimatuak direnak. Eta galdatzen du:

"Baldin Aloñaco mendi bacarrean topatu bacituen Plinio-c aimbete berar mueta sendarri ain eraguilleac ¿norc daqui cembat gueiago eta cer baliotacoac billatu izango ote cituen, ibilli izan balitz Aralar-en, Urbian, Alzarian, Udalachen, Arrambizcarren, Izarraitzen, Hernion, Aiamendi, eta beste onelaco asco Guipuzcoaco mugapean arquitzen direanetan?"

Eta bere lekukotasuna emango digu:

"Bein baino gueiagotan egon izandu naiz sendaguin eta osaguille Euscaldun-etara beguira, nola eri dagoenaren aurrean ari oidiran beren erdara mordolloan sisi-basa ezin adierazoric, cer berar muetarequin ura egosi, edo zauria lotu bear zaion".

Eta honela Iztuetak 360 landa sendagarritako zerrenda bitxi eta luzea ematen du. Bitxitasun gisa batzu hemen jartzen ditut: "basafraua, astoregana, aza, azamiña, azarimatsa, berroa, beratoquia, bichilora, biriberarra, bortusaia, bostonaza, buminca, burdilinda, cardabera, cardaberacha, catuberarra, charranguilla garaisca, chuzendia, ciaberarra, ciguiñoilla, ciguiña, ciza. zuza, erruibarbo, belacheta, esquilunza, ezcaia,

gaituna, iraberarra, isatsa, itsasubanarea, iyamea, izarberar ezea, laraiña, lar-arria, lecuciberarra, kirdingorria, loberarra, loerazlea, lorastunquia, lucharbia, martorria, mendasamurra, menda, milatra, minterra, nasloquia, olaberarra, osiia, otzerri berarra, perraizta, piperra, pitzigorca, chimentua, sasilarra, sentinodia, tarticua, tellatuberarra, untza, urdingorria, urriloa, uztapicua, yaroa, zainberarra.

Eta bere herriko gauzenganako berotasun bereziz eta baita hain miragarri zaizkion bertsolarien moduan kapitulua bukatzeko, honela dio:

"¿Nor izango da orain esango debanic
Euscarac ez debala berarren icenic?
Naita ere sinistu ezin nezaque nic,
Jaioco ere dala alaco guizonic.

Eskola eta unibertsitatea

Lope Martinez Isastik asko hitzegin du beren jakinduria eta zientzietan mediku, almirante, aritmetiko eta idazle izateraino igon ziren gipuzkoarrez, baina ez digu non ikasi zuten esaten.

Halakoxeak ziren garaiak eta jakintza iturrien nongotasunez ez ziren arduratzen.

Orduko inperio guztiek ondo zekiten koloni metodoa.

Eta gaurkoek ere bai.

Larramendik ere ez du argiegi desestaltzen gure euskal eskolapenik bat ere ezaren *arrazoia*. Hark ondorioak atakutzen ditu.

Gaur daukagun ikuspegi honetatik argi ikusten dugu nola Inperioko hizkuntza eta gero Estatukoa erabili zuten gure herriaren tresna menderatzaile gisa, zibilizazioak alde batera utzirik, Erromak lehenago egin zuen berbera, Espainiak Amerikan egin zuena, Frqntziak Algerian, Ipar Amerrikarrek Filipinasen.

Abedea da gaurtik ikusirik; baina orduan ez zegoen honelako ikuspeirik; Larramendik zerbait somatzen badu ere.

"Hauen (gipuzkoarren) argitasunari gagozkiola –dio– ez da erraz sinestekoa dena laztasuna, mendia, harria, harkaitza den herritik nola atera daitezkeen hain buru argiak, Gipuzkoak nonahi eta noranahiko ematen dituen bezala. Ez dago hemen hegada handiko antzokirik, ez unibertsitaterik ez goi eskolarik; ez da matematikaririk irakasten, ez osorik ez zatirik. Eta hala ere, mendietatik atera ez direnen artean ere, berez eta espekulaziorik gabe oso buru trebeak daude matematiketako zerik zorrotzenetarako, lehen esan dudan bezala. Hau argi ikusten da olak nola asmatzen eta exekututzen dituzten ikusirik, ola handiak eta tikiak urezko injeinuekin, zeintzuren ihardunean estatikak eta mekanismorik zorrotzenak agintzen dituen antze guztiak baitaude. Hau argi dago hainbeste ola ofiziale ikaslek makina guztien eta barruko eta kanpoko gauzen maneiua zer erraz ikasten duten ikusirik, eta beharreko arau eta neurrietatik desbidetzen bada, berehalaxe igartzen dute eta bat batera denak geldi erazi. Hau argi dago mota guztietariko untzietako maisu, kontramaisu, ofiziale eta egileengan, eta hoik ikusirik, jakintsuek ez dute esango eskolarik ospetsuenetan irakasten diren geometriaririk bikainenak kontutan eduki ez dituztenik. Hau argi dago Gipuzkoan zer trebeki landu

ziren lehen aintzinako harmen mota guztiak ikusirik eta nola gaur ere lantzen diren suzkoak eta baionetak, moda bateko eta besteko fusilak, eta nolanahi ere moda sendoak eta ederrak beti. Hau argi dago azkenez oraintsuko aingura olan, ez aingura urtuak, burdina iragazizkoak, aingura gogorak eta mailuka eginak baizik, hamar eta hogeikintaletako tikiak, eta berrogei, hirurogei eta laurogei kintaletako handiak, proportzio eta neurri xehe xehetara egokituak. European sekula ikusi diren aingurarik sendoen eta tinkoen eta ederrenak. Asmakari honek lehen Holandara joaten zen hainbat diru eder aurreztuko dio Espainiari.

Eta euskaldunak, kasu honetan gipuzkoarrak, zientzia guztietan aurreratzeko daukan trebetasuna goosten dihardu Larramendik.

"Gipuzkoarrek filosofia, teologia, moralak, eskolastika positiboa, zuzenbidea, medikuntza, filologia eta horrelako zientzietako argitasuna beren herritik kanpora erakusten dute, antzokiak eta eskola dauden lekuetara birlandaturik".

Eta Isastik ere zenbatzen dituen *ondorioak* baitetsiz, eransten du:

"Mende iraganetara jo gabe, hor daude gure mendeon Espainiako unibertsitateak, kolegio handiak eta tikiak, erlijioak, katedralak, audientziak, kantzilergoak eta erret kontseiluak. Arlo guzti hauek ikusi dira gipuzkoarrak, katedratikoak, kanonigoak, duintasunak eta apezpikuak, epaikariak, entzuleak eta erret eta Estatu kontseilariak".

Hain zuzen koloni bideak kausa haiekin ondorio hauk ematen dituela frogatzen du honek.

Eta ez uste garai haietan Euskal Herrian unibertsitateak sortzeko ardurarik ez zegoenik. Larramendik idazten duen denboran oraindik. Bergarako Erret Apezgaitegia (1776) sortzeko zegoen, gure gizonak desarroila erazteko premiaz pentsatzen hasi diren seinale serioa, baina Oinatiko Unibertsitatea sorturik zegoen (1540), era ez ofizialez bazen ere, hasierako hazmen goragarri baina urri baten indar hutsez: gizon txalogarri baten ondasunak: Rodrigo Mercado de Zuazola. Eta beste euskal proiektu batzu ere izan dira: Lizarrako Unibertsitatea (1565), Iratxekoa (1597, 1824 arte funtzionatu zuena), Iruineako Santiagokoa (1608). Baina Espainiako Estatuak ez du nahi izan, ez du permititu Euskal Herrian inolako Unibertsitate ofizialik sortzerik Bilboko oraintsu oraintsuko honetararte, eta gaur ere Gipuzkoari (baita Nafarroa eta Arabari ere) ukatu egiten dio, nahizta lau euskal eskualdeen premiarik ez baliakizunik ez duten Espainiako Estatuak beste probintzia eta herri batzutarantz heldu, eta zorionean heldua.

Bereizkeria argi dago, eta kriminala da.

Larramendiren garaian bere garaian pentsa zitekeena bakarrik esan zitekeen; ez dago gehiago eskatzerik; nahizta gaur harrigarri iruditu nola berak hain zuzenki, zorrozki eta sentimenduz salaturiko ondorioen sustraia non zegoen ez zen konturatu.

"Esaera horrek (euskara baseritarrentzako hizkuntza dela) kolegioetatik eta apezgaitegietatik datozen gazteen artean abegia eta onarpena edukitzea, ulertzekoa da, letra ederrez eta latinez, erromantzez edo frantsesez buruak jantzirik baitituzte, eta arruntak eta herritarrak ez diren gai hoietan erabiltzea ulertzekoa da, orain arte ez baita euskaraz idatzi.³² Baina hala gazte hauek nola zaharrek, klerigoak, erlijiosoak nahiz

³² Liburuak idatzirik zeuden, bai, XVI garren mendetik; segur asko zabalkunderako ez zela idatzi esan hai du. Larramendiri zor zaiona bere lehen gramatikarekin (*El imposible vencido*, 1729) eta *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* horrekin (1745) egin zuen lan izugarria da.

euskal sekularrak izan, ohiko gai arruntetan ere herriko jaiot hizkuntzarik erabili nahi ez izatea, hau balio gutiagoko gauza balitz bezala, hori zentzugabekeria eta erokeria da".

Hemen Larramendi eskubide guztiz salbatzeko puntu bati ekin beharra dago.

Hizkuntza nazionalak deritzatenak oraintsukoak dira. Koperniko poloniarrek eta Lineo suediarrek, eta berdin XVII eta XVIII garren mendeetako beste zientifikoek ere, ez dute beren hizkuntza "arruntez" idazten, latinez, *hizkuntza eskolatuz* baizik. Gaztelako hizkuntzari asko kostatu zitzaion Europan hizkuntza ofizial gisa, hizkuntza eskolatu gisa sartzea. Gero antinomia zentzugabe hau etorri ziren: *hizkuntza klasikoak / hizkuntza arruntak, hizkuntza nobleak / hizkuntza ez nobleak, hizkuntza landuak / hizkuntza primitiboak, hizkuntza nazionalak / hizkuntza ez nazionalak* eta *hizkuntza legezkoak* eta *hizkuntza ez legezkoak*³³ legez kontrakoak eta debekatuak erantsiko nuke nik. Hoiek eskola egin zuten eta horixe zen "legea" eta "justizia".

Aurrerapen linguistikoak XIX garren mendean etorri dira, atzo; *Etnia* eta *herri* kontzeptuak, gaur soziologiak eta bai politikak ere, ulertzen dituen bezala, ia gaurkoak dira.

Horregatik, Larramendiri ezin eskatu bere garaiko lekukotasuna besterik.

Honelaxe bakarrik ulertzen da andoaindarrak ez hatzematzea gaitzaren giltza non dagoen: euskaldunen jaiot hizkuntzan eskolarik eza. Euskaldun hoietatik erdiak baino nahikoa gehiagok, Nafarroako eta Arabako urbazterrak barru, ez dute beren hizkuntza besterik egiten Ladislau Velascok euskaraz hitzegileen populazioa kontatzen duenean eta Euskal Herri osoan 471.000 dira, hots, populazio osotik % 52.

Bizkaian eta Gipuzkoan zer esanik ere ez; ikusiko dugun bezala.

Eta kontraesan sikologiko, soziologiko eta politiko izugarri hau gertatzen da, alegia, euskaldun gehienek, eta toki askotan denek, beren hizkuntza besterik ez zutela egiten eta hala ere administraziokoa, ezarria zitzaiena, ulertu ez.

Ea hemen kolonitasuna argi ez dagoen.

Baina oraindik ardatza jotzen ez badu ere, beste arlo batetan zentralkeria guztien kontrako makurgaiztasun seinaleak ematen ditu: arlo hori untzigintza Euskal Herrikan kanpora eramatea zen.

"Digresio" gisa egiten du "oletako bi gauza harrigarri" kapituluaren ondoren. "Ez dut ahazterik nahi -dio- mihiaren puntatxora eta lumaren bi puntatxoetara datorkidan zera. Bizkarrak kizkurtu zitzaizkidan untzigintza Ferrolen, Cadizen eta Cartagenan jartzen zutela ikusirik; eta mintza gaitzen Ferrolez, beste bi departamendu horiei ere dena ezartzeko modukoa baita. Untzigintza Gipuzkoatik ateratzea bere umontzitik ateratzea izan da, hemen baitaude olak burdina urtzeko eta edozein zamatako untzien pieza handi nahiz tiki guztiak botatzeko eta lantzeko; Ferrolen, ordea, ez dago ez fundiziorik, ez burdinarik, ez lantzeko ofizialerik eta hara dena eraman behar da itsaso, gastu izugarriekin.

Gipuzkoatik, non eta alboko Bizkaian untzitarako zureria hautatua baitzegoen tantaitan eta zuhaitz inausitan: eta Ferrolera, non ez baitago ez tantarik ez tantarik, ez konstrukzioetarako makila egokirik. Gipuzkoatik, non untzigile bikainak baitzeuden eta beti izan dira kontramaisu, ofiziale eta harotz ezin trebeagoak: eta Ferrolera, non ez baitzegoen ez egilerik ez kontramaisurik ez haizkora eskuan hartzen zekienik.

³³ Euskararen Liburu Zuria, 92. or.

Gipuzkoatik, non atzerritarrik ekarri gabe, eta gutiago ingelesik, eta aparatirik ez zaratarik gabe erregeak nahi adina harmamendu emango baitzitzaion itsasoari: eta Ferrolera, non alde zaurretik ederki ordaindurik untzigile ingeles bat ekarri behar izan baitute, ia moldagabea eta bere herrian sekula gerra untzi bat egin gabea..."

Larramendi bapo azazkatzen da; beharbada apur bat gehiegitu ere bai. Baina egia biribil bat dio: industria bat bere ekonomi eta bere efikazi eta bere eskubidetik hurren dagoen inguru Geo-fisikotik eta gizakotik ateratzen dute.

Eta hari berari darraio beste zentralkeriaz mintzatzean: Caracasko Gipuzkoar Erret Konpainiako bulegoak Madrileratzea. "Konpainia hau gipuzkoarra da, izen horrekin jarri zen"... "Konpainia hau Gipuzkoak asmatu zuen"... "izen hau erregeak (Felipe Vak) eman zion eta Donostian jar erazi zuen "Holandaren kontra", "beste etsai ageri edo ezkutu batzuren kontra, zeintzuren ahaleginak, gaiztakeriaz beteak, azkenean ezerezturik geratu baitziren; Gipuzkoaren ausartasuna ezinezkotzat jotzen duten isekarien kontra"... "Gipuzkoar konpainia hau Espainiako lehenengoa da eta gero La Habana, Sevilla eta Zaragozako konpainien arau eta eredu izan zena. La Habanakoak bere lehengo izena du eta La Habanan dago; Sevillakoak bere lehengo izena du eta Sevillan dago; Zaragozakoak bere lehengo izena du eta Zaragozan dago. Baina Gipuzkoakoa ez Gipuzkoan dago ez bere izenik dauka; kasik Manchako edo Gorteko konpainia da jadanik. Zuzendaritza guztia Madrilen dago, bere bulego guztiekin. Zergatik diferentzia hau?"

Larramendik ez du mihian zaldarrik.

Baina ez du euskaldunen hizkuntzak eta eskolakuntza jeneralak zer gaitz duen azertatzen. Badakit orduan ez zegoela eskola berdintzailerik 1857an gerra eta Foruak galdutakoan Hezkuntzako Moyano Lege hondagarriarekin, hemendik gorakoa baita Estatuaren joera genozida ageria eta basakia. Koloni tresna honekin, frantzesek Argelen bezala, derrigor gaztelaraz eskolatu behar eta era batera eskolako euskara desegin.

Eta Unibertsitateari buruz, gaztelaniatzko ofiziala bera ere, dirudienez, euskaldunen buruan oso arriskutsua zen.

Eta zer dio Iztuetak?

Iztueta hitzaurrean bertan hasten da erasoka hizkuntzan eskolakuntzarik ezaren eta gaztelaniaren ezarkeriaren kontra; hemen nabari da nola euskalduna eskolatik benetan desterraturik aurkitzen den, ez baitzaio bere hizkuntzaz egiten, berak ez dakien eta ikasten oso zaila zaion hizkuntzaz baizik.

Gaztelaniadunei gaur euskara egiten zaien bezain zaila.

Ez gehiago ez. gutiago.

Negargarria da atzerantz begirada bat bota eta gure herriak tragedia hau zergatik eta zegan eta nola pasatu duen ikustea. Ez naiz aintzinako historiaz mintzo; nire haurtzaroan, 1930ean, neure larruan probatu nuen zailtasun mingarri hau, etxean eta Jainkoarekin hizkuntza batez egin, ez baitzitzaidan sekula otoitz bat gaztelaniatz ikasterik bururatu, eta eskola ofizial guztia gaztelaniatz irentsi behar; eta min zakonagoa, kalibra ezinekoa somatu nuen nire eskolalagun baserritarrengan, eta ezin zuten irakurri ere; nola ikasiko zuten, bada? Orain ere noizik behin topo egiten ditudan lagun hauei esperientzia hura tortura gisa geratu zaie, eta ahalik lehenen aldegin zuten; denek oso

goiz; edozein Unibertsitaterako argienak eta hartarakoenak zirenek ere baserrian lan egitea nahiago zuten, beren bederatzi hamar urtez ere.

Baina nola mintzo zaigu Iztueta ehun urte lehenago?

Hasieratik ohar erazten du Probintzia tikia dela, ez daukala 120.000 bizilagun baizik. Haietatik *100.000k euskara besterik ez dakitela* eta gainerako 20.000tatik: erdiak kanpotarrak direla eta beste erdiak beren hizkuntza badakiten euskaldunak baina "gatzelaniaz hitzegiteko modari emanak, garrantzizkoago iruditzen baitzaie", eta hauek biak dakizkitez.

Eta koloni tratu hau hitz oso argiz salatzen du:

"Izanic, bada, eguia ciertoro au beguien aurrean arguiró dacusuna, ¿ez da lotsagarri ez ecic, mingarri ere, Guipuzcoaco Erri leialetan gazteria escolatceco, itzcho bat bacarra ere Euscaraz ez daquiten Maisu erdaldunac ifintea?"

Eta euskalbarruko, etxebarruko salapen bat egiten du eta horrela kultur tresnetan ematen den koloni tratuaren ondorioetariko bat salatzen du:

"Eta oraindic are illgarriagoa baicic ez da, escolaco aur gaishoai itz bat Euscaraz erorten zaiotelaco, beraren etsai ezagutuac dauden guizon erbesteco oec ematen diezaten azote gogorrac ontzat eramatea. ¡Cer bada! ¿aiñ becatu andia da Euscaldunai Euscarazco itza jalquitcea? ¡Há Euscara maitagarri bicicor guishaishoa! Ez dira, ez, campotarrac bacarric zu icusi nai etzaituztenac..." "Guipuzcoaco biztanle prestu guztiac badaquite arguiroqui, beren zoriona datorquietela jatorriz dituzten Fuero onesquietatic; bañan... (gero Arrese-Beitia bizkaitar olerkariak 1876an kantatzen duen bezala) Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico".

Iztuetak ez digu Unibertsitaterik aipatzen, haren eskolakuntza, ez diot haren kultura, haren eskolaktmtza baizik, ez baita hainbestera iristen.

Baina orain arte ikusi dugun bide beretik zetorren.

Baziren Euskal Herrian inizatibak, mugimenduak, batzu oso garrantzitsuak, hala, esaterako, Herri Lagunen Erret Elkarte Euskalduna, Gipuzkoan sortua hain zuzen, eta Euskal Herri osoan zabaldua, Enziklopedismo eta Ilustrazioko mugimendutik gorakoa, garrantzia desberdinekin.

Baina liburu honen hesparrua XVII, XVIII eta XIXgarren mendeetako gizon oinarrizko hauen lekukotasunera mugatu nahi dut, gaurko gipuzkoarrak, eta zabalkiago, euskaldunak, beste herkide batzuk gure orainerako eta gure gerorako hain funtsezkoak diren arloetan hauteman zituzten gauzen ondorioak hauteman ahal ditzan.

Eta honela Alberto Schommer euskaldunak damaigun liburu honetako lekukotasun fotografikoa, funtsezkoa, hobeki ulertu.

Antolamendu politikoa eta defendatzeko gerrak

Gipuzkoako mundu tiki, baina bizi, oso bizi guzti hau politikaz menpetasun bikoitzaren azpian bizi da: batetik bere Gobernuaren diren Biltzarre Orokorrak eta bestetik Gaztelako, eta gero Espainietako Erregearekiko bilkuntza pertsonalaren menpetasuna.

Horregatik interesgarri da garai bakoitzean autore bakoitzak zorte politiko honetaz zer dioen jakitea.

Lehen esan bezala, autoreek Gorteak eta bere zerbitzurako editaturiko obretatik hartzen duten guztia alde batera utzi nahi dut, hortxe bilbaturik, azpianik baitago nolabaiteko menpetasun pohtikoa bizi izan duten herri guztietan ofizialki irakatsi den historiaren nahasmendua. Horixe da gure kasua. Hemen lekukotasunezko alderdiak bakarrik bilduko ditut, hala hautemapen direktoa dutenetik nola beren garaiko ideiak islatzen dituen pentsaera pertsonala direnetik.

Lope Martinez Isasti bizi den XVIIgarren mendean zehar, *Cuaderno de la Hermandad* deritzan bilduma zuzendua da nagusi. 1583ko Urriak 15ean Tolosan aurkeztua izan da Ordiziko Biltzarrean Alkateek eta Diputatuek agindua, Gomez de la Puerta Korregidore Lizentziatuarekin eta Armendia lizentziatua eta Zarauz Eizmendi doktorea eta beste batzuekin (probintzia errepresentatzen zutenekin) batera, eta Azkoitiko lehen Biltzarre Orokorrean aurkeztua izan zen, "han inprimatzeko agindua eman zezaten, Gipuzkoarren beren entzule eta Epaikarien eskura etor dadin, eta hartatik justizia egin dadin".

Hemen, Gipuzkoako ordenantzen eta legeen koaderno honetan, agintzen da urtero "biltzarreak deritzaten bi udal orokor egiteko, bata udan eta bestea neguan, hara beren prokuradoreen bitartez, hiriak, herriak eta Alkategoak etor daitezen hamazortzi hiritan txandaka behar zen guztia agintzera eta hornitzera, bakoitzeko hamar mila marairen zigorpean; eta agindu honetaz kanpo eginiko biltzarrea inolako baliorik eta ondoriorik gabea izan dadila".

Agindurik zegoen udakoa izatea "Bizkunde egunetik hamairu egunetara, Quasimodo Igandean hurrengo larunbatean; eta negukoa Domusaindu egunetik beste hamahiru egunetara, Azaroaren 14an".

Eta hona biltzarrea egiten zen herrien zerrenda:

Neguan: Azkoiti, Ondarrabi, Motriku, Arrasate, Hernani, Deba, Getari, Segura eta Zarautz; eta udan: Zumaia, Bergara, Tolosa, Donostia, Elgoibar, Errenderi, Zestua, Azpeiti eta Ordizia.

Esan zen bezala, guztira hamazortzi hiri.

Biltzarreak hamaika egun irauten du. Hala agindurik dago. Zerbait handirik gertatu ezik behintzat. Esertzeko eta botoa emateko ordena ezarri bat zegoen. Prokuradoreek ere eskribauaren aurrean "beren hiri edo herriko; eta Alkategoko behar zen boterea" aurkezteko agindurik zegoen. 7 garren legean esaten da: "biltzarrean sartzen diren lehen egunean zin egin bezate eskribau fidelaren aurrean Jainkoaren zerbitzua eta probintziaren onura eta koademoko ordenantzak zainduko dituztela".

Probintziaren eta ez beste goragoko maila politikoen zerbitzuan egotea zin egiten dute.

Bada, bai, beste lege bat, 8 garrena, Korregidoreari, Koroaren ordezkariari dei egiteko agintzen duena, "haietara etor dadin bere kontura eta misioz: eta etor ez baledi, haren ordezkariarteko Alkatea etor dadila", edo biltzarrea egiten den lekukoa.

Korregidore honi buruz, Gipuzkoan Erregearen ordezkari honi buruz, Erregeak izendatzen du hiru urtetarik hiru urtetara, "hark (probintziak) eskaturik bidaltzen duena bere ordenantzen arabera, eta hiru hiletarik hiru hiletara lau hiritan bizi beharra dauka: otsaila, martxoa eta apirila Donostian; maiatza, ekaina eta uztaila Tolosan; abuztua, iraila eta urria Azpeitin; azaroa, abendua eta urtarrila Azkoitin".

Eta Korregidore honi baldintza garrantzitsu batzu jartzen zaizkio:

"lehen instantzian edozein hauzi sar liteke haren aurrean, baina ez dauka alkate arruntei berena kentzerik, ez haien hauziak bueltatzerik, ez inhibiziorik ematerik zuzenbidezko kasuetan izan ezik; eta ez dauka beregana eramateko agintzerik hauziak hasieran Alkateen mende badaude: lehen egunean eskribau fidelaren aurrean Gipuzkoako legeak eta ordenantzak gordetzea zin egin beharko du".

Eta Gipuzkoaren Frantziarekiko mugei buruz:

"Biltzarre orokorrean sei hiletarik sei hiletara ateraketen alkate bat jarriko da, gauza debekatuen kontua eramateko, Frantziara ez daitezen pasa; eta espioitzat egiten du; eta Talai bat gauza bererako ordenantzen arabera bigilatzeko". Irun Uranzunen bere etxe eta guzti dago bat, Probintziak bizilekutzat egin ziona sarreran bere harma ezkutaz".

Eta orain diputatuen soldatez hitzegiten denean, hau orduan honela agindurik zegoen:

Anaiarteko Alkateak, "alderdi bakoitzerako ahalmen osoz", hiriek izendatzen dituzte, "San Juanetako hauteskunde garaian tokatzen zaizkienak, zazpi egun izaten dira; irakurtzen eta idazten jakin behar dute, biziera, izen eta kontzientzia ona eduki, eta berrogeita hamar mila maraitaraino ordaindu eta ohi den zina egin, eta soldatatzat urtean 417 marai eta zortzi zilarrezko erreal. Oiartzungo aranak berekiko Anaiarteko alkate bat dauka ekaineko San Juanez hautatua hirurehun maraitako soldataz; ohiko zina eginez; eta Anaiarteko beste alkateek aranean daukate jurisdikzioa".

Azkenez, dio "Probintziak 2335 su eta erdi dituela, legean eta koadernoko ordenantzan daudenak (24), eta hoietan hiru Alkatego eta Lenizko arana sartzen dira, negozioetan botatzeko eta gastuetan parte hartzeko".

Larramendik, 1754an, gauza batzu esaten ditu euskal Foruan adieraziriko askatasun hori zer zen ulertzeko gehigarri eta garrantzizkoak direnak.

"Herri eta hiri harresietan eratu zirenetik (oraingoz ez dago aintzinasun gehiago pentsatzerik) eta Gipuzkoako herri, alderdi eta etxe guztiak anaiarte batean batu zirenetik, beren Gobernu zibila, politikoa eta ekonomikoa eduki dute, eta bi eratara. Bata herri bakoitzak daukan gobernu berea, eta bestea guztiei dagokien gobernu orokorra".

Foruak zer hartzen duen azaltzeko era erraza eta era batera osoa da.

Askatasun partikular hori tokiko ordenantzetan finkaturik dagoela azaltzen du gero eta ordenantza hoik "mendeen beharren arabera berrituz joan direla". Herri bakoitza entitate politiko osoa da, alkateak eta "kargudunak" urtero hautatzen dira, "leku batzutan San Migelez, beste batzutan urtearen hasieran eta beste batzutan Gabonetan".

Eta herri bakoitzean alkate izatea zer den azaltzen du:

"Alkate guztiak, bakoitza bere hirian eta jurisdikzioan, makila goian dutela ibiltzen dira, Elizetan jarleku apartekoa daukate, hitzezko audientzietan berenez bakarrik justizia administratzen dute, eta beste batzutan aholkulari bidez, eta hoik berek hautatuak, eta foruz lehen instantzian beren jurisdikzioko hauzi zibilak eta kriminalak tokatzen zaizkie. Gaizkileak atxilotzen, espetxeratzen, mundatzen, zigortzen, herbesteratzen dituzte, hauziaren arabera".

Eta orain Gipuzkoako Gobernuaz mintzo da.

Hemen gobernu orokorra, "herri guztiei dagokiena denek kontzientziaz eta justiziaz bete beharreko Gipuzkoako foruetan oinarritzen da". Eta garai hartan ohi zen gorespena egiten du: "Ez dago Gipuzkoakoa baino foru garbiagorik eta argiagorik eta jatorri zaharrekoagorik, deskribapen honen atzetik etorriko den beste obra batetan frogatuko dudana bezala".

Eta Foruaren zehaztasun batzu ematen ditu: "lehendanikoa, jatorra eta sustraizkoa da", eta esan nahi du ez dela inork emana, propioa, berezko zuzenbidezkoa baizik. Tituluak aipatzen ditu "Gipuzkoa noblea dela agertzen dutenak bere seme guztiengan, beti izan diren bezala; hemengo herria librea hemengoentzat"; hau ia ordutik ere seinalatzea garrantzizkoa zen, "eta atzerritarrentzat: librea itsasoz eta lehorrez gai, merkaduria eta merkatalgo guztietan; librea petxetatik, zizetatik eta zergetatik".

Larramendi, eta lehen ere nonbait esana da hau, euskal nazionalismoaren aintzindaria da.

"Gipuzkoako Foru honek ez du bere lehen populazioaren jatorriaz besterik. Ez dator giza emantza edo mesederen batetatik. Gaztelak eta Nafarroak erregerik eduki aurretik, Gipuzkoak bazuen lehendaniko foru hau. Gipuzkoak, behiala errepublika aparteko bezala zebilenean, eta gero, Nafarroari baturik foru honekin gobernatu zenean, eta Gaztelari batu zitzaion 1200dik gora, foru berarekin iraun du, Nafarroako edo Gaztelako ezein erregek orain arte kendu gabe".

Hau, 1754an esanda, eta Larramendiren garrantziako gizon batek esanda, lekukotasun garrantzizkoa da.

Eta foru batzutatik beste batzutara zer alde dagoen agertzen du, gaurko zenbait politikok maltzurreriaz nahasi nahi dituztenak.

"Beste forua –hiriei eta abar emanaz ari da, eta ohi zen bezala erregeek emana izaten zen– eratorria, bigarrenkia eta azalekoa da. Honen jatorria eta hasiera ezagunak dira eta zenbait monarkarengandik dator; hauek Gipuzkoak Koroari eginiko zerbitzu handi eta zintzoen ordezkariak eta halako frankia, pribilegio eta eskubidez saritu zituzte, eta foru indarra edukitzea nahi izan dute, eta foruaren gorputzean sartzea".

Hemen Foruari ekiten dio, eta Forua askatasuna da.

"Foru lehendanikoa eta jatorra bere kapitulu guztietan *aldaezina* izan da beti eta da"... "Foru eratorri azalezkoa eta gerokoa *aldagarria* da, ez baitaude beti ongarrantasun berdinean, zeren mende batetan ongarrantasuna zena, beste batetan alferreko edo kaltegarri ere bilaka baitaiteke".

Eta aipamen argi batzu egiten ditu, "batez ere herriaren askatasunari eta foruen maitasun eta gordepenari dagozkionak".

"VIII garren tituluko 2 garren kapitulutik biltzarren lehen egunean korregidoreek eta zaldun biltzarkideek solemnitaterik handiz zin egingo dute, Ama Birjinaren Sortzez Garbitasunean sinesten duten bezala sinetsirik, hala iraungo dutela beti epai honetan Eliza sainduak besterik erabaki arte. Zin egingo dute eta egiten dute *Probintzia honetako ona eta onura gordetzea eta betetzea, eta beren anaiarteko legeak eta ordenantzak gordetzea eta betetzea*. Zin egiten dute ez dituztela hautsiko eta ez direla haien kontra ariko, eta ez dutela inor haien kontra zuzenki edo zeharki joaten utziko, guzti hori betiko kondenapenaren zigorpean. Eta foru guztien gordepena zin egin behar da estatuz alda erazten ez duten guztian. IV garren tituluko 14 garren kapitulutik biltzarreak eta zaldun

biltzarkide guztiak forua bere kapitulu guztietan gorde eraztera beharturik daude probintziaren kaltez jarkitzea nahi duten kontseilu edo partikular guztiei. VIII garren tituluko 16 garren kapitulutik, forurik gorde nahi ez duen biltzarkideak *ordain bitza bost mila marai eta bego katean hurrengo biltzarrerarte*. Eta delako biltzarkide hori kontra jartzen bada, *bere kontseiluaren aginduz, bere kondenapeneko bost milaz gainera, ordain bitza beste hoge mila marai probintzia honetako gastuetarako*.

Eta gauza geroagoko titulu batetan radikaltzen da:

2 garren kapitulu bereko XXIX garren tituluan manatzen "eta agintzen da jaun edo kanpotar jenderen batek, edo probintzia honetako edo kanpoko ahaide nagusiren batek, Errege gure jaunaren (gure Jauna dio, baina ez besterik, ondoren datorrenean ikusten denez) eskutitz edo manuren batzuren atxakiaz eta biltzarretan aurretik ikusi gabe edo hark edo hango gehienek bete erazteko agindu gabe, edo merinoren edo bete erazleren batek desforuko zerbait egin baleza (eta hemen Askatasunaren kontraforu funtsezkotik bestea bereizten du) eta delako errege jaunak probintzian dituen probilegioen, eskutitzen eta manuen kontra (hau baita foru partikularra, emana) eta hiritarren bati edo batzuri zerbait egitera abia baledi; eta berdin herritarrek; ez diezaiotela hori egiten, ez horrelako exekuziorik betetzen utz, aitzitik ordea, jarki bekizkio, eta onez atzera egin nahi ez baleza, hil dezatela; eta hiri guztiak atera daitezela hiltzaileen eta eritzaileen alde".

Izugarria da, baina goren justizia da, justizia nazionala.

Erabaki honek ez zion Koroari min guti ematen, zeren kontratasun gutiago aurkitzera, euskal Foruak lehenago desagertuko baitziren, eta ez zuten hainbeste iraungo: nagusiek, askatasun nazionalekoek, XIX garren mende erdirarte, eta besteek, ia denek, hirugarren herenerarte, duela ehun urte.

Penintsulan askatasun hau galdu zuten azkenak izan ziren.

Kataluniak, esaterako, mende bat lehenago galdu zuen.

Eta Larramendik bere jarrera abertzale, funtsezkoari, hala Espainiako nola Frantziako Estatupeko euskal herrialde guztiei berezkoa zaienari ekiten dio.

"Gordepen zehatza behar duten foru hauetaz eta gainerako beste guztietaz gainera, Gipuzkoak beste txit bere batzu dauzka ezein pertsonaiak, tituluk, ez handikik ez dezan haren gobernu zibil ez militarrean sartzerik ukan. II garren tituluko X garren kapitulutik probintziak jarrera oroitezin honi eusten dio, alegia, jaun partikularrik ez berak borondatez makurtzen ziren erregeenaz beste makilarik sekula ez aitortzea".

Borondatez, dio.

Eta Probintziaren erabakiz errefusezko adibide batzu jartzen ditu:

"Errege Katolikoek Gipuzkoako alkate nagusiaren kargua Gatzagako kondeari eman zioten, eta honek justizian eutsi nahi izan zion, baina gaitzetsia izan zen eta kontrako judizioan alkatego nagusi hau betiko desegin zen".

Gipuzkoak era soberano berdinez erabakiriko beste irregulartasun bat ere gertatu zen:

"Konde dukea, Ondarrabiko setio ospetsuaren ondoren, Gipuzkoaz zaletu zen eta Gipuzkoako adelantatu nagusiaren mesedea lortu zuen, lehentasun partikularrekin. Probintzia jarki zen eta mesede hau erret zedulaz eta Gaztelako erret kontseiluko kontrako judizioan deuseztua izan zen".

Hauk ez dira 1977ko espekulazio politikoak, garaiko errealitate juridikoak, XVIII garren mendeko eritzia baizik, eta hoik preskribatzeko daude, herrien berezko zuzenbide hau ez baita preskribatzekoa beren borondatez izan ezik, eta borondate horrek bere lehenean dirau.

Arlo militarri buruz Larramendik dio:

"Arlo zibilean eta politikoan Gipuzkoak bere burua berez eta bere foruz gobernatu duen bezala, bere erregeaz beste jaunik, eta erregearengandik zuzenki datozkion aginduez besterik aitortu gabe, eta foru honetan eta bere edukipen oroitezinean errege guztiek errespetatu dute probintzia, halaxe gobernatu du bere burua arlo militarrean ere gerra garaietan bere buruz eta bere legez eta ohituraz, miliziak altxa eraziz hauk gobernatzeko eta agintzeko ofizialeak eta koronela izendatuz, koronelaren eta beste karguen izendapenak Bere Maiestatearen baitespenik behar izan gabe eta erregearen kapitain generalen eta gobernadoreen loturarik ez menpetasunik bat ere gabe. Erregeek Gipuzkoari edukipen hori errespetatu diote; eta erret zerbitzuan zer leialtasun handiz eta maitasunez eta arduraz ihardun duten konlidantzaz eta segurantzaz izan litekeen frogarik handiena da hori, erregearengandik berarengandik zuzenki ez datorren beste ezein agindutara makurtu beharrik gabe".

Euskaldunen Koroarekiko bilkuntzaren froga bat da hau erregearekiko *batasun pertsonalaren* bitartez.

"II garren tituluko 11 garren kapitulutik probintzia edukipen honetan irauan erazten da, eta gure erregeen hainbat ebatziz agintzen da kapitain generalak *abisuz eta oharpenez joka dezala, eta ez aginduz*".

Hainbestearino iristen da gure soberaniaren ardura.

Zenbait zirkunstantzia, zehaztasun eta izpirituen beraren alderdi aparte direla, gauza bera gertatu da Espainiak Amerikan eta European garai guztietan izan dituen beste edukipen guztiekin ere, eta batzu Larramendiren garai honetan ere bai, eta gaur ez dira Espainia, Portugal, Holanda, Venezuela, Kuba eta Filipinas, esaterako, baizik.

Ikuspegi politiko hau ez ahaztea komeni da euskaldunok geure zeraren, geure nortasun politiko osoaren aitortpena eskatzen ari garen une honetaraino nondik eta norantz eta nola etorri garen jakiteko.

Eta ez hau nahas gaur espainiar Estatuan eman daitezkeen, eta emanak lirartekeen, herrialde autonomi administratiboekin.

Eta Frantziar Estatuarekiko muga arazoaz mintzo da.

"Gainera foru berarizko eskubide berezi hau dauka, alegia, Irunen, Frantzia jotzen dauden Ateraketen eta gauza debekatuen alkategoa Probintziaren beraren ardura eta kargupean dagoela".

Martinez Isastik ere esana du. Garibai XVI garren mendean kargu horretan egona zen. Larramendik orain berariaz eransten du Ateraketen alkate honek "Gipuzkoako bertako jatorrikoa" izan behar duela.

Noiztik da Gipuzkoa soberanoa?

Larramendik muga hau "oroitezina" dela dio, eta oraintsukoa bestea dela eransten du, alegia, "zenbait garai eta biderretan zenbait atxakia, kexu eta hauzirengatik kendu egin nahi izan dizkiotela; baina erregeek beti irauan erazi diote bere edukipenean, Gipuzkoari bere leialtasunagatik eta etengabeko zerbitzu handiengatik merezi zuen

konfidantza eta estimazioa emanik, foruko XVII garren tituluan sarturik dauden erret ebatzietatik guzti hau argi dagoen bezala".

Egia esateko ez ziren Gipuzkoari aurrea ematen ausartu.

Larramendiz gero baziren horretarako ahaleginak; XIX garren mendearen hasieran lortu ere lortu zuten, oso denbora laburrez bazen ere, baina azkenez, eta zazpi urte ahigarri iraun zuen gerra baten hondamen harmatuz bakarrik, 1841ean, espainiar Estatuak lortu zuen bere bandera Irun-Behobiako mugan eta itsasoan jartzea, eta berdin Nafarroa, Araba eta Bizkaiko (Euskadiko) itsasoarekiko eta gainerako espainiar Estatuarekiko mugetan ere.

Eta orain goazen Iztuetarengana.

1839ko hondamen harmatu honexen ondoren hain zuzen eta espainiar muga Bidasoan eta itsasoan dela.

Iztuetarengan berak beste liburuetatik, denak espainiarrak, jakina, errepikatzen duena eta berak bere garaian *hautematen* duena eta bere garaiko euskaldunaren *pentsaera* komun gisa ematen duena bereizi beharra dago.

Hauk dira bilatzen ditudan bi lekukotasun motak.

Horregatik berak bere kontura zer dioen ikusi nahi dut karlista gerra nagusiaz, 1839koaz, nahizta jakin bere 78 urteekin, hura ez dela pentsatzen duen guztia esaten ausartuko; lehenengo 1845eko hondamenetik hurregi dagoelako idazten ari denean (sei urte bakarrik pasatu dira) eta bigarren, bere "Ama Gipuzkoari" eskainitako liburuaren argitarapena garaiko administrazioaren mende dagoelako.

Gerra hauen aurretik ere, aipamen oso adierazkor bat egiten du lau euskal eskualdeak seinalatzean: kondatzen du nola Napoleonek "1808an gerra piztu zuen (Iztuetak orduan 41 urte dauzka) Espainian azpikeriaz"; nola Fernando VII Napoleonek deiturik Baionan zegoela, haren anai Jose Madrilen instalatu zen. "Guztiaz ere, bigaramunean Guipuzcoaco, Arabaco, Bizcaico, eta Nafarroaco Diputadu jaunac alcaturic aurqueztu citzaiozcan Napoleoni, esaten ciotelaric, ezen, Jauna, gure Erregue Fernando zazpigarrenac aditzera eman digu, Españaco Erresuma andiaz jabetu dala bedori. Beragaitic gatoz, bada, Bedorren Mesedea jaquiñaren gañean ifintera, gure lau Provincia berecituac noiztic, ceren bidez, eta cer itzen azpian jarriac dauden Gaztelaco Erreguearengana; eta uste oso betean arkitzen guera, entzungo dizquigula gogoz eta donarioz gueren esacari bidezcoac. Escatu bezalaishen eman cien lecu Napoleonec lau Diputaduai itzeguiteco; ceintzubece ifini ciozcaten beguinen aurrean argui ta garbi eta cearó, beren dempora guztian gozatzen cituzten gallaldia maitagarri, jatorrizco oitura, eta escubide beren berenquiac, Españaco Erregueac zucenquiró beti opará gorde izan diezatenac.

Diputadu oei beren esacuntza entzundacoan Napoleon-ec erantzun cien, ezic, Españaco Provinciac jatorriz dituzten oitura ta escubideac galtzeco asmorice etzebala artu izan beñere, ez eta artuco ere; eta berpertatic jarrico cebala guizon jaquintsunaquico Batzar bat, gauza oen sustraia nondic nora cetorren ondo icusiric, berari contu emateco itzaren azpian; eta oec beren eguinquizuna bear bezala betetacoan, gordeco citzaiola nori bere escubidea utsaldiaric bague".

Eta Iztuetak komentatzen du:

"Españaco Coroia aïñ erraz Fernandori quendu izan cion Napoleon andia bere indar guztiaquin etzan ausartatu, Provincia oei beren oitura eta escubideac ucatzera, gogoaz bestera bazan ere".

Ikusten denez, eta Del Burgotarrak Madrileko telebistaren bitartez boto batzu gehiago lortzeagatik esaten eta berresaten badute ere, Nafarroa. beti bere ahizpekin batera egon da denean.

Eta baterago egongo dira laster, hurrengo bi gerretan.

Napoleonek ez zuela bere hitza bete dio. Ez zituen herriaren aurrelari herritarrak jarri, frantsesak baizik; eta Probintzia guztiak jarki zitzaizkion eta gipuzkoar leialak aurrenengoen artean egon omen ziren nahizta plazak, gazteluak eta hiririk garrantzitsuenak haren mende egon, eta eraso, jazarri eta bizitza azpikoz goratu zieten. Frantsesek basakeria kriminalez ihardetsi zuten, gipuzkoar gudarien gurasoak eta anai-arrebak ere atxiloturik, eta hauk hiltzen zituztenean bideetan eskegitzen zituzten eskarmentagarritzat.

Horrela frogatu zen, dio Iztuetak, ez dutela gure herria indarrez menderatzerik inoiz lortu. Frantsesek gure historia irakurririk eduki behar zuten, dio, eta ez zuten egin zuten bezala jokatu.

Gaur ere zerbait berdintsua esan dezakegu.

Iztuetak kantaldi hunkigarria egiten die mendietan Napoleonen gizonei gerra egin zieten gipuzkoar gazteei, frantsesek eskarmentagarritzat moztu eta erre zituzten mendiak, eta frantsesek ez zutela nahi gauzez mendietan ibiltzerik dio, hil eta desarmatu egiten baitzituzten; harmak, guti, burukomin handia ziren.

Honek urte batzu geroago Zumalakarregik zeukana gogorazten du, eta oraingoan espainiar harmadaren aurrez.

Eta Iztuetari lehen karlista gerrako kapitulu zaila heltzen zaio, euskaldunek Bergaran, oraindik bere herriaren historilari zaharraren bizkarretan dagoen besarkada gezurtiz, amore eman behar izan zutenaz gerokoa.

"Ez naiz ni sartzen –dio kontuz agureak– errazoa zein aldetacoac zuten erabaquitza".

"Ez eta ere, sei urtean iraun daben aserre mingarri onen saiets guztietaco zauriac aguertaratzera; cergaitic daquidan, itzbide oni dagozquion arguibideac izcribatzen ari dirala guizon jaquinduria andicoac bata bestearen leian, Españan ez ecic, Fancian ere, eta ciertoroagoa izango da oen eguitade andi obetandezcoac zabaltzea lenago, ni ari naizan chiqui maiscar au baino. Guztiaz ere, berac esan aldizaquetequean gauza balioso gogoangarriai ecerchu ere quendu bague, ezani bear ditut emen, Guipuzcoaco erri chiqui Ormaiztegui-coan jaio eta acitaco On Tomas Zumalacarregui-coac Euscaldun mendimutilaquin eguin izan cituen azaña andi guztiz oroitcatriac".

Hementxe azazkatu ahal izan zuen Iztuetak Zumalakarregiz hitzeginez, hura hilik baitzegoen.

Gerra hemen, Euskal Herrian, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hasi zela lehenengo dio, eta gero Nafarroan. Hala kondatzen du Iztuetak, Euskadirik izango den ere jakin gabe, Euskadi betidanik baitago gure herriaren historian, eta, nola ez, hura kondatzen dutenengan.

Kondatzailea euskalduna izatea garrantzizkoa da.

Besteek beren nazionalitateen edo beren estatu edo inperio gutizien onerako idatziko dute.

"Euscaldun leialac alcargana biribillatu ciradenean berpertatic jarri izan tiran menditar guztiac beren anaia Zumalacarregui-ren escura; eta onec gogoz artu izan cituen beregana, maquilla utsac beste armaric erdiac baino ere gueiagoc etzutela"... "Guipuzcoan, Araban, Bizcaian, eta Nafarroan, Donostia, Vitoria, Bilbao, eta Iruñez landara, Erri guichi guelditu tiran Zumalacarreguic beretu bague"... "Bilbaoko Erriari lambide onetan gogorqui ari citzaiola bala erdi-galduren batec zancoan uquitu..."

Eta hemen garai hartan izan zuten duda:

"Ta gueiagoco bague izan zan iha, edo ez daquit illerazoa, aña aña andiac eguiñaz cijoan On Tomas Zumalacarregui-co jaun prestua; ceñaren icen gozo Euscararen lege berequia bici izango dan mundua mundu dan arterañoco guztian".

Eta Iztuetak, euskaldun osoak, nazionalismo antolatu gabeko nazionalistak, politikaz adierazitako abertzaletasunik gabeko abertzaleak, gure mundu politikoaren zortea, beti izan den bezala, adierazi gabea baina bere arimaren hondoraino sentitua eta hura bizi dadin hiltzeko prest, Iztuetak, diot, Frantzian inprimaturiko egunkari batetan irakurri duela kondatzen du "bertaco Euscaldun emaien batec bere itzquera ederrean ezarritaco izneurto gozoqui oec.

Zumalaren icena
 Eta haren omena
 Hurrun da hedatzen;
 Erregueren gorhetan,
 Hiri eta kampanetan,
 Nork ez du aditzen
 Zumalaz mintzatzen?"

Zer besterik esan zezakeen Iztuetak euskaltasuna Bidasoaz alde bietara dagoela adierazteko?

Eta Zumalakarregi Napoleonekin konparatzen du.

"Bañan Zumalacarregui, maquilla soillaquico bere anaia Euscaldun garbiaquin diruric bague, eta mendi latz goitituac beste gordelecuric etzebala, Erri ta Plaza guztiac berenac ceuzcaten tropa izugarri anitzen contra asi bazan ere, berari bazaric irabaci izan etzion inorc ere. Pare bagueco ondra gain gaineco onequin Zumalacarregui joan zan mundutic, ceñaren icen gozoaz oroituco diran Euscal-errietaco mendiac, mundua mundu dan arte guztian".

Ez dago gorespen zintzoagorik eta zakonagorik eta beraz hain xumerik egiterik bere herriagatik gudukatu eta hil den gizon bati.

Eta garai hurbilago bat gogoraztera naramaten gogoeta batzu egiten ditu:

Lehen Euskal Gobernuko lehendakariaren, Jose Antonio Agirreren, heriotza.

"Jaungoicoac beregana Zumalacarregui eraman izan cebanean, Euscal-erri guztiac atsecabetu tiran arras; batetic, beraren aulquiraco beste alaco bat topatu ezin cezaquetequalaco..."

Eta Marotoz mintzo da, nola ikusi zuten bere garaian.

"Aguertu zan Euscal-errira Maroto-ren Echecho icenarequico guizon arguidotar bat, Euscaldunen zorioneraco Cerutic Aingueruac biraldua bazan bezalaco otsarequin. Eta bazan miresteco laimbat ere. Icusiric, bada, itsasoaz arontztic cetorrela bere gogoz Euscal-erriari laguntzera ixioeren ere bear etzan guizona, Euscaldunic ezagutzen etzebana, eta Euscaraz itzcho bat bacarra ere etzequiena jnorc maitatuco etzeban bera? Lore eder ugariz ondo jancitaco guizon Americatic etorritaco onec, Euscalerrian eguiñ izan ceban lecu mendi-mutil guztien Buruzari bera jarteraño".

Honela Iztuetak Maroto eta Espartero aurrez aurre jartzen ditu bakerakotzat. Eta hau Foruak errespetatzekotan eta Euskal Herriko eskubideei okerrik tikienik ez egitekotan bakarrik izan zela gogorazten du.

Eta mutilak beren Forua, beren eskubideak eta beren ohiturak osoki errespetatuko zirelakoan etxeratu ziren.

Eta badakigu zer geratatu zen: beste iruzur bat gehiago.

Eta, jakina, lehen gerra honek beste bigarren bat ekarri zuen.

Bigarren karlista gerra honetaz: 1872-76, Iztuetak ezin digu ezer esan, 1845ean hil baitzen, bere liburua argitaratu baino bi urte lehenago.

Bigarren honetaz bere herriaren eta bere eskubideen maitasun exenplua dugun gizon bat mintzatuko zaigu, oraindik bizirik baitago: Inazio Perez-Arregi.

Ez zuen berak bigarren karlista gerra honetan egoterik izan, baina bai bizi izan zen han ibilitako askorekin. Honetaz Perez-Arregik ia lekuko gisa hitz egin dezake, eta jakintsu gisa, zeren gerra izugarri hartako protagonista askorekin pertsonalki harremanuz gainera, Zuzenbidea ikasi baitzuen, hartara dedikatu zen, eta Foruari buruz autoritatez idatzi du.

Foruaren degradapen eta heriotzaren lekuko bat da, eta bizia gainera.

Bigarren gereraren aurretiko gisa, Espartoren hitzak aipatzen ditu 1837ko maiatzak 19an Hernanin gipuzkoarrak gezur batekin lasaitzeko esanak "...Galdu bildur zineten foru hau kontserbatuak izango zaizkizue, inoiz ez baita zueri hoik kentzerik pentsatu". Baina askatasuna kendu zitzaigun. Eta 1872ko apirila da karlista mugimenduak berriro ere leher egiten duenean. Kondizio okerragoetan (Zumalakarregi falta baitzen) eta lau urte geroago, hondamenarekin, apirilak 6ko (1876) Erret Agindua dator, eta Perez-Arregik dio: "Eztabaida luze eta beroen ondoren, 1876ko uztailak 21eko lege zitala onetsia eta promulgatua izan zen".

Eta Madrilen foruak bikainki defendatu zituzten gizonak omenaldi honekin gogorazten ditu:

"Oroimen hilezkorreko izenak dira: Olano, Manterola, Lersundi, Altuna, Egaña, Moraza biak (beste batzuren artean), Villabaso, Barroeta-Aldamar, Agirre Miramon, Llobregat kondea (Berkaiztegi) eta Pidal eta Mon".

Gizon hauetaz, bigarren erorreran defendatu zituzten Foruetaz, inork ez digu tutik esan Euskal Herrian instalaturiko espainiar eskoletan, errege godoen eta beste inbasore pila baten zerrenda luzez ok eragin badigute ere.

"Bi lege abolitzaileak –dio Perez-Arregik– bi gerra zibilen bukaeran diktatuak izan ziren: biek hondaturik utzi zuten Gipuzkoa (orain bereziki probintzia honi dagokio). Irabazleek pozik hartu zuten bakea; galtzaileek, konponketa transakzional baten agintzarietan fidaturiko etsipenez".

Itxaropena ustel atera zen. "Oso bestelakoa izan zen 1876ko uztailak 21eko kongresuko sesioa. Legea botaturik, gure ordezkariak, mindurik, nahizta ez apaldurik, beren aulkiak uzten dituzte, gure Foruak eta mendeetako askatasunak aboliturik ikustearen saminez. Ez zen txalorik entzun; galtzaileak erretiratzean, haienganako errespetuak eta segur asko egintza zital baten kontzientzia salatzailearen abotsak ezarritako isiltasuna zen. Abots hari beste abots bat bildu zitzaion. Castelarrek esan zuen: "Zerbait handia hil da gaur Espainian".

Hil hori oso bizirik dago, diot nik orain, hirugarren gerra inzibilaren lekuko, hango ankerkerien, hango heriotzen, hango espetxeen, hango torturen, euskaldunen eta hauen hizkuntzaren eta hauen askatasunaren pertsekuzioen lekuko. Denak batera idazten direnean, gezurrezko barbarokeria irudituko zaie hemendik urte batzutara irakurtzen dutenei; hil hori bizirik dago; herri bat ez da espetxean hiltzen, ez fusilatzen, ez desagertzen, nahizta gainera, eta hau oso astuna da, ahaztu.

Euskadi, 1977an, bizitasun politikoak berak bakarrik, burruka gogoak eta egiten hasi den haren eskubide aitortpenak beste gabe adierazten duen bezala, berriro ere zutik dago.

Zutik herri sentitzearen duintasunean, bakez: eta lehen bezala orain ere, bere kulturaren bizitza eta hura bideratzeko erakunde politikoak ukatzen zaizkion bitartean, biolentziazko, nolana hikoia den, ihardespen hori gertatuko da 1839tik gora azpiraturik eduki duten biolentzia instituzionalaren aurka. Orduan herri zenetik, denetik, haren jeinu zibilari eta duintasun nazionalari arrotz zaion espainiar probintzitasun arbitrarioa murriztu zuten.

Euskadi herrialde historiko oso argien amankomunitatea da.

Horrelaxe bakarrik, lotura konfederalez eta librez eginiko batasun berezkoan bersaturik, horrelaxe bakarrik izango gara gu genau, horrela Estatuko, Penintsulako eta Europako beste herriekin elkartzeko eta egunero egiten ari den mundua eraikitzeko.

Eta askatasunean egin beharrekoa da hori.

Vasconia, Euskal Herria, Euskadi, herri bat adierazteko izen desberdinak, eta hortxe dago Gipuzkoa, jakina, eta Euskadik bere izena historian entzuten hasi aurretik ernaitasun etengabea zegoen bizitzeko gogoari bizirik eusten dio.

Eta bizi nahi duen herria, ez da hiltzen.

Nola gaur Gipuzkoa bizirik, eta mindurik, dagoen, orain Alberto Schommerrek esango digu XX garren mendeko hizkuntza harrigarri horren bitartez: "klik" mekaniko soil baten aire xaloa duen begi magiko hori; baina atzean artista dago, sentimen berebiziko gizona, aurkitzen duen guztiari mezu ezkutuak esan erazten dakiena.

EL GRITO DE UN PUEBLO

Guipúzcoa

Guipúzcoa ya era un pueblo pequeño cuando lo sitúa Pomponio Mela, el geógrafo de los primeros años de la Era Cristiana, en "la Cantabria, y la Vardulia en los fines de España en la parte, que confina con la Francia, *como provincias diversas*,¹ que algunos han interpretado ser la Rioja con parte de Navarra, Alava, Guipúzcoa y Vizcaya".²

Esto de ser *diverso* y constituir estas regiones un pueblo, incluida en aquel tiempo la Rioja, no es, pues, invento de nacionalistas vascos de fines del XIX, con Sabino de Arana, ni de hoy.

Y Guipúzcoa sigue siendo hoy lo pequeña que era entonces.

Que es antigua, ya está dicho; para qué más. No vamos a repetirnos ahora los cuentos que han venido rodando después, copiándose los unos a los otros según los prejuicios del tiempo y su fantasía particular, hasta más acá de Iztueta, de que los vascos venimos de un Tubal (quinto hijo de Jafet, nieto del Patriarca Noé) que llegó aquí terminado el diluvio universal exactamente 1.799 años después de la creación del mundo, a 143 del diluvio, a 12 años de lo de Babel y 2.157 antes de nacer Jesús en Belén.

De estos cuentos dichos con esta precisión de camelo porque no había otra mejor hemos vivido muchos siglos.

Y lo que da de sí la memoria selectiva y servil de los que escriben a sueldo: hay quien se quedó con ese calendario todavía; insiste con glosas aún más oscuras y turbias que el original del cuento la historia de los vascos, y les saca la foto velada de cuando los geógrafos hispanorromanos los sitúan en el tiempo oscuro de las grandes tribus que constituían la Vasconia de que nos hablan Plinio y Ptolomeo.

Estas tribus pasaron, de cualquier modo, a integrar esto que llamaron entonces, y después, Vasconia.

Vasconia ya tiene Duque el siglo XII, lucha contra los francos al norte y los árabes al sur, y se expande por Aquitania; es la semilla del Reino que nombraron de Pamplona a principios del IX y luego se le llama de Navarra. Esta Vasconia tiene, como dice Luis Villasante hoy, el mismo sentido que Hispania, Britannia y Sardinia.

Es una Nación.

Y aquí, en este primer cuerpo político formal de lo Vasco, de los Vascones, Vasconia, esta ya con su nombre Guipúzcoa.

Que al principio no aparece escrita exactamente así, sino Ipuzcoa: en la escritura de donación de San Salvador de Olazábal, otorgada por Sancho III de Navarra en 1025, y en una donación hecha por su hijo Sancho IV el año 1066.

Pero antes de entrar en la particularidad de Guipúzcoa vamos a fijar algo más el contexto vasco en el que está situada la Provincia (Provincia, como vemos, de antes del año 1000, y no producto de despedazar un territorio arbitrariamente y a lo francés por

¹ Subrayado nuestro.

² *Compendio historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, por el Doctor Don Lope de Isasti en el año 1625. Impreso en San Sebastián por Ignacio Ramón Baroja, 1850.

Decreto Real ayer mismo, el año 1833), contexto sin el cual no tendrían sentido muchas cosas que la han traído hasta lo que es hoy.

Porque Guipúzcoa es sobre todo Vasconia.

Culturalmente, y por tanto en su raíz política más honda, la *Vasconia* que nos llamaron los demás es *Euskal Herria*. Tenemos que insistir en la perogrullada de que una cosa es lo que nos nombran por fuera, y otra aquella en que nos definimos desde dentro sin siquiera saberlo. Y por dentro, en la intimidad de nuestro cuerpo político, los vascos nos hemos llamado desde la antigüedad mediante un concepto cultural: *euskaldunak*, los que hablan euskera, y hemos llamado a nuestro País, *Euskal Herria*, el Pueblo que habla Euskera.

Está claro, pues, que la lengua es la que nos ha hecho a los vascos lo que somos; o al revés, puesto que las dos cosas son verdad.

Porque ambas se han hecho la una a la otra.

De aquí que la conciencia de nuestra nacionalidad esté en razón directa de la posesión viva del euskera; y la razón por la que los ataques de todos los regímenes que se han sucedido en el Reino de Castilla y luego en el Estado español moderno han tenido, y con sus matices y grados diferentes, la misma dirección genocida contra las lenguas habladas por los pueblos que la integran.

Entre ellos, Vasconis, Euskal Herria, Euzkadi.

Pero no vamos a quedarnos ahora aquí.

El que quiera saber por dónde y cómo y por qué ha venido la lengua de los vascos hasta donde está, muy malherida pero aún viva y exigiendo un puesto al sol de la cultura universal, tiene *El libro blanco del euskara* que acaba de publicar la Real Academia de la Lengua Vasca, *Euskaltzaindia*. Lo que sí parece indispensable decir aquí es que Guipúzcoa no es comprensible en su historia ni en su cultura sin esta Vasconia antigua que a través del Reino de Navarra esta derivando a un nuevo destino político de signo equivalente pero de expresión moderna: Euzkadi.

Pues aquí, en esta Euzkadi que aspira a englobar confederalmente las seis regiones de uno y otro lado del Bidasoa (comprendida en Navarra su Sexta Merindad de Ultrapuertos) esta Guipúzcoa.

Y Guipúzcoa, a la manera en que cada hermano de una familia tiene una historia individual, tiene la suya.

Aunque ya se ha dicho que ésta no será una historia formal de Guipúzcoa, sí quiero dejar claro de entrada un punto que muchos no entienden todavía: el sentido que tuvo la incorporación de Guipúzcoa al Reino de Castilla, y la significación política que se deriva.

De esto han hablado muchos con autoridad.

Pero ya señalé en mi Síntesis³ del error que se comete a menudo al dar hoy a algunos términos una interpretación que no tenían en su tiempo. "Incorporación" a Castilla no quiso decir el año 1200 "unión" o "fusión". Tampoco "Castilla" se refería a la Monarquía, sino al Rey de Castilla, y al Rey, como dice don Manuel de Lecuona, sólo en términos de Jefe Militar y Juez Supremo de Apelación; una especie de Ministro de la Guerra o Ministro de Gracia y Justicia. Con el tiempo, el término Rey ha ido

³ *Síntesis de la Historia del País Vasco*, ahora en su cuarta edición: Ediciones Vascas, San Sebastián, 1977.

significando algo más amplio y más ejecutivo; pero quien habla de hechos pasados con la semántica que le es propia hoy comete un error de perspectiva histórica.

A veces con toda malicia, claro.

Guipúzcoa se "incorporó", pues, al Reino de Castilla mediante una unión personal, y está claro que las uniones personales se refieren a lo convenido con la persona que ostentaba el cargo de *una especie de ministro de la Guerra que era común a varios estados*.

No lo dice sólo Lecuona. Lo dice también un castellano como Anselmo Carretero y Jiménez:

"Reunían, pues, las comunidades todas las condiciones de una República autónoma, aunque incorporadas al Reino de Castilla: y eran análogas en las circunstancias de aquella época (1212) a las repúblicas o estados federados que hoy integran lo que en Europa se suele llamar República Federal y en América, Estados Unidos..." "La unión a la Corona de Castilla se hizo mucho más tarde. Unión de tipo federal, mediante la persona del Rey, pacífica y libremente aceptada, por lo cual las repúblicas vascongadas se incorporaban a la Corona de Castilla con la condición fundamental de que se respetaran los Fueros; verdadero pacto de monarquía federativa que todo rey de Castilla tenía que confirmar con el juramento foral".

Hoy estamos curiosamente en un momento en que se habrá de volver a esta letra, y *sobre todo a su espíritu*.

Durante siglos, y hasta el cercenamiento por engaño y contra Ley (comprobable hoy por los juristas) en 1839, las cuatro regiones vascas de este lado del Bidasoa se vinieron rigiendo por el Régimen Foral, que no es ni más ni menos que expresión de la soberanía del País, a la que correspondía la facultad de otorgarse sus propias leyes.

Don Manuel de Lecuona nos viene de decir en un trabajo periodístico reciente⁴ algunas notas salientes de una reunión celebrada entre estudiosos del Fuero en la Diputación de Guipúzcoa (1976) bajo la presidencia de José María Araluce, bien lejos de ser tildado de nacionalista vasco: 1) el Fuero de Guipúzcoa es tan viejo como Guipúzcoa misma (y no tiene fecha) porque es la vida jurídica que ha hecho desde su prehistoria; es su derecho consuetudinario inmemorial; 2) Araluce dijo: "La historia escrita está por encima de la letra de la Ley"; 3) otra cosa son después las recopilaciones escritas que se han hecho; la del Licenciado Zatandegui el siglo XVI, la de Felipe de Aguirre el XVIII, y la última publicación que se hizo en 1919; 4) "las Juntas Generales –son palabras de Araluce– con aquello que 'se obedece, pero no se cumple', eran soberanas o casi soberanas"; 5) Araluce insistió sobre la unidad de las cuatro regiones subpirenaicas como integrantes de una futura vocación de Estatuto político que Lecuona precisa que nace "por los lazos de cultura, sangre, geografía, voluntad expresada en las guerras por recuperar los Fueros, por su folklore, literatura oral y escrita, bailes, canciones. Y también por su derecho consuetudinario, sobre todo en su Derecho Privado, pero también en el Público". "Muchas de las instituciones de Derecho Público son iguales desde la punta de Zuberoa hasta la otra de Vizcaya".

Traigo estas referencias del eco que hacen en nuestros días, y en círculos como éste, de la Diputación de hace un año, en que no había rastros de intención nacionalista al

⁴ "Foruak dirala-ta itz gogoangarri batzuek", Deia, 10-6-1977.

interpretar estos Fueros por los que nuestro pueblo, y también Guipúzcoa, claro, sigue luchando a través de toda clase de dificultades porque son su Libertad.

Es la voluntad de nuestro pueblo que vive apuntalada en la justicia, que es permanente; y es el derecho que nos tienen que confesar aún aquellos que lo han conculcado.

Este es el testimonio que he querido dar con esta cita.

Sin embargo, no se trata aquí de escribir la historia formal de Guipúzcoa.

Por una parte, de esta clase vertebrada de historia con algún que otro hueso de plástico para hacer doblar el espinazo de los pueblos a voluntad del que manda, ya se ha escrito mucho sobre la Provincia. Queda, sin embargo, muchísimo más por escribir con la libertad de decir de los vascos con su propia óptica, y no la del coronado de turno por precios de títulos y munificencias que han costado tan caro a nuestro pueblo. Pero no es este libro de esa forma de contar los cuentos para que se duerman engañados y felices los príncipes. No es esta la historia que quiero contar de mi Provincia. Ni tampoco quiero inventar otra. Sólo quiero, y este va a ser mi empeño, dar unos testimonios vivos de guipuzcoanos que han ido diciendo lo que han visto, han oído o sienten por su cuenta.

Quedará sólo lo que recogen vivo en cada tiempo.

Y esto para dar los antecedentes de lo que ha visto y escrito en su estupendo lenguaje fotográfico un testigo de nuestro tiempo: Alberto Schormmer.

Este es el único objetivo de este libro.

Naturaleza y cultura

Después de esta brevísima introducción para situar a Guipúzcoa en Euzkadi, su cuerpo político natural, quiero plantearme la manera en que voy a mirar, y, por tanto, a ver, la Provincia.

Hay muchos caminos posibles, y hay que elegir uno sólo.

En cuanto a esta opción única de partida, me la planteo ya con una doble significación: 1) el camino de buscar este conocimiento de Guipúzcoa, y 2) la manera de presentarlo ante la atención del lector.

En cuanto al PRIMERO:

Opto por buscar a conocer lo que ha sido Guipúzcoa a través de guipuzcoanos escalonados en el tiempo, al menos tres siglos, porque Guipúzcoa no se ha hecho en un día, ni en siete, y de estos autores, aquellos que pueden darme de algún modo razón directa de su experiencia, eludiendo de su trabajo los materiales que le han llegado a través de la erudición fácil de ir acumulando, y copiando, los datos, a menudo maliciados, en otras falseados sin querer, de lo que ha pasado en nuestro País; estoy de nuevo ante el eterno problema que plantean esas cajas chinas que se van conteniendo unas a otras, cada vez más chicas, y ahora frente a otra elección, y escojo a Martínez de Isasti (XVII), Larramendi (XVIII) y el primer seglar vasco que escribe en euskera sobre temas no religiosos: Iztueta (XIX); todos ellos distantes el uno del otro más o menos cien años.

El siglo XX es para mí un pie forzado: Alberto Schommer.

Tengo que proceder, pues, a la manera de un bertsolari de nuestro pueblo.

El pie forzado es Schommer porque este libro fue concebido en función de su trabajo de testigo de nuestro tiempo que se expresa en el lenguaje que es de nuestro siglo: la fotografía en color. Si consigo la rima o no, es cosa de mi sola responsabilidad, ya que él hizo su trabajo prodigiosamente; los ripios que halle el lector son todos míos.

Aquí, en lo de buscar los antecedentes testimoniales de guipuzcoanos, defiendo yo la teoría de que sólo aquel que pertenece a un país y lo quiere, lo quiere como si fuese suyo, puede aproximarse a lo que es de verdad el cuerpo y el alma de un pueblo. El amor puede cegar, es cierto; pero sin amor no hay conocimiento que sea profundo, y por tanto válido, ni se puede defenderlo con toda el alma. Lo mismo se dice del conocimiento que exige aquello que es objeto de amor, porque nadie ama lo que no conoce.

Amar para conocer, conocer para amar.

Aquí, el objeto de nuestro estudio es la tierra y el pueblo que es de uno. Ya sabemos lo difícil que resulta expresarse de las cosas que son de uno con equidad, y esto es cierto sobre todo cuando uno se planta en esta actitud de averiguación ante el cuerpo y el alma de su *país*. Porque son pocos los sujetos que mueven al hombre con más pasión que *su* tierra y *su* pueblo, que es como decir *su* Patria. El hombre nace vinculado no sólo a otros seres de los que nace o con los que vive, y quiere, sino que nace atado por estos vínculos de la lengua, la costumbre, todo su entorno cultural, como de un cordón umbilical inmaterial y muy difícil de razonar, evaluar y expresar; guarda el hombre este sello

indeleble de pertenecer a unas montañas, al mar, a una lengua, a los seres humanos que encontró y sintió cerca al nacer, a los que lo educaron, con los que compartió luego los frutos o las angustias a veces sin fruto del trabajo en común.

Es curioso cómo cada uno de nosotros recuerda un cielo, una casa, una cocina, una escalera, la taza donde tomaba sus sopas de niño, el color de los ojos que tenía una muchacha, el genio de un vecino, los nombres de los amigos, una gitana que pasó por el pueblo asustándonos por prejuicios que no eran nuestros todavía pero que nos los pasaron y después hemos tenido que vencer conscientemente, el primer trabajo, los coscorriones en la escuela, el maestro que nos los daba, lo que aprendimos, la decepción de lo que acaso pudimos aprender entonces y no supimos apresar, y el perro que era nuestro o de nuestro vecino, el día en que murió, una tía porque era buena o mala, según la suerte de cada quién, el abuelo que conoció uno en un retrato con barbas, el fuego de campana si uno es bastante viejo para eso, la económica si es más nuevo, el de gas o de electricidad si está nuevecito todavía; un gato negro que se nos muere, el tordo que tenía una tía en el balcón, los nidos que buscamos, los pajaritos que matamos en sus huevos todavía y sin maldad, por pura curiosidad, la vecina que esperaba un hijo. Todo este mundo que ya es nuestro para siempre, del que no queremos, pero, sobre todo, no podemos desasirnos, porque ya es nuestro para la corta vida que nos ha tocado sentir, gozar y padecer.

Este mundo reducido y a la vez complejo es nuestro para siempre.

Se habla a menudo de Patrias que son chicas y otras que son grandes. Yo debo ser fiel a mí mismo al decir que la patria chica que recuerdo es parte entera de la grande que he venido sintiendo después, con un sentido político que es de nuestra inteligencia y de nuestra voluntad, aquella en la que pueden florecer y protegerse las semillas que uno ha encontrado o ha sembrado al crecer. Y al mismo tiempo se me ha incorporado como brote nuevo y en la conciencia otra que no es una segunda Patria, sino eso, *otra* Patria, Venezuela, que también quiero en su geografía y sus gentes.

Aquí nacieron nuestros hijos, se van muriendo nuestros viejos.

Siguen siendo dos niveles distintos, claro, pero los dos fundamentales.

Lo demás, el mundo que nos rodea, con proximidades y lejanías algunas veces arbitrarias, otras inevitables, ese mundo, digo, que es ancho y variado, a veces rico, vinculante, queda en nosotros de una manera distinta a las impresiones primeras de uno y de sus hijos; están más en la memoria y la conciencia y la inteligencia, de una manera más racional, menos interiorizada.

Son dos entornos distintos; no sólo por la proximidad, sino también por la profundidad.

Si el hombre viviese mil años, acaso tendría tiempo de borrar los primeros recuerdos fundamentales con los demás que están más en la elección y el interés racional; pero desde Matusalen han sido pocos los que han pasado de los ciento veinte años, y el hombre se queda casi en la cáscara de sus posibilidades. Acaso es mejor así. Pero así como nadie sabe lo que piensa un gato, porque no ha sido gato nunca, no puede uno ponerse a especular acerca de lo que sería el hombre si viviese mil años.

Nos contentamos con expresar lo que sentimos los hombres de hoy.

Y diciendo que todos pensamos diferente.

Pero yo, que estoy frente a esta historia de una parte de mi pueblo, Guipúzcoa, voy a tomar un camino de andar y de ver.

Es una elección.

Y esta elección va por los caminos de otros hombres de mi pueblo que han ido viendo *cómo* es Guipúzcoa. Como es para cada uno de los que cuenta la experiencia, claro. Que no son muchos. Porque son poquísimos los vascos que escriben. Y de estos pocos que han escrito, elijo unos pocos que en lugar o además de escribir su historia partiendo de documentos escritos por los amanuenses de los reyes de Castilla, por encargo y a sus expensas, y Dios sabe bien que para su servicio, han escrito contando casi como periodistas que fueron de su tiempo aquello que veían, denunciando y elogiando según los prejuicios, la cultura, el talante y el gusto de cada quién.

Yo, que soy otro periodista, y de este tiempo, quiero hacer este recorrido con ellos.

No sólo para satisfacer mi curiosidad, y la del lector, sino para ponerla frente a otro testimonio vivo de nuestros días.

Aquí, en este libro, quien habla más claro y con más autoridad que yo, es Alberto Schommer. Schommer sabe bien que no sólo puede hablarse con palabras. Hay formas de decir las cosas, infinidad. Hasta se puede hablar callando. Porque no es cierto que todo el que calla otorga. Hemos pasado por un silencio de cuarenta años terribles, y los periodistas o escritores o artistas de las muchas paletas de expresar cosas como hay, sabemos que nuestros silencios terribles, espantosos, no han concedido nada al dictador. Si hubiese sido así, hubiésemos tenido la salud robusta y el alma tranquila, cuando lo que hemos cultivado casi todos no han sido el humor y las gracias, sino úlceras y nervios rotos. Hay mucho hombre por ahí que se salvó de las cunetas, de los "paseos", para morir de dolor de alma en una cama de hospital, y otros que viven todavía pero ya no son ellos mismos, porque están injertados de gorra, de sable, de bozal, de torturas de muchas clases, de miedo, de tricornio de pino, y ya no es ni la sombra del hombre que proyectó ser.

Aquí también, como en todas partes, hay algunos que han sufrido más que otros.

No diré que estos dolientes son todos artistas. Sería injusto. Me sentiría culpable y humillado en el momento del Juicio Final ante muchos carpinteros como mis abuelos y mi padre, ante muchos que me están llegando ahora con la sonrisa a la memoria de decirme: "no me vas a hacer la faena de olvidarte de mí". Sin quitarle a nadie la madera de artista que haya tenido como carpintero, como hojalatero, como fundidor, como hilandero, como pintor de brocha gorda, como estampador, como mecánico, como tornero o afilador, como labrador, como pastor, como sereno en una fábrica, sin quitar nada del sentido artístico que han alimentado el oficio de hacer bien las cosas los hombres que han cumplido algunos de estos oficios, o los pluriempleados artistas, que ha habido muchos, me consta, sin quitar nada a nadie, creo que el hombre que se dedica a expresar la vida a través de una sensibilidad y los medios artísticos que sean, y aquí vuelvo a Alberto Schommer y su fotografía, es el que gasta más de esa perceptividad con que nace cada cual.

